GUTUNEZKO AGIRIAK

PEDRO SAINZ RODRIGUEZ JAUNAREN GUTUNA

1983.urteko Abenduaren hasieran IKER-1 Madrilen aurkeztu genuelarik, espainiar Akademiako beste jaun batzuren artean, Pedro Sainz Rodriguez agurtu genuen. Espasa-Calpe liburutegiko aretoan esan zigunez, 1936.eko gerra denboran, Euskaltzaindiari buruz erabakiren bat hartu zen agintarien artean.

Dakigunez, Pedro Sainz Rodriguez Hezkuntza ministeritzako arduradun izan zen, orduan, eta bere karguari zegokion erabakia zen. Guk ez genuen horren berririk eta interesgarri iduritu zitzaigun.

Handik urte baten buruan, Aita Santuaren etorrera zela eta, Madrilera itzuli ginen Euskaltzainburugo-ko zenbait lagun. Bideko hitzaspertu horietako batean, noizbait P. Sainz Rodriguez jaunak esandakoa gogoratu zidan L. Villasante euskaltzainburuak. Gure Elkargoaren denbora hits harietako berri gehiegirik ez dugunez, gertaera horren berri zehatz jakitea on lekigukeela, ikusi genuen.

Besterik gabe, 1982.eko Azaroaren 5ean gutun bat idatzi nion Pedro Sainz Rodriguez jaunari, berak esandako erabakiaren berri eskatzen.

Bost egunen buruan, honako erantzun hau jaso nuen:

Pedro Sainz Rodríguez

Sr. D. José María Satrustegui
Secretario General de la
Real Academia de Lengua Vasca
PAMPLONA

Avda. América, 56-5.º dcha.
Teléfono 246 36 21
Madrid-25
10 de noviembre 1982

Mi distinguido amigo:

Recuerdo perfectamente el acto celebrado en la Librería Calpe con motivo de la presentación de un libro publicado por esa Academia. Allí aludí a mi actitud favorable a la libertad cultural de los vascos durante mi gestión como ministro.

Entonces, en plena guerra, había un sector en aquel ambiente, principalmente de falangistas y requetés, que parecían dispuestos a emplear la violencia contra las instituciones vascas de cultura. Yo decidí, para evitar cualquier acto de esta índole, simular que el Gobierno las había confiscado. Mediante esta simulación evité este peligro y cuando salí del ministerio quedaron esos organismos en su situación anterior.

Esta misma actitud de convivencia fue servida muy bien por Eugenio D'Ors, que era mi Director de Bellas Artes. El organizó una exposición de pintura, creo que en Vitoria, y animó a otras organizaciones, como el Orfeón Donostiarra, que cantó en diversos actos.

Estas son las noticias que de memoria, sin consultar papeles, puedo darle. Estoy a su disposición para cualquier puntualización que se le ocurra.

Le saluda cordialmente su s.s. y amigo,

Pedro Sainz

Une hartako **Euskera** birrargitaratzean, gertakizun garrantzitsu honen berri ematea, bidezkoa iduritu zaigu.

J. M. Satrustegi
Idazkaria

Bilbao 6-II-1941

Sr. D. Julio de Urquijo:

Carísimo amigo: Tengo el placer de darte una noticia que sin duda es muy de tu agrado. Dos veces han estado en esta oficina tres miembros de la Junta de Cultura, de esta Diputación: los Señores Areilza, Merino Urrutia e Igartua.

Me expusieron su proyecto de dar nueva vida a esta Academia. Y últimamente me visitó el segundo para decirme que ponían a nuestra disposición cinco mil pesetas anuales. ¿No podrías tú conseguir que tome igual acuerdo la Junta de Cultura, de esa Diputación?

Ahora voy a exponeros (a Intzagaray podrías darle cuenta de esto por teléfono) el plan que se me ocurre.

1.º Reunirnos cada dos meses, un mes aquí y otro ahí: exceptuando los de verano.

2.º Elegir como sucesor de Campion al P. Iraizoz, residente en Lecaroz; y a Nazario Oleaga, residente en Bilbao, como sucesor de Eguzkiza.

3.º Elegir como sustituto de Altube a Zamarripa de Bermeo.

4.º ¿Quiénes podrían ser nombrados como sustitutos de Olabide, Intza y Echegaray?

5.º Dedicarnos a terminar el Diccionario en preparación y a publicar nuestra Revista.

A los señores de que antes hablo les pregunté si podrían como antes tomar parte en nuestras reuniones los tres académicos vasco-franceses. Y me dijeron que por lo menos por ahora no.

Mucho gusto tendré, carísimo amigo Julio, en recibir pronto tu contestación y vuestro parecer, para exponerle a estos señores.

Con afectuosos recuerdos a Vicenta, se repite muy vuestro en el Señor,

Resurrección.

Junta de Cultura
de
Vizcaya

La Junta de Cultura de Vizcaya, en reunión celebrada el dia 10 de los corrientes, manifestó su deseo unánime de que el estudio y mantenimiento del Vascuence continue con toda intensidad, y para llevar a cabo esa idea, ha estimado de gran interés que dentro de estas iniciativas quede integrada la Organización de esa Academia de Lengua Vasca, con la que quiere mantener una estrecha relación y espera conseguirlo.

Para poner en práctica con rapidez los deseos de la Junta se han tomado varios acuerdos que me honro transmitir a Vd. y son los siguientes:

1.º Designar para formar parte de esa Academia al miembro de esta Junta Don Juan Irigoyen.

2.º Que a partir del 1.º de este año se subvencione esa Academia con CINCO MIL PESETAS (5.000) al año pagaderas por trimestres naturales.

3.º Significar a la Academia que estima conveniente la continuación de los trabajos que tienen emprendidos, tales como la publicación de su Revista, la preparación del Diccionario Castellano Vasco, y las demás publicaciones que sean de interés para el Vascuence y cuando se vayan a editar, estudiará las subvenciones que proceda.

4.º Que esa Academia se sirva dar cuenta de su nueva constitución y de los trabajos que vaya emprendiendo.

Dios guarde a Vd. muchos años.

Bilbao, a 21 de Febrero de 1941.

Por el Secretario,
Francisco de Igartua.

Sr. Dn. Resurrección M.ª de Azcue. Director de la Academia de Lengua Vasca.

EUSKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAK 1949-1964 (*)

(*) **Oharra:** Batzar-Agiriok orain arte argitara gabeak dira. Aurkitu dituguneko osotzen dugu Erakundearen historiarako garrantzizkoak direnez.

1949-I-28

Bilbon, mila bederatzireun eta berrogeta bederatzigarren urteko Ilbeltzaren ogeta zortzian, Euskaltzaindiaren etxean, Azkue jauna maipuru dabela, batzen dira Zemarripa, Krutwig ta Oleaga euskaltzaina il oneri dagokon batzarra egiteko.

Araudizko otoitza egin eta gero, lenaurreko batzar-agiria irakurri da ta aobatez onetsia izan da.

Urrengo Azkue jaunaz irakurri dau "Curiosos documentos copiados en la Biblioteca de Berlin de los manuscritos de Guillermo Humboldt a 5 de Agosto de 1922" deritxon lan polit bat. Atseginez entzuza izan da.

Zamarripa jaunak irakurri dau gero "Vocablos monosílabos vizcainos" deritxon beste lan bikain bat. Au bere pozik entzuna izan da.

Azkenez Krutwig jaunak irakurri dau "Mística, magia y lingüística" atzalburutzat daroan lan adigarri bat.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
Resurreccion M.ª Azkue

Zadorlaria
Nazario Oleaga

1949-III-25

Donostia'n, mila bederatzireun eta berrogetabederatzi'garren urteko Epaila'ren ogetabostean, Ekauta-jauregian, Azkue jauna maipuru dala ta Urkijo, Etxaide, Irigaray, Krutwig ta Oleaga euskaltzainak berton dirala, egiten da Euskaltzaindiaren il onetako batzarra.

Araudizko otoitzaz emoten dako asiera, ta urrengo, lenaurreko batzar-agiria irakurri da, ta aobatez onetsia izan da.

Gero Bruxelles'en, aurtengo Garila'ren 15-19'etan batuko dan Toki ta Gizonen izenazko irugarren Batzarrerako, Euskaltzaindia'ri egin yakon deia irakurri da. Ordelaririk ezin bidaldu izango dan arren. Euskaltzaindia'ren onetsi-erakusmena bidaltzea erabagi da.

Urrengo, aratu da Pedro Zabala Garay Bergara'tarrak toki-izenaz egindako lan astuna ta sakona. Poz-pozik ikusi da ta txalogarri eretxi da. Berau dala-ta, aitatuko yaunari aurrerantzean Urgazle izan dadila ebatzi da.

Baita, Bizente Saralegui baztandar euskaltzalea bere, Urgazletzat artzea erabagi da.

Krutwig yaunak "Estudios Vascos de Filologia comparada" deritxon lantxo bat dirakur. Atseginez entzun da.

Gero Irigaray yaunak adierazoten dau Eladio Esparza napar-euskaltzain izentaturiko yaunak esan dautsola bere zereginak eta beste eragozpen batzuk eztautzela leku emoten Euskaltzaintzean bear leiteken adikuntzea iminteko ta berau dala-ta, ardura ori itxi bearrean dala. Beraz, Euskaltzaindiak ontzat artzen dau Espartza jaunaren erabagi ori, ta aurrerantzeko Urgazletzat artzea ebatzi dau.

Espartza jaunak Euskaltzaindian izten dauan utsa betetako Joane Migel Seminario de Rojas, napar-euskaltzale bikaina, izentatzen da.

Bonifazio Etxegaray euskaltzainari bere euskaltzaintzeari eragon dakiola eskatutea erabagi da.

Azkenez, Iztegi-batzordeko lagunak adierazoten dabe, euren lanean diarduela ta F izkia amaitutzat itxi dabela.

Beste barik eta araudizko otoitzaz emon dako batzarrari amaiera.

Euskaltzainburua
Resurreccion M.ª Azkue

Zadorlaria
Nazario Oleaga

1949-VI-25

Bilbon, mila ta bederatzireun eta berrogetabederatzigarren urteko Bagilaren ogeitabostean, Bizkaiko Ekauta-jauregiko Jakintza-Batzordearen jai-gelan, Azkue jauna maipuru dala ta Zamarripa, Krutwig eta Oleaga Euskaltzainak, eta Joane Migel Seminario de Rojas Euskaltzaingeia berton dirala, egiten da gaurko egunerako deitutako batzarra.

Asiera, araudizko otoitzaz emoten dako.

Gero lenaurreko batzar-agiria irakurri da ta aobatez onetsia izan da.

Krutwig jaunak dino bere eritziz Euskaltzaindia zelanbaiten barriztu bear litakela, orain dagoan ta dabilen lez jarraitu ezkero, euskerearentzat onura gitxi datorrelata. Onezaz adierazoten dauz zertzelada batzuk. Aintzakotzat artu da Krutwig7en asmo ori ta urrengo batzaŕerako gai onezaz txosten bat ekarri dagiala erabagi da.

Urrengo jakin erazoten da Bizkaiko Ekautaren Jakintza-Batzordeak dinoala, Euskaltzaindian bere aurkeztaritzat izentauriko Irigoien jaunak kisa ori utzi dabela ta aurerantzean Batzorde atan Euskaltzaindiaren aurkeztaria artzeko gertu dagoala. Barri oneek jakinik, Seminario de Rojas euskaltzain barria, aitaturiko Batzordean Euskaltzaindiaren aurkezpena eroan dagian izentau da.

Ipar-Amerikako Idahon ta beste Amerikako errialde batzuetan euskaldun berein dagozala-ta, eurokin zelanbaiten alkartutea egoki izango litzakela-ta, Krutwig ta Seminario de Rojas Euskaltzainen lepora utzi da asmo ori zelan bete leiteken ikustea ta erakustea.

Eta araudizko otoitzaz batzarrari amaieran emon ondoren, ospatzen da andikiro Joane Migel Seminario de Rojas Euskaltzain barriaren arrerea.

Gelako ateak zabaldurik, agertzen dira jai onetara deitutariko ainbat lagun, emen artean Bizkaiko Jaurlaria, Bizkaiko Ekauta-Burua. Bilboko Endorea ta beste agintari ta andiki batzuk dirala.

Araudiak agintzen dabenez, Zadorlariak azaltzen dau batzarraren egikizuna, ta adierazoten dau euren poz-agiria nortzuk bidaldu daben. Onexek dira: Irigarai, Etxaide ta Etxegarai euskaltzainak, Naparroako Ekauta-Buruak, Berako Endoreak, Bilboko Irakastegi-Prantsesako Nagosiak, Inglaterrako ordezkariak eta beste batzuk.

Seminario de Rojas jaunak "Itz-barri sortea izkuntzetan eta batezbere euskerean" gaitzat artu-ta, itzaldi eder eta sakona irakurri eban.

Krutwig jaunak gai orrezaz ekinik, erantzun-itzaldi txalogarria irakurri eban.

Txalo ugari ta sutsuak egin ebezan entzuleak itzaldiok amaitu ziranean.

Urrengo Azkue Euskaltzainburuak, Seminario jaunari bere euskaltzaintzearen ezaugarriak emonik, Euskaltzaintzat artu eban, Euskaltzainkideak, Agintariak eta aurreko ozte guztiak besarkadak, eskutinkak eta zorionak emoten eutzezala.

Onelan emon dako amaiera batzarrari.

Euskaltzainburua,
Resurreccion M.ª Azkue

Zadorlaria,
Nazario Oleaga

1949-IX-30

Donostian, Ekauta-jauregian, mila bederatzireun eta berrogeta bederatzigarren urteko Irail'aren ogeita amarrean, Azkue jauna maipuru dala, batzen dira Urkijo, Lhande, Etxegarai, Elissalde, Zamarripa, Irigarai, Etxaide, Krutwig, Seminario ta Oleaga Euskaltzain jaunak il oneri dagokon batzarra egiteko.

Araudizko otoitza egin ondoren, lenaurreko batzarraren agiria irakurri da, ta aobatez onetsia izan da.

Urrengo Krutwig jaunak, lenaurreko batzarrean beregain utzitako txostena gertu dabela dino ta berau irakurten dau, itzez azalpen ta geigarri batzuk ezarriaz.

Arreta aundiz entzun da bere lan goragarri ori ta berton agertzen dituan asmoak arduraz ta zeazki azterturik, oraingoz ta aobatez auxe erabagiten da:

– Aurrerantzean, Euskaltzainak amazortzi izan daitezala.

– Kopuru au betetako euskaltzaintzat urrengo jaun onek artzea: Pierre Lafitte, René Lafon, Jean Saint Pierre, Louis Dassance ta Manuel Lekuona.

– Henri Gabel deduzko euskaltzaintzat artzea, ta beste euskaltzainak bezala batzarretara deitzea.

Krutwig jaunaren txostenak dakarzan beste asmo batzuri dagokezan erabagiak, geroagorako uzten dira. Eta artean Euskaltzaindiaren esker sutsuak emoten dakoz Krutwig jaunari bere lan goragarriaren ordain.

Gero adierazoten da Euskaltzaindiak beregaingo ardura ta eralketak betetako lain, orainarteko laguntza ta soroskiak naikoa etxakozala-ta, eurok geiagotu ta barriak eskatu bearren dagoala. Orretarako bear diran eskariak egitea erabagi da. Berau dala-ta, emendio barriak lortu arte, orain emon oi dan batzar-saria utsean bego.

Erdera-euskera iztegiaren lana darabilan Batzordeko euskaltzainak yakinarazten dabe lan ori aurrera doala ta "f" izkia amaituta dagoala. Gai oneri buruz, Euskaltzaindiaren barrizkuntzea guztiz amaituarte aitaturiko iztegi-lanak geldi dagozala erabagi da.

Beste barik eta araudizko otoitzaz emon dako batzarrari amaiera.

Euskaltzainburua — *Zadorlaria*
Resurreccion M.ª Azkue — Nazario Oleaga

1949-XI-25

Donostian, Ekauta-jauregian, mila bederatzireun eta berrogeta bederatzigarren urteko Azilaren ogei ta bostean, Azkue Jauna maipuru dala, batzen dira Etxaide, Elissalde, Zamarripa, Irigarai, Krutwig, Lafitte, Dassance ta Oleaga Euskaltzain jaunak, il oneri dagokon batzarra egiteko.

Bere irakasaldiak Bordelen atxikitzen dabela-ta egungo batzar onetara ezin etorri daitekela diño Lafon euskaltzain jaunak idazki baten.

Araudizko otoitza egin-eta, lenaurreko batzar-agiria irakurri da, ta aobatez onetsia izan da.

Urrengo, Oleaga Zadorlariak adierazoten dau, Baldes Goikoetxea Abadeak Bitori'ko Apezpiku-barrutirako Kristau-ikasbide barria euskeraz gertuten diarduela eta Apezpikuaren baimena lortzeko ta lan areian erabilitako euskerea aztertzeko Euskaltzaindiaren laguntasuna eskatu dabela. Leia aundiko arazoa zalako ta Euskaltzaindia batzeko astirik etzalako. Zadorlari berak lagungu dautso ta Apezpikuaren baimena lortu da ta laster argitaratuko da euskal-Kristau-ikasbide barri ori. Pozik entzun da guzti au.

Gero irakurri dira oraintsu Euskaltzain izentauriko Lafitte, Lafon, Saint-Pier, Dassance ta Lekuona Jaunak bidaldu dabezan eskutitzak euskaltzaingoa pozik euren gain artzen dabela adierazorik.

Lafitte jaunak irakurri dau urrengo Lakonbe euskaltzain izandako jaunaren gomuta omenean gertutako lan eder biozti bat. Txalo sutsu ta ugariak egin yakoz.

Krutwig jaunak irakurri dau gero "Antzundu Philologia" deritxon lan sakon bat. Arretaz ta pozik entzun da.

Urrengo adierazo da Zabala Euskaltzain-Urgazleak gertutako "Fonética de la toponimia vasca" lana. Donostian bizi diran euskaltzainak aztertu dagiela erabagi da.

Azkenez, Altube euskaltzainak, Gernikako Obietan ilobiren baten euskeraz yarritako oroitidazkiak agintariak kenarazi dabela dino idazki baten eta Euskaltzaindiak zer-edo-zer beronezaz egin ete-leiken itanduten dau. Seminario ta Oleaga jaunak euren ardurapean arazo au artu dagiela, erabagi da.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua — *Zadorlaria*
Resurreccion M.ª Azkue — Nagario Oleaga

Donostia'n, Ekauta'ren jauregia'n, mila bederatzireun eta barrogetamar garren urteko Ilbeltza'ren ogetazazpi'an, Etxaide, Elissalde, Lafitte, Dassance, Krutwig, Irigaray, Lekuona ta Oleaga euskaltzain jaunak etorririk, eta Azkue jauna maipuru dabela, egiten da il oneri dagokon Euskaltzaindia'ren batzarra.

Araudizko otoitza egin ondoren lenagoko batzar-agiria irakurten da. Guztiok onetsi dabe.

Urrengo Lekuona jaunak, sarrera-itzaldi antzera, lan eder bat dirakur. Bertan agertzen daben asmoa da *Euskaldunak* idazpurudun Nicolas Ormaetxea (Orixe)-k eskuartean darabilan olerkia agertzeko bear dan baimena lortzeko Euskaltzaindia'k aldan bestean lagundu bear leuskiola. Poz-pozik entzun da Lekuona jaunaren lan eder au eta aobatez onetsia izan da eta bere asmoa betetea erabagi da. Bere gain utzi da onezaz zer egin leiteken adierazotea.

Oleaga jaunak adierazoten dau urrengo beste ainbeste egin bear litakela Tomas Aguirre (Barrensoro)-k egindako UZTARO deritxon irakurgaia bigarrenez argitaratuteko. Au bere, aobatez erabagi da.

Gero Etxaide jaunak darakus Zabala euskaltzain-urgazleak gerturiko lan sakona. Toki-izenak da bere gaia. Ganera Etxaide jaunak dino lan au Boletin de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del Pãs"-en argitaratuko dala.

"De euskeralogia. El acento prosódico en las palabras vascas" idazpuruaz Zamarripa euskaltzain jaunak egindako lan bat irakurri da.

Urrengo, Krutwig jaunak irakurri dau "Euskararen idatzi hizkuntza" idazpurudun lan eder bat.

Azkenez adierazo da "United Nations"-en zabalkunde zaingoak euskeraz argitaratu dabela "Gizona'ren eskubidegai guzietez aitorkizuna", 1948'garrengo Gabonila'ren 10'garrenean, Erri Batzartuen Batzarre osoak ontzat artu zun eta zabaldu zun bezela.

Atsegiñez entzun dira azkenengo lau lanok.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua — *Zadorlaria*
Resurreccion M.ª Azkue — Nazario Oleaga

1950-III-31

Donostian, mila bederatzireun eta berrogeitamargarren urteko Epailaren ogeitamaikan, Ekauta-jauregian, Azkue jauna maipuru dala, batzen dira Urkijo, Elissalde, Etxaide, Irigarai, Krutwig, Lekuona, ta Oleaga Euskaltzainak, il onetako Euskaltzaindi-batzarra egiteko.

Araudizko otoitzaz emoten dako asiera.

Lenaurreko batzar-agiria irakurririk, ontzat artzen da.

Euskaltzain barrien sarrera aundikiro ospatzea erabagiten da. Onan-edo, egin leikez:

— Lekuona jaunarena, Iruñan Garagarril edo Errearoaren ogeita zortzian. Seminario yaunak erantzun dekio.

— Dassance jaunarena, Donostian, Uztailaren amalauan, Elissalde jaunak erantzunik.

— Lafon jaunarena, Baionan, Uztailaren amabostean, Krutwig jaunaren erantzumenaz.

Urrengo, Krutwig jaunak irakurten dau "Comentarios sobre la ortografía del Euskera" deritxon lan bat. Beronezaz oarrak eta eztabaidak sortu dira.

Azkenez, Oleaga Zadorlariak adierazoten dau Bilboko Erria-Epaikeri irugarrenak Euskaltzaindiari eskatu dautsala "Ondazilegi" itzak zer esan gure dauan, eta itaun oneri Euskaltzainburuak emon dautsan erantzupena. Onetsia izan da.

Beste barik era araudi-otoitzaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua — *Zadorlaria*
Resurreccion M.ª Azkue — Nazario Oleaga

1950-VI-24

Iruñan, Ekauta jauregian, 1950'gk. Garagarrilaren ogeitalauan ospatzen da aundikiro Lekuona euskaltzain barri jaunaren sarrera.

Naparroako Ekautak, Euskaltzaindiaren eskariari maitekiro erantzunik, bere magalpean artu dau yaialdi au eta Ekauta-jauregiko batzar-gela eder baten toki emon dautso.

Bertan batzen dira Azkue, Krutwig, Seminario, Lekuona ta Oleaga Euskaltzainak, Arellano ta Uranga, Naparralgunak, Gortari Iruñako Endorea ta Esparza euskaltzain urgazlea, Arelano jauna maipuru dala. Oste aundia dago ikusle ta entzule.

Oleaga Zadorlariak, araudiak agintzen dauenez, batzarraren eginkizuna azaltzen dau, eskerrak emonaz Naparroako Ekautari yai au egiteko emon daun laguntasunari dagokanez.

Lekuona euskaltzain barriak dirakur bere sarrera-itzaldia, "Euskal-Tokiizenetan Kurutzearen izena" da bere gaia. Ta oso ederto, sakon eta zabal azaltzen dau gai ori. Txalo sutsu ta ugariak artzen ditu amaieran.

Seminario jaunak darantzutso itzaldi labur ta polit bategaz. Onek bere, txalo biziak artzen dauz.

Zadorlariak aitatzen dauz artu diran poz-agurrak; Etxegarai ta Etxaide euskaltzainenak, Lekarozko ikatetxe-buruarena, eta beste batzuk.

Azkenez, euskerez ez yakiteaz tamal izanik, erderaz, Arellano jaunak itzaldi ederra dago, Naparroako Euskalzaletasuna agertu ta goraturik, ta Euskaltzaindiari biotzetiko agurra ta laguntasun eskintza eginik. Beronek bere, txalo asko entzun dauz.

Beste barik eta batzarkide guztien poz ta atsegin osoan amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua — *Zadorlaria*
Resurreccion M.ª Azkue — Nazario Oleaga

1950-VII-14

Donostian, mila bederatzireun eta berrogeitamargarren urteko Uztailaren amalauan, Udaletxean batzen dira Azkue, Elissalde, Krutwig, Etxaide, Dassance, Lafitte ta Oleaga Euskaltzainak, iragarrita dagoanez Dassance jaunaren sarrera ospatzeko.

Ezin baña, batzarra egiteko bear dan baimena lortu eztalako.

Ori dala-ta, biar, Baionan, Lafon jaunaren sarrera ospatzeko agertuta dagoan batzarrean, Dassance jaunarena bere egin daitela erabagi da.

Euskaltzainburua — *Zadorlaria*
Resurreccion M.ª Azkue — Nazario Oleaga

1950-VII-15

Baionan, mila bederatzireun eta berrogeitamargarren urteko Uztailaren amabostean "Musée Basque"-ko Batzar-gelan oste andia dala, Etxaide yauna maipuru ta Elissalde, Krutwig, Lafitte, Saint Pierre, Dassance, Lafon ta Oleaga euskaltzainak batzen dira, Dassance ta Lafon euskaltzain barrien sarrera ospatzeko.

Araudiaren agindua beteaz, Oleaga Zadorlariak azaltzen dau laburto batzarraren gaia.

Dassance jaunak irakurten dau bere sarrera-itzaldia. Gaia "Eskualzaleen Biltzarra"-ren edestia da; eta Biltzar orren irazpena, txedea ta yarduna oso ederto argiratzen dauz. Biziro txalotua izan da.

Elissalde jaunak, Dassanceren goralben egokiak egiten dauz, euskeraren alde zein sutsu ta bizkor beti ekin dauan azaldurik. Oso atseginez entzun da Elissalderen lan txukuna.

Urrengo Lafon jaunak dirakur bere sarrera-itzaldia. Euskerea Izkuntza-yakintzean zein garantzi aundia daukan, argi ta sakon adierazoten dau bertan.

Krutwig jaunak, Lafoneri ondo-etorria emonaz ganera, izkuntza-iraupenaren garrantzi andia, eta iraupen orreri gizaki gurenak izkuntza ori erabiltea zein onura aundiko yakon, agertzen dau.

Txalo bizi ta luzeak egin yakez iztun guztieri.

Zadorlariak adierazoten dauz Lekuona, Gertari, Altube ta beste batzuen aguragiriak.

Etxaide maipuruak, emoten dautse euskaltzain barriai, kisa oneen ezaugarriak.

Eta euskaltzainkideen besarkatzaz, ta entzule-ikusle guztien eskumiñez, amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
I. M.ª Etxaide

Zadorlaria
Nazario Oleaga

1950-X-27

Donostian mila bederatzireun eta berrogeitamargarren urteko Urrilaren ogeitazazpian, Ekauta-jauregian, Azkue, Etxaide, Elissalde, Krutwig ta Oleaga euskaltzainak baturik, egiten da il oneri dagokon Euskaltzaindiaren batzarra, Dassancek eta Landek ezin etorria iragarri daue.

Araudizko otoitza egin-eta, maipuruak adierazoten dau Zamarripa euskaltzain bikañaren eriotzea. Oso mintzen dau barri itun onek Euskaltzaindia ta onan agererazo daitela erabagi da. Ildakoaren anai-arrabai tamal agurra bialdu dagioela, bere bai.

Urkijo jaunaren eri luze ta astuna dala-ta, beronen sendatzea zein atseginez Euskaltzaindiak ikusiko leukean ager araztea bere, erabagi da.

Urrengo, adierazo da Naparroako Ekautak bost mila laurleko urtero eta Bilboko Udalak mila laurleko aurten, Euskaltzaindiari emoten dautsoela. Pozik artu dira barri oneek eta autaturiko amoleai eskerrak agertzea erabagi da. Baita beste Udal eta izaki batzura diru-laguntasuna eskatzea bere.

Naparroako Ekautak eta "Musée Basque"-ko Artezkari jaunak, Lekuona, Dasantze ta Lafon euskaltzain barrien sarrerak aundikiro ospatzeko emon euren laguntasuna gomutaturik, Euskaltzainburuak eskerrak emon daioezala, erabagi da.

Bilboko Apezpiku barriak bere izentatze-agiria euskeraz bere irakurtzea ebatzi euan; bere lenengo gogozain-idazkia bere, euskeraz eta erderaz argitaratu dau. Ori dala-ta, euskereari abegi ona egiten dautsan ezkero Euskaltzaindi onen atsegina jakinerazotea erabagi da. Baita, Donostiako Apezpikuari beste orrenbeste egin dagiala eskatzea bere. Eta batari ta besteari Euskereazko Euskaltzaindiaren laguntasuna eskiñi bekio.

Gero irakurten da Azkue, Lekuona ta Krutwig euskaltzainen idazki bat; beronen gaia da Euskaltzaindian dagoan utsa, Nikolas Ormaetxea ("Orixe") euskaltzainurgazleaz bete bear leitekela. Oraingoz geldi bego, ebatzi da.

Pozik ikusi da Ormaetxea jaun orrek oraintsu argitaratu dauan *Euskaldunak* deritxon poema edo olerki ederra. Onan jakinarazi bekio.

Azkenez, orainarte euskerearen alde egindako lanen eskergarri ta aurrerantzekoen pozgarri izan dakion, urrengo jaun oneek euskaltzain urgazletzat artzea erabagi da:

– Migel Arrutza.
– Bernardo Garro.
– Antonio Maria Labaien.
– Joakin Zaitegi.

– Blas Fagoaga.
– Juan Thalamas Labandibar.
– Ignazio Larramendi.
– Dominike Dufau.
– Pierre Gilsou.
– Sauver Arotzarena.
– Pierre Narbaitz.
– Dominike Subeleta.
– Leon Leon.
– Pierre Txarriton.
– Jean Jauregiberri.
– Gilaume Epherre.
– Jean Txabaño.
– Jean Ithurriaga.
– Karl Bouda.
– Luis Mitxelena.
– Jose Azkarate.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
Resurreccion M.ª Azkue

Zadorlaria
Nazario Oleaga

1950-XII-29

Donostian, mila bederatzireun eta berrogetamargarren urteko Lotazilaren ogetabederatzian, Ekauta-jauregian, Elissalde jauna maipuru dala, ta Etxaide, Irigarai, Krutwig, Lafitte, Dassance ta Oleaga Euskaltzainak baturik, egiten da il oneri dagokon Euskaltzaindiaren batzarra.

Araudizko otoitza asi eta gero, lenagoko lau batzar-agiriak irakurri dira, ta aobatez onetsi dira.

Etxegarai jaunaren idazki bat irakurten da. Aspaldian makal dabilala, ta ori dala-ta batzarretara ezin erdu izan dala, diño. Orregaitino, eskuartean euskal-lana batzuk darabilzala, batez-bere argin Kantabriarrak, Asturietarak, Galiziarrak eta Portugaldarrak, Asturiasko telegin eta perzkileak, Mondarizko zaragileak, eta Cantalejos (Segobia)ko eskuare, bae ta galbaeginak erabilten dabezan euskal itzak aztertzen, eta guzti orren barri laster ekarriko dabela Euskaltzaindira, bere badino.

Urrengo, adierazoren da Urkijo euskalzain bikain-bikainaren eriotzea. Atsekabe andia ta sakona artzen dau Euskaltzaindiak barri itun onegaz eta onan ager-erazo daitela erabagi da. Ildakoen alargunari bere, jakin erazo bekio.

Gero, Etxaide euskaltzaina Euskaltzainburu ordekotzat izentau da.

Gipuzkoako Aurrezki-kutxak, mila laurleko Euskaltzaindi oneri emon dautsazeta, eskerrak emon dakiozala ebatzi da.

Azkue, Krutwig, Seminario ta Lekuona euskaltzainen idazki bat irakurten da. Gorostiagatar Joanes euskaltzain-urgazlearen gorapenak egin ondoren, Zamarripa jaunak utzi daben euskaltzain-utsa beronegaz bete bear litakela dinoe. Onan ebatzi da aobatez.

Krutwig jaunak diño Agerre urgazlea Intza euskaltzainaren ordeko izantau bear litakela. Gai onezaz oar batzuk egin dira ta geroagokoan erabagiteko utzi da.

Urrengo Krutwig jaunak irakurri dau "El aspecto del verbo vasco" deritxon lantxo bat. Pozik entzun da.

Azkenez, Irigarai jaunak diño Gipuzkoako Ekautari, Euskaltzaindi oneri, batzarrak egiteko ta beste bere bear izanetarako, toki edo gela berezi ta egoki bat emon dakiola eskatu bear litzakiola. Onantxe ebatzi da.

Eta beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

Zadorlaria
Nazario Oleaga

1951-II-23

Donostian mila bederatzireun eta berogetamakagarren urteko Zezeilaren ogetairuan, Azkue jauna maipuru dala ta Etxaide, Krutwig, Irigarai, Lekuona, Gorostiaga ta Oleaga Euskaltzainak baturik, egiten da Ekautaren jauregian il oneri dagokon Euskaltzaindiaren batzara.

Araudizko otoitza egin eta gero, lenaurreko batzarraren agiria irakurten da. Ao batez onetsi da.

Dassance jaunak ezin etorria iragarri dau.

Urrengo, oraintsu izentauriko urgazle batzuren erantzupenak onesten dabezela eta biotzetiko eskerrak emoten dabezala. Onexek dira eurok: Erlangendik, Bouda; Erratsundik, Fagoaga; Aniztik, Azkarate; Donostiatik, Labaien; Senperetik, Dufau; Azparnetik, Larzabal; Mugerretik, Hiltzu; ta Bilbotik, Arrutza.

Gero irakurri da Alan H. Kelsok Floridatik bidalduriko idazki ba Euskal-lan batzuk esku artean darabiltzala, batez be "Gramática comparativa Vasco-Protoineuropea" da Diccionario comparativo Vasco-Protoidoeuropeo" izenakaz, Españeraz eta Ingeleseraz argitaratu gura leukezanak, eta Euskaltzaindiaren laguntasuna eskatzen dau orretarako. Bere lan orreek euskaltzaindiak pozik ikusten dabezala, baña oraingoz argitaratzeko diruz ezin lagundu dautsola erantzutea erabagi da.

Urrengo Luis Villasante Kortabitarte A. urgazle izentatzea erabagi da.

Krutwig jaunak gogoratzen dau Nikolas Ormaetxea (Orixe), euskaltzaintzat eskiñita dagoala, ta itauntzen dau beronezaz ezer erabagiko dan. Jaun ori kanpotik dagoala ta arazo au bego bein.

Maria Paz Ziganda, urgazle izentatzea be ebatzi da.

Adierazoten da Bilboko apezpikuak euskaltzaindiari emoten dautsan abegi ona: pozik artzen da berau.

Lenagoko erabagiz Donostiako apezpikuari egin jakon eskariari, jaun orrek emondako erantzupena irakurri da.

Agerre euskaltzain urgazlearen idazki bat be irakurri da. Iruña aldetiko euskeragai batzuk azaltzen dauz.

Azkenez Krutwig jaunak irakurten dau "Eusko Philologia. Euskararen Gramatikako oria" deritxon lan sakon bat.

Eta beste barik eta araudizko otoitzaz emoten jako batzarrari amaiera.

Euskaltzainburua — *Zadorlaria*
Resurreccion M.ª Azkue — Nazario Oleaga

1951-IV-28

Bilbon, mila bederatzireun eta berrogeita amaikagarren urteko Jorrailaren ogeitazortzian, Bilboko Endore jaunak maiteki eskiñiriko Udaletseko batzar gela nagosian eta iragarrita dagoanez ospatzen da Joane Gorostiaga Euskaltzain barriaren sarrera:

Maipuru Azkue Euskaltzainburu jauna. Beronegaz dagoz, Gorostiaga sargeiari laguntzen, Etxegarai, Etxaide, Irigaray, Krutwig ta Oleaga Euskaltzainak, eta Manterola, Arrutza, Garro ta Villasante urgazleak.

Oste aundi-aundia oso-bikaina da ikusle ta entzule.

Araudiak agintzen dauanez, araudi-otoitza Maipuruak egin eta gero, Zadorlariak labur-laburto azaltzen dau batzarraren gaia.

Urrengo Gorostiaga Euskaltzain barriak bere sarrera itzaldi ederra dirakur. Beronen gaia "Bizkaiko edestia toki-izenen bidez" da. Poz-pozik entzuna izan da ta txalo sutsu ta ugariz saritua.

Oleaga Zadorlariak darantzutso. Euskera-jakituria gauza aundi ta garrantzizkoa dala, baña, euskeraz ekitea ta euskerea jagotea ta zabaltzea be eztala gauza txikia ta esesgarria, ta ardura osoz artu bear litzatekela diño. Oneri be txalo asko egin dautse batzarkideak.

Lekuona Euskaltzainak, J. Jud eta Larrasketa Urgazleak, Gortari Iruñako Endoreak, Bilbon Frantziko ordezkariak eta beste batzuk bidalduriko agurrak ta ezin etorriak adierazoten dira.

Eta azkenez Euskaltzain barriari bere kisaren ezaugarria emonik eta zorionak eta eskumuñak agerturik, amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua — *Zadorlaria*
Resurreccion M.ª Azkue — Nazario Oleaga

1951-IV-29

Bilbon, mila bederatzireun ta berrogeita amaikagarren urteko Jorrailaren ogeita-bederatzian, Euskaltzaindiaren etxean, Azkue jauna maipuru dala ta Etxegarai, Etxaide, Irigarai, Krutwig ta Oleaga Euskaltzainak eta Arrutza, Garro ta Villasante urgazleak berton dirala, egiten da il oneri dagokon Euskaltzaindiaren batzarra.

Asantza ta Lekuonak ezin etorri dirala iragarri dabe.

Araudizko otoitza egin eta gero lenaurreko batzar-agiria irakurri da ta ao-batez onetsia izan da.

Ildako Urkijo Euskaltzainaren alargunak, Euskaltzaindiaren izenean bidaldu jakon tamal-agurra dala-ta, eskerrak emoten dauz.

Bilboko Endore jaunari, Gorostiaga Euskaltzainaren sarrera ospatzeko Udal-batzargela eskini ebalako, esker biotzetikoak emotea erabagi-da.

Irigarai ta Krutwig jaunen asmoz, gaia ondo-ondo ta zeatz-zeatz azterturik eta eztabaida luze ta bizien ekinik, auxe ebatzi da: 1) Euskaltzaindiak, idazkerea dala-ta, orainarte artuta daukazan erabagiak oraingoz era berean bete daitezala. Baina irar-koletan izki-eredu berezirik eztagoanean D, L, R, ta T gangardunen ordez DD, LL, RR ta TT izki bikoitzak erabili leitekezala. 2) atzerrietako gizata erri izenetan eta jakituri-itzetan jatorri idazkerea erabili daitela.

Eta beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua — *Zadorlaria*
Resurreccion M.ª Azkue — Nazario Oleaga

1951-IX-25

1951-X-30

La última temporada celebró sus reuniones generales por dos veces, una el 25 de setiembre y la otra el 30 de octubre corriente, en la ciudad de San Sebastián y en el local de la Diputación de Guipúzcoa.

Acudieron los Académicos de número señores Echaide, Oleaga, Irigaray, Dassance, Michelena, Elissalde Moulier, Lafitte, Villasante y Gorostiaga. En la última reunión tuvimos el gusto de saludar también al Sr. Lecuona. De los Académicos correspondientes vimos al Sr. Labayen que en la víspera día 24 de setiembre deleitó con su documentada Conferencia sobre el poeta Elissamburu dicha en vascuence a la selecta concurrencia que se congregó en la elegante Biblioteca de D. Julio Urquijo en el mismo Palacio Provincial de Guipúzcoa.

Leídas las anteriores Actas quedaron aprobadas.

Entre los asuntos tratados y que merecen destacarse para el público figuran la comunicación de la Junta de Cultura de Vizcaya en la que se notificaba a la Academia que en adelante la subvención anual sería el doble; asimismo que pronto se procedería a un arreglo general y adecentamiento de los locales de la Academia en Ribera, 6 Bilbao. Se hizo también saber cómo se vería con agrado que el Bibliotecario de la Academia Sr. Gorostiaga se encargara a su vez del cuidado del legado cedido por D. Resurrección María Azkue, fundador y primer Presidente.

El Sr. Irigaray propuso un plan muy acertado de abrir una serie de concursos literarios para premiar los mejores trabajos sobre una Antología de prosa vasca y otros.

El Sr. Elissalde recomendó a sus compañeros la elección para Académico correspondiente del joven doctor Labeguerie. El mismo comunicó a la reunión el fallecimiento del insigne romanista Millardet.

Se dio también a saber cómo el próximo número del Boletín estaba preparado con importantes trabajos.

En fin otros asuntos de trámite para las diversas Secciones y con las preces de rituales se dieron por terminadas las sesiones.

La biblioteca ha visto acrecentar su caudal con nuevas aportaciones. Tal la Toponimia romana de Vizcaya de la señorita María Luisa Guaza becaria del Ilustrísimo Ayuntamiento de Bilbao que abre nuevos horizontes en este campo; Etudes basques et caucasiques de nuestro compañero René Lafont de amplias perspectivas sobre el parentesco de la lengua vasca; asimismo una discusión sobre la etimología vasca de Burdigala-Burdeos; un trabajo del Padre Villasante compañero también de

corporación redactado en vascuence sobre el autor Joanes de Etxeberri, escrito deliciosamente en dialecto laburdino y pronunciado en la primera de las charlas de la Biblioteca de D. Julio Urquijo; un ejemplar del Vocabulario del Refranero Vizcaino de 1596 del académico Sr. Gorostiaga, labor de gran utilidad para la historia del vasco; un pliego del mismo académico sobre el sistema de interpretación de las Inscripciones llamadas ibéricas por medio de la lengua púnica o cartaginesa; en fin, apellidos vascos del académico Sr. Michelena, estudio que renueva con método científico nuestra onomástica y donde los curiosos pueden hojear una rica mies de resultados seguros. Nos llega también un moderno y utilísimo método visual para aprender el euskera básico aparecido bajo el nombre de autor Norbait y editado este mismo año en París.

1951-XI-30

Donostian, Ekauta-jauregian, mila bederatzireun eta berrogeta-amaikagarren urteko Azilaren ogeitamarrean Etxaide jauna maipuru dala ta Krutwig, Irigarai, Gorostiaga ta Oleaga Euskaltzainak ta A. Donosti urgazlea dagozala, egiten dau Euskaltzaindiak il oneri dagokon batzarra.

Araudizko otoitzaz emoten dako asiera.

Urrengo, lenaurreko batzar-agiria arakurri ta onesten da.

Dassance ta Villasante euskaltzain jaunak gaurko batzar onetara euren ezin etorria iragarri dabe.

Azkue, Euskaltzainburu bikain ta maitea il onen bederatzian il zala adierazoten da. Barri itun ta negargari au oso atsekabez artu dau Euskaltzaindiak. Baita beste euskaltzale askok be, Tamalagur mindunak eldu dira; euren artean "Real Academia Española"k "Junta de Cultura de Vizcaya"k, Esteban Bilbao, Españako Batzarnagosi buruak, Guipuzkoako Ekauta-Lendakariak, Peñaflorida-ko Kondeak, "Real Sociedad Vascongada de Amigos del Pais"-ek, Bonifazio Etxegaraik, Pedro Irizarrek, Juan Aspiazuk, Celestino Agirrezarobek, A. A. Otañok, Labaienek, Lekarozko Irakastegiburuak, Irigaraik J. M. Barandiaran'ek eta abar...

Ildako jaunaren gomutan eta omenez zerbait egin bear dala ebatzi da. Lenengo Bizkaiko "Junta de Cultura"gaz alkar-itunduta, batzar ospatsu bat Bilbaon; geroagoan Azkue jaunaren euskalan ugari ta sakonak barriz argitaratzea, ta batez be ta lenen bere Euskal-Iztegi bikaina, lenengoz argitaratuzanetik orain arte egileak bilduta eukazan geigarriak ezarririk.

Krutwig jaunak adierazoten dau, Bilbon "Julio Urkijo" izenagaz euskeraren alde diarduan Bazkunak, bere aldetik beste batzar bat Azkueren omenez gertutan dabilala.

Beste barik, jazoera au dala-ta Euskaltzaindiaren atsekabea erakutsirik, araudizko otoitzaz amaitzen da batzarra.

Zadorlaria
Nazario Oleaga

1951-XI-30

En San Sebastián a treinta de noviembre de mil novecientos cincuenta y uno, reunidos en el Palacio de la Excma. Diputación de Guipúzcoa, bajo la presidencia del Sr. Echaide los académicos Srs. Krutwig, Irigaray, Gorostiaga y Oleaga y el correspondiente J. Donosti, celebra la Academia de la Lengua Vasca la sesión correspondiente al presente mes.

Comienza la sesión con la oración reglamentaria y a continuación se lee y aprueba el acta de la sesión precedente.

Los académicos Srs. Dassance y Villasante han excusado su asistencia a la presente sesión por imposibilidad de concurrir a ella.

Se da cuenta del fallecimiento el día 9 del presente mes del eminente y amado Presidente de esta Academia de la Lengua Vasca Sr. Azkue. Con profundo sentimiento recoge la Academia esta triste y luctuosa noticia. Igualmente otros muchos vascófilos de muchos de los cuales han llegado comunicaciones de pésame; entre ellas de la Real Academia Española; de la "Junta de Cultura de Vizcaya", de D. Esteban Bilbao, Presidente de las Cortes Españolas; del Presidente de la Diputación de Guipúzcoa, del Conde de Peñaflorida; de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País, de D. Bonifacio de Echegaray, D. Pedro Irizar, D. Juan Aspiazu, D. Celestino Aguirrezarobe, P. Otaño, Labayen, Director del Colegio de Lecaroz, Irigaray, J. M. Barandiarán y otras.

Se acuerda realizar algunos actos en recuerdo y homenaje del finado. En primer término y de acuerdo con la Junta de Cultura de Vizcaya, una sesión necrológica solemne en Bilbao; y más tarde una reedición de las numerosas y profundas obras vascongadas del Sr. Azkue y en especial de su magnífico Diccionario Vasco, complemento con apéndice de los materiales que el autor tenía recogido desde la última edición.

El Sr. Krutwig da cuenta de que la entidad que en Bilbao y con el título de "Julio de Urquijo" labora en pro del vascuence, prepara también por su parte una velada de homenaje al finado Sr. Azkue.

Con lo cual y sin entrar en otros asuntos, en señal de duelo se levanta la sesión.

El Secretario
Nazario Oleaga

1952-V-30

Donostian mila bederatzireun eta berrogetamabigarren urteko Orrila'ren ogetamarrean, Ekauta-jauregian, Irigaray jauna maipuru dala ta Gorostiaga, Villasante ta Oleaga euskaltzainak eta Mitxelena urgazlea dagozala egiten dau Euskaltzaindiak gaurko deitutako batzarra.

Araudizko otoitzaz emoten dako asiera.

Lenaurreko batzarraren agiria irakurri da ta ao-batez onetsia izan da.

Urrengo adierazo da, Villasante euskaltzain jaunaren sarrera ospatzeko, Bizkaiko Ekautaren jauregian, Jakintza-Batzordearen gelan, Orrila onen ogetairuan egindako batzar nagosian aitatutako Euskaltzain barriari erantzunik Krutwig euskaltzainak irakuri eban itzaldia dala-ta, batzar orretara etorri ziren agintari batzuk naigabe ta aserrea erakutsi dabela, ta euren eritziz Euskaltzaindiak egoki deritxona erabagi bear leukela eskatu dabela. Zer erabagi leiteken ondo ebazteko aitaturiko itzaldia entzun ez eben euskaltzainak ezagutu ta guztiok ondo aztertutea bear izango leitekela-ta, ijeki bat Oleaga jaunak eskatu ta urrengo batzarrerako ekarri dagiala ebatzi da.

Gero, Durangoko Endore jaunaren idazki bat irakurri da. Diño datorren Bagila-Garagarrila-ren ogetazortzi ta ogetzabederatzian Pablo Pedro Astarloa euskalizkuntzelari ospetsuaren jaiotzaren berreunurteurrena dalako Uri atan jaiak egingo direala ta Euskaltzaindiaren laguntasuna eskatzen dabela, Euskaltzain baten itzaldi bitartez. Pozik artzen da eskari ori ta Gorostiaga Euskaltzain jaunaren gain ezartzen da ardura ori. Olan esan bekio Durango'ko Endoreari.

Azkue ta Saint-Piérre euskaltzainen oriotzak dirala-ta, Euskaltzaindian dagozan uts biak betetako, izen oneek erakusten dabez euskaltzain batzuk: Luis Mitxelena Elissalt, Plazido Mugica A. S. J. Abbé Jules Mulier ta Jean Ihartze. Urrengo batzarrerako izten da erabagia.

Azkenez, Jaursaila edo jagola-batzordea euskaltzain oneen lepora bego: Gorostiaga, Oleaga, Villasante, Laffitte ta Dassance.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburu-ordea
A. Irigaray

Zadorlaria
Nazario Oleaga

1952-XI-27

Donostia'n mila bederatzireun eta berrogeta amabigarren urteko Azila'ren ogetazazpian, Ekautaren etsean, Etxaide Euskaltzainburuordea maipuru dala ta Irigarai, Villasante ta Oleaga Euskaltzainak eta Labaien urgazlea etorririk, Euskaltzaindiak egiten dau gaurko deitutako batzarra.

Araudizko otoitza egin eta gero lenaurreko batzar agiria irakurri da eta onetsia izan da.

Etxegarai eta Lafon euskaltzainak adierazo dabe etorri ezina.

Oleaga jaunak azaltzen dauz lenaurreko batzarrean artu zan Krutwig jaunaren gaizko erabagia beterik Bizkai'ko Junta de Cultura'ren lendakariagaz erabili dabezan autuen gora-berak. Onetsiak izan dira eta bariro ezartzen dako arazo oneri ekin dagiola, Euskaltzaindiaren onerako elburua lortu arte.

Rene Lafon Euskaltzainak bidaldu dautsoz Euskaltzaindiari bere oraintsuko lan batzuen ijekiak: bata "Detsepareren, Les Premices de la langue des Basques" deritzana; bestea "Concordances morphologiques entre le basque et les langues caucasiques" deritzana. Pozik ikusi dira.

Urrengo "Euskal-liburu sorta argitaratzeko era edo bideaz Euskaltzaindiari txostena" deritzan Villasante Euskaltzainaren lan bat irakurri da. Bertan euskalgaizko ta euskeraren onerako asmo adigarriak agertzen dauz. Txosten orretako lenengo atalean diñoana, oraingo beteta erabagi da, Etxaide eta Irigarai jaunen ardurapean utzirik. Beste asmoak urrengoan erabagiko dira.

Azkenez irakuŕi da Bilbon Euskaltzaindiaren laguntzalleak izentzak arturik Euskaltzale batzuk egiten dabezan eskari ta eskiñiak.

Oleaga jaunak itz egin begi eurokaz eta urrengo batzarrean erabagiko da.

Beste barik eta araudizko otoitzaz emoten dako batzarrari amaia.

Euskaltzainburu-ordea
I. M.ª Etxaide

Zadorlaria
Nazario Oleaga

1953-IV-24

Donostian mila bederatzireun eta berrogeta-amairugarren urteko Jorrailaren ogetalauan, Etxaide jauna maipuru dala ta Irigarai, Lekuona, Gorostiaga, Villasante ta Oleaga euskaltzainak eta Labaien, Zinkunegi ta S. Mitxelena urgazleak berton dirala, Megiten dau Euskaltzaindiak egundo deitutako batzarra.

Ezin etorria iragarri daue Dassance ta Mitxelena euskaltzainak.

Araudizko otoitza eginik, lenaurreko batzar-agiria irakurri ta ao batez onetsia izan da.

Urrengo irakurri da Etxaide euskaltzainburu ordeak igaroko Otsail'ren amazazpian Gipuzkoako Ekauta-Buruari bidaldu dautsan idazki bat, "Seminario de Filologia Vasca-Julio Urkijo" deritzan Batzordea irazi daualako Euskaltzaindiaren atsegina erakutsirik eta Batzorde orreri, eskerrak emonaz igorri dautsan erantzupena.

Etxaideren idazkia osoro onetsi da ta aitaturiko erantzupena pozarren artu da.

Gero, Euskaltzaindi onen lanak, eta batez be zearo aitatzen direnak aurrera eroateko bear diran diru-eralketai aurre emoteko, alik andien txindi laguntasuna eskatzen Gipuzkoako Aurrezki kutxari il onen amasean bidaldu dautsan idazkiaren barri damo. Pozik irakurri da idazki au ta bete-betean onetsi da.

Urrengo, irakurri da Gregorio Maidagan eta Jorge Villa Paiz jaunak igorritako idazki bat. Bertan Euskaltzaindi onen Buru luzaro izandako Resurrekcion Maria Azkue jaunaren ondorengo bakar ta osokoak dirala-ta, ildako aren gomutan eta berak erakutsiriko guraria bete nairik, Euskaltzaindi-etsean eukazan liburu ta paper guztien eta argitaraturiko liburu-eskubidean emoitza egiten dautse Euskaltzaindiari, baina inoiz Euskaltzaindia deuseztuko balitz berak erabilezan liburu ta paperak, Bizkaiko Ekautaren Gutungirako izango dira eta ori dala-ta, Euskaltzaindiak zaindu ta gorde bear izango dauz. Besteak, edo-ta Azkue jaunak argitaratukoaz eta salgai eukazanaz, Euskaltzaindiak zer nai egingo dau.

Guzti au dala-ta ao-batez ebazten da: 1.º) Gogoz artu esandako emoitzea; 2'gn) emoileai, ildako Euskaltzainburu maitearen gomutan artu dauan erabagi mesedegarri orreagaitik esker sakon ta sutsua agertu dakioela; 3'gn) emoitza orretan sartzen diran liburu ta eskubideen zerrenda zeatza atondu daitela, bi sailetan: bata Bizcaiko Ekauta-Gutuntegirako liburu ta paperakaz; bestea, enparauakaz; 4'gn) orretarako ta liburu orreen ardurea artuteko Gorostiaga euskaltzaina izentatzea; 5'gn) Erabagi oneek, Bizkaiko Ekautari dagokonez jakin erazotea. Gorostiaga euskaltzaina, Gutuntzain izentau dan ezkero, Euskaltzaindi-etxean dagozan beste liburu ta gausa guztien zerrenda zeatza eratu dagiala ta oroen ardurea ta erabiltea ebatzi dagiala bere erabagiten da.

Gorostiaga ta Oleaga jaunak dinoea, Bizkaiko Ekautaren "Junta de Cultura" edo Jakintza Batzordea'ren ordelariakin itz egin dauela ta onek Euskaltzaindiari orain arte egiten dautzen laguntasuna geitu gurarik dagozala; laguntasun geitze ori oraingoz onan izan leiteke; Euskaltzaindi-etxea guztiz makets ta narrioturik dago eta bai beste Euskal-iraskizun zaleak Azkue jaunaren liburu ugariekin geituaz dagoan Euskaltzaindi-Gutuntegia eroso ta egoki erabili al izan dagien, bear diran lanak eginaz. Pozik eta eskerronez artzen dira eskintzok; Gorostiaga jaun Gutun-zaina itundu bedi Jakintza-Batzordeagaz aitaturiko asmoa bear danez betetako.

Urrengo erabagi da; Seminario de Rojas Euskaltzainak utzi bedi Bizkaiko Jakintza-Batzordean daroan Euskaltzaindiaren ordezpena, eta ordezpe ori aurrerantzean Olea Euskaltzainak beroa; Oleaga jakin erazo bekioe bitzuri.

Labaien jaunak, lenaurreko batzarrean erabagitakoa beteaz, gertu dau txostena, Euskaltzaindiaren antzinako **Euskera** aldizkaria nola barriro orgitaratu leiteken zertzelada guztiak zeaztuaz azaltzen dabela. Oso atseginez entzun da tzosten ori. Labaien gain uzten da berrargitaratze ori gertutea.

Labaien jaun beraz dino, Axular euskal-idazle ospetsuaren irureun urrena laster datorrela-ta, beronen "Gero" izen aundiko liburua barriro argitzeko dagoan asmoa aurrera eroateko bear izango dan dirua biltzen Euskaltzaindia alegindu bear litekela, Onantze erabagi da.

Azkenez pozik entzun da "Elerti-erausketak" edo "Charlas Literarias" izenaga, Gipuzkoako Ekauta jauregian ilero euskera-aldez batzarrak egiten asi dirala. Zorionak agertu bekioez asmatzaile ta ertzaileai.

Beste barik eta araudizko otoitzaz da batzarra.

Zadorlaria
Nazario Oleaga

1953-V-29

Donostian, mila bederatzireun eta berrogetamairugarren urteko Orrilaren ogetabederatzian, Ekauta-jauregian, Irigarai jauna Maipuru dala, ta Villasante, Gorostiaga, Mitxelena ta Oleaga euskaltzainak ta Zinkunegi urgazlea berten dirala, egiten dau Euskaltzaindiak gaurko deitutako batzarra. Dassance euskaltzainak egin etorria iragarri dau.

Araudizko otoitza esan-eta, lenaurreko batzar-agiria irakurri da. Onetsia izan da.

Zadorlariak adierazoten dauz, lenaurreko batzarrean arturiko erabagiak betetako Bizkaiko Ekautaren Jakintza Batzordeari bidaldu jakozan idazki biak: bata, Batzorde atan orain arte Seminario de Rojas euskaltzainak beroan dauan Euskaltzaindi onen ordezpena, aurrerantzean Oleaga Euskaltzainak eroango daula jakin araziz; eta bestea, Euskaltzaindi-etxea aldan bestean eta egoki garbitu ta edertuteko Batzorde berak eskiñiriko laguntzea pozik eta esker onez ikusi ta artu dala adierazoz. Baita lenengo idazkiari egin dautsan erantzuna bere, irakurten da; bertan dino ontzat artu dauala Oleaga'ren izentapena, ta Batorde aren ordelari bat Euskaltzain izentatzea gura leukeala. Azkeneko arazo au urrengo baten eta ondo azterturik ebatziko da.

Gorostiaga jaunak diño, euskaltzale batzuk adierazi dautsela "Euskaltzaindiaren adiskideak" izentzat arturik, gertu dagozala Euskaltzaindiari zelanbaiten lagunduteko. Pozik artzen da barri au eta Gorostiagaren ardurapean izten da asmo ori aurrera eroateko bear leitekena egitea.

Irigarai jaunak aitatuten dauz, Gipuzkoako Ekautak euskerearen alde darabiltzan asmoak, eta Euskaltzaindiaren **Euskera** antzinako aldirokoa barriro argitaratzeari dagokozan zertzelada batzuk Erabagia; arazo oni dagokozan arduretan ekitea nun nai ta nola nai.

Azkenez Lafon euskaltzainak, bidalduriko liburu bien barri emon da. Liburuok dira: bata, "Etudes Basques et Caucasiques"; bestea, "Revue historique de Bordeaux et du departement de la Gironde". Atseginez ikusi ta artu dira.

Beste barik eta araudizko otoitzaz emon dako batzarrari amaia.

Euskaltzainburu-ordea
A. Irigaray

Zadorlaria
Nazario Oleaga

1953-VI-26

Donostian, mila bederatzireun eta berrogeitamairugarren urteko Bagila-Garagarrilaren ogetaseian, Ekautaren Jauregian, Etxaide jauna maipuru dala ta Irigarai, Lekuona, Gorostiaga ta Oleaga Euskaltzainak bildurik, egiten dau Euskaltzaindiak gaurko daituteko batzarra.

Villasante jaunak ezin etorria adierazo dau.

Araudizko otoitzaz emoten dako asiera.

Etxaide jaunak barri bi damoz. Bata Euskaltzaindiaren **Euskera** aldirokoaren gertakuntzak aurrera doazala ta ia amaiturik dagozala; au dala-ta, Oleagak diño aldiroko ori argitaratzeko bear dau baimena lortzeko, arazo oneitan dabilen Ordelariagaz itz egin ebala ta uste dabela baimen ori laster artuko dala. Bestea, Gipuzkoako Ekautak, urte-sariz bost mila peseta emon dituala. Au dalata erabagi da, Ekauta orreri eskerrak emotea, ta Etxaide jaunak diño emon dautsazala.

Oleaga jaunak adierazoten dau Bizkaiko Jakintza-Batzordeak, Euskaltzaindiaren etxea txukundu ta edertzeko asmoa aurrera daroala ta gai onezazko gertakizunetan daragoiola. Pozik entzuten dira barri oneik.

Gorostiaga jaunak adierazoten dau "Vocabulario del Refranero Vizcaino de 1596" deritxon liburutxoa argitaratu dauala. Ijeki bat damotso Euskaltzaindiari ta gogoz ikusi ta aztertzen da. Zorionak eskintzen dakoz egileari.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitzen da batzarra.

Euskaltzainburua
I. M.ª Etxaide

Zadorlaria
Nazario Oleaga

1953-IX-25

Donostian, mila bederatzireun eta berrogeitamairugarren urteko Iraila-Buruilaren ogetiabosteunan, Gipuzkoako Ekauta-jauregian, Etxaide jauna maipuru dala ta Elissalde, Irigarai, Gorostiaga, Dassance, Lafitte, Villasante, Mulier ta Oleaga euskaltzainak eta Labaien urgazlea etoŕirik, egiten dau Euskaltzaindiak egungo deitutako batzarra.

Araudizko otoitza ondoren lenaúreko batzar-agiria irakurri da ta onetsia izan da.

Irigarai jaunak ongi-etoŕia dagokio Mulier Euskaltzain barriari.

Azkue jaunak Euskaltzaindiari ta beronen orde Bizkaiko Ekautari utziriko liburuaz, Jorrailaren ogeitalauan artu zan erabagia adierazo jakon Ekauta ari, ta beronek erantzun dau pozaŕen jakin dauala barri ori, ta eskerzor dagoala Azkue jaun goragarriagan.

Urrengo irakurri da Bizkaiko Ekautaren Jakintza-Batzordearen idazki bat. Diño, orainarte Euskaltzaindi oneri emoten dautsan bost mila peseta dun urte-saria, aurrerantzean amar mila pesetaraño geitua izango dala, baña Gorostiaga euskaltzain gutuntzaina, Euskaltzaindi-etxean egunero goizeko amarretatik egurdiko ordubatetararte gitxienez egon dadila ta aitatuko urte-saritik lan orren ordainez, ilabete bakoitzean laureun edo urtean laumila ta zortzireun peseta emon dakiozala gura leukela. Olan ebatzi da ao batez; eta Jakintza-Batzordeari esan bekio, eskerrak emonaz.

Gorostiaga gutuntzainak adierazoten dau asi dala liburu-zerrendea gertatzen.

Etxaide jaunak diño, Irigarai jaunaren bitartez artu dirala Naparroako Ekautaren 1951, 1952 ta 1953 garren urte sariak; guztiz amabost mila peseta, ta eskerrak agertu dautsazala emoileari. Atseginez entzun dira barri oneek.

Irigarai jaunaren asmoz, Euskaltzaindiak Idazti-sariketa bat atondu bear leuke, Iztegia, Ipuinak eta beste elerti lanak gaitzat arturik. Ontzat artu da asmo au ta urrengo batzarrera Irigaraik beronen egitamua ekaŕi dagiala erabagi da.

Oleagak diño, Azkue jaunak bere iztegiaren geigarri batzuk gertuta eukazala ta gergarri orreek argitaratzea egoki litzakela. Onetsia izan da gogakizun au.

Oleaga berak diño "Latsibi" deritzan gertirudi bat be Azkue jaunak egindu ta argitaratu gurarik eukala ta Euskaltzaindiaren **Euskera** aldirokoan zatika-zatika argitaratzea egoki litzakela. Onan ebatzi da.

Villasante jaunak adierazoten dau Kantabriako Prantzizkotarrak aldiroko bat euskeraz argitaratu gurarik dabiltzala ta asmo ori aurrera eroateko Euskaltzaindiaren eritzia artu gura leukeela. Euskaltzaindiak atseginez ikusten dauala esan bekioe.

Azkenez Elissalde jaunak, Mitxel Labageri jaunaren euskaltzaletasuna ta irabaziak goraldurik, urgazle izentau bear litakela diño ta ao-batez onan ebatzi da.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
I. M.ª Etxaide

Zadorlaria
Nazario Oleaga

1953-X-30

Donostian, Ekauta-jauregian, mila bederatzireun, eta berrogetamairugarren urteko Urrilaren ogetamarrean, Etxaide, Irigarai, Dassance, Lekuona, Gorostiaga, Villasante, Mitxelena, Mulier ta Oleaga euskaltzainak, baturik, lenengoa maipuru dala, egiten dau Euskaltzaindiak illari dagokon batzarra.

Araudizko otoitza egin eta gero, lenaurreko batzaragiria irakurri da ta onetsia izan da.

Irigarai jaunak azaltzen dau Euskaltzaindiaren aldiroko **Euskera** len gertakizunak aurrera doazala, ta berau argitaratuteko bear dan agintarien baimena Oleagak eskatu dagiala bear dan lekuan.

Oleaga jaunak diño Bizkaiko Ekautaren Jakintza batzordearen aginduz, Euskaltzaindiaren etxea, gazbitu ta apaintzeko bear direan lanan gertakizunetan bere asita dabiltzala, Batzorde aren ordelariak.

Mitxelena jaunak, Euskal-abizenak gaitzat artuta, *Apellidos Vascos* deritzan liburu bat oraintsu argitaratu dau. Ijeki bat damotso euskaltzaindiari.

Aita Villasante jaunak bere oraintsu argitaraturiko liburutto baten ijeki bat dakar euskaltzaindiarentzat. Beronen gaia, Joanes Etxeberri euskal idazlearen bizitza ta lanen barri.

Pozik ikusi ta aztertu dira liburu bi orreek eta eskerrak agertzen jakez egileai.

Beste barik eta araudizko otoitaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
I. M.ª Etxaide

Zadorlaria
Nazario Oleaga

1953-XI-27

Donostian, Ekauta-jauregian, mila bederatzireun eta berrogeta amairugarren urteko Hazilaren ogetazazpian Etxaide maipuru ta Elizalde, Gorostiaga, Dassance, Lafitte, Irigarai, Villasante, Mitxelena, Mulier ta Oleaga euskaltzainak bildurik, egiten dau Euskaltzaindiak egingo deitutako batzarra.

Araudizko otoitzaz emoten dako asiera.

Lenaurreko batzar-agiria irakurri ta ontzat artu da.

Oleaga jaunak adierazoten dau oraindino ezin ikusi izan dauala Bizkaiko Idazki-ordelaria ta orreagaitik ezin lortu izan dauala Euskaltzaindiaren **Euskera** aldirokoa argitaratzeko bear dan baimena, baina laister autuko dala uste dauala. Ekin bekio Oleagak bere eginpideari luzatu barik.

Irigarai jaunak azaltzen dau lenaurreko batzarrean aitatutako Idazti-sariketaren egitamua, ta luze, sakon ta zabal gai au azterturik, erabagi da sariketa ori gertu ta iragartea zertzelada oneekaz:

Sariketak iru izango dira:

— Baten gaia, ertzain-geataera irudikoa, ~~al dala erdal-izakeraduna~~. Neurria, irureun orrialde txiki idazkailuz lerrobinaka idatzia. Epea, iragarri ondoren, sei ilabete. Sariak: lenengoa, mila peseta; bigarrena, zazpireun eta berrogetamar peseta; irugarrena, bosteun peseta.

—Beste baten gaia ipuin labur sorta, berrogetamar gitxienez ta eun geienez. Ipuin orreen gaia, euskal oiturak ala euskal idazleak erabilia, al dala erri lanaren izkereaz idatziak. Marrazkiz apainduak nai bada. Epea iragarri-ondoren, sei ilabete. Sariak: lenengoa, mila peseta; bigarena, bosteun peseta.

Marrazkiak onartzen badira; lenengo saria, bosteun peseta; bigarrena, berreun eta berrogetamar peseta.

— Irugarrenaren gaia, mila zortzireun eta berrogeitamargarren urterartenoko euskaldun goragarrien sorta, batez bere gutxi ezagutuak. Neurria, bosteundik seireun orrialde txiki idazkailuz lerrobinaka idatzia. Naiago, a, b, d, z lerrokatuz ta gizairudiz apainduak datozanak. Epea, iragarri-ondoren, urte bete. Sariak: lenengoa, iru mila peseta; bigarrena bi mila peseta.

Euskaltzaindiak erabagiko dau bere eritziz sariak emon ala ez, eta emotekotan zelan banandu.

Lan guztiak euskeraz datziak izan bear dabe, ta saritutakoak Euskaltzaindiarentzat izango dira.

Oleagak irugarren gaiari oar bat egin dautso. Bere eritziz, gai onen euskaldun goragarriak euskera idazleak ta ez besterik izan bear leitekez. Eritzi au autarkitara ezarri da ta Elissaldek berea agertu gabe utzirik, beste batzarkide guztiak ezetsi dabe.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
I. M.ª Etxaide

Zadorlaria
Nazario Oleaga

Reunión del 26 de marzo de 1954

Bajo la presidencia de Don Ignacio María Echaide, se reunen en el Palacio de la Diputación de Guipúzcoa, San Sebastián, los académicos de número:

Don Juan Gorostiaga, Don Angel Irigaray, Don Manuel Lecuona y Don Luis Michelena.

Asiste, también, el Presbítero don Nemesio Echániz.

Se rezan las preces iniciales.

Don Juan Gorostiaga manifiesta que el Sr. Secretario, no puede acudir, retenido en Bilbao por deberes profesionales.

Como el Sr. Secretario no ha remitido el acta de la reunión anterior, no puede ser aprobada. Se acuerda que se lea y apruebe en la próxima reunión.

El Sr. Lecuona habla de la edición del *Gero* de Axular que está preparando y lee el prólogo, por el cual es muy felicitado.

Se cambian impresiones sobre el diccionario erdera-euskera, del cual ha hecho ya algún estudio el Sr. Michelena.

Como aún no se ha remitido el diploma del "Correspondiente" a Doña María Paz Ciganda, se acuerda que el Presidente le escriba notificándole el acuerdo de la reunión anterior, sin perjuicio del ulterior envío del diploma.

Se habla de la necesidad de reformar el reglamento que resulta muy anticuado. El Sr. Irigaray hace resaltar la improcedencia de que se exija la oriundez vasca. El Presidente manifiesta que, de hecho el reglamento está variado en puntos esenciales y recuerda que varios académicos han manifestado en diversas ocasiones su opinión de que se dé de baja a los académicos que habitualmente no asisten; el Presidente no es partidario de recurrir a este extremo violento, pero sí de nombrar suplentes a todos los académicos que no asisten, suplentes que, de hecho, gozarán de todos los derechos de los Académicos y que no cesarán en sus cargos si los suplidos comienzan a acudir.

Se acuerda que se facilite por Secretaría un ejempar del reglamento al Sr. Presidente para que éste haga un estudio.

Se acuerda, por último, que los viáticos por asistencia a esta reunión se satisfagan en la próxima reunión por el Sr. Secretario que es quien conoce las normas que se siguen sobre el particular.

Se levanta la reunión con la invocación de costumbre a la Santísima Trinidad, convocándose la próxima para el 24 de abril.

Reunión del 30 de abril de 1954

Bajo la presidencia de Don Ignacio María Echaide se reunen en el Palacio de la Diputación de Guipúzcoa, los académicos de número:
Don Juan Gorostiaga, Don Angel Irigaray y Don Manuel Lecuona.

Don Luis Michelena no puede asistir por hallarse enfermo.

Después de esperar en vano un rato la llegada del señor Secretario Don Nazario Oleaga, se da comienzo a la reunión con las preces de costumbre.

Ninguno de los presentes conoce la causa de la ausencia del Sr. Secretario. Todos hacen votos para que su sensible falta no sea por motivos de salud.

El Sr. Presidente lee el acta de la reunión anterior. El Sr. Irigaray hace la observación de que él no dijo precisamente que era improcedente exigir la oriundez vasca para ser académico, sino que era de mayor importancia el conocimiento del vascuence. Se acuerda que conste así.

El Sr. Presidente da cuenta de una conversación habida con el Director de la Caja de Ahorros Municipal, Sr. Lamsfús, quien manifestó se estaba estudiando la cuestión de la subvención solicitada por la Academia.

Algunos académicos de los presentes piden noticias sobre la autorización del número de **Euskera** incautado por la Delegación de Prensa de San Sebastián. Se encarga a Don Juan Gorostiaga que formule esta pregunta al señor Secretario.

No habiendo orden del día, la sesión se dedica a discusiones científicas del mayor interés.

Se acuerda que los viáticos de esta reunión, así como los de la anterior se satisfagan la próxima vez que acuda el Sr. Secretario.

Se levanta la sesión invocando a la Santísima Trinidad, convocándose la próxima para el 28 de mayo.

Reunión del 28 de mayo de 1954

Bajo la presidencia de Don Ignacio María Echaide se reunen en el Palacio de la Diputación de Guipúzcoa, los académicos de número: Rvdo. P. Luis de Villasante, Don Angel Irigaray y Don Luis Michelena.

Asiste también el Rvdo. P. Salvador Michelena.

Excusa su asistencia en una postal el académico de número Mr. Louis Dassance, manifestando que "un contretemps m'empeche au dernier moment d'assister a la Seance de l'Academie".

Después de esperar inútilmente un rato la asistencia de los representantes de Vizcaya, se da comienzo a la reunión con las preces de costumbre.

El Sr. Presidente manifiesta la preocupación que le causa la reiterada ausencia del Sr. Secretario, pues, es la tercera vez que deja de concurrir, cosa en él inusitada. De su falta de asistencia a la reunión de marzo, se tiene noticia de que fue debida a asuntos profesionales; pero de la del mes pasado y del actual no se tiene noticia alguna. Todos los presentes hacen votos porque la lamentada ausencia de tan querido amigo y destacado académico no sea debida a motivos de salud.

El Sr. Presidente da cuenta de que ha firmado una instancia dirigida al Sr. Obispo de San Sebastián, que lleva fecha 19 de mayo, solicitando aprobación canónica para la nueva edición del *Gero* de Axular que ha preparado el académico Don Manuel Lecuona.

Los académicos presentes se interesan nuevamente sobre la autorización del número incautado de **Euskera.** Se manifiesta que no se han recibido de Vizcaya noticias sobre el particular.

A continuación se lee un informe de Don Luis Michelena acerca del diccionario Euskera-Erdera que la Academia viene preparando desde 1941. Dada la importancia del asunto, se acuerda que el Sr. Presidente estudie despacio dicho informe, poniéndose de acuerdo con el Sr. Michelena en el caso de que estimara necesario algún retoque en su redacción y luego remitir copias del mismo a todos los académicos, previniéndoles que en la próxima reunión de la Academia se discutirá el informe.

Se acuerda que los viáticos de esta reunión y de las dos precedentes se satisfagan la primera vez que acuda el Sr. Secretario.

Se levanta la sesión invocando a la Santísima Trinidad, convocándose la siguiente para el 25 de junio.

Reunión del 30 de julio de 1954

Bajo la presidencia de Don Ignacio María Echaide, se reúnen en el Palacio de la Diputación a las 12 horas de la mañana los académicos: Don Angel Irigaray y Don Luis Michelena

Se abre la reunión con las preces de costumbre.

Por ausencia del Sr. Secretario no se puede leer el acta de la reunión anterior.

El Sr. Presidente da cuenta de haberse recibido una invitación para el 8.º Congreso de Estudios Vascos de Bayona celebrado el 11 del corriente. La invitación llegó con excesivo retraso por lo que no se pudo dar aviso de ello a los Sres. Académicos Peninsulares.

Se leyó una atenta carta de Don Antonio Tovar relativa a los estudios sobre el radical "korr" iniciados por la Presidencia y sobre el que se han recibido trabajos del Académico P. Inza, del Académico Mr. René Lafon y del vascólogo donostiarra Don Antonio Arrúe. Del primero se ha facilitado copias (traducciones) a todos los Académicos y a unos doce vascólogos ilustres no pertenecientes a la Academia, por lo menos como miembros de número. Se va a hacer lo propio con los trabajos de los Sres. Lafón y Arrúe.

Se cambian impresiones sobre el concurso literario, que constituye un éxito. A los trabajos que tienen que presentarse dentro del mes de agosto han acudido ya siete concursantes y se tiene noticia de que aún se presentarán otros varios. Los señores Michelena e Irigaray han comenzado a estudiar varias de estas obras.

Se acuerda que la próxima reunión se celebre el 27 de agosto, pues, a ella han prometido acudir los Académicos continentales. Se procurará aprobar en ella el proyecto de reforma de los reglamentos. Los señores Irigaray y Michelena se hallan en un todo conformes con la propuesta de reforma presentada por el Presidente. Los que tuvieran algo que hacer observar deberán presentar por escrito propuestas concisas a fin de discutirlas rápidamente y someterlas a votación.

Se da cuenta de los propósitos del Presidente de la Diputación de impulsar las actividades del Seminario Julio Urquijo. El Sr. Presidente manifiesta que tiene contacto estrecho con este asunto de la mayor importancia para el euskera y aun para la misma Academia. El Sr. Irigaray manifiesta que el Seminario debiera tener una consignación fija para publicaciones, especialmente de clásicos vascongados. Se toma nota de esta observación para cuando llegue el momento oportuno.

Se levanta la reunión con la invocación a la Santísima Trinidad, convocando la próxima, para el dia 27 de agosto, último viernes de este mes, como queda arriba dicho.

Notas para el acta de la última reunión

Día: 27 de agosto de 1954.

Hora: 12 mediodía.

Lugar Palacio Diputación de Guipúzcoa.

Presidencia: Ignacio María Echaide.

Secretario: Sr. Oleaga.

Asistentes: Sres. Lecuona, Irigaray, Gorostiaga; correspondiente Sr. Labayen.

Preces.

Presidente da cuenta acuntos tratados última reunión de la cual no está extendida el acta.

Asimismo de una carta de agradecimiento de Doña María Paz Ciganda de Pamplona por haber sido designada "correspondiente".

Asimismo de una invitación a las "Reuniones de Toponymie" de Bayona (VIII Congreso), días 19 a 21 agosto que llegó demasiado tarde para ser comunicada a los Académicos.

También de la visita del Profesor Dr. H. J. Vah de Wijer, profesor de la Universidad de Lovaina y Secretario General del Comité Internacional de ciencias Onomásticas (L. Schrenvert 29, Lovaina (Leuven)) quien venía personalmente a anunciar a la Academia el próximo Congreso de Toponimia y Antroponimia de Salamanca, días 12 a 15 abril 1955.

El Sr. Secretario lee una carta de consulta de Don..... de Cuba, sobre acentuación en castellano de topónimos vascos. Contestará.

Concurso literario. Expirado el plazo para novelas y cuentos el 10 ppd.°, se han recibido 16 trabajos; 11 novelas y 5 colecciones de cuentos. Se dará noticia a la Prensa del País Vasco.

Reforma del Reglamento. Se aprueba la propuesta de la Presidencia nombrándose una Comisión integrada por Presidente, Irigaray, Michelena autorizado para redactar e imprimir (o tirar en cyclostile) los ejemplares precisos.

Próxima reunión 24 de setiembre.

Invocación a la Santísima Trinidad.

Se levanta la reunión.

Acta de la reunión de 24 de setiembre de 1954

Bajo la presidencia de Don Ignacio María Echaide se reúnen en el Palacio de la Diputación de Guipúzcoa a las 12 horas de la mañana los Académicos de número: Don Luis Michelena, Don Angel Irigaray, Don Manuel Lecuona, Don Juan Gorostiaga y el correspondiente Mr. Charles Bouda.

Se abre la reunión con las preces de costumbre.

El Sr. Gorostiaga manifiesta que el Sr. Secretario no puede acudir por motivos de salud. Tampoco ha remitido el acta, por lo cual el Sr. Presidente recuerda a los reunidos los asuntos que se trataron en la reunión última.

Tiene lugar un cambio de impresiones muy agradable con el Sr. Bouda sobre asuntos científicos y literarios relacionados con el vascuence. Al despedirse el Sr. Bouda comienza la reunión propiamente dicha.

El Sr. Lecuona manifiesta que ha leído dos de los trabajos remitidos con motivo del concurso literario, haciendo férvido elogio de los mismos.

El Presidente da cuenta de que, con motivo de haber sido aprobados en la reunión anterior, los nuevos estatutos y reglamento interior se podrían cubrir hasta seis plazas de académicos numerarios suplentes; pero propone que, de momento, se designen solamente tres; da los nombres de Don José María Lojendio, Don Antonio Arrúe y Don Gregorio Maidagán, justificando su propuesta con los méritos de los candidatos, de todos conocidos; en particular respecto del Sr. Maidagán existe el imperativo de los Estatutos que exigen que el Tesorero sea miembro de número. Se aprobó la propuesta del Sr. Presidente encargándosele que escriba a los interesados para que manifiesten si aceptan o no el cargo, bien entendido que esto ha de suponer una asistencia y colaboración asidua, pues, de otro modo en ninguna forma se alcanzaría el fin que pretenden estas designaciones.

La representación de Vizcaya da cuenta de que, durante los dos últimos cursos, se han desarrollado en los que la Academia tiene en Bilbao, clases de euskera con asistencia bastante considerable. Aproximándose el comienzo del curso 1954-55 y pareciendo interesante dar más categoría a las mismas y ampliarlas se presenta un proyecto de fundación de la Cátedra "Resurrección María de Azcue", que abarcaría los siguientes estudios.

1.º Curso de literatura para euskaldunes.

a) Literatura clásica.

b) Literatura actual y directrices literarias.

c) Consideraciones gramaticales, filológicas y dialectológicas a través de la literatura.

2.º Cursos de enseñanza del idioma.

Para los que lo conozcan imperfectamente, utilizando como factor principal en el aprendizaje la literatura.

3.º Conferencia mensual.

Sería muy de desear poder llevar a cabo la celebración de conferencias mensuales sobre algún tema relacionado con el euskera por algún euskaltzain o euskerólogo que se dispusiese a ello. Sería muy interesante hacerlo en euskera sobre cualquier tema humano.

El curso comienza el 1.º de octubre y termina el 31 de mayo. Por ahora las personas dispuestas a llevar a cabo el desarrollo de este programa son las siguientes: Don Xabier Peña, Don Eusebio Erquiaga y Don Alfonso Irigoyen.

Los asistentes oyen con la mayor complacencia estas manifestaciones, felicitan efusivamente a la representación de Vizcaya y aprueban la creación de la Cátedra "Resurrección María de Azcue".

Se da cuenta de que en los locales de la Academia de Bilbao, los Sres. Don Javier Peña y Don Alfonso Irigoyen han realizado a sus expensas las siguientes obras:

Colocar ventanas con cristal esmerilado y tablero contrachapeado en el fondo al mueble biblioteca situado en la habitación final y barnizar.

Idem al mueble Espasa.

Colocación de una base a otro armario del cual se ha aprovechado para mesa de escritorio la base antigua.

Desmontar una mesa situada en la habitación central la cual ocupaba un espacio enorme siendo además incómoda. Se ha aprovechado para construir dos filas de cajones colocadas en dos rincones de la misma habitación.

Reparación de sillas.

Acuchillar y barnizar la mesa de la habitación final.

Se acuerda dar a los Sres. Peña e Irigoyen las más efusivas gracias por este rasgo de generosidad y cariño a nuestra Corporación.

También se da cuenta de que se han *agotado* los fondos que la Junta de Cultura de la Diputación dio para reformas en el local y que aún quedan por hacer obras indispensables de carpintería y pintura, las primeras, según presupuesto de Don Pedro Aránzabal, ascenderán a 2.535 pesetas y las segundas a 3.810. Se acordó que se solicite nueva ayuda de la Junta de Cultura, pero si ésta fuese denegada se hagan con cargo a la Academia que cuenta con fondos suficientes para ello.

El Sr. Gorostiaga se despide de los asistentes al acto manifestando a los reunidos que el día siguiente sale para Norteamérica en viaje de estudios, ofreciendo sus buenos oficios a la Academia, para cualquier asunto que les interese. Los Académicos presentes agradecen al Sr. Gorostiaga sus ofrecimientos y le desean un próspero viaje.

Se levanta la reunión invocándose a la Santísima Trinidad, convocándose la siguiente para el día 29 de octubre.

1954-X-29

Donostian, mila bederatzireun eta berrogetamalaugarren urteko Urrilaren ogetabederatzian, Ekautajauregian, Etxaide jauna maipuru dala ta Irigarai, Lekuona, Villasante, Mitxelena ta Oleaga euskaltzainak berton dirala, egiten dau Euskaltzaindiak egungo deitutako batzarra.

Araudi-otoitza eginaz, lenaureeko batzar-agiria irakurri da ta ao-batez onetsia izan da.

Urrengo irakurri dira Jose Maria Lojendio, Antonio Arrue ta Gregorio Maidagan jaunak egin jakezan euskaltzaintza-ordearen eskiñiari emoten dautsen erantzuna; lenengo biak artzen dabela dinoe, ta euren eskerrona bidaltzen dabe; irugarrenak bere eskerrona agertzen dau, baina eskiñiriko kisa ez artzeko daukazan zioak zearo azaltzen dauz. Erantzunak ikusirik, Lojendio ta Arrue jaunak euskaltzain-ordetzat artzea erabagi da ta deitu bekioe urrengo batzarretara.

Euskaltzain guztiak, Euskaltzaindiaren erabagiak ezagutu daiezan, dagozan **Euskera** aldirokoen ijekiak emon dakioezela erabagi da. Baita egingo diran batzarren egitamua ta lenaurreko batzar-agirien ijekiak bidali dakioezala bere.

Tovar urgazle jaunak, bere liburu *La Lengua Vasca*ren bigarren agerraldiko ijeki bat bidaldu dautso Euskaltzaidiari. Eskerronez artu da.

Arestian Euskaltzaindiak atonduriko sari-batzaldirako amaika gertirudi ta seipuin-sorta artu dira; aztertu begiez euskaltzainak, bere erean epai egokia emoteko.

Azkenez, entzuten dira Alfonso Irigoyen jaunak emoten dauzan azalben batzuk. Lehenengo, Maidagan diru-zainaren izenean diru-zertzeladak; egun Euskaltzaindiak daukan dirua da: Donostian 20.3000 peseta; Bilbon 7.869,50 peseta; guztiz 28.169,50 peseta. Gero, Euskaltzaindi-etxean egindako barrizkuntza-lanak zelan doazan ta egoki amaituteko bear diranak zeaztuaz. Urrengo, liburutegiko zerrendagintza ta kidegintzaren barri emonaz. Arretaz ta pozik entzun dira barriok.

Beste barik eta araudi-otoitzaz amaitu batzarra.

Zadorlaria
Nazario Oleaga

1954-XI-27

Donostian, mila bederatzireun eta berrogetamalaugarren urteko Azilaren ogetazazpian. Ekauta Jauregian egiten dau Euskaltzaindiak il oneri dagokion batzara. Maipuru, Etxaide jauna. Batzarkide, Irigarai, Mitxelenata Oleaga Euskaltzainak, eta Lojendio ta Arrue, euskaltzain-ordeak. Villasante euskaltzainak ezin etorria iragarri dau.

Asiera, araudizko otoitzaz egin da.

Gero lenaurreko batzar-agiria irakurri da ta ao-batez onetsia izan da.

Lojendio ta Arrue euskaltzain-orde bariai ondo etorria emoten yake. Bitzuk darantzue, euren arrerea dala-ta eskarrena barriro erakutsiaz eta Euskaltzaindiarentzako dagokien eta al daben laguntasun osoa eskiñirik.

Oleagak jakin arazten dau, **Euskera** Euskaltzaindiaren gutuna argitaratzeko baimena eskatu dala.

Gero aratu dira sariketara bidalduriko lan batzuk, eta Irigaraien asmoz erabagi da, Bidasoz andiko aldeko euskaltzainai gai oretzaz emengo aldetik zer jazo dan esatea ta andiko aldean ezer gerta dan itantzea.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburu-ordea
A. Irigaray

Zadorlaria
Nazario Oleaga

1954-XII-30

Donostian, milla bederatzireun eta berrogeitamalaugarren urteko Lotazillaren ogeitamarrean, Ekaute-jauregian, Irigarai jauna maipuru dala ta Lekuone, Mitxelena, Villasante ta Oleaga euskaltzainak eta Lojendio ta Arrue euskaltzainordeak etorririk, egiten dau Euskaltzaindiak gaurko deituriko batzaŕa.

Araudizko otoitza esan eta, lenaurreko batzar agiria irakurri da, ta ao-batez onetsia izan da.

Lenengo aitatu da Etxaide Euskaltzainburuordeak oraintsu izan dauen gaisoa, ta berau dala-ta batzarrera ezin etorri izan dala. Batzarkideak minduta artzen daue barri tamalgarri au ta gaisoaren sendamena osoro ta arin eldu dadin biotz guraria agertzen daue.

Urrengo, Salamankan, 1955gko. Jorrailean egingo dan izengaizko Batzarrerako actu dan deia, adierazoten da. Batzar orretarako, Euskaltzaindi onen ordezpena Mitxelena jaunari emoten jako. Norbaitek batzar atarako lan egokiren bat gertuten badau, bidaldu bertara.

Irigarai jaunaren eretxiz, Norbert Tauer, Txeko-eslobakotarraren euskaltzaletasuna Euskaltzaindiak urgazle izentaurik saritu bear leiteke: orretarako aitatzen dauz jaun orren lanak eta irabaziak. Olantxe erabagi da.

Gero irakurri da Jon Garmendia, Donostiako "Begoña" izendun liburutegiaren jabeak, bere liburutegi ori eskintzen dautsala Euskaltzaindiari, beronen liburuak uri atan salgei jarri gura badauz. Aintzakotzat artzen da eskintza ori, eta itundu bediz Garmendia jaunagaz zertzeladak.

Juan Arbelaiz donostiarrak eskatzen dau Euskaltzaindiak salgei daukazan liburuen zerrenda bat, bakoitzaren salneuŕia aitaturik. Gutuntzainak, edota beronen ordeak, atondu begi zerrenda ori ta bidaldu bekio Arbelaiz jaunari.

Urrengo, sari-batzaldira ekarritako Gertirudiak, Euskaltzainak ondo ta zeatz azterkaturik daukezan ezkero, erabagi da:

Lenengo saria "Joanak joan" deritzanarentzat.

Bigarren saria "Bide izkutua" deritzanarentzat.

Irugarren saria "Aspaldiko Maigret" deritzanarentzat.

Sari banatze au egin eta saritutako lanen egileak nortzuk diran ikusi da, onexek dira: 1.—Juan aldamin; 2.—Sabino Berasaluze, Prantzizkotarra; 3.—Eusebio Erkiaga.

Ganera, aitatugarritzat artu da "Amabost egun Urgainen" deritzain gertirudia. Beronen egilea, Jose Antonio Loidi jauna da.

Aitatu da gero Euskalitzaindiaren gutun **Euskera** argiteratzeko oraintsu eskatu dan baimena emon dala, oraindiño baimen oŕen agiria artu eztan aŕen. Artutakoan, eginda dagozan ejikiak jaso bear izango dira, eraz saltzeko ta zabaltzeko. Salneurria amabost peseta bedi.

Azkenez, urrengo batzarrak etorteko dagon Urtarrilla-Ilbeltzaren egeitabederatzian eta ogeitamarrean. Bilbon, Euskaltzaindiaren etxean egitea ebatzi da. Oneri buruz, aitatzen da, egun oŕetariko baten Bilbon euskal-gaizko itzaldiren bat egitea egoki izango litzakela. Ao-batez aintzakotzat artzen da eretxi au eta Lojendio jaunari eskatzen jako itzaldi ori gertu dagiala. Baietz dino jaun orrek eta bere itzaldi orren gaia "Introducción al estudio de la literatura vascongada" izango dala diragar. Begiz Bilbon Oleaga jaunak asmo au betetako bear diran gertakuntzak.

Beste barik araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburu-ordea
A. Irigaray

Zadorlaria
Nazario Oleaga

1955-I-29

Bilbon, milla bederatzireun eta berrogeitabost arren urteko Urtarrilla. Ilbeltzaren ogeitabederatzian Euskaltzaindiaren etxean egiten dau Euskaltzaindiak egun orretako deitutako batzarra.

Maipuru: Irigarai jauna. Batzarkide: Mitxelena, Villasante ta Oleaga, euskaltzainak, Lojendio ta Arrue euskaltzain-ordeak, eta Arrutza, Garro ta Erkiaga urgazleak. Etxaide jaunak urrutidazki biotztun baten bidez bere ezin etorria jakin erazo dau.

Araudizko otoitza eginaz gero, adierazoten da Euskaltzaindi onen asmoz Lojendio jaunak "Introducción al estudio de la Literatura Vascongada" gaitzat arturik, itzaldi bat gertu dauala, ta itzaldi ori, Bizkaiko Jakintza-Batzordearen babespean, iragarrita dagoanez Bizkai-Liburutegian gaur izango dala.

Beroneri buruz eta berandu dan ezkero, asiriko batzar-au biarko iztea erabagi da.

Onegaz eta araudi-otoitzaz amaitu da.

Euskaltzainburu-ordea
A. Irigaray

Zadorlaria
Nazario Oleaga

1955-I-30

Bilbon milla bederatzireun eta berrogeitamaboskarren Urtarilla-Ilbeltzaren ogeitamarrean, Euskaltzaindiaren etxean, Irigarai jauna maipuru dala, batu dira Mitxelena, Villasante ta Oleaga Euskaltzainak, Arrue ta Lojendio euskaltzainordeak eta Arrutza, Garro ta Erkiaga urgazleak, gaurko deitutako batzarra egitera.

Araudizko otoitza esanaz asten da.

Lenaurreko batzar agiria irakurririk onetsia izan da.

Bart Bizkai liburutegian Lojendio jaunak "Introducción al estudio de la literatura vascongada" gaiaz eginiko itzaldi eder ta txalogaria dala-ta, batzarkide guztiak euren poza ta atsegina agertzen daue.

Sari batzaldirako artutako ipuin sortak aztertuta dagoz; eta gai oneri buruz erabagi da:

Lenengo saria, "Zuetzako aitita" deritzanarentzat.

Bigarren saria, "Euskera maite, maite, zabiltz nigaz beti" atzalburua daukanarentzat.

Bakoitzaren egile nor dan ikusi da. Lenengokoarena Felix Bilbao A., Prantzizkotarra. Bigarrenarena, Juliana Azpeitia de Eskauriaza, anderea.

Gero adierazo da Donostian baituta egon diran **Euskeraren** ijekiak askatzea lortu dala. Pozik entzun da barri au. Bidaldu bekioe ijeki bana Euskaltzain eta Urgazle bakoitzari, ta enparauak salgei jarri bediz.

Urrengo aitatu da, Alfonso Irigoyen, gutuntzaintzan eta diruzaintzan Gorostiaga ta Maidagan jaunari lagunduz, Euskaltzaindiaren alde egiten dauzan lan neketsuak. Lan ori orainarte doan egin dau. Baina batzarkide guztien eritxiz ezta egoki au. Eta berau dala-ta, Irigoyen jaun ori, Gutuntzaintza, Diruzaintza, Idazkaritza ta beste Euskaltzaindi arazoetako langille izentatzea erabaki da. Bere lan saria, urtean lau milla laurleko iru-ilebeteka ordainduta bedi. Lan orduak, ordu bete goizean al-dala amabietatik ordu batetara ta arratsaldean beste ordu bete al dala iruretatik lauretara. Ganera Euskaltzaindiaren arazoetan eginiko joan etorrietan eta beste edozelan eralgi dauana ordaindu bekio; eta bardin Euskaltzaindi-geleak atonduteko aurreratu dauana. Baita bein-beineko, Gorostiaga jauna kanpotik etorri arte eta diruzain barria izentau arte Irigoyen berak beroa gutuntzaintza ta diruzaintzaren ardurea bere.

Urrengo begiratuten da euskaltzaindi-liburutegian salgei dagozan liburu zerrenda, ta bakoitzaren salneuria zein izan leiteken aztertzen da, gai au astiro ta zeatz oldozturik, banaz banazean ezartzen jakez salneurriok.

Azkenez Bizkaiko Aldundi ta Bilboko Udalari, lenagoko euskera-ikastolak barriro jarri dagiezala eskatutea ebatzi da.

Eta beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburu-ordea
A. Irigaray

Zadorlaria
Nazario Oleaga

1955-II-25

Donostian, milla bederatzireun eta berrogetamaboskarren urteko Otsailaren ogetabostean Ekauta-jauregian, Etxaide jauna maipuru dala ta Irigarai, Villasante, Mitxelena ta Oleaga euskaltzainak eta Lojendio ta Arrue Euskaltzainordeak etorririk egiten dau Euskaltzaindiak gaurko deituriko batzarra.

Araudizko otoitzaz asten da.

Lenaurreko agiria irakurri da ta ao-batez onetsia izan da.

Gero adierazo da Lafon Euskaltzain jaunak bere lantxo bi bidaldu dabezala: bata oraintsu Baionan egindako Eusko-Jakintza batzarrean aurkeztua "Sur l'usage de la langue basque actuelle dans l'interprétation des toponymes" azalburupean eta "Revue Internationale d'onomastique" aldirokoan agertua; eta bestea "Phrases et expresions basques dans un villancico de Sor Juana Ines de la Cruz" deritxona "Bulletin Hispanique" aldirokoan argitaratua. Lan biok irakurri dira ta pozik entzunak izan dira.

Irigarai jaunak damoz Gorostiaga jaunaren barriak. Etxaide jaunak bere, Etxegarai jaunarenak, beronek bidalduriko idazki bat irakurriaz.

Oraintsuko sari-batzaldira bidalduriko lan sarigabetuak biurtu bekioez bakoitzaren egilleai.

Azkue izandako Euskaltzainburuaren Euskal-iztegiaren geigarria, lenago erabakita dagoanez, **Euskera**n alik arinen argitaratuteko egin bediz gertakuntza egokiak. Oleaga jaunaren lepora ezarten da zeregin au.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburu-ordea
J. M.ª Etxaide

Zadorlaria
Nazario Oleaga

1955-III-25

Donostian, Ekauta jauregian, milla bederatzireun eta berrogetamaboskarren urteko Epaillaren ogetabostean batzen dira Etxaide, Irigarai Mitxelena ta Oleaga euskaltzainak eta Arrue ta Lojendio euskaltzainordeak, gaurko deitutako Euskaltzaindiaren batzarra egiteko. Maipuru Etxaide jauna.

Araudizko otoitzaren ondoren lenaurreko batzar agiria irakurri da ta ao-batez onetsia izan da.

A. Villasante jaunak ezin etorria iragarri dau. Dassance jaunaren idazki bat irakurri da. Bera ta Prantzi aldeko bere euskaltzain lagunak emengo batzarretara etorteko daukezan eragozpenak azaltzen dauz, eta ganera, andiko aldean bere batzarren bat edo beste egitea egoki izango litekela dino. Aintzakotzat artzen dira Dassance jaunaren asmoak eta eurozaz zerbait erabakitekotan itzi da arazoa.

Bizkaiko Jakintza bazkunak, Gorostiaga jauna atzerrira joan dala ta beregan egon dan gutunzaintzea geldi dagoalako, Euskaltzaindiari eskeñitako urte saria lenagoko bost milla laurlekora eratsi dau. Gorostiagaren ardura ori beinbeineko Irigoyenen ardurapean jarri dan ezkero, eskatu bekio Jakintza bazkunari aitaturiko sari ori geiagotu dagiala. Oleaga jaunak egin bedi eskari ori.

Gipuzkoako Ekautari ta Gipuzkoako ta Donostiako Aurrezki-kutxai bere, eskatu bekioe bakoitzaren diru-laguntzea geiagotu dagiela. Etxaide jaunak artu begi orren ardurea.

Euskal idazle ospetsua izandako Kirikiño jaunak beinola argitaratu ebazan *Abarrak* edo Ipuin sorta politak, barriro argitaratu bear litekez, al dala berak erabiliriko izpiakera zerbait aldatuz. Oleaga euskaltzainak, Irigoyenen laguntzaz, gertu bedi asmo au aurrera eroateko bear dana.

Oraintsu izandako sari batzaldian sarituriko ipuin sortak, argitaratu bediz, osoan eta batera ezin bada, taldeka.

Euskaltzaindi onen **Euskera** aldirokoaren ijeki batzuk bidaldu bediz Salamanka ta Bordeleko Irakastegitara, Berlingo gutuntegira ta beste onako jakintza lekutara. Eta baita, alkar-truke edo ordainez beste izkuntza gutun argitaratzailleari bere.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

1955-IV-29

Donostian, Ekauta jauregian, milla bederatzireun eta berrogetamaboskarren urteko Aprillaren ogetabederatzian batzen dira Etxaide, Irigarai, Mitxelena ta Lekuona euskaltzainak eta Arrue ta Lojendio euskaltzainordeak, gaurko deitutako Euskaltzaindiaren batzarra egiteko, Maipuru Etxaide jauna.

Aita Villasante makal omen dabil. Baita Oleaga ere.

Araudizko otoitzaren ondoren lenaurreko batzar agiria irakurri da ta aobatez onetsia izan da.

Abarrak ri buruz jardun da. Irigarai jaunak esaten dau azalean ez ote dan egoki izango erderaz "Cuentos Vascos" ipintea eta "Kirikiño" bearrean E. Bustinza. Baita ia "Abarrak"en ordez "Ipuiñak" ipintea ere. Oleaga jaunak argitu begiz zertzeladak Kirikiñoren ondorengoekin. Osorik ezin bada zatika argitaratu bedi. Au eta beste ipuiñak argitaratzeko Labaienen iritzia jaso bear litzake trebea baita irarkoletako arazoetan.

Laffon jaunak lan bat igorri dau "Comportement syntaxique, structure et diathèse du verbe basque" azalean eta *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris*en agertua.

Labaien jaunaren gutun bat irakurri da "Euskaltzaindiaren sortarauak eta araudia" berriztatua "Imprenta Izarra"n, Donostian argitaratu ditekela egokien. Seireun peseta inguru kostako omen da. Argitarau bedi eta Etxaide jaunaren eskuetan uzten da arazo au.

Aita Buenaventura de Oreiegi (O. F. M.)'k bidalitako gutun bat irakurri da. Agertu dan **Euskera**n ez omen dago bera urgazleen artean. Etxaide jaunak erantzun dio bidali dezala argitasunen bat. Euskaltzaindiaren izentatzea edo noiz izan zan edo beste zerbait.

Lopez Mendizabal'tar Ixaka'ren gutun bat irakurri da. Ia egiñik daukan "Etimologias de 25.000 apellidos vascos" lanaren berri ematen du.

Aita Villasantek itzez eskatu zuen Arantzazuko komentuan egiteko batzar bat, ango prailleen euskaltzaletasunaren begirapenez. Egin bedi urrengoa an datorren illeko 29'an.

Beste gabe eta araudizko otoitzez amaitu da batzarra.

Euskaltzainburu-ordea
A. Irigaray

Zadorlari-ordea
L. Mitxelena

1955-V-29

Oñatin, milla bederatzirehun eta berrogetamaboskarren urteko orrillaren ogetabederatzian, Arantzazuko lekaretxe Frantziskotarran, Irigarai jauna maipuru dala ta Mitxelena, Villasante, Oleaga euskaltzainak eta Arrue euskaltzainordea berton dirala, egiten dau Euskaltzaindiak egungo deitutako batzarra.

Araudizko otoitza egin eta gero, lenaurreko batzar agiria irakurri da ta aobatez onetsia izan da.

Irigarai jaunaren asmoz, *Vocabulario Navarro* deritzan liburu polit eta aipagarriaren egille Jose Maria Iribarren jauna, Euskaltzain urgazletzat artzea aobatez ebatzi da. Onan adierazo bekio.

Villasante jaunak damoz Euskaltzaindiarentzat berak idatziriko "Goi argi" ta "Paradigmas de la conjugación vasca. Dialectos guipuzcoano y vizcaino" gutun ederrak. Biotzetiko eskerrak emoten dakoz.

Villasante berak dino egoki litekela *Luberri* deritzan aldizkariaren antzeko euskal astekari barria argitaratzea. Asmo au euskal astekari barria argitaratzea. Asmo au euskal izkuntzarentzat garrantzi andiko ta oso onuragarri da, batzarkide guztien aburuz, eta bera dala ta beredin zertzelada aitatu dira. Azkenean erabagi da Villasante berak gai au zeatzago aztertu dagiala eta urrengoetariko batzar batera zelan bete ta egin leiken egikizuna ekarri dagiala.

F. Krutwig'ren idazki bat irakurri da. Alemaniako "Vokerkunde" erakustokian euskal gauza batzuk badaukezala, baina geiago artuko leukeezala, ta, eurak aitaturik, ia Bizkai, Gipuzkoa ala Naparroako Ekautai eskaturik ala beste zelanbaiten eta nonbaiten zuzenduta, bidaldu al izango ete leiteken itantzen dau. Al dala bere eskari ori beteko dala erantzun bekio.

Onetan, Etxaide euskaltzainburuorde jaunak urrutidazkiz bidalduriko agur sutsua eldu da. Pozik artu da.

Azkenez, Arantzazuko Lekaidaba gurgarriari ta bertoko lekaide euskaltzaleai, Euskaltzaindiari egin dautsen abegi ederraren ordainez, esker bizi ta bizkorra agertzen dake.

Eta beste barik, araudizko otoitzez amaitu da batzarra.

1955-VI-24

Donostian, milla bederatzireun eta berrogetamaboskarren Bagilla-Garagarrillaren ogetalauan, Ekauta jauregian, Etxaide, Lekuona, Dassance, Lafitte, Mitxelena, Mulier, Villasante ta Oleaga euskaltzainak eta Lojendio ta Arrue euskaltzainordeak baturik gaurko deitutako batzarra egiten dau Euskaltzaindiak.

Maipuru Etxaide jauna.

Araudizko otoitzez asten da batzarra.

Artutako erabagiak, onexek:

Oraintsuko sari batzaldian saritutako ipuin sorta edo bildumak, ainbat lasterren argitaratzea, guztiak batera ezin bada, zatika.

Batzaldi berean "Amabost egun Urgainen" deritzan aipamendun gertirudiaren egille Antonio Loidi'ri, gertirudi ori argitaratzeko eskatzen dauan baimena emon.

Dagonilako batzarra Baionan, "Musée Basque"n egitea.

Araudizko otoitzez amaitu da batzarra.

1955-VII-29

Donostian, mila bederatzireun eta berrogetaamaboskarren urteko Uztailaren ogetabederatzian, Ekauta-jauregian, Euskaltzaindiak gaurko geitutako batzarra egiten dau. Maipuru Etxaide jauna. Batzarkide: Lekuona ta Oleaga euskaltzainak eta Lojendio ta Arrue euskaltzain ordeak.

Villasante jaunak ezin etorria adirazo dau.

Araudizko otoitza egin eta, azkenengo batzarbien agiriak irakurriak izan dira eta aobatez onetsi dira.

Gero aitatu dira, ildako Azkue jaunaren lantzo batzuk, beste gutun batzuen artean agertu diranak. Lanok onexek dira: "Kempis euskeratua; Algunas curiosidades lingüisticas; Cuestiones gramaticales; Flexionario del verbo".

Poz pozik ikusi ta aztertu dira eurok.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

1955-VIII-25

Baionan, milla bederatzireun eta amaboskarren urteko Agorrillaren ogetabostan, "Musée Basque"ko Batzar-gelan, Etxaide jauna maipuru dala, batzen dira, Altube, Elissalde, Irigarai, Lekuona, Dassance, Lafitte, Villasante, Mitxelena ta Oleaga euskaltzainak, Lojendio ta Arrue euskaltzainordeak, ta Arotzarena, Iturriaga ta Eperra urgazleak, egungo deitutako Euskaltzaindiaren batzarra egiteko. Laffon euskaltzainak eta Narbaitz urgazleak ezin etorria iragarri daue.

Araudizko otoitzaz asten da batzar au eta bereala lenaurreko batzar-agiria irakurri da ta aobatez onetsi da.

Gero Lafitte jaunak "Koska" itzaren gaizko lan polit bat dirakur. Dassance jaunak geigarri batzuk azaltzen dauz. Eta Arrue, Elissalde, Oleaga ta Lojendio jaunak bere, oartxo batzuk egiten dauez.

Urrengo, Irigaray jaunak oraintsuko batzaldian saritutako lanen argitaratzeaz daragoio. Egoki litzake guztien eritziz. Aztertu bedi arretaz noz eta zelan bete leiken argitaratze ori.

Lafitten eta Irigarairen asmoz euskal-idazkien lorategi edo kondaira bat gertutea bere egokia ta bearrizanekoa da. Oso ontzat artzen da asmo au. Asmatzaileak ikusi begiez beronen zertzeladak eta ekarri begie beronen egitamua.

Euskera Euskaltzaindi onen aldirokoa barriro argitaratu bear leiteke. Gai oneri dakio Mitxelena jaunak, batzarkide guztiak eritzi onezaz bat-batean dagozala adierazorik. Beste onenbeste jazoten da Irigarai eta Mitxelena jaunak, euskal-atlas bat bere atonduteaz aitatzen dauen asmoaz.

Gero ta aobatez Jean Hiriart-Urruti jauna urgazletzat artu da.

Eta azkenez Dassance jaunak adierazoten dau urte onetako Iraila-Buruilaren zortzian, Euskaltzaleen Biltzarrak bere urteroko batzarra Mendihondon egingo daula ta euskaltzain guztiai bertarako deituten dautsela.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitzen da batzarra.

1955-IX-30

Donostian, Ekauta-jauregian, milla bederatzireun eta berrogetamaboskarren urteko Irailla-Buruillaren ogetamarrean.

Maipuru: Etxaide jauna.

Batzarkideak: Lekuona, Irigarai, Villasante ta Oleaga euskaltzainak eta Arrue ta Lojendio euskaltzainordeak.

Araudizko otoitzez asten da batzarra.

Lenaurreko batzar agiria irakurten da ta aobatez onesten da.

Garmendia jaunak "Seminario Julio de Urquijo" deritxon batzordeak eratutako itzaldietan, berak oraintsu erabilia argitaratu nai dau eta Euskaltzaindiaren baimena daska. Pozik emoten dako.

Beinola Altube euskaltzainak "Erderismos" izenagaz euskalgaizko lan sakona idatzi eban eta Euskaltzaindiak beronen **Euskera** aldirokoan argitaratu eban. Geroagoan, Mitxelena Euskaltzainak Arnaut Oihenarten olerkiak gaitzat arturik, itzaldi bat egin eta argitaratu eban; lan orretan len aitaturiko Altuberen lanari oar batzuk ezarten dautsaz. Orain, Mitxelenak onan esandakoari Altubek darantzutso Euskaltzainburuari bidalitako lan luzetxo baten bitartez eta lan au Euskaltzaindiak argitaratu dagiala eskatzen dau. Eskari oneri buruz Villasante jaunak oar batzuk irakurten dauz. Arazo au dala ta batzarkideak eztabaidan daragoioe. Eta azkenez, aitaturiko Altuberen lana **Euskeran** argitaratzea erabagi da aobatez, al dala Villasanteren oarrak ezarririk.

Irigarai jaunak adierazoten dau, oraintsu M. Sota'k eskini dautsazala Azkue jaunaren Iztegirako oar batzuk. Pozik entzuten da barri ori, ta oarrok artu bediz, Iztegia ala beronen geigarria argitaratzen diranean.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

1955-X-28

Donostian, Diputaziñoan.

Maipuru: Etxaide jauna.

Euskaltzaiñak: Irigaray, Lekuona, Mitxelena, Villasante.

Euskaltzainordeak: Arrue ta Lojendio jaunak.

Oi den otoitzez asi da batzarra.

Etxaide jaunak Bilbotik, Emilio Campo jaunak bidalitako gutun bat irakurri du, Jaun au, Euskaltzaindian Bilbon dagoen mutillaren aita da. Pagatu bekio mutil oni eskupeko bat ango lana utzi dezan. Oleaga jaunaren eskuetan uzten da arazo au, onen iritziz erabaki dadin zer diru den bake justua lortuko duena.

Euskaltzaindiak antolatu zuen konkursora, "Galeria de Vascos ilustres" delakora lan bi bidali dira. "Amasei seme Euskalerriko" Jon Etxaidek prestatua ta "Euskaldun ospetsuak" Arantzazuko komentuko Fr. Victoriano Iñurritegi ta bere lankideak egiña. Euskaltzaindiaren iritziz lan auek eztituzte bete ezarri ziran baldintzak eta au dela ta konkurso au gabe deklaratzen da. Baiña meritudunak eta lan aundikoak direnez milla ta bosteun peseta bakoitzari ematea erabaki da, egin dutenaren ordaingarri.

Jon Garmendia jaunaren karta bat irakurri da. Lengo batzarrera, Donostiako Diputaziñoan egindako itzaldi bat bidali zuen, argitaratzeko erabakia ar zezan Euskaltzaindiak, bere kontura egingo zen arren. Zer ipiniko duen azalean eskatzen du. Ezar beza au: Conferencia pronunciada en San Sebastian por don Jon Garmendia el día... en el ciclo organizado por la Academia de la Lengua Vasca y el Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo.

Euskera urrengo argitaratzeari buruz. Bildu bitza Irigoyen jaunak lan guztiak eta prest eraman urrengo batzarrera nola argitaratu erabakiteko.

Irigoyen jaunak lan bat irakurri du "Diccionario Vasco Español Frances"eri buruz. Iztegi ori berriro argitaratzea bear bearrezkoa da Euskaltzain guztien iritziz. Bere lanean Irigoyen jaunak au diño laburki:

"Kendu prantzesa liburuaren tipitzeko ta merkatzeko ta iztegi ortaz egin diren lan oroz ornitu.

Ortarako urrengo **Euskeran** azaldu bear litzake liburu onen argitaratzeko asmoa ta eskatu euskalzale orori dituzten oar eta eraskin guztiak, bialtzen dutena gutxi izan arren, Euskaltzaindiak onesten baditu errebistan argitaratzeko asmoz eta onela iztegi berria aberasturik argitaratu."

Egin bitzate Euskaltzaiñak oni buru aal diren lan eta oarrak, denak aurrean direla erabaki bat artzeko.

Aita Villasantek oar batzuk irakurri ditu Aita Oyeregui'k bidali zuen lanari buruz "Vocabulario Popular Religioso". Lan au apaizentzat beren zeregiñetarako baliotsua da, akats batzuek zuzendu ezkero. Euskaltzaindiak eztu au argitaratzeko asmorik. Apaizek egingo balute begi onez ikusiko luke. Mitxelena jaunaren eskuetan gelditzen da au.

André Tournier eta Pierre Lafitte jaunek egindako *Lexique Francais-basque* liburuaren bost ale erosi bitez argitaratzailleari laguntzeko.

Egin bedi Irigoyen jaunak Euskaltzaindiaren presupuesto bat eta Etxaide jaunari igorri.

Araba aldetik Euskaltzaindiak eztu subenziñorik. Etxaide jaunak egin bitza alegiñak Apraiz jaunaren bidez.

Otoitzez bukatu da batzarra.

1955-XI-25

Donostian, mila bederatzireun eta berrogetamaboskarren urteko Azilaren ogetabostan, Ekauta-jauregian, Etxaide jauna maipuru dala ta Irigarai, Lekuona, Villasante, Mitxelena ta Oleaga euskaltzainak eta Arrue ta Lojendio euskaltzain-ordeak baturik egiten da egungo deituriko Euskaltzaindiaren batzarra.

Araudizko otoitza egin-eta, lenaurreko batzar-agiria irakurri da, ta aobatez onetsia izan da.

Urrengo "Landar-lander" itzak arturik, Etxegarai jaunaren lantxo bat irakurri da. Pozik entzun da lan au, eta bardindo beronen gaiari buruz, batzarkide batzuk adierazoriko oar egokiak.

Mitxelena jaunak, ildako Azkueren Euskera-erdera Iztegiaren argitaratze barriazko txosten oso ederra dirakur. Berau dala-ta eztabaida sakonetan sartu dira batzarkideak. Azkenez, urrengo batzarrena Mitxelenak gai onen egitamura dagokozan zertzelada guztiakin ekarri dagiala erabagi da.

Guatemalan argitaratzen dan *Eusko-gogoan* agertutako asmo bat Arrue jaunak egoki eritzi-ta, Euskaltzaindiak zerbait erabagi bear leukela dino. Asmo ori, Gramatizazoko euskal-itz zerrenda bat atondu bear litakela da. Osoan onetsi da ta euskaltzainak onetan ekin dagiela ebatzi da.

Etxaide jaunak adierazoten dau Arabako Ekautari Euskaltzaindi onentzat laguntasuna ta soroskia eskatu dautsazala. Ondo dago.

Gero aitatu da Jon Bilbao euskaltzaleak "Indice lingüistico vasco" deritxon lanari dakiola. Atseginez artu da barri au.

Azkenez, euskerearen alde orainarte egin dauzan lanen esker-erakutsiz eta aurrerkoen pozgarri izan dakion, Nemesio Etxaniz jauna urgazletzat artzea erabagiten da.

Eta beste barik, araudizko otoitzaz emoten dako batzarrari amaia.

1955-XII-30

Donostian, milla bederatzireun eta berrogetamaboskarren urteko Lotazillaren ogetamarrean, Ekauta-jauregian, Euskaltzaindiak egiten dau egungo deituriko batzarra.

Batzarkideak onexek dira: Villasante, Irigarai, Mitxelena ta Oleaga Euskaltzainak; eta Arrue ta Lojendio Euskaltzainordeak. Maipuru, lenengoa. Etxaide jaunak ezin etorria iragarri dau.

Asierea, araudizko otoitzaz emoten dako.

Gero len-aurreko batzar-agiria irakurri da ta aobatez onetsia izan da.

Urrengo, adierazo da Buenos Airesko "Euskalzaleak" deritxon Bazkunaren Montoya'tar Bedeta, Lendakariak eta Biteri'tar Bingen idazkariak bidaldutako gutun bat; beronegaz bidaltzen daue, Buenos Airesen 1887'garren urtean "Laurak Bat" batzokiaren zuzendaritza eukon jaunak Uruguayko San Jose errira euskaldunen alkartasuna lortzeko sortu zan batzordeari bidaldutako euskeraz egiñiko idazki baten argaz-kopia bat. Poz pozik, entzun dira bata ta bestea.

Irigoyen, Euskaltzaindi onen langilleak, ildako Azkue jaunaren iztegiaren geigarriarentzat itzaurre bat gertu dau. Lantxo au irakurri da eta onetsia izan da.

Arrue jaunak diño, bere iritziz Antzerki- sariketa bat gertutea euskerarentzat oso egoki ta onurakorra izango litekela. Aintzakotzat artzen da asmo au. Aitaturiko sariketaren zertzeladak zeaztu begiz Arrue jaunak urrengo batzarrera ekarri begiz, dagokon erabakia artzeko.

Oleaga jaunak aitatuten dau, Euskaltzaindiaren lenegoko erabagi bat beteaz, Bizkaiko Ekautaren Junta de Cultura'ri, bere diru laguntasuna geiagotu dagian egindako eskaria, eta jakin erazoten dau eskari ori onetsia izan dala.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburu-ordea — *Zadorlaria*
Villasantetar Luis — Nazario Oleaga

1956-III-23

Donostian, Diputaziñoan,

Maipuru: Etxaide jauna.

Euskaltzaiñak: Irigaray, Villasante, Lekuona ta Mitxelena jaunak.

Urgazleak: Zaitegi ta Etxaniz jaunak.

Oi den otoitzez asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri ta onetsi da.

Ordaindu bekio Valverde jaunari bost milla peseta *Abarrak* argitaratzearen leen emaitza.

Caracas-tik Libreria Izarra-ko Eduardo de Nafarrate jaunak idatzi duen karta bat irakurri da. **Euskera** aldirokoa aterako dela jakin du, Euskaltzaindiak jakineraztеko egin dituen orrien bidez eta an zabaltzeko eskabidea egiten du eta baita arako salneurria. Idatzi bezaio Irigoyen-ek bere iritzia eskatuz orretan eta nola egin ditekean diruaren aldaketa.

Irigoyen-ek adierazten du **Euskera**-rako irureun suskritore inguru daudela eta errebista bere kabuz bizi aal izango dela.

Egin bitez **Euskera**-ren idazle bakoitzentzat ogetabost separata, lanaren ordaingarri.

Zaitegi jaunak erdal-euskal iztegia aipatu du, Euskaltzaindiak bere gain zuen eta eduki bear lukean iztegia, naiz eta kanpokoen batek bere bat egin. Bere iritziz obe da iztegi tipi bat, idazleen lagungarri, eta ez Azkue zanak zuen asmoa, au da, sinonimo ta abartxo guztiak sartzea. Esan zen nola gauza au leen ere asmotan artua zegoen. Galdetu zitzaion Irigaray jaunari eskuartean darabiltenari buruz eta mantso dijoaztela erantzun zuen.

Euskal dotriñari buruz: Zaitegi-k galdetzen du ia ez litzaken komeni Obispo jaunari eskabideak egitea, orretan lege bat jarri dadin eta ez apaiz bakoitzaren eskuetan egon. Au leen ere aipatu zen batzar batean eta joateko asmoa artu. Lojendio jaunak adierazten du alde orretarik eztagoela zeregin aundirik eta obe dela zuzenki aritu apaizekin, bear diren liburuak argitaratuz, bai eleiztarrentzat eta bai apaizen iturburuak betetzeko.

Aita Villasante-k Arantzazuko jubileo urtea dela ta, ia Euskaltzaindiak batzar moduko bat egin dezaken jai bat antolatuz eskatzen du. Aztertuko da asmo au.

Besterik gabe oi den otoitzez amaitu da batzarra.

1957-III-29

Donostian, Aldundi-jauregian, mila bederatzireun eta berrogeta-amazaspi garren Urteko Epailaren ogetabederatzian, dei-eginiko batzarra egitera batzen da Euskaltzaindia. Maipuru, Etxaide jauna. Batzarkideak, Villasante, Mitxelena, Lekuona ta Oleaga, Euskaltzainak; Arrus ta Lojendio, Euskaltzain-ordeak, eta Etxaniz, Urgazlea.

Araudizko ototza egin-eta, lenaurreko batzar-agiria ontzat artuida.

Urrengo, Zadorlariak adierazten dau, aspaldian erdi-golduta edo, egon dan Erdera-Euskera iztegi barraren A izki-atala agertu dala ta gutundegian beste atalakaz batera ezarri dala.

Gero Etxaide jaunak azaltzen dauz Euskaltzaindiaren alde norbaitzuri egin dautsezan diru-eskariak.

Oleaga jaunak diño egoki litzakela, "Euskaltzaindiaren Laguntzaileak" izenegaz lenago iñarduan Batzordea barriz atondutea eta beronen lana, sail bitan ebagitea: bata Jakintza gaiari buruz, ta bestea Txindi batzearen arduraz. Olan onetsi da ta Oleaga berak ekin beio lan oneri.

Aŕueren asmoz, **Euskera**, Euskaltzaindiaren aldirokoaren oraintsuko ekiaren atontzaleai, ta batez bere Alfonso Irigoyeni, zorion-agur sutsua erakustea erabagi da.

Azkenez, Distribuidora E D A ren idazki bat irakurri da. Bertan diño euskalliburu eta aldizkariak banatu ta edatzeko eratu dala, ta nai bada Euskaltzaindiak sortu daikezan lanen edatzaile izateko gertu dagoala. Aintzakotzat artu da eskari ori.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

1958-IV-24

Donostian, bildu dira: buru, I. M. Etxaide, Mitxelena, Lekuona, Villasante, Arrue, Gorostiaga ta Oleaga euskaltzainak. Anai V. Berriochoa, Alvarez Emparanza, Irigoyen ta Etxaniz urgazleak. Irigarai jaunak ezin etorria adierazi dau.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Lengo agiria irakurri da ta onetsia izan da. Gero aitatu da joan dan illeko 31-ean amaitu dala bizkaierazko euskal-metodoaren sariketarako epea eta iñok eztauela bialdu lanik. Aztertu bedi arazo au, ia nori eskatu leion egin daian.

Arrue jaunak lantxo bat irakurri dau "Nombres de la Calandria".

Lopez de Guereñu jaunak lan luze bat bialdu dau "Voces Alavesas".

Mitxelenak diño datorren udan Saraitzura joatekoa dala egun batzuetan ango euskalkia aztertuten.

Gorostiaga jaunak lan bat irakurri dau "Nombres de la semana".

Altube jaunaren barri emoten da. Oraintsu Gernikan finkatu dau bere bizilekua eta diño oraingoz batzarretara ezin etorri bada be lanen bat edo beste gertatuko dituala.

Miguel Angel Astiz jauna urgazle izendatzen da euskeraren alde egiten ari dan zabalkunde bikaiñagaitik.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

1958-V-29

Donostian, bildu dira: I. M. Etxaide, buru, Lekuona, Mitxelena, Irigaray, Villasante, Lojendio, Gorostiaga ta Oleaga, euskaltzaiñak. Labayen Zugasti, Etxaniz, Alvarez Emparanza, ta Irigoyen urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko agiria irakurri da ta onetsia izan da.

Astiz jaunaren karta bat irakurri da eskerrak emonik izentaziñoagaitik.

Juan Angel Echevarria jaunak karta bat zuzendu dau esanik zelan Santurtzi-ko "Patronato Santa Eulalia"-n euskerazko ikastaro bat egitea erabagi dan, bera irakasle izango dalarik. Erantzun bekio Euskaltzaindiak oso begi onakaz ikusten dauela eta prest dagoela bere aldetik emon leien laguntasun guztia emoteko.

Igazko kontuak irakurri dira onartuak izanik.

Etxaide jaunak diño Irigaray jaunak prestau ta argitaratu dituen ipuiñak txit ederto dagozala eta Euskaltzaindiaren izenean zorionak emoten jakoz.

Mitxelena jaunak diño mogidu egin bear litzakeala apur bat diru bilketea iztegia dala-ta.

Urgazle barriak izendetan dira: Aita Ignacio Mancisidor, Loiolan dagoena, eta Oyarzabal'tar Martin jauna, Hernani-n bizi dana.

Mitxelena jaunak Saraitzuko barri emoten dau.

Irigoyen-ek aitatuten dau Altube jaunak idatzi deutsan karta bat esanik bere liburu mordo bat Euskaltzaindiari emon gura deutsola.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

1958-VI-26

Donostian, bildu dira: I. M.ª Etxaide, buru, Irigaray, Gorostiaga, Villasante, Oleaga, Lekuona, Mitxelena, ta Lojendio jaun euskaltzaiñak. Zugasti, Aita Larrañaga, Irigoyen, Loidi ta Etxaniz jaun urgazleak.

Aurreko agiria irakurri ta onetsia da.

Mme-Jaureguiberry andra urgazlearen karta bat irakurri da eta Zuberoako barri emoten dau eskolako arazoa ukuturik. Oso begi onez ikusten da egiten ari dan lana.

Irigaray jaunak Arbizu-n "príncipe de Viana"-koak gertau daben jaialdiaren barri emoten dau. Oso begi onez ikusten da Nafarroan umeen artean egiten ari direan lan bikaiña. Esaten dau zelan *Herria* astekariaren batzarre batean bera egon zan eta zelan asmo barriak dabezan astekaria obetzeko eta geiago zabaltzeko. Oso ondo egiña da astekari au ta gaiñera asko ta asko dago Frantzia alderdiko euskaldunak zeatz eta meatz irakurten dabena, baina Amerikan ta Algerian dagozan euskaldunak bere. Espaiñiako alderdian bere oso bearrezkoa litzake olango bat, ondo egiña ta joera zabalekoa. Oso begi onakaz ikusten dau Euskaltzaindiak norbaitzuk orretan dabela gogoa.

Aita Villasante-k diño Arantzazun biren artean ari direala euskeraz ikasteko metodo bat egiten.

Mitxelena jaunak diño Euskaltzaindiak zimentarri batzuk ifiñi bear leukezala literaturazko izkuntzari ta itzeri jagokiezanak. Adibidez, zeintzuk direan euskerazkotzat euki bear doguzan itzak eta zelango arrazoiak egon bear daben ontzat artzeko. Ain zuzen bere gente asko Euskaltzaindiak diñoanari begira dago eta gura leuke onek zerbait esan daien.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

1958-VII-30

Donostian, bildu dira: I. M.ª Etxaide, buru, Lekuona, Irigaray, Villasante, Arrue, Lojendio ta Mitxelena euskaltzaiñak. Zugasti, Alvarez Emparanza, Irigoyen urgazleak.

Gure artean egon da Pierre Nairt jauna, Suezia-ko izkuntzalaria.

Oleaga jaunak ezin etorria adierazo dau.

Aita Manzisidor-en karta bat artu da eskerrak emonik urgazle izetau dalako eta prest dagoela aurrerantzean arreta geiagoz jarraitzeko.

Irigoyen-ek esaten dau zelan Bilbo-n Ayuntamentukoakaz berba egin ostean eskabide bat egin dan Euskaltzaindiak prestauko leukean Bizkaiko bertsolarien lenengo sariketea Bilbo-ko jaietan egiten dan joko ta dantzen astean sartzeko, Ayuntamentuaren laguntasunagaz. Beste alderdi batetik Euskaltzaindiak baimena eskatu dau jaialdi onetarako eta lortu dau. Egin bedi aal bada. Ain zuzen bere Euskaltzaindiak oso begi onez ikusten dau olango arazoetan emoten direan pausuak.

Irigaray jaunak liburu bat atera dau *Prosistas Navarros contemporáneos en lengua vasca. XX-garren mendeko Nafarroako euskal-idazlariak.* eta argitaratzaillea izan da "Principe de Viana" Iruñekoa. Zorionak emoten jakoz egin dauen lan ederragaitik.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

1958-VIII-28

Donostian, bildu dira: I. M.ª Etxaidé, buru, Oleaga, Mitxelena, Arrue, Irigaray, euskaltzaiñak, eta Zugasti, Anai Berriotxoa, Alvarez Emparanza eta Irigoyen urgazleak.

Oleaga-k diño zelan Aguztuko ogetalauan Bizkaiko bertsolarien lenengo sariketea egin dan Bilbo-n oso gente andiaren aurrean eta oso entzungura andia egoala. Zorionak emon bekioz Irigoyen-eri, baita eskerrak Bizkaiko Diputaziñoari emon dauen kopa ederragaitik, eta Bizkaiko Ahorrokaxeari ta Bilbo-koari bardin. Bilbo-ko Ayuntamentuari emon dituen erraztasunakaitik eta Dña. Concha Goiri andreari eta bere adiskideeri emon daben diru-laguntasunagaitik. Argi ta garbi ikusi da oraindiño oso bizirik dagoela bertsoetarako zaletasuna eta asko komeni litzake albait eta alderdi geienetan txapelketak egitea mailla guztietako bertsolarieri sarrerea emonik. Oso begi onez ikusten dau Euskaltzaindiak Gipuzkoan bizi direan Euskaltzaindikoak prest dagozala an zerbait egiteko orren gaiñean.

Oleaga-k diño norbaitek esan deutsola zerbait baserriaren gaiñean, zelan baserria bizirik eta indartsu egoteak zer-ikusi andia daukon euskerearen bizitzeagaz eta zerbait egin bear litzakeala baserriak bizirik jarraitu daien modu barriak arturik. Berari ezteritxo ondo Euskaltzaindia sartu daiten bere arazoa eztan gauza batean, baiña oso gogoz ikusiko leukeala berpiztuko balitz eta bere burua agertu leenagoko Eusko-Ikaskuntza eta arek ekingo baleu orretan. Beiñepeiñean, eta oraingoz ori eztagoen ezkero Bizkaiko Diputaziño ta Bizkaiko Ahorro-kaxeari idatzi bekie, eskerrak emoten jakiezanean bertsolarien sariketearen laguntasunagaitik, esanik Euskaltzaindiak oso begi onez ikusiko leukeala zerbait egingo balebe arazo orretan, eta prest dagoela Euskaltzaindia edozein laguntasun eta argibide emoteko berari jagokon aldetik.

Anai Berriochoa-k diño Eppherre jauna ikusi ebala eta esan ei eutson prest daukola berak Euskaltzaindirako sarrera-itzaldia. Berriotxoak berak idatzi beio itandurik ia nok egin deion erantzuna gura dauen, eta non egin leiteken, Baionan edo non. Bide batez Euskaltzaindiak batzarra egingo leuke autatuten dan errian.

Ain zuzen bere gaur da Eskualzaleen Biltzarra Mithikilen. Idatzi bedi zorionak emonik.

Bizkaiko Diputaziñotik karta bat artu da eskaturik Euskaltzaindiari itzulpen bat egin daien. Da "Herbario de Vizcaya" erderaz eta euskeraz grabetako mueble barri batean. Bedarrak eta landarak gordeko direan ezkero bertan emon bei itzulpen au: "Bizkaiko bedar eta landara muetak".

Beste barik oi den otoitzagaz amaitu da batzarra.

1958-IX-25

Donostian, bildu dira: Etxaide, buru, Mitxelena, Lekuona, Irigaray, Gorostiaga, Arrue ta Oleaga euskaltzaiñak, eta Anai Berriotxoa, , Irigoyen, Etxaniz ta Alvarez Emparanza urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Oleaga-k diño Aita Villasante-k ezin etorria adierazo deutsola.

Leengo agiria irakurri da eta onetsia izan da.

Oleaga-k diño Bizkaiko Diputaziñoari iztegia dala-ta egin jakola eskabidea eta aren erantzuna irakurri da esaten dauela zelan urrengo presupuestoan zati bat orretarako finkatuko daben oso pozik. Bizkaiko kultura batzarrari bere egin jako eskabidea.

Irigoyen-ek adierazoten dau egun batzuk direala Durango-ko Santa Ana elexan parroku dagoen Jose Etxeandia jaunagaz berba egin dauela eta euskerazko ikastaro bat ifintekoa dala bertako eskolan. Zorionak emon bekioz Etxeandia jaunari eta esan bekio Euskaltzaindia prest dagoela aal dauen laguntasun guztia emoteko.

Donostian egitekoa zan izkuntzalarien batzar nagusia azkenez aurten egingo eztan ezkero Irigoyen-ek adierazoten dau aurten bere igaz legez utsunea geldituten dala eta zelanbait betetako gauza txikiago bat egin bear litzakeala, orain urte bi Arantzazun egin zan antzekoa, eta tokia Bilbo izan leitekeala, zemendi inguruan adibidez. Diño Bizkaiko Diputaziñoko Bibliotekako saloia lortzea ere ustez elitzakeala gatxa izango. Gaia: lexikografia, lexikologia eta euskerazko literatura mueten legerik nagusienak izan leiteke. Beste lan batzuek bere onartu leitekez Euskaltzaindiak ondo baderitzo. Datorren batzarrerako ekarri beiz zeaztasun guztiak eta asko komeni litzake berba egingo dabenak laburpen bat bialdu daien, aurretik jakiteko gaiak eta eretxiak eta maipuruak bear dan moduan zuzendu aal izan batzarra.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

1958-X-30

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Etxaide jauna, buru, ta Mitxelena, Lojendio, Aita Villasante, Gorostiaga, euskaltzaiñak, eta Zugasti, Irigoyen ta Alvarez Emparanza, urgazleak. Arrue, Anai Berriotxoa ta Aita Larrañaga Pingliang-go Obispo jaunak ezin etorria adierazo dabe.

Mitxelena jaunak adierazoten dau Euskaltzaindiak AitaLarrañaga Pingliang-go Obispoari ta baita Pedro Sancristobal Zaragoza-ko Universidadeko irakasleari idatzi egin bear leuskiela eskerrak emonik Universidade aretan euskerazko ikastaro bat zabaltzeko egin dabezan aalegiñakaitik. Irakaslea Aita Benito Icazteguieta izango da. Olan egin bedi.

Karta bat artu da Bilboko Obispadutik Teodoro Ignacio Jiménez y Urresti Diozesiseko Fiskal Generalak zuzendua. Gauza batzuk jakin gura ditu Bilbon San Nikolas-ko Parrokian dagoen euskal eskolearen gaiñean. Beste karta bat bere artu da eskola orretara doazan umeen zazpi gurasok firmaua, Euskaltzaindiari laguntasuna eskatuten deutsiela San Nikolas-ko katekesisa itxi delako eta beragaz batera euskal eskolea bere bai. Erantzun bedi zelan Euskaltzaindiak Bilbon daukan R. M. Azkue katedraren bidez aalegin guztiak egin zituan euskal eskola ori zabaldu eta bear zirean prestaerak egiteko. Gurasoeri erantzun bekie eskolearen alde erantzun dauela Euskaltzaindiak.

Gero Txinpartak zuzendu dauen karta eta agiri bat irakurri dira. Erantzun bedi zelan teatroaren alde daukien asmo eta gogoa oso begi onez ikusten dauen Euskaltzaindiak.

Karta bat artu da Leioa-ko "Grupo Alpino Lejona"-tik diñoela euskerazko ikastaro bat zabaldu gura dabela Luis Aguirre abade jauna irakasle izango dalarik. Erantzun bedi oso begi onez ikusten dauela Euskaltzaindiak eta prest dagoela aal dauen laguntasun guztia emoteko.

Euskalzaleen biltzarra Abenduko 13-an eta 14-an egin bedi Bilbon.

Blas Fagoaga jaunak lan bat bialdu dau **Euskera**-rako, "Joaquin Lizarraga-k darabiltzan itzak".

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

1958-XI-27

Donostian, bildu dira: Etxaide jauna, buru, ta Lekuona, Arrue, Gorostiaga ta Irigarai jaun euskaltzainak. Alvarez, Irigoyen eta Zugasti jaun urgazleak.

Mitxelena jauna Salamanca-ko Universidadera ikastaro bat emoten joana da eta ezin etorri izan da.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Leengo agiria irakurri da eta onetsia izan da.

Irigoyen-ek diño Altube jaunak Euskaltzaindiari eskeiñiko liburuak jaso direala. Eskerrak emon bekioz Altube jaunari bere emoitza baliotsu onegaitik.

Txinpartak zuzendu dauen karta bat irakurri da. Diñoe euren bizilekua eztala aurreko kartearen buruan agertuten zana. Euskaltzaindiaren etxea dala euren bizileku bakarra. Eskatuten dabe Euskaltzaindiak esan deiela zer modutan jarraitu leien. Erantzun bekie esanik Euskaltzaindiaren etxean ezin egon leitekeala beste entidaderik eta bein eta betiko Txinpartak-ren egintzak Euskaltzaindiaren agintzen barruan finkatuteko puntu oneik bete bear direala: R. M. Azkue katedrea izango da Euskaltzaindiaren aurrean Txinpartak-en egintza guztien responsabilidadea dauena. Bere bidez eta eskribuz eskatu bear jako Euskaltzaindiari edozein lekutan gentearen aurrean agertuteko baimena eta baita beste edozer gauzatarako, eta Euskaltzaindiak baietza edo ezetza emoteko eskubidea izango dau. Agerketa bakotxeko gora beera guztiak jakinerazo bear jakoz Euskaltzaindiari. Euskaltzaindiak dauen jokabide bat imini bekie begien bistan: euskerearen estudio eta zaintzeagaz zer ikusirik eztaben uste eta jokabideakatik bere edozein kideri etorri leiozan responsabilidadeak eztitu bere bizkarrean artzen eta guztiz aldenduten da euretatik.

Domingo Agirre novela-sariko epea urtearen azkenerarte luzatuten da.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

Bilbo-n Diputaziñoko Bibliotekako gelan.

Abenduko 13-an goizeko amar ta erdietan asiko da eta 14-an eguerdirako amaitu.

Gai nagusia: lexikografia, lexikologia eta euskerazko literatura mueten legerik nagusienak.

Izlariak:

Luis Mitxelena: Euskal itzak zein diren.

Aita Luis Villasante: Literatura ta izkuntza bizia.

Aita Antonio Zabala S. J.: Bertsolariak eta Europako lenengo gerratea (1914) (Gure erriaren literaturaren erakusbide).

Juan Gorostiaga: Nola erabaki zen literatura izkuntza Grezian.

Gabriel Aresti: Barrutia eta bere sasoia.

Juan San Martin: Eibarko itzen gaiñean.

Alfonso Irigoyen: Bizkaiko literaturazko euskalkia.

Angel Irigaray.

José Luis Alvarez Emparanza.

Beste lan batzuek ere onartu ditezke.

HOSTAL MARONO. Correo, 21. Teléfono 33.130. Bilbao

Pensión completa dos días	320,50
Pensión completa un día	185,25

FONDO IBARRA. Ribera, 6. Bilbao

Pensión completa un día	80,–

Donostian, Diputazioan, bildu dira: Etxaide jauna, buru, Lekuona, Irigaray, Villasante, Arrue, Oleaga euskaltzaiñak. Zugasti, Alvarez Emparanza eta Irigoyen urgazleak.

Aurreko agiria irakurri da eta onetsia izan da.

Arruek diño Mitxelena jauna Madrilen dala eta Universidade Centralean tesis bat aurkeztu dauela euskal-fonetikaren gaiñean doktoradua egiteko eta emon deutsien notea izan dala. Nabarmena eta sari berezia. Zorionik beroenak emon bekioz.

Migel Anabitarte jaunak zuzendu dauen karta bat irakurri da. Gerra aurrean Euskaltzaindiak emoneko titulu bat eukala diño, euskerearen jaube dala adierazoten dauena eta eskatuten dau ia barriztau leion. Erantzun bekio Donostiako euskaltzaiñen bategaz egon daitela eta emon bekio eskatuten dauena.

Bilboko Ahorrokaxeak bost milla peseta eskeiñi deutsoz Euskaltzaindiari iztegi lanetarako.

Pedro Sancristobal jaunaren karta bat irakurri da eskerrak emonik Euskaltzaindiak idatzi deutsanagaitik. Aita Manzisidor-ek *Santu bizitzak* liburu argitaratu barria bialdu dau. Eskerrak eta zorionak emon bekioz egin dauen lan bikaiñagaitik.

Urtarrileko 4-an Euskaltzaindiak Bilboko Arriaga Teatroan, bertsolari, euskal teatro eta euskal kanten bidez izkuntzea indartu leitekeala adierazorik jaialdi bat egin dau. Oleagak diño oso ondo urten dauela, Eskerrak eta zorionak emon bekioz Irigoyen jaunari eta bere laguntzailleeri lan eder eta ondo zuzenduagaitik.

Orainarte Mitxelena jauna iztegirako gaia biltzen ibili da, baiña asi da idazten. Arrue jaunak bere partez dakaz leenengo orrialde batzuk. Oso lan ederra izango dalako ustea indartu egin jakie batzarkideeri.

Domingo Agirre novela-sarira lau novela etorri dira. Oleaga, Arrue, Irigaray ta Lekuona jaunak izentetan dira erabagi daien zer egin, ezarri zirean puntuak gogoan izanik.

Gasteizen, bere bizitzan euskaltzaindikoa izan zan Aita Raimundo Olabideri gorazarre bat egiteko giroa sortu da berak euskerara itzuli eban Biblia argitaratu barria dalarik. Oso ondo deritxie bertan Euskaltzaindiak jaialdi bat prestau daien bere omenez. Olan egin bedi.

Abenduko 13 eta 14-an Euskaltzaindiak Bilbon prestauriko batzarren gaiñean berba egin da. Euskaltzaindiak euskerearen etorkizuna sendotuteko eta gidatuteko

asmoagaz zimentarri batzuk ezarri bear ditu. Urrengo batzarrera ekarri bitez zeaztasun batzuk onen gaiñean.

Irigoyenek diño Aita Cortabitarte-k dirua eskeini deutsola Euskaltzaindiari Bizkaiko ume euskalduneri sari batzuk emoteko, esamiñak egiñik. Zimentarri batzuk onartu dira. Ona emen:

Euskal sariketea amar urtetik amairu urterako ume bizkaitarrentzat

1. Euskaltzaindiak sariketa bat iminten dau Bizkaiko umeentzat 1960-gko. Maiatzean egiteko adierazoko dan egun batean. Izenak bialtzeko epea amaituten dan orduan amar urtetik amairu urtera izan bear dabe. Zimentarriak oneik dira:

2. Sariak izango dira: leenengoa milla pesetakoa eta amazortzi sari bosteun pesetako. Sariez gaiñera aipamen bereziak egin leiez nabarmenduten direan umeeri.

3. Sariketea esamiña bat euskeraz egiñik erabagiko da eta gaiak izango dira: 1. Kristiñau dotrinea. 2. Bizkaiko erri-bertso-sorta bat Euskaltzaindiak argitaratuko dauena. Buruz ikasi bear izango dabe edozein bertso-soñu erabillirik. 3. *Abarrak* Euskaltzaindiak argitaratu eban ipuin-sorta E. Bustinza-rena. Ipuin bat idatzi bear izango dabe buruz. 4. Bakotxa bizi dan erriaren gaiñean zerbait idatzi. Erakusbide modura gai batzuk emoten dira libertade osoagaz erabilli aal izango direanak, bai zuzenean edo bai zearka, eta guztiak edo batzuk bakarrik: a) elexea, b) erria, d) baserriak, e) fabrikako, f) dendak eta merkataritzea, g) arrantzua, h) labrantzea, i) gentea eta oiturak, j) bidaje batean sentidu doguna, eta abar. 5. Domingo Agirre-ren *Kresala* novelea iminten da liburu irakurgarria legez. Batez be idazteko oiturea artzeko, baiña ezta ezer itanduko bere gaiñean.

4. Batzarra Euskaltzaindiak izentauko dau egingo dan eguna adierazoten danean.

5. Izenak 1960 Aprilleko 15-erarte artuko dira Euskaltzaindiaren etxean (Academia de la Lengua Vasca, Ribera, 6, BILBAO). Izena, deitura bi, bizilekua eta jaioteguna adierazo behar dira.

Irigoyenek diño Abenduko batzarrearen ostean, Carlos Gonzalez Echegaray jaunak, Bilbon Diputaziñoko bibliotekako zuzendari denak, adierazo eutsola Filologia Seminario bat sortu leitekeala bertan, eta orretarako Euskaltzaindiak Bizkaiko Diputaziñoari idatzi deion komeni dala, Zuzendu bekio, bada, Bizkaiko Diputaziñoari karta bat Euskaltzaindiaren aalegiñak eskeiñirik asmo orretarako.

Irigoyenek diño Bizkaiko Ahorrokaxeak euskerazko erradio-emisiño batzuk pagau gura dituala. Ain zuzen be Bizkaiko bertsolarien lenengo sariketea gertau ostean karta bat idatzi eutson Euskaltzaindiak zerbait egin eien baserriaren alde eta areri erantzunik erradio-emisinoak egitea erabagi dabe. Estudiau bedi arazo au zelan zuzendu.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru, Lojendio, Villasante, Irigarai, Arrue, Mitxelena euskaltzaiñak. Aita Larrañaga, Alvarez Emparanza, Etxaniz eta Irigoyen urgazleak.

Oleaga jauna gexorik dago. Batzarrekoak albait ariñen osatutea opa deutsie.

Aurreko agiria irakurri da eta onetsia izan da.

Aita Olabideren gorazarrea Martiko 15-ean egingo da Gasteizen, bera jaio zan egun berean.

Eskabide bat artu da Bedoña-tik bertako alkate eta parrokuak firmauta eta baita Arechavaletako alkate, Mondragoeko Artzipreste eta berrogei euskaltzale geiagok. Diñoe Bedoñarren eta Mondragoe eta Arechavaletako euskaltzaleen guraria Loramendik gerra aurrean Bedoñan eukan imaginea jasotea dala eta bide batez euskal jai eta poesia sariketa bat egitea, eta orretarako amar milla peseta inguru emongo leukiezala. Euskaltzaindiari eskatuten deutsie ia bera izango litzakean antolàtzaillea. Erantzun bekie baietz eta zeaztasun guztietarako Lojendio jaunagaz konpondu daitezala.

Lopez Mendizabal jaunak, argitaratu dauen liburu barriaren ale bat eskeiñi deutso Euskaltzaindiari. Eskerrak emon bekioz.

Altube jaunak lan bat bialdu dau "Euskaltzaindiari" titulutzat dauena.

Bilboko Ayuntamentuak bost milla peseta eskeiñi deutsoz Euskaltzaindiari iztegi lanetarako.

J. Ziarsolo eta L. Torrontegui-k bialdu daben karta bat irakurri da. Diñoe Euskaltzaindiak Txinpartak-ren egintzen gaiñean finkatu dituen puntuak onartuten dituezala. Baita R. M. Azkue katedrakoakaz berba egin dabela eta berbaldi orretan erabagi dabela Txinpartak bere arautegiagaz jarraituko dauela. Irigoyen jaunak diño eztala egia berbaldi orretan olangorik erabagi dabenik eta izan be R. M. Azkue katedrakoak ezeukien Euskaltzaindiak emoneko eskubiderik onek finkatu zituen puntuak onartuteko izan ezik. Erantzun bekie esanik edozer gauzatarako R. M. Azkue katedrakoakaz berba egin leiela eta oneik konponduko direala Euskaltzaindiagaz eta aurrera eroan Euskaltzaindiari eta bere elburueri komeni jakiezan asmo guztiak.

Pedro Diez de Ulzurrun jaunaren karta bat irakurri da. Diño "Sección de Euskera de la Institucion Príncipe de Viana-k" eskaturik Nafarroako Diputaziñoak bost milla peseta emotea erabagi dauala "Txinpartak" jaialdi bi emon daizan Iruñean datorren illean, Jakinerazo bekio R. M. Azkue katedreari. Ziarsolo ta Torrontegui jauneri idazten jakien kartan aipatu bekie zelan jakinerazo jakon R. M. Azkue katedreari arazo su.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru, Mitxelena, Villasante, Oleaga, Irigaray, Arrue eta Lojendio euskaltzainak. Aita Larrañaga Pingliang-go Apezpikua, Zugasti, Anai Berriotxoa ta Irigoyen urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko agiria irakurri da eta onetsia izan da.

Irigaray jaunak lantxo bat irakurri dau. Bialdu bekie Euskaltzaiñeri.

Euskal itzei buruz au finkatu da:

"Euskaltzaindiak, idazlari ta izlariei zuzenbide batzuek eskeiñi naiez, eta asko zuzenbide oien zain-antzean daudela jakiñik, onako agiri au azaltzen du:

Oiñarri-legea

Iztegi-saillean ezta bidezko itz asmatuetara jotzea ezin bestez baizik, eta orduan ere itzen erabidean izkuntzaren joerak gordeaz. Ori iztegiari gagozkiola. Gramatikaren barrutian, ordea, ezta sekula zillegi asmatzen ibiltzea edo izkuntza aldatu nai izatea.

Euskal-itzak zein diran jakiteko bidea

Eta iztegiaren auzi au xehetasun geiagorekin garbitu naiez, euskal-itzak zein diran, au da, euskal-litetaraturan erabiltzeko itz jatorrak eta bidezkoak zein diran jakiteko, bidea eta neurria finkatu nai du aurrenik Euskaltzaindiak. Euskal-itzak dira euskera bizian sustraituak daudenak. Sustrai ori zenbat eta sakonagoa izan, ainbat eta eskubide geiago du itz batek erabillia izateko. Itz baten zabaluneak, antziñatasunak eta idazle zaarrak itz ori erabilli ote duten jakiteak, asko esan nai du itzaren sustraia zenbateraiñokoa dan neurtzeko. Sustrai aundiko itzak, bada euskal-itzak dira, naiz eta erderatik etorri. Bada gure iztegian olako itzen pilloa: jatorriz kanpotik sartuak, baiña euskeran gogotik errotuak daudenak, alegia. Beraz, etxeko biurtuak dauzkagu, gure gureak dira itz oiek. Euskal-itzak dira, bada, erderatikakoak izanarren. Itz oiek eskubide osoz erabilli ditezke, eta oien lekuan erabiltzeko asmatu diran itz berriak eztira geienetan euskal-itzak eta eztute aiek ainbat eskubide erabilliak izateko.

Ona emen olako euskal-itz jatorren zerrenda bat. Erderatikakoak izanarren, etxeko biurtuak dauzkagu eta emandako neurriaren araura, euskal-itz jatorrak dira:

Abendu, aingeru, alkate, amodio, arima-anima, abade-apaiz-apez, apostolu, arraza, arrazoi-arrazoin, bake-pake, balio, bekatu-pekatu, berba, bertso, bedeinkatu-benedikatu, birjiña, birtute, borondate, doe-doai, damu, deabru, denbora-denpora, dantza-jantza, diru, desegin, errege, erregiña, erlijio-erlegiño, eliza-eleiza-elexa, eskola, espiritu-izpiritu, familia-pamili, fede, frutu-fruitu, finkatu, gorputz, gramatika, gloria-loria, grazia-garazia, imajiña, inpernu-infernu, imitazio-imitaziño-imitazione, jende-jente, joku, kantatu, kolore, kafe, karidade, komunio-komuniño-komunione, kanpo, kontra, kanta, liburu, lore-lora, lege, mundu, meza, modu, molde, moldatu, obeditu, olgeta, partitu, paradisu-parabisu, barkatu-parkatu, bekatu-pekatu, pentsatu, pentsamentu-pentsamendu, sakramendu-sakramentu, santu-saindu, seiñale, testamentu, umil, zapata, zentzu-zentzun, zeru...

Euskaltzaindiak, bada, itz auek eta antzekoak diran beste asko, eskubide osoz erabilli ditezkeala erabagitzen du, euskaldunak, jatorrak, eta garbiak diralako. Eta idazle ta izlariei erabilli ditzatela eskatzen die, itz asmatuetara jo gabe.

Berebat, izkuntza berezien gaiñetik zabaldurik dauden kultura eta zivilizaziozko itzak ontzat artzea eta erabiltzea Euskaltzaindiak begi onez ikusten du. Adibidez: politika, teknika, literatura, liturjia, metro, kilometro ta abar."

Olabide zanari Gasteizen egin jakon gorazarrea dala-ta artu direan telegrama ta agur batzuk irakurri dira. Bialdu dabezanak dira Donostiako Apezpikua, Miguel Gortari jauna Nafarroako Diputaziñoko buruzagia. Vicente Asuero Gipuzkoako Diputaziñoko buruzagia. F. JavierBaeza Jesusen Konpañiako Provintziako burua, Jose Oregui jauna, eta Antonio Badillo jauna.

Menendez Pidal jaunari agur bat bialdu jako bere larogetaamargarren urteurrena dala-ta.

Lojendio jaunak Bedoña-ko arazoaz berba egin dau. Iraillaren 20-an izango dira jaialdiak, eta literatura-sariketarako oiñarri oneik iminten dira:

"Loramendi Fr. Joakin Bedoñakoaren gorazarrez Euskaltzaindiak antolatzen duen literatura-sariketa.

1. Sariak, urrengo aipatuko diran gaiez egiñikako lanentzat izango dira:

I. Bertsotan. Nai dan bezalako luzeera eta gaia duen poesiarentzat. Leenbiziko saria, bi milla peseta; bigarrena, milla.

II. Itz lauz. Bere denboran ikusiaz eta iritziak emanaz "Loramendi"-ren poesiaz egiñikako lanentzat. Lanen luzeera ogei eta berrogetaamar orrialde artekoa izango da. Sariak, leenbizikoa milla pesetakoa, eta bigarrena, bosteunekoa.

III. Itz lauz. Milla pesetako sari bat ipintzen da Leniz aranaz egiñikako lanik onenarentzat: bere historia, biografia, ikuspegiak, eta abar. Luzeera ogei eta berrogetaamar orrialde artekoa.

IV. Teatroa. Sari bi ipintzen dira, bi milla ta bosteun eta milla bosteun pesetakoak, bi teatro-lan onenentzat, ekitaldi batean edo geiagotan idatziak. Obeto ikusia izango da sariketarako, nolabait Leniz aranari dagokon lana (bertan gertatzen dalako edo bertako ipuiñetan edo historiau erroa duelako).

V. Poesia-esana. Sari bi daude, bosteun eta berreunetaberrogetaamar pesetakoak, "loramendi"-ren poesiaren bat ondoen esaten duten aurrentzat, bai neskatilla ta bai mutikoentzat.

2. Lanak Euskaltzaindira bialdu bear dira, Gipuzkoako Diputaziora. 1959 Aguztuaren 20-a baiño leen, makiñaz idatzirik eta lerro une bat utzirik. Lema batekin firmatu bear dira eta lemanen giltza sobre itxi batean bialdu.

3. Batzarrea Euskaltzaindiak izendatuko du."

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

1959-IV-30

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Irigaray jauna, buru, Oleaga, Lekuona, Mitxelena, Villasante, Lojendio ta Arrue euskaltzaiñak. eta Etxaniz eta Irigoyen, urgazleak.

Etxaide jaunaren karta bat irakurri da. Diño ezin etorri izan dala batzarrera, eta Donostiako Ayuntamentuko emoitzearen gaiñean zerbait esan gura ebala. Arrue jaunak diño Maiatzean kobrauko dala emoitza ori.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta onetsia izan da. Ala da guztiz be, Lojendio jaunak diño batzar aretan euskal-itzeri buruzko agiria onartu baiño leen, berak esan ebala berba barriak asmetako libertade osoa emon bear zala, eta gura dauela bere berbok Euskaltzaindiaren batzar-agirian agertu daitezan.

Gero, artu direan karta batzuk irakurri dira Euskaltzaindiak euskal-itzeri buruz egin dauen agiria dala-ta. Dira: Juan Gorostiaga jaunarena, esanik agirian eztala finkatu euskerearen batasunari jagokona eta baita latinetik datozan berba batzuk badaukiezala sinoonimo zaarrak be. Jose Echeandia jaunarena zorionak emonik Euskaltzaindiari. Bilboko apezpiku jaunarena, esanik kontuan eukiko dauela bear dan ordurako eta Euskaltzaindiari bedeinkaziño bat bialdurik. Aita Dominikoena, aintzat arturik. Holmer jaunarena, aintzat arturik eta gogoeta oso egoki batzuk egiñik arazo onen gaiñean. Merino Urrutia jaunarena, zorionak emonik. Seijo Zarrandicoechea jaunarena, agiriaren gaiñean zerbait esanik eta Euskaltzaindiari erriarentzat aldizkari bat atera daien eskaturik. Aita Placido Mugica jaunarena, Euskaltzaindiagaz, bera egiten ari dan erdal-euskal iztegirako, artu emonetan egon gura leukeala adierazik. Maximo Uhagon jaunarena, eztagoela ondo linguistikari jagokon aldetik esanik.

Irigaray eta Aurre jaunak aurreko batzarrean Irigaray-k egin eban lantxoa geituta ekarri dabe. Bialdu bekie Euskaltzaiñeri.

Menendez Pidal jaunak karta bat bialdu dau eskerrak emonik bere larogeta amar urteurrenean Euskaltzaindiak bialdu deutsan zorionagurragaitik.

Karta bat artu da Bizkaian euskeraz irakasten ari direan jaun batzuengandik, esanik gura leukiezala euren izenak R. M. Azkue katedreari erantsi eta Bilbo eta inguruetako irakasle guztien artean alkartasun bat egin Euskaltzaindiaren laguntzailleak legez. Dira: Mikel Arruza, Jose Gimenez, Joseba Arrieta, Alejandro Echevarria, Kepa Zubia, Gregorio Larrinaga, Julian Irigoyen eta Sabin Berasaluze jaunak. Erantzun bekie esanik Euskaltzaindiak oso begi onez ikusten dauela asmoa, eta agertzen dabezan gurari guztiak ontzat artzen dituela, eta emendik aurrera Euskaltzaindiaren laguntzaille legez batu leitekezala R. M. Azkue katedran. Bide batez, eskerrak emon bekiez euskerearen aldeko euren borondate onagaitik.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

1959-V-27

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru, Oleaga, Mitxelena, Irigaray ta Arrue jaun euskaltzaiñak, eta Labayen, Alvarez Emparanza, Etxaniz eta Irigoyen jaunak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta onetsia izan da.

Arrue jaunak diño Etxaide, Lojendio ta irurak Gobernadoreagana joan zireala "Loramendi"-ren omenez egingo direan jaiak direala-ta, eta oso ondo artu zituela.

Domingo Agirre novela-saria emoteko izendatu zan batzarrak erabagi au ekarri dau:

Donostiako Diputazio-jauregian bildurik, 1958-garren urteko "Domingo Agirre" novela-saria emateko izendatu zan batzarrekoak, ao batez erbaki dute:

Leenengo: *Araibar Zalduna* izeneko novelari ematea "Domingo Agirre" saria. Bere egillea Eusebio Erquiaga da.

Bigarren: Jakinerazi, sariketara etorri diran beste novelen artean badaudela bi —*Peru Leartzako* eta *Ithurraldea*— dituzten merezimendu dudarik gabekoengatik aipamen berezi baten irabazle egin diranak, eta batzarrekoak penaz ikusten dutela lan oriek sari gabe gelditzea, saria bakarra eta zatitu eziña dalako.

Eta jakin dedin, agiri au bete eta firmatzen dute Donostian, 1959-gko. Maiatzaren ogetazazpian.

Firmatzailleak: Manuel Lecuona, Nazario Oleaga, Angel Irigaray eta Antonio Arrue.

Iztegi lanetarako eskeiñi dabe: Durangoko Ayuntamentuak milla peseta; Bermeokoak berreun eta berrogetaamar; Arrigorriagakoak eun; eta Banco Vizcaya-k iru milla. Eskerrak emon bekiez.

Irigoyen-ek diño zelan Bizkaiko bertsolarien bigarren sariketea egiteko modu ona dagoen. Bizkaia bost alderditan zatitu da eta toki bakotxean bertako bertsolariakaz txapelketa bat egingo da eta txapeldunak Bilbon Agustuaren 30-ean egingo dan azken txapelketa nagusirako geldituko dira, igazko Bizkaiko txapelduna be sartzen dala. Gaiñera Euskal-kantak izenagaz bertso liburutxo bat argitaratu leiteke Euskaltzaindiaren ardurapean, erabagita dagoen Bizkaiko neska-mutillen sariketarako balioko dauena eta txapelketa oneitan saldu leitekeana. Oso ondo ikusten da guztia eta egin bedi.

Karta bat artu dau Euskaltzaindiak Ipar-Ameriketan "Western Basque Festival" prestetan ari direanengandik gauza batzuk eta eretxiak eskaturik jai orretarako.

Irigoyen-ek diño zelan eskatu daben guztiaz gaiñera zinta magnetofoniko batean bertsolarien agur bat eta beste euskal-kanta batzuk batu direan, eta ain zuzen be gauza areik zelan bialdu Bilbon dagoen Ipar-Ameriketako etxearen buruari eretxia eskatutorduan, arek Euskaltzaindiaren izenean norbaitek joan bear leukeala bertara erregutu eban. Castor Uriarte jaunak bere burua eskeiñi dau bere kontura joateko. Joan bedi Euskaltzaindiaren izenean eta Euskaltzainburuaren ordez eta agur bero bat eroan bekie an bizi direan euskaldun guztieri.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
I. M.ª Etxaide

1959-VI-25

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide, buru, Lojendio, Irigaray, Lekuona, Villasante, eta Mitxelena euskaltzaiñak. Zugasti eta Irigoyen urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Arrue jaunak dei egin dau ezin etorria adierazorik, eta diño, gaiñera, Azkoitian "Amigos del País"-ekoak izan eben batzarrean egon zala Euskaltzaindiaren izena ara eroanik.

Aurreko agiria irakurri da eta onetsia izan da.

Altube jaunak oartxo bat bialdu dau Irigaray-k egiñeko lan baten gaiñean eta irakurri egin da. Bialdu bekie euskaltzaiñeri.

Iztegi lanetarako eskeiñi dabe: Orozko-ko Ayuntamentuak berreun peseta; Zeanurikoak berreun eta berrogetaamar; eta Abadiño-koak berreun eta berrogetaamar. Eskerrak emon bekiez.

Lojendio jaunak diño komeni litzakeala mugaz goialdeko eta bealdeko euskaltzaiñak alkarregz artu emonetan asi daitezan euskerearen batasunerantza eroango gaituen oiñarriak finkatzeko. Bealdekoetatik Arrue ta Irigaray jaunak izentetan dira goialdekoakaz berbetan asi daitezan. Eretxi batzuk esan dira batzarkideen artean batasunaz. Bat batean batasuna osorik egiteko modua ez ei dago erraz, baiña beti alegiñak egin bear litzakezala elburu orretara bidean, euskerearen bizitza benetakotik urrundu barik. Eta batez be orainarte daukaguzan literatura-dialektuak bata besteareng andik geiago urrundu ez daitezan alegiñak egin bear litzakezala, daukiezan gauza bardin eta bardintsueri indarra emonik.

Bizkaiko Ahorro-kaxeak amaika milla ta bosteun peseta emon ditu Bizkaiko bertsolarien bigarren sariketarako, eta Mungiako Ayuntamentuak bi milla. Eskerrak emon bekiez. San Antonio egunez Urkiolan egin zan alderdi aretako txapelketea millaka euskaldun entzule zireala.

Umien Deia izeneko aldizkaritxo barri bat artu da Iruñetik. Umeak idazten dabe bertan, eta ain zuzen be orretara oitu daitezan sortua dago. Zorionak eta eskerrak emon bekiez egilleeri.

Mitxelena-k diño zelan Juan San Martin eta beste jaun batzukaz berbaldi bat izan dauen eta zelan batasun bat sortu gura daben euskerearen alde lan egiteko eta orretarako Euskaltzaindiaren babesa eta zuzenbidea gura leukiela. Ain zuzen be Euskaltzaindiak baeukan leenago *Euskaltzaindiaren Laguntzailleak* izeneko batasun bat. Estudiau bedi datorren batzarrerako arazo au.

Irigoyek San Martin berak zuzendu deutsan karta bat irakurri dau. Diño zelan Eibarko alkateagaz berba egin daben aurtengo Euskalzaleen Batzarra ia bertan egin leitekean. Oso pozik artu ei dau. Euskaltzaindiak berari karta bat zuzendutea oso egokia izango ei da. Egunak Urrien azkenerantza izan leitekez. Oso begi onez eta gauza aukerakoa legez ikusten dau Euskaltzaindiak guztia eta batzarretarako gai nagusi bat autatu da: "Mogel euskal-literaturan eta literatura-izkuntzearen problemak". Batzarretara lanak bialdu gura dituanak, egiteko egunak eldu baino amabost egun leenago bialdu daizan komeni da.

Irigoyen-ek diño zelan fraile baten bitartez Aita Santuari Olabide-ren Biblia argitaratu barria Euskaltzaindiaren izenean eskeintzeko modua dagoen. Eskeiñi bekio olango gauzak egin oi direan erara.

Mitxelena jaunak iztegiaz berba egin dau.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Etxaide jauna, buru, Dassance, Irigaray, Lafitte, Lojendio, Lekuona, Villasante, Arrue ta Mitxelena jaun euskaltzaiñak. Alvarez Emparanza, Zugasti, Anai Berriotxoa, Labayen eta Irigoyen jaun urgazleak.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta onetsia izan da.

Castor Uriarte jaunak Ameriketattik Euskaltzaindiaren izenean egin dauen bidajearen barri bialdu dau eta atsegiñez beterik irakurri da. Eskerrak emon bekioz. Oso gustura entzun da guztia eta gorapen asko egin dira.

Castor Uriarte jaunak eretxi bat emon dau Peter Echevarria Reno-n bizi dan jauna urgazle izentetako. Ao batez baietza emon da.

Irigaray jaunak diño Agustin Anabitarte jauna be izentau bear litzakeala. Diñoan legez egiten da.

Lafitte eta Dassance jaunen eskabidez Jean Narbaits jauna; Behauze-n bizi dana urgazle izentetan da.

Eibarko Ayuntamentuak bialdu dauen karta bat irakurri da. Oso ondo deritxie Urrietan an batzarrak egiteari. Baimenak Euskaltzaindiak atera bear ditu.

Umien Deia Iruñean ateraten dauen Fr. Felipe de Murieta jaunak karta bat zuzendu dau eretxia eskaturik zelan eta noz zuzendu bear litzakezan umeak idazten dabezan artikuluetan erratuak eta laburpenak. Erantzun bekio batzrkideen eretxia emonik. Au da: norbere euskalkiko moduak ez aldatu. Ortografia aldatu beti. Erratu nabarmenak aldatu eta dudakoak itxi. Esate baterako: *aita bat zuen bi seme* onetara aldatu bear litzake, *aita batek zuen bi seme* itxirik egilleak emon deutsan berezko ume-joskera ori. Egia da, beste alde batetik, objeto ikusi leitekeala zer egin epe baten buruan, denpora orretan egiñekoak irakatsita.

Lafitte jaunak berba egin deusku an egiten direan euskera-esamiñez eta baita Bretonian zer egiten daben bertako izkuntzearen alde. Oso pozik entzun dira Lafitteren berbak.

Bilboko Ipiztiku jaunak karta bat zuzendu dau eskerrak emonik Euskaltzaindiak argitaratu dauen *Euskal-kantak* liburuagaitik. Bide batez bedeinkaziñoa bialtzen dau.

Dassance jaunak diño zelan Aguztuaren 27-28 eta 29-an Bayona-ko "Musée Basque"-n Euskalerriko irakaskintzeaz batzar batzuk egingo dabezan, eta Eppherre jaunaren karta bat irakurri da esanik bere Euskaltzaindiko sarrera-itzaldia Aguztuaren 29-an egin leiela "Musée Basque"-n bertan, Lhande aita jesuitea zana aipaturik egun orretan. Erantzuna Elissalde jaunaren kargu. Olan egin bedi.

Karta bi artu dira Rusiatik gure argitaraziñoak trukean emoteko eskabidea egiñik. Egin bedi.

Aurreko batzarrean illabete onetarako itxi zan gaia artu da. Biztu bedi Euskaltzaindiak leenagoko denpora batean eukan "Euskaltzaindiaren laguntzailleak" taldea. Epe luze bat emoten da eratuteko eta denpora luze orretan egiten dana ikusirik finkatuko da azkenik Euskaltzaindiaren aurrean daukan nortasuna eta artu emonak zelangoak izan bear daben. Jakinerazo bekio guzti au Juan San Martin jaunari.

Lojendio jaunak Bedoña-ko jaiaz ekin deutso. Zelan izango dan gitxi gora beera an egingo dana esan dau. Agustuaren 20-an amaituten da Euskaltzaindiak imini eban literatura-sariketearen epea eta erabagia artuko dauen batzarra izentau da: Lojendio, Arrue, Mitxelena eta Irigaray jaunak.

Irigoyen-ek diño ia Euskaltzaindiaren izenean "Len eta Orain" sortan argitaratu ete leitekezan Fr. Felix Bilbao-ren ipuiñak, ain zuzen be Euskaltzaindiak saritu zituanak. Diru kontuan guri ez jaku ezer kostauko. Egin bedi.

Arrue-k aipatu dau zelan Donostian egingo dan euskal asteko programan umeen euskal esamiña batzuk sartu dabezan eta Urkixo Mintegiari laguntasuna eskatu.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

1959-VIII-29

Baionan, Musée Basque-n, Eppherre jaunaren sarrera itzaldia.

Maipuruan egozan: buruzagiaren orde Dassance jauna, eta Oleaga, Gorostiaga, Lojendio, Lekuona, Villasante, Elissalde, Arrue, Irigaray, Mitxelena ta Lafitte jaunak.

Ainbat urgazle egozan entzuleen artean.

Oleaga jaunak emoten ditu arautegiaren zeaztasunak eta zelan bi euskaltzaiñek ekarri bear daben euskaltzain barria. Irigaray ta Arrue joan dira dei egiten eta guztion aurrera dakarre, Dassance jaunak berba batzuk esan eta Eppherre jaunak egin dau itzaldia. Elissalde jaunak erantzun deutso. Arrue jaunak esan ditu azkeneko berba bizi batzuk. Eskua emon jako euskaltzain barriari eta makilla bat eskeiñi.

An egozan euskaltzain ta entzule guztiak aobatez "Gernikako Arbola" kantau dogu.

1959-IX-25

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: I. M.ª Etxaide jauna, buru, Oleaga, Lekuona, Mitxelena, Arrue ta Irigaray jaun euskaltzaiñak. Eta San Martin, Etxaniz, Labayen, eta Irigoyen jaun urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta onetsia izan da.

Aita Joakin Bedoña-koaren gorazarrez Euskaltzaindiak imini eban literatura-sariketarako izentau zan batzarrak erabagi au dakar:

"Donostian bildurik Aita Joakin Bedoñakoaren gorazarrez jarri zan literatura-sariketarako Euskaltzaindiak izendatu zuen batzarrea, ao batez erabaki da:

Poesia: Lendabiziko saria, bi milla pesetakoa, "Maldan behera" poemari ematea. Egillea Gabriel Aresti (Bilbao); bigarrena, milla pesetakoa, "Lelo xamurrak" Fr. Victoriano Gandiaga-k (Arantzazu) egindakoari; bosteun pesetako sari bi urrengo jaun auek bialdu dituzten poesiai: Fernando Artola "Bordari" (Fuenterrabia) eta Aita Policarpo Iraizoz-koa (Roma).

Itz lauz: Lendabiziko saria, milla pesetakoa, "Loramendi eta bere garaiko euskal-literaturaz" egindako lanari. Egilllea Luis Jauregui jauna (Zarauz); bigarren saria, bosteun pesetakoa, Aita Julian Yurre-koak gai bera duela bialdutako lanari.

Teatroa: Lendabiziko saria, bi milla ta bosteun pesetakoa, "kanpaien atsekabez" tituludun lanari, Eusebio Erquiaga-k (Bilbao) bialdua; bigarrena, milla ta bosteun pesetakoa "Leniz'ko alaba" Jose Antonio Arcocha Martija-k (Ondarroa) bialdutako lanari.

Batzarreak bere poz aundia jakinerazi nai du artu diran lan ugari eta ederrengatik, batez ere poesia arloan. Irurogeitik gora dira. Sarituez gaiñera uste du aipamen berezi bat merezi dutela urrengo poesia auek: "Izar eta odei" Antonio Bilbao (Morga), "Sei olerki" Jaime Querexeta (Elorrio), "Lizardi'renean" J. Ignacio Goicoechea (Tolosa). "Egun txintatik arratseraño" A. Eusebio Igarza, O. S. B. (Lazcano), "Bedoña'rako osto bikoitza" Eusebio Erquiaga (Bilbao), eta baita, teatro lan bi auek: "Bertsolari sariketa" eta Berpizkunde goizean", biak Manuel Ziarsolo-renak (Bilbao).

Donostian, 1959 Iraillaren 13-an. Firmatzailleak: Jose Maria Lojendio, Antonio Arrue, Aingeru Irigaray eta Luis Mitxelena".

Oleaga jaunak diño Bizkaiko Bertsolarien Bigarren Sariketea amaitu dala eta Bilboko azken txapelketa nagusia guztiz ondo egon zala, millaka persona entzule egon zireala, eta guztiagaitik zorionak eta eskerrak emon bear jakozala Alfonso Irigoyen jaunari. Azken txapelketa nagusirako Dña. Concha Goiri eta bere lagunak lau

1959-X-30

Donostian, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide, buru, Lekuona, Mitxelena, Villasante, Gorostiaga, Arrue, Irigarai euskaltzaiñak. Aita Larrañaga Pingliang-go apezpikua, Alvarez Emparanza, San Martin, Etxaniz, Mugica ta Irigoyen urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aita Mugica-k egiten ari dan iztegiaz lan luze bat irakurri dau, eta itaun batzuk egin ditu garbian iminterakoan eretxi finkatu bategaz ekiteko. Itaunak egin ala batzartuak barriketa oso jakingarriak izan dituez, batez be idazteko moduaz. Beste izkuntzetatik datozan berbetan batzuk uste dabe arrunta danean esaten dan moduan idatzi bear dala, baiña kultura-bidez datorrenean jatorrizko itxura begietatik sartzen dana galdu barik aal dan neurrian.

Atsegiñez beterik ikusi da Aita Mugica-ren jarduna eta egiten ari dan lan bikaiña.

Aita Mugica-k eskatzen dau ia Azkue egiten ari zan iztegia eta Euskaltzaindiaren etxean dagoena ikusi leien. Ikusi begi.

Azkue-ren iztegi barritu ta osotuaren lanetarako diru-eskabideak egin bearra dago aurrera jarraitu gura bada. Datorren illerako ekarri bedi erabagi-bideren bat.

Eibarko batzarren gaiñean berba egin da. Baimena lortuta dago guztirako. Gipuzkoako bertsolarien txapelketa nagusirako Diputazinoak makilla bat emon dau lenengo urtetan dauenarentzat. Gipuzkoako Ahorro-Kaxeak iru milla peseta eta kopa bat. Eibarko Ayuntamentuak bi milla peseta. Club Deportivo Eibarkoak bost sari bosteun pesetako.

Irigoyen-ek diño zelan Bizkaiko Ahorro-kaxeak zortzi milla peseta eskeiñi dituen datorren urteko Domingo Agirre novela-sarirako ahorroaren eguna dala-ta. Sariketearen oiñarriak aurrekoaren modukoak izan beitez, sari bakar eta zatitu ezin bat iminirik.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

1959-XI-27

Donostian, diputaziñoan, bildu dira: Dassance jauna, buru, Oleaga, Irigaray, Mitxelena, Lafitte, Eppherre, Villasante, Lekuona, Arrue, euskaltzaiñak, San Martin, Alvarez Emparanza, Zugasti, Etxaniz eta Irigoyen urgazleak.

Etxaide jaunak ezin etorria adieraz dau.

Aurreko agiria irakurri da eta ontzat artu.

"Caja de Ahorros Vizcaina"-k bialdu dauan idazki bat irakurri da. Aurreko batzarrean aipatu zan novela-sariarentzat zortzi milla peseta emotea erabagi dabela diño. Oiñarriak bialdu bear jakiez ontzat artu daiezan. Epea 1960-VII-20-rako imini bedi.

Eibarko euskalzaleen batzar eta jaien barri emon da. Eskerrak eta zorionak emon bekioz Juan San Martin jaunari eta Eibarko laguntzailleeri. Eibarko emisoreak bialdutako idazki bat irakurri da. Bertan esaten da gipuzkoako bertsolarien sariketearen barri emon dabela eta baita sariketa osoa be plazan egin zan legez.

Arruza urgazleak bialduriko idazki bat irakurri da. "Resurrección M.ª de Azkue Mintegia" izenaz dabillan euskaltzale aldra baten asmoak azaltzen ditu bertan, euskerea jauspidetik atara ta Euskalerrian zear euskerearenganako zaletasuna zabalteko gogoz. Poz pozik entzun dira asmook. Baiña gai astuna dan ezkero astiro-astiro aztertu beitez bere zertzeladak erabagi egokiak artzeko.

Erkiaga urgazleak, gizatalde baten izenean eskatzen dau Euskaltzaindiaren menpean eta Bilbon Euskaltzaindiaren etxean euskal-iztunde ikastaroa sortu daitela, batez bere euskal-teatroz ekiteko. Orretarako urgazle edo euskaltzain batzuk izentau leitekezala zuzendaritzea eroateko. Eta aspaldion urtero Bilbon egiten dan Euskaltzaindiaren jaia 1960-garren urtebarri-asieran talde orrek bere gain artuko leukeala. Jai orren egitamu-gogoa zeaztuten dau, arazo au agerturik bialdu dauan idazkian. Atsegiñez ikusi da guztia.

Aresti urgazleak be eskatzen dau euskaltzaindiaren menpean eta Bilbon Euskaltzaindiaren etxean sortu daitela euskal-teatro talde bat deklamaziño-eskola baten gisara, eta diño orretarako teatro-jokolari batzukaz berba egin dauala. Atseginez ikusi da au be.

Alkartu beitez bata ta bestea, eta Erkiaga, Aresti eta Irigoyen urgazleak izentetan dira alkar artu daien eta aurrera eroan daiezan asmook. Oleaga euskaltzaiñaren eskuetan itxiten da jaiaren kontua eta zuzendaritza nagusia.

Arrue-k diño Gipuzkoako Diputaziñoak ogeitabost milla peseta eskeiñi dituala iztegi lanetarako, eta eskerrak emon jakozala.

Oleaga-k diño orri batzuk egin behar litzakezala euskaltzaleeri zuzendurik iztegi-lauerarako dira eske. Asmo au aintzakotzat artu da.

San Martin-ek daño ia Eiberren dirua eskatu leien euskaltzaindiaren laguntzailleak legez egin gure dituezan lanetarako. Egin bedi.

Aurtengo **Euskera** agertu da. Zorionak emon bekioz beronen atontzaille Irigoyen jaunari.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

1959-XII-18

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Etxaide jauna, buru, Oleaga, Irigarai Lafitte, Aita Villasante, Eppherre, Dassance, Mitxelena, Lekuona, ta Lojendio euskaltzaiñak, aita Larrañaga apezpiku jauna, San Martin eta Irigoyen urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzar-agiria irakurri ta ontzat artu da.

Euskalerriko jenteari diru-eske zuzendutako idazki bat irakurri ta ontzat artu da.

Irigoyen-ek P. Diez de Ulzurrun-ek zuzendu deutsan karta bat irakurri dau. Bertan diño Nafarroako Diputaziñoak amabi milla peseta emotea erabagi dauela iztegilanetarako "P. de Viana"-ko euskal saillaren eskabidez. Baita gogoz ari direala datorren urterako Nafarroako bertsolarien sariketak prestetan, eta aurtengo euskal-jaiak Echalecu, Betelu, Luzaide eta Auza-n izan dituezala 772 sari emonik. Datorren urtean 743 emon bear ei dituez aurtengo ume-esamiñai jagokiezanak. Oso pozik entzun dira barri guztiak. Irigaray jaunaren eskuetan itxiten da dirua jasotea.

Iztegiaz jardunaldi bat izan da.

Bilboko Arriaga Teatroan Euskaltzaindiak egingo dauen urteroko jaiaren barri emon da.

Irigoyen-ek diño San Martin ta biak Mondragoen izan direala Bernabe Berecibar Loramendi-ren omenezko jaiak prestetan ari izan zanagaz eta bertako beste euskaltzale batzukaz. Euskerearen alde Euskaltzaindiaren laguntzaille legez zerbait egin gurarik dabiltza an. Euskaltzaindiak begi onez ikusten dau gogo ori.

Erkiaga-k irabazi eban Domingo Agirre novela-saria Bilbon Euskaltzaindiaren etxean emon jako. Bertan itzaldi bat egin eban Aita Fernando Mendizabal-ek. Saria amar milla peseta izan da, eta emoilleak Concepción Goiri andrea eta Sabin Arrillaga jauna izan dira, erdi bana. Eskerrak emon bekiez emoilleai.

Gero barriketaldi bat izan da eta Aita Larrañaga apezpiku jaunak *Zeruko Argia* aldizkariaz berba egin dau, eta San Martin-ek Eibarko umeen eskolez.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

1960-I-29

Donostian, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru, Lekuona, Gorostiaga, Lafitte, Villasante, Arrue, Irigaray ta Oleaga euskaltzaiñak. Loidi, Aguerre, San Martin, Arruza, Alvarez Emparanza ta Irigoyen urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Mitxelena jauna ezin etorri izan da Salamanca-n dalako ango Universidadean ikastaro bat emoten.

Aurreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Oleaga jaunak Bilboko Arriaga Teatroan Euskaltzaindiak egin dauen urteroko jaiaren barri emon dau esanik oso ondo urten ebala guztiak eta orregaitik Irigoyen jaunari eskerrak eta zorionak emon bear jakozala. Jaialdi orretan irabazi dan dirua izan da: 12.827,35 peseta.

Lafitte jaunaren eskabidez Pierre Narvaitz jauna euskaltzain egiten da Jules Moulier (Oxobi) zanaren ordez.

Lau urgazle be izentau dira: Cirilo Arzubiaga, Michel Labéguerie, Justo Garate eta Xabier Peña jaunak.

Henri Gavel euskaltzain ohorezkoaren eriotzearen barri emon da.

Aita Villasante-k diño zer dan Aita Santuari bein bialdu jakon Bibliaz, eta Irigoyen-ek arazo ori zelan dagoen esaten dau: Aita Mauro Elizondo Lazkaoko Beneditinoen nagusiaren bidez Aita Santuak erantzun euskunaren barri eldu zan. Eta erantzun ori olangoetan oi dan bideetatik etorrela. Orduan Etxaide jaunak Bilboko apezpiku jaunari karta bat zuzendu eutson orren barri emonik eta pozik gogozala, ori olan bada, Aita Santuaren itza artzeko. Karta ori eskuz esku emon jakon Bilboko apezpiku jaunari. Emoterakoan, bide batez, adierazo eban Monseñor Tardini-k karta bat zuzendu eutsala berari Bibliari egin eutsan euskerazko itzaurreagaitik zorionak emonik. Eta izan be itzaurre ori egitea oso egokia izan dala. Gaiñera adierazo eban igaz erri euskaldunetatik zear ibili danean euskeraz egin datuela berba, eta bere borondatea dala ori Euskaltzaindiari jakinerazotea. Bialdu jakon kartearen erantzunik oraindiño izan eztogun ezkero Oleaga jaunaren eskuetan isten da jakin daien zertan dan arazo au.

San Martiñek diño Arrate-n erradio barri bat sortu dala euskeraz egiten dauena. Euskaltzaindiaren Laguntzailleez ekin deutso gero eta diño bananduteko joera andiak dagozala jentearen artean eta domeka arratsaldeko lauretan batuko direala Donostia-n, ikusteko ia alde batera itxi leitekezan bananduteko joerok eta bat egin aal dala.

Aita Kaputxino Aurelio Etxarri-Aranaz-koak karta txeratsu bat bialdu deutsa Euskaltzaindiari; baita argitaratu dituzan liburutxo bi be. Liburutxoak *Bederatziurren bearrezkoenak eta eleiz otoi batzuk* eta *Meza Saindua* dira. Pozik artu dira eta eskerrak emon bekioz.

Pariseko "Euskal Kulturaren Alde"-k karta bat bialdu dau atondu daben "Ipui-Sariketa"-ren agiri bat **Euskera** aldizkarian argitaratu daitela eskatuz. Oraingoz **Euskera** ezta argitaratuko eta egiten danerako erabagia artuta izango dabe eta a argitaratu leiteke. Olan jakinerazo bekio.

M. Jaureguiberry andreak bialdu dituen disko bi artu dira umeen eskoletan erabiltekoak, eta Lafitte jaunak ango barri emon dau.

Arruza jaunak idazki bat irakurri dau. Bertan esaten da euskerearen aldeko betasun bat sortu gura dabela. Baiña gai astuna dan ezkero astiro astiro aztertu beitez bere zertzeladak erabagi egokiak artzeko.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

1960-II-26

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide, buru, Mitxelena, Irigaray, Gorostiaga, Villasante, Arrue ta Oleaga euskaltzaiñak. Zugasti, Arruza, San Martin, Alvarez Emparanza, Loidi, Etxaniz ta Irigoyen urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko agiria irakurri da eta ontzat artu da bertan diñoana, baiña Gorostiaga jaunak diño argibide bat eta gauza batzuk falta direala. Dira: urgazleak izentau zireanean Cirile Arzubiaga jauna eta Xabier Peña jauna bere eskabidez egin zireala. Gorostiaga jaunak aipatu eban **Euskera** aldizkariak iru illebeterik bein urten bear leukeala artzen daben batzuk berari esan deutsien legez. Irigoyen jaunak adierazo eban igaz dirua eskas izanik ale bakar bat egin zala beste urteetan argitaratu direan baiño orrialde gitxiagogaz. Eta Oleaga jaunak esan eban berak gurako dauela urteko ale osoa. Irigaray jaunak be gura leuke urrengo au agertu daiten: Irigaray jaunak aipatu eban novela-sariak emon baiño obeto litzakeala erradioko solasaldietarako sariak emotea. Irigoyen-ek esan eban elitzakeala gauza gatxa izango Ahorro-Kaxaren batean orretarako dirua topetea. Novela saria iragarria dago gaiñera. Arrue jaunak novela-sariaren alde berba egin eban eta elitzakeala kendu bear beste sariketa mueta batzuk sortuagaitik, novela-sariak beste alderdi batzuetan be garrantzi andikoak izaten direalako (1).

Arrue jaunak diño urgazleak urtean bein bakarrik izentau bear litzakezala eta euskaltzaiñak eskabidea idatzita aurrez ekarri bear leukiela merituak eta gaiñerakoak aipaturik. Eta izentetako batzarra Agustukoa izan leitekeala diño. Ontzat artu da bere esana.

Gorostiaga jaunak diño *(j) (g)eografía* zelan idatzi, *j*-gaz ala *g*-gaz, erabagi bear litzakeala. Eta ori dala-ta solasaldi luze bat izan da batzarrekoen artean. Olango gauzak erabagiteko biderik egokiena idatzirik ekartea da zeatz eta meatz adierazorik arrazoiak.

Irigaray jaunak diño norbaiteri eskatu bear jakola eskoletan erabili bear direan berbakaz iztegi labur bat egin daien, eta diño idazten direan ipuin eta lanetan naturaltasuna ta gatza bear litzakeala batez be, gauza askoren gaiñetik. Oleaga-k diñotso guzti ori idatzita ekarri bear leukeala.

Oleaga-k diño Bilboko Apezpiku jaunagaz egon dala eta esan eutsala Erromatik guretzat ezer etorri dan jakin gura genduala eta guretzat etorri ezpada be zerbaiten barri gura geunkeala, eta erantzun eutson Monseñor Tardini-ren karta labur bat artu ebala berari eta Bibliaren zeregiñean ibili direan guztieri goresmenak egiñik. Une aretan ezekiala non eukan kartea eta baleitekeala konturatu barik apurtu izatea be. Begiratuko dauela, eta edozein modutara be, berak karta bategaz erantzungo deuskula.

Oleaga-k diño Euskaltzaindiaren Laguntzailleak eratu debela Bilbon eta batzar batean zortzi sail egin zireala bat izentaurik sail bakotxeko, bera buruzagi, Gorostiaga bigarren buruzagi eta Arruza idazkari direala. Ain zuzen be atzo izan zan beste batzar bat bakotxak bere zeregiñaren kontua emonik.

San Martin jaunak be Euskaltzaindiaren Laguntzailleez diardu. Diño Alvarez Emparanza idazkaritzat artu dabela. Eibarren dirua batuten asi dira eta amar jaunek milla peseta bakotxak emon ditu. Diño Eibarren eun eta larogeitik gora ume asi direala euskerazko eskoletan eta illero illero sariak emoeko gogotan dabiltzala. Iruñean be Euskaltzaindiaren Laguntzaille legez zerbait eratu gura ei dabe. Loidi jauna eta Aita Larrañaga apezpiku jauna Irun eta Ondarrabian Laguntzailleak sortzeko gelditu ei dira.

Arrue jaunak diño Euskaltzaindiak Euskalerri osora zuzendurik dei bat egin bear dauela diru eske, eta laguntzailleak orretan laguntasuna eskeiñi leiela. Gero batuten dan dirua banatu leiteke bearrizan andienetarako ta baita laguntzailleen zeregiñetarako. Mitxelenak diño dirua emon leitekeala edozertarako edo gauza jakin baterako. Prestau bedi bear dan legez dei ori eta zabaldu bedi jenteak adierazo daian zeinbat eta zelango epetan emongo dauen dirua.

Arruza jaunak diño ia Euskaltzaindiaren ezkutua erabili leitekean *Euskaltzaindiaren Laguntzailleak* izenagaz paperak egiteko. Erabili leiteke.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

(1) Irigoyen diruzaiñak urtearen azkenera arteko kontuak dakaz. Urtearen azkenean geunkan dirua 42.565,23 pta. da.

Donostian, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide, buru, Dassance, Mitxelena, Gorostiaga, Lafitte, Irigarai, eta Oleaga euskaltzaiñak. San Martin, Arruza, Aita Larrañaga apezpiku jauna, Alverez Emparanza, Etxaniz, eta Irigoyen urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzar-agiria ontzat artu da.

Euskaltzaindiak Aita Santuari bialduriko biblia euskeratua dala-ta, Oleaga jaunak diño Bilboko apezpiku jaunak bialdu dautsala Mr. Tardini-k berari zuzendu dautsan eskutitzaren kopia. Bertan diñotso Aita Santuak pozik eta eskertsu artu dauela biblia ori eta berau egiten eta argitaratzen ibili direan guztieri bere goionespena bialtzen dautsela. Aitatutako eskutitz-kopia ori izenpetu barik datorren ezkero egoki litzake uts au bete daiten eskatzea. Begi olan Oleaga-k.

Espasa Calpe, S. A.-ren idazki bat irakurri da. Diño bertan *Euskalerriaren Yakintza* liburuari jagokozan egille-eskubideen garbikuntzeak Euskaltzaindiarentzat itxi dituala 238,85 peseta. Baita lenengo tomoa barriro ta bigarrenez argitaratu dabela 2.822 ijeki egiñik, eta liburu barri onein irabazien barri urrengo garbikuntzean emongo dabela bere badiño. Mitxelena jaunak diño olango garbikuntzetan zergatarako kentzen dan eunekoa neurritik gora ete dagoan begiratutea egoki litzekeala.

Gorostiaga jaunak diño egoki izango litzakeala batzarren aurretik eguneko eginkizuna deiagaz batera bialtzea. Orretarako bear litzake euskaltzaiñak Bilbora bialdu daien eguneko eginkizun orretan sartu gura dabena. Gorostiaga-k diño, gaiñera, urteko izkuntza-gai batzuk autatu bear litzakezala erabagiteko, batez be literaturaoitureari argitasuna emongo dautsienak. Irigoyen-ek diño ori gauza egokia izango litzakeala, batez be, Arantzazu-n, Bilbo-n eta Eibar-en egin zirean moduko batzarrak egiten jarraituten bada, alangoetarako gaia aurrez autatua izango litzakealako. Oleaga-k diño izan be euskaltzaiñen zeregiña orixe dala. Eta Mitxelena-k astiz arakatu bear lirakeala gaiak.

Irigoyen-ek Euskaltzaindiko diru-bearrizanen gaiñean lantxo bat irakurri dau. Bertan diño, beste gauza batzuen artean, zelan erabagi leitekean aurtengo bertsolarien txapelketetarako diru kontua Nafarroan, Gipuzkoan, Bizkaian eta Euskalerri osoko txapelketa nagusia egiteko. Diño, gaiñera, igaz legez aurten be euskal-kanta batzuk argitaratu leitekezala Euskalerri osoan zabalduteko eta orretarako Aita Antonio Zabala-k bialdu dautsazala bertso zaarren batzuk euskaldunen aotan geien dabiltzanak eta ibili direanak. Igaz amazortzi milla ale egin zireala eta areitatik milla bat edo gelditzen direala. Ontzat artu da guztia.

Gero Astiz jaunak gertau dauen eskabidea irakurri da. Euskalerri osora zuzendua dago. Oleaga-k diño au len gertau zana baiño egokiago dagoela eta ontzat artu

leitekeala bestearen ordez. Eta Euskaltzaindiak ontzat artzen dau mamiz. Azaleko zuzenketa txiki batzuk egin bearko dira. Mitxelena jaunaren eskuetan itxiten da berak egin daizan eta baita Gipuzkoako euskaraz jarri daian. Gero bialdu begi Bilbora Oleaga jaunak Bizkaiko euskeraz imini daian eta baita Lafitte-ri be ango euskaraz eta frantsesez jarri daien. Irigaray jaunak diño euskerazko itzulpenak erderazkoak diñoana zeatz eta meatz azaldu bear dauela, eta Mitxelena-k Bizkaiko itzulpenak eta Gipuzkoakoak bateratsu joan bear dabela eta ezer aldatzen bada Bizkaikoan zerbaitegaitik Gipuzkoakoan be aldatu bear litzakeala.

Beste barik oi dan atoitzagaz amaitu da batzarra.

Donostian, 1960-III-25

Aurreko batzarraren bukaeran Etxaide jaun buruzagiak eskatu zidan bezela zirriborro batzuek egin ditut Euskaltzaindiaren diruaz eta bere etorkizunaz.

Urtearen bukaeran, kontuetan ikusiko zenduenez, Euskaltzaindiak eskuartean 42.565,23 pta. zeuzkan. Aietatik amar milla peseta euskerazko metodo bat saritzeko dira eta bi milla ta eun da irurogetaamairu aurtengo Bizkaiko aurren sariak osatzeko.

Euskaltzaindiak badauzka urtero etorbide seguruak. Auek dira:

Nafarroako Diputazioa	5.000
Gipuzkoako Diputazioa	5.000
Caja de Ahorros Provincia Guip.	5.000
Ayuntamiento San Sebastián	6.000
Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián	2.000
Junta de Cultura de Vizcaya	10.000
Guzira	33.000

Urteko gasturik beiñenak, gogoan artzen baditugu igazko gora berak, irurogeta amar milla peseta inguru dira. Bertan ezta sartzen iñolako gastu bear bearrezkoa eztanik. Beraz, oraindik urtea bukatzeko beste amar milla peseta bat bear genituzke. Kalkulatu diteke urtero bear ditugula etorbide seguruak baiño ogetaamazazpi milla peseta geiago.

Beste alde batetik Arabako Diputazioari ere egin bear zaio Azkue-ren iztegirako eskabidea eta bear-bada zerbait etorriko da andik ere.

Eta jakiña, Bizkaiko Diputazioaren emaitza falta zaigu Azkue-ren iztegiaren izenean. Eskeiñia zeukaten. Baiña igaz aurtengo presupuestotik kendu egin zuten pesetaren estabilizazioa lortzeko artu diran erabakiakatik. Aurten lortuko ote da presupuestoan sartzea? Lortu ezkero berrogetaamar milla pesetatik gora izango litzake, noski, eta datorren urte osoa bukatu arte jarriko giñake lasai, gasturik bearrezkoenak ondo betetzeko moduan, iztegi lanak ere gogoan arturik. Beraz, or ekin bearra dago.

Errege egun inguruan Bilbon egiten dan jaialditik ere beti etorri oi da zerbait, eta ori **Euskera** aldizkariaren utsunea ornitutzeko laga genezako.

Novela-sariaren dirua "Caja de Ahorros Vizcaina"-k eskeiñia du eta saria ematerakoan eskuratuko degu.

Aurten Bizkaiko aurren artean izango dan sariketarako amar milla peseta jarriak daude, baiña oriek ere eztitugu artu oraindik eta ematerakoan eskuratuko ditugu eskeiñia dagoen bezela.

Bertsolarien sariak eta gastuak onela erabaki ditezke:

Nafarroan. Euskaltzaindiak eta euskeraren Aldeko Saillak alkartuta egingo dute. Baiña gastu guziak Euskeraren Aldeko Saillak pagatuko ditu.

Bizkaian. Aurten ez bakarrik "Caja de Ahorros Vizcaina"-k, baita Ayuntamentuak ere emango dituzte sariak eta gastuak pagatu, ikusi baitute bertsolariak jaietan jenteak asko estimatzen dituela. Orrela esan didate alkate batzuek beintzat. "Caja de Ahorros Vizcaina"-ri eskabidea Maiatzaren asieran egin bear zaio San Antonioetan Urkiolan lendabiziko txapelketa egiteko. Uste det orrela gastu guziak bete ditezkeala.

Gipuzkoan. Igaz lendabiziko saria "Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa"-k eman zuen, eta eskabidea egin zanean, erabaki baiño leen, angо buruzagiak Etxaide jaunari galde egin zion nolako asmoak zeuden aurrerantzerako eta baita "Caja de Ahorros Vizcaina"-k nola parte artu zuen, eta esan zitzaion urtero egin nai zala eta guziaren berri eman zitzaion. Beraz, elitzake gauza zailla izango "Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa" eta sariketak egiten diran Ayuntamentuen artean sariak eta gastuak pagatzea.

Orretara gelditukо litzake Euskalerri osoko azken txapelketa nagusiko sariak ornitu bearra. Eta angо sariak "Caja de Ahorros"-ei, bai Bizkaiko ta bai Gipuzkoakoari, eskabidea egiterakoan, bertan sartu ditezke, egingo dan erriko Ayuntamentua ere kontuan izanik.

Ortaz gaiñera argitaratzen dan bertso liburua Euskalerri osoan saldu diteke aurten.

Eta Gipuzkoako ta Bizkaiko azken txapelketa nagusiak zezen plazetan egingo balira, orretarako laguntzailleengandik laguntasuna artuta, Euskaltzaindiak etorbide polit bat izango luke.

Euskaltzaindiak egingo duen deitik ere etorri diteke dirua. Ayuntamentuak ere nolabait zirikatu bear lirake urtero suskrizio on bat egin dezaten. Ortarako bana banaka alkateak bisitatu bear lirake. Arrue jaunak, beste norbaitekin, uste det Gipuzkoan zerbait egin dezakela. Bizkaian, bertsolariak dirala-ta, oso modu onean daude erri aundi batzuetako alkateak eta bear-bada an ere zerbait egingo litzake. Eta jakiña, lantegi, empresa, eta edozelako jaun andreak, asko lagundu dezakete.

Eta au da, begirada batean, gure egoera eta etorkizunerako izan genezakean ametsa.

1960-IV-29

Donostian, bildu dira: Etxaide jauna, buru, Lekuona, Gorostiaga, Lojendio, Villasante, Irigaray, Arrue, Mitxelena ta Oleaga euskaltzaiñak. Etxaniz, Zugasti, Alvarez Emparanza, Arruza, Loidi, San Martin, ta Irigoyen urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri eta ontzat artu da.

Bergara-ko Kristo Errege-ren Eleiz-Gaztedia-k karta bat zuzendu deutso euskaltzaindiari esanik zerbait egin gura dabela erri aretan euskerearen alde euskal ikastaro bat sorturik. Eta orretarako Euskaltzaindiaren babesa gura leukie. Besteetan egin oi dan legez erantzun bekie Euskaltzaindiak oso begi onez ikusten dauela daukien gogoa eta prest dagoela bere aldetik aal dauen laguntasun osoa emoteko.

Nicolaz Ormaechea-ren Euskaltzaindiari karta isilla irakurri da. Bertan **Euskera** azken-alea dala-ta diardu.

N. Alzola Guerediaga urgazleak lantxo bat bialdu dau: "Literatura oral euskerica de la comarca bidasotarra". Eskerrak emon bekioz.

Lekuona jaunak idatzirik emon dauen "Araibar zalduna" Erkiaga jaunaren novelearen eretxia argitaratu baiño leen. Diño: Bizkaitar batek gipuzkoeraz egindako gauza bezela, ba'ditu zenbait utsegite; zuzendu bear bait-zaizkio, nik uste. Ala berean, beste alde batetik, gauza gordin askoak askotxo ditu; uste bait-nuke, egilleari berari eman bear zaiola bere lana, zenbait gordinkeri kendu bear ote zaizkion ikusi dezan. Ori gabe nik ez nioke nere botorik emango Euskaltzaindiaren izenean argitaldua izan dedin. Andoain en 1960gn. Otsaillaren 29'an. Lekuonak. Au dala-ta eretxi batzuk azaldu dira. Irigaray jaunak onen gaiñean berari zuzendu deutsan karta erkiaga jaunak batetik atal batzuk irakurri ditu eta dirudianez prest dago entzuteko zuzendu bear dituen akatsok. Mitxelenak diño al dala modu onean beragaz konpondu bear litzakeala, baiña aurrerantzerako oiñarrietan bere eretxiz eztala imini bear moral eta dogma kontukorik ezer. Oleaga jaunak berba egin begi Erkiaga jaunagaz ia Lekuona jaunaren ta berak alkar artu leien.

Etxaide jaunak: Oficio Delegación Provincial y Turismo borrador contestación Academia.

Lojendio: sobre tesorería, dos sociedades o sino una tesorería Academia.

Información y Turismo de Vizcaya: negación radio.

Oleaga: petición por parte del padre Mauro Elizondo prior de los Benedictinos de Lazcano de una copia del documento de Monseñor Tardini que nos fue remitido

por el Obispado. No se puede dar ninguna copia. Publíquese el documento en la revista **Euskera** de la Academia.

Michelena: Justifica la no realización del encargo que se le dio en la junta pasada de hacer las enmiendas necesarias en el texto del Sr. Astiz y traducirlo al guipuzcoano por haberse enterado de que Euskaltzaindiaren laguntzailleak había hecho una cosa similar.

Se lee el texto de la hoja que se ha repartido por Euskaltzaindiaren Laguntzailleak pidiendo dinero así como del expediente formulado por el Ministerio de Información y Turismo a D. Miguel Arruza y la contestación por el mismo, avalada por el Sr. Oleaga.

Se hace notar una frase que dice "Euskaltzaindiaren Laguntzailleak" tutelar de la Academia de la Lengua Vasca. Con respecto a la contestación avalada por el Sr. Oleaga Michelena afirma que el ayudarle a Arruza está bien, pero que él no está de acuerdo con dicha contestación.

Después de hacer algunas enmiendas se aprueba el que se dan al presidente atribuciones para la contestación definitiva el oficio del Ministerio de Información y Turismo en colaboración con el Sr. Michelena.

Aurretik gaztigatu bezela, Apirillaren 24 ean batzartu giñan Donostian, Kaputxinoen Komentuan, goizeko 11,30 etan.

Auek bildu ziran: Agerre Jaun, Iruñeko; Aita Onaindia Karmeldarra, Larreako; San Martin, eta Kruzeta senar-emazteak, Eibarko; Mondragoeko iru gazte (bidali zuan izenak Donostira); Juaristi, elgoibarko; C. Esnal, M. Barriola, Aita Etxaniz, Zumalabe Irigarai, eta Txillardegi, Donostiako; eta Aita Beizama Kaputxinoa, Aita Berriotxia Lasalletarra, eta Loidi Jauna, Irungo. Guzira emezortzi lagun.

Asteko, Donostiako taldeak azaldu zuen, bere buruzagien aotik. Donostiako taldeak egin dituen lanak. Auek dira lan oiek, gutxi gora beera.

a) *Antzerki-Txapelketa.*—Gipuzkoako antzerki-zaletasuna piztutzeko, antzerki sariketa bat antolatu da. Esandako epea itzita dago, eta gipuzkoako talderik geienak artuko dute parte. Orain arte, beraz, 14 antzerki-talde auzkeztu dira. Maipuru egingo dutenak jakiñaren gañean daude, etan Maiatzean asiko dira antzesketak. Sariak eskatzen ere asiak dira.

b) *Nobela-Sariketa.*—Euskaldunak irakurtzeko oitura artu dezaten, oso egokia da liburu errexak eta errikoiak argitaratzea. Ori dala-ta, polizi-nobela-sariketa bat antolatu da. Epea datorren Samigel-egunean amaitzen da, eta gañerako baldintzak argitara emanak izan dira. Oraingoz lanik artu ez ba da ere, batzuk ari dira galdetzen.

c) *Irrati-laguntza.*—Irratitik euskeraz ematea oso ogokia dan ezkero, Irrati Sail bat sortzeko erabaki zan gure lenengo batzarrean. Ala egin da, eta gazte batzuk (neska-mutillak) asiak dira Donostian, astero-astero irrati-lan bat sorta magnetofoniko gertatzen. Lan auek orain arte Radio Arratera bidali izan dira bereziki, eta batzuk ere Radio Tolosara. Aita Onaindiak esan zuan Irrati-Talde onen sariak berak eskuratuko ba litu, Larrean ere euskal-emisioren bat jarri lezakeala agian; eta xeetasunak zuzenki zeatzekotan gelditen da. Irungoak ere au jakinda berdintsu diote; eta leen bezela ere puntu oiek Irrati-Saillarekin zuzenki konpontzeko erabakitzen da:

d) *Illeroko orria.*—Erabaki bezela orri au ere illero-illero egon da, eta euskal aldizkarietara bidali da; baita Laguntzalle batzuei ere. Basarrik, eta Migel Anjel Astizek egondako zabalketa aipatzen da; eta Irungoak "Bidarra" eta J. Aranbururen bidez egin ditekeana agortzen dute. Gure orria ondo autua izan da beti: *Yakin*ek eta *Zeruko Argia* zanak zati osoak argitaratu dituzte.

e) *Eskola-arazoak.*—Bañetik beñepein egiten ari dan lana aipatzen da, Aurrentzako katoi bat gertatzen asiak gera, ikastetxeetako euskal-kalseak (iru ikastola aunditan asiak dira, eta beste batzutan eta akademitan ere astekotan gera datorren ikastaroan) eta abar. Maisuen bearra aipatzen da, eta artzen asi diran erabakiak.

f) *Euskal-erakasketa.*—Arlo nagusi ontaz ere zerbait egiteko bearrean gera. Euskerazko metodo geiegi dago, eta ori bat egon bear dala erabakita, Xabier Peñarekin izan zan billera bat Donostian. Onen metodo oso ondo ikusia izan da eta erabaki zan aurtengo udan (eta bera buru, al ba da) kursillo bat egingo dala Donostian irakasleak gertatzeko.

Beste arazo batzuk aipatzen dira, baiña astirik ez dago, eta Donostiako taldear bukatzen du bere kontu-ematea, oso txalotua izanik bere lana.

EIBARKOAK.—Egiten dute ondoren beren azalpena.

Itz gutxitan iru lan egin dirala esaten dute: diru-biltzea, euskarazko eskolak (nagusienak). Aur-eskola bat ipiñi nai dute, antzerkia gañera. Irakasle bat Donostiara bidaltzekotan gelditzen dira, aurrai irakasten ikasteko.

IRUNGOAK.—Artako buruzagi batzuengana jo dutela diote, eta danetan, Euskaltzaindiaren izenean direla, arreta ona izan dutela. Irungo eta Ondarribiko batzuk gertu daude euskeraren alde lanegiteko. San Marcial-ikastolan euskerazko klase bat ipintzea erabaki da eta "Semana del Teatro" dalakoan egin bat euskeraz egitea. Gero Euskaltzaleen batzar nagusia aipatzen da (bai Arantzazun egin zana, eta joan dan urtean Eibaren), eta Irungoak an egitea eskatzen dute. Irungoen ustez giro ona dago an antolatzeko, eta itzeginda gero erantzutekotan gelditu dira.

Beste tokietakoak ez dute beren lanez ezer esatekorik. Bertsolarien txapelketaz itzegiten da orduan. Lan au Euskaltzaindiak berak antolatzen duen ezkero onen erabakien zai egoteko esaten da. Lau erritan egingo dan ezkero, erri bakoitzak aztertzeko erabakitzen da.

Xeetasun batzuk artu nai dira eskolai buruz. Bañobe izango litzake, geienen aburuaz, saillak artuemanak zuzenean artzea: irrati-kontuak irrati-sallarekin, antzerkionenak antzerki-saillarekin, eta abar. San Martinek Euskaltzaindiaren Laguntzalleak" zer dan, zein diran, eta zertan ari dan azalpen bat banatzen du, artu-eman oiek norekin artu, mundu guziak jakin dezan. Berriz ere gipuzkoako buru dan Juan San Martinek edozertarako eta bildurrik gabe berari idazteko eskatzen du.

Bukatzeko, argitaratze-gauzai buruz itzegiten da; eta ondorengo erabakiak artzen dira:

a) *Zeruko Argia* - Aita Beizamak arloa zertan dan azaltzen du. Oso penagarri izango litzake aldizkari au geiagotan ez agertzea. Berriz aterako dalako itxaropena ba omen dago oraindik, eta itxogiteko erabakitzen da. Baita batzarrak orrelako aldizkari baten bearra ikusten du, eta laguntzeko gertu dago.

b) *Egan* - Aldizkari au oso mamitsua da, eta aspaldi ezkero etendurarik gabe argitaratzen da. Alere danen ustez, bere lana ia alperrikakoa da noizean bein bakarrik ateratzen bada. Lastima dan ezkero, maizago atera bearko litzakeala erabakitzen du. Batzuen ustez bearbada laguntzarik ezarengatik dabil orrela, eta besteenez diruaren faltaz. Dana dala, "Seminario Julio Urquijo", koai gure asmoak adierazteko erabakitzen da, alegia, bi illean bein gutxienez argitaratzeko, eta orretarako "Euskal tzaindiaren Laguntzalleen" laguntza osoa eskeintzea. Ala egingo da eskaera.

c) "Auspoa" - Liburu-sorta jatorra egongo dala dirudi. Laguntzea erabakitzen da, eta an bertan sakabanatzen dira zabalkunde orri batzuk, eta suskrizio batzuk betetzen.

Au Guzia erabakita, batzarra bukatzen da.

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru, Mitxelena, Villasante, Irigaray, Lojendio, Arrue euskaltzaiñak. Loidi, Alvarez Emparanza, Etxaniz, Zugasti, Arruza, San Martin ta Irigoyen urgazleak. Oleaga jauna ezin etorri izan da.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Justo Garate jaunaren karta bat irakurri da. Eskerrak emoten ditu Euskaltzaindiak urgazle izentau dauelako. Lan bat be bialdu dau: "Pablo Astarloa. Extracto Humboldtiano de su plan de lenguas".

Gabriel Villalabeitia jaunak gura dau Euskaltzaindiak agiri bat emon deion Derioko kanposantuan iminteko gogoagaz dabillen irakurgai bat erdarara ondo itzulita dagoela esanik. Emon bekio.

Bizkaiko Ahorro-Kaxearen karta bat irakurri da. Bertan adierazoten deuskue amairu milla peseta ta kopa bat emotea erabagi dabela Bizkaiko bertsolarien irugarren txapelketearen sarietarako. Eskerrak emon bekiez.

Mario Lizarazu Colombia-n bizi dan jaunaren karta bat irakurri da. **Euskera** artu dau eta aren alde goramen biziak egiten ditu eta artu dituen aleak pagetako len bialdu ebanaz gaiñera ogei dolar bialtzen ditu Euskaltzaindiarentzat. Eskerrak emon bekioz biotzez.

Bilbon, igaz asita, lagun batzuk euren artean ekin deutsie illero illero dirua batuten Euskaltzaindiak Bizkaiko neska mutillentzat ipiñita eukan sariketako sariak obeto orniduteko asmoagaz. Igaz Euskaltzaindiaren kaxan zerbait sartu eben. Orain zazpi milla ta bosteun peseta sartu dituez. Esamiña orreik Bagillaren 2-an egin dira Indautxuko Aita jesuiten kolejioan, orretarako itxi deuskuen gela batean. Oraindiño sariak eztira emon. Aita Cortabitarte izan da sariketearen oiñarriak aipatzen dituen amar milla pesetak ornidu dituana. Berrogei ume etorri direan ezkero lenengo aipatu direan lagun orreik Euskaltzaindiaren kaxan sartu daben diru guztia ezta bearko. Sobretan dana gure esku isten dabe gura dana egiteko. Itxi bedi diru ori gauza bardiña edo zerbait bardintsua dan arazoen baterako. Eskerrak emon bekiez lagun orreiri, Josu Egia jaunari guztien izenean. Baita Aita Cortabitarte-ri be.

Bizkaiko bertsolarien txapelketa bat, Durango aldekoentzat, Urkiola-n egin da Bagillaren 19-an.

Aurtengo *Euskal kantak* liburutxoa, Euskalerri osoan zabaltzeko asmoagaz egin dana, agertu da.

Lecumberri-n Bagillaren 26-an egingo da alderdi aretako bertsolari nafarren txapelketa bat. Juraduarena Euskaltzaindiak egingo dau. Euskararen Aldeko Saillak

egin ditu prestaera guztiak, eta bide batez egun orretan emongo ditu alderdi aretan esamiñau direan umeen sariak.

VII.º Congresso Internazionale di Onomastica e Toponomastica a Firenze e a Pisa izenagaz egingo direan batzarren barri emonik orri batzuk artu dira. Datorren urtean izango dira Paskoetan.

Etxaide jaunak diño Mr. A. Griera-k *Vocabulario Vasco* izenagaz argitaratu dauen liburua bialdu dauela karta bategaz batera. Irakurri egin dau erantzunagaz batera. Komeni litzakeala, diño, kritika egoki bat egitea liburu orreri. Lekuona jaunari esan bekio ia artuko leukean arazo ori bere kargu.

Deva-tik karta bat artu da urrengo oneik firmetan dabela: Begoña de Andonegui, Rosarito de Landa, Conchita de Larrinaga, Pachi de Unanue, Pedro de Laca eta Iñaki de Iriondo. Diñoe euskerearen maitasunak eraginda irakasten jardutea pentsau dabela, eta Euskaltzaindiaren zuzenbidea eskatuten dabe. Erantzun bekie esanik oso begi onez ikusten dauela Euskaltzaindiak artu daben asmoa, eta prest dagoela aal dauen laguntasun guztia emoteko, eta orretarako bear daben eta jakin gura laukien edozer gauzari erantzuteko gelditzen dala.

Lojendio jaunak lan bat irakurri dau Euskaltzaindiaren Laguntzailleen gora beerak aipatzen dituala. Aintzat artzen da.

Alvarez Emparanza-k Euskaltzaindiaren Laguntzailleen arazoaz bialdu dauen proposiziño bat irakurri da. Etxaide jaunak oar oneik egiten ditu:

1. Badagoz or gauza batzuk oso astunak direanak, Euskaltzaindiaren arautegia aldatu bear litzakealako. Ori astiro pentsau bear dan gauzea da.

2. Euskaltzaindiak eztitu zetan izan bear diruzaintza bi, bat baiño.

3. Izen kontua ezan or aipatu bear ontzat artu barik egin gura direan aldaketak. Alvarez Emparanza jaunak diño berak egin dauen proposiziño orreri bear direan aldaketa guztiak egin leiozala. Bialdu bekie kopia bana euskaltzaiñei arakatu daien.

San Martin jaunak diño berak gurago dauala Euskaltzaindiaren izenean lan egin, eta beste batasun bat sortzeko modua balego be eztauela uste Euskaltzaindiarengandik berezi bear litzakeanik. Bereizkuntza sortzea elitzakeala mesedegarri izango.

Azkenez Irun-en, udazkenean, Euskaltzaleen Biltzarra egitez berba egin da. Pedagogia artu da gaitzat. Ez euskera zelan sartu eskoletan, ezpada eskolan sartu baiño leen irakasteko oiñarriak iminteko. Iru mailla artu leitekez:

1. Ume euskaldunai zelan irakatsi euskeraz.

2. Erdaldunai zelan irakatsi euskal-izkuntza.

3. Zelan gertau euskal-irakasleak.

Aita Larrañaga apezpikua, Anai Berriotxoa eta Loidi jaunen eskuetan isten da Irun-en emon bear direan pausuak emon daiezan. Datorren batzarrera ekarri beitez zeaztasun geiago.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru, Villasante, Irigaray, Mitxelena, Arrue, Lojendio euskaltzaiñak. Anai Berriotxoa, Alvarez Emparanza, Arruza, San Martin, Labayen, eta Irigoyen urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko agiri irakurri da eta ontzat artu.

Bilboko Ayuntamentuko buruzagi batek Euskaltzainburuari bialdu deutsan agurra irakurri da. Agurragaz batera Bizkaiko bertsolarien azken-txapelketa nagusia Bilboko zezen-plazan egiteko ipiñi dituezan prezioak bialtzen ditu, egin jakon bisita batean berba egin zan legez. Txapelketa nagusi ori Iraillaren 11-an arratsaldeko lau ta erdietan izango da. Oso pozik entzun da guztia eta aintzat artu da.

Jesusen Biotzaren Deya atera barria bialdu deuskue Aita Jesuitak. Aspaldiko denporetan ateraten ebenaren jarraitzaillea da aldizkari au. Eskerrak eta zorionak emon bekiez barriztau dabelako.

Arrue jaunak aurreko batzarrean Alvarez Emparanza-k egin eban proposiziñoa zerbait aldatuta irakurri dau eta ontzat artu da ago batez.

Ignacio Irigaray jaunaren karta bat irakurri da. Diño oraintsu amaitu dala Gipuzkoan antolatu dauen teatrozko txapelketa bat. Eta amaituta diruaren bearra ikusten dabela. Gura leuke Euskaltzaindiaren izenean dirua eskatu Ofizial-Zentroei eta batez be "Caja de Ahorros Provincial de Guipuzcoa"-ri. Amazortzi milla ta bosteun peseta bear ei dituez. Eskatu beio Euskaltzaindiak azkenengo oneri. Irigoyen jaun diruzaiñak diño kobrau barik dagoela oraindiño urtero emoten dabena eta bide batez ori be jaso bear dala. Diño, gaiñera, bearrezkoa dala urtero emoten daben besteai be eskatzea kaxan dagoen dirua oso gitxi dalako. Mitxelena jaunak diño diruiturri barriak topau bear litzakezala, aal dala.

Arrue jaunak Donostian egingo dan euskal-asteaz berba egin dau. Ainbat gauza aipatu ditu euskeraz egingo direanak.

Lecumberrin eta Elizondon egin dira Nafarroako bertsolarien txapelketa bi, aurretik esanda egoanez. Baita Bizkaian be Mungian eta Markiñan.

Irunen egin gura dan Euskalzaleen Biltzarraz berba egin da. Urriaren 7-8 eta 9-a artu dira egun egokitzat. Azkenengo egunean Ondarrabi-n egin leiteke Euskalerri osoko bertsolarien txapelketa nagusia. Bertan parte artu bear dabe mugaz gorakoak, nafarrak, gipuzkoarrak, eta bizkaitarrak. Txapeldunari Euskaltzaindiak, Euskalerri osokoa danez, emon bear deutso makilla bat. Diruzko sariak lortu bear dira. Anai Berriotxoa-k diño Irungo Ayuntamentuak eleukeala Eibarkoaren atzean gelditu gura, berak dakianez. "Caja de Ahorros Provincial de Guipuzcoa"-k emon eban igaz tari

bat Gipuzkoako bertsolarien txapelketarako, eta orduan adierazo eban jakin gura ebala ia Euskaltzaindiak aurrerantzean urtero egin gura zituen txapelketak, alan bazan berak be parte artu gura leukeala Bizkaiko Ahorro-kaxeak Bizkaian artzen dauen legez. Lortu bedi sarietarako bear dan dirua eta egin bedi Euskalerri osoko txapelketea. Arrue ta Lojendio jaunak izentau dira prestaera onein barri emoteko bisita bat egin deien Gobernadore jaunari, geroago baimena bear dan legez eskatuko bada be.

Urgazle barriak izentetako garaia datorren illean da eta izen mordo bat aipatu da bakotxaren merituak esanik. Datorren illean ikusi bedi zeatzago izentaziñoak egiteko.

Diploma batzuk egin bearra dago Bilbon aurten esamiñau direan umeai eta areik gertau dituezanai emoteko, esamiñen oiñarrietan imini zanez. Egin bediz.

Altube jaunaren karta bat irakurri da Alvarez Emparanza jaunarengandik artu dauen beste bateri erantzuten deutsana eta Euskaltzaindiko bere lagunai zuzendua.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

Donostian, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru, Irigarai, Lekuona, Villasante, Mitxelena jaun euskaltzaiñak. Zugasti, Loidi, Aresti, Aita Larrañaga Pingliang-go apezpiku jauna, Arruza ta Irigoyen urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko agiria irakurri da eta ontzat artu da, eta baita bere geigarria be.

Anai Berriotxoa-k ezin etorria adierazo dau. Bide batez batzarrera agertu gura dituen gauza batzuk irakurten dira:

1) Justo Garate jaunaren lan bat bialtzen dau, "Juicios y Glorasio vasco-latino de Buenaventura Vulcanius" erretratu ta guzti, eta diño Euskaltzaindiko urgazle izentau dalako bialtzen dauela egilleak.

2) Ignazio Larramendi jaun urgazlea il da. Bere etxekoai agertu bekie gure atsekabea.

3) Diño gaiñera, komeni litzakeala Irun-go *El Bidasoa* astekariaren zuzendariari eskerrak emotea astero astero zerbait argitaratuten dabelako euskeraz. Alan egin bedi.

Mitxelena jaunak diño Odon Apraiz jauna Lovaina/Bruselas-en izango dan izkuntzalarien batzarrera joango dala eta Euskaltzaindiaren izena eroan leiela bertara. Alan egin bedi.

Lekuona jaunak diño Ordizia-n Gipuzkoako bertsolari barrien txapelketa bat prestau dauela bertako "Laguntasuna" taldeak, eta berak juraduan parte artuko dauela.

Donostiako "Centro de Atracción y Turismo"-k bialdu dauen karta bat irakurri da. Diño Iraillaren lenengo egunetan Ayuntamentuak daukazan arte-saletan egin gura dabela euskal-liburuen erakusketa bat "Exposición del libro vasco en los últimos 20 años" izenagaz. Eta Euskaltzaindiak argitaratu dituen liburuak eskatuten ditu, erakutsi ta gero barriro itzultzeko. Itxi bekiez liburuok.

"Espasa Calpe, S. A."-ren karta bat irakurri da. Azkenengo kontuak bialtzen dituez eta guretzat gelditzen dira 2.272,05 peseta.

Montevideo-tik José Pereiro Rodriguez jaunak *Revista Nacional*-en ale bat bialtzen dau **Euskera** gure aldizkariagaz aurrerantzean trukean egiteko eskaturik. Alan egin bedi.

Irigoyen jaunak diño aurtengo novela-sariaren epea amaitu dala eta eztala etorri ezer. Diño berba egin dauela Bizkaiko Ahorro-Kaxan —eskeiñita daukie saria— eta

onena deritxiela datorren urterako istea teatro-sariagaz batera egiteko. Orretarako karta bat idatzi bear jako Bizkaiko Ahorro-Kaxeari guztia aipatuz eta teatro-saria be imini daien eskatuz. Alan egin bedi.

Bilbon egingo dan bertsolarien asken-txapelketa nagusiaren gaiñean berba egin da. Baita Lesaka-n egingo dan Nafarroako azkenaren gaiñean be, Bizkaian Aguztuan txapelketa bi egin dira. Bata Zeanuri-n eta bestea Ondarrun.

Irun-en egin gura direan batzarren gaiñean berba egin da.

Arruza jaunaren karta bat irakurri da. Diño Bilbon laguntzaille batzuk egutegi bat euskeraz gertetan dabiltzala. Baita argitaratu gura dituezala Juliana Azpeitia andrearen eta beraren ipuin-liburuak be. Baita diskotan imini gura dituezala euskal-kanta batzuk be. T. B. O. baten gertakizunetan be ari direala. Eta kanta-liburutxo bat be egiña daukiela argitaratzeko gertu. Baimena eskatzen dau guzti ori egiteko. Lenengo aurrera eroan bediz aurreko batzarrean ontzat artu zirean oiñarriak eta orduan ikusiko da zelan argitaratu leitekezan gauza guzti orreik.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua — *Zadorlari-ordea*

I. M.ª Etxaide — L. Mitxelena

1960-IX-30

Donostian, bildu dira: Ignacio María Etxaide jauna, buru, Mitxelena; Irigaray, Villasante, Arrue jauna euskaltzaiñak. Zugasti, San Martin, Arruza, Etxaniz, Loidi, Odon Apraiz eta Irigoyen urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Bernardo Maria Garro jaun urgazlea il da. Bere alargunari eta etxekoai agertu bekie gure atsekabea.

Begoña Andonegi-k Deba-tik bialdu dauen karta bat irakurri da. Eskerrak emoten ditu Euskaltzaindiak berari eta bere lagunai erantzun eutsienagaitik, eta diñoanez, asko balio izan deutsie.

Francisco Ugalde Idoyaga jaunak Bermeo-tik bialdu dauen karta bat irakurri da. Diño egoki izango litzakeala jakeko solapan eroan leitekean ezaugarri bat egin daigun euskaldunak nortzuk garean igarri daiten eta trenean edo beste edozein tokitan alkar ikusten dogunean euskeraz berbetan asi gaitezan. Erantzun bekio Euskaltzaindiak oso pozik ikusten dauela bere asmoa eta aintzat artzen dauela, baiña oraingoz eztauela artu erabagirik orren gaiñean.

Odon Apraiz jauna Lovaina/Bruselas-eko batzarretan izan da eta ango barri emon da.

Bilboko zezen-plazan Iraillaren 11-an Bizkaiko Bertsolarien azken txapelketa nagusia egin da. Juan Mugartegi Berriatuakoa gelditu da txapeldun, eta Juan Azpillaga Ondarrukoa bigarren. Lesaka-n Iraillaren 25-ean egin da Nafarroako azken-txapelketa nagusia. Andres Narvarte Goizuetakoa gelditu da txapeldun, eta Juan Perurena Arizkun-goa bigarren. Oso ondo urten dabe bai Bizkaiko ta bai Nafarroako txapelketa guztiak.

Euskalerri osoko bertsolarien txapelketa nagusia egiteaz berba egin da. Arrue jaunak diño Donostian egin leitekeala San Tomas egunez eta "Centro de Atracción y Turismo"-koakaz berba egingo leukeala laguntasuna lortzeko. Emon beitez pausook eta Euskaltzaindiak egin begi Donostian San Tomas egunez Euskalerri osoko bertsolarien txapelketa nagusia.

San Martin jaunak diño Iñaki Irigaray-gaz berba egin dauela eta oraindiño dirua falta jakola Gipuzkoan antolatu dauen teatrozko txapelketarako, eta Euskaltzaindiak bere izenean Gipuzkoako Ahorro-kaxeari eskabidea egin bear leuskiola. Egin bedi.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

Euskaltzaiburua
I. M.ª Etxaide

Donostian, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru. Irigaray, Villasante, Gorostiaga, eta Arrue jaun euskaltzaiñak. San Martin, Zugasti, Arruza, Loidi, Etxaniz, ta Irigoyen jaun urgazleak. Oleaga jaunak ezin etorria adierazo dau.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

"Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa"-k bialdu dauen erantzuna irakurri da. Aurreko batzarrean erabagi zanez teatro taldeen txapelketarako diru-eskabidea egin jakien eta eztabe aintzat artu.

Irigoyen jaunak diño igaz legez Aita Francisco Cortabitarte jaunak amar milla peseta eskeintzen deutsazala Euskaltzaindiari Bizkaiko neska-mutillen artean sariketa bat egin daien. Esker onez artzen da Aita Cortabitarte jaunaren eskeintzea, eta aintzat artu direan oiñarriak oneik dira:

Euskal-Sariketea amar urtetik amabost urterako neska-mutil bizkaitarrentzat

1. Euskaltzaindiak sariketa bat iminten dau Bizkaiko neska-mutillentzat. 1961-gko. Maiatzean egingo da adierazoko dan egun batean. Izenak bialtzeko epea amaituten dan orduan amar urtetik amabost urtera izan bear dira. Zimentarriak oneik dira:

2. Sariak izango dira:

a) Amabi urtetik amabost urtera dituezanentzat: 600 pesetako sari bat; bi 400 pesetako; 350 pesetako bat; iru 300 pesetako; bost 250 pesetako; sei 200 pesetako; eta sei 150 pesetako.

b) Amar urtetik amabi urtera dituezanentzat: 500 pesetako bat; 400 pesetako bat; 350 pesetako bat; bi 300 pesetako; iru 250 pesetako; lau 200 pesetako; lau 150 pesetako. Sariez gaiñera diplomak be emongo jakiez, bai neska-mutillai eta bai gertetan dituezanai be.

3. Sariketea esamiña bat euskeraz egiñik erabagiko da, eta gaiak izango dira:

a) Gitxienez kristiñau-dotriñako otoitzak jakin bear izango dira.

b) Gitxienez sei bertso-sorta desbardin gura dan bozean buruz kantetan jakin bear da. Euskaltzaindiak 1960 urtean argitaratuta dagoen Euskal-kantak liburutik ikasi leitekez gura direanak, baiña beste edozein liburu edo bertso paperetik ikastea bardin da. Esamiña egunean zeintzuk dakizan esan bear dau bakotxak esamiñatzailleak guztietatik bat aukeratu daien itanduteko.

d) Esamiña egunean bertan emongo dan *Kresala* novelatik zerbait irakurri ostean irakurri danaren kontua emon bear izango da. Urte osoan al dan guztia irakurtea komeni da.

e) Esamiña egunean diktadu bat egingo da eta alegiñak egin bear izango dira erratu barik idazten. Orretarako egokia izango da urte osoan kristiñau-dotrinatik edo beste edozein liburu errazetik bein da barriro kopietan ekitea oituteko.

f) Gura dan ipuin bat idatzi bear izango da buruz. Bakotxak bere etxean aukeratu bear izango dau eta ikasi, eta alegiñak egin bear dira albait-eta-onena izan daiten aukeratuten dana.

g) Esamiña egunean gai bat emongo da aren gaiñean bakotxak zerbait idatzi daien. Gaia itaun batzuri erantzutea izango da bakotxaren zuurtasuna neurtzeko.

4. Esamiñatzailleak Euskaltzaindiak izentauko ditu egingo dan eguna adierazoten dauenean.

5. Izenak 1961-gko. Aprillaren 30-erarte artuko dira Euskaltzaindiaren etxean (Academia de la Lengua Vasca-Ribera, 6 Bilbao). Izena, deitura bi, bizilekua eta jaioteguna adierazo bear dira.

Irigoyen jaunak diño Oleaga jauna Bizkaiko Diputaziñoko buruzagiagaz egon zala Azkue-ren iztegi barriztauaren lanen izenean aspaldian eginda daukagun eskabidea bultzatuteko asmoz. Eta oraindiño erantzunik ezpadaukagu be, jakin dauela bide onean dagoela eskabidea eta baleitekeala berrogetaamar milla peseta lortzea.

Arrue jaunak diño Gipuzkoako Diputaziñoko buruzagiagaz berba egin dauela, eta iztegirako, lendik emonda daukienaz gaiñera, beste ogetabost milla peseta emongo dituezala. Orretarako eskabidea egin bear da. Egin bedi.

Etxaide jaunak diño egokia izango litzakeala datorren **Euskera**-n iztegi barriaren orri pare bat edo argitaratzea, oraindanik izan daigun izango danaren eredua, eta diru-eskabideak egitorduan erakutsi aal izan daigun. Egin bedi.

Arrue jaunak Euskalerri osoko bertsolarien azken txapelketa nagusiaz ekin deutso. Diño berba egin dauela "Centro de Atracción y Turismo"-koakaz eta oso gogoz artu dabela. Prestaera-lan guztiak arein kontura izango dira eta Euskaltzaindiak txapelketea zuzenduko dau. Donostiako teatro batean egingo da sarrera kobrauta. Irigaray, Mitxelena, Arrue, ta San Martin jaunak izentetan dira areikaz artu emonak izan daiezan, eta datorren batzarrean artu beitez azken-erabagiak.

Irigoyen jaunak diño Semendiaren 27-an egokia izango litzakeala Bilbon Bizkaiko ta Nafarroako bertsolari nagusien artean desafio bat egitea adiskide gisan. Bi toki bakoitzetik. Ain zuzen be egun orretan futbol-partidu bat jokatuko da Bilbon donostiar eta bilbotarren artean eta gipuzkoar euskaldun asko joan oi da ikusten, eta bide batez aukeran izango leukie bertsolariena be. Beste alde batetik bizkaitarrak eztituez ezagututen nafarrak. Gaiñera bertsolari nafar eta bizkaitarrak Donostiara joan baiño lenago alkarregaz ekitea egokia da, sekula alkartu eztirealako, Euskaltzaindiarentzat diru-iturria izan leiteke teatro batean eginda. Egin bedi.

Irigoyen jaunak diño Bizkaiko Ahorro Kaxeak ontzat artu dauela Domingo Agirre novela sariaren epea urte bete luzatzea, eta Toribio Alzaga teatro-saria 1961 urterako imintea. Novela sariaren epe barria 1961-VII-20 da. Teatro-sariaren oiñarriak ontzat artu dira. Ona emen:

Toribio Alzaga teatro-saria 1961

Bizkaiko Ahorro Kaxak zortzi milla pezetako sari bat sortua du Euskaltzaindiari lagunduaz. Sariaren oiñarriak auek dira:

a) Edozein euskalkitan idatzi litezke teatro-lanak.

b) Gaia nai dan bezelakoa izan liteke, eta lanak norberak egiña izan bear du eta ez beste izkuntza batetik itzulia.

d) Gutxienez ordu bete iraun bear izango du eta ekitaldi bi izan. Izkribuak makiñaz idatzita bialdu bear dira, alde bakar batetik eta lerro-une bat utzirik, folio tamañuzko orrian (31,50 x 22 gutxi gora beera).

e) Sari bakar bat baizik ezta izango, zortzi milla pezetakoa eta zatitu eziña.

f) Saria, gabe gelditu liteke egoki iruditzen bazaie batzarrekoei.

g) Batzarra Bizkaiko Ahorro-Kaxak izendatuko du Euskaltzaindiaren eskabidez lanak bialtzeko epea bukatu ondoan. Batzarrean Bizkaiko Ahorro Kaxaren ordezkari batek parte artuko du.

h) Lanak Euskaltzaindira bialdu bear dira (Ribera, 6 - Bilbao) 1960-gko. Uztaillaren 20-a baiño leen. Lema batekin firmatu bear dira, eta lemaren giltza sobre itxi batean bialdu bear da.

Eneko Irigaray jaunak karta bat bialdu dau. Diño Gipuzkoako teatro taldeen txapelketa barria prestau gura dauela Euskaltzaindiaren baimenagaz. Eta Euskaltzaindiari izenezko eta teknikazko laguntza eskatzen deutso. Erantzun bekio aurrekoaren diru-kontua erabagi bear litzakeala lenengo eta dirua lortu oraingorako. Gaiñera, Euskaltzaindia bada egiten dauena, oiñarri batzuk imini bear izango litzakez eta zabaldu, jakitun iminiaz teatro-taldeak.

Anai Berriotxoa-k asmo bat bialdu dau lan labur batean: diño egokia izango litzakeala Euskaltzaindiak titulu bat sortzea euskal-izkuntzaz estudio batzuk egindakoentzat. Esamiña batzuk egin bear izango litzakez iru urtetan-edo gai jakin batzuen gaiñean, eta azkenez titulua emon. Asmo au Irun-go Euskaltzaleen Biltzarrean agertzeko gogoa eukan. Baiña atzeratu egin dan ezkero Euskaltzaindiaren batzarrera bialtzen dau. Oso ondo artzen dau asmo au Euskaltzaindiak eta aurrera eroatea egokia izango litzakeala deritxo. Irigaray, Villasante ta Anai Berriotxoa izentetan dira zeatz arakatu daien kontu ori eta oiñarri batzuk zelan imini ikusi daien. Textoak be aukeratu bear izango litzakez. Euskaltzaleen Biltzarra egiten danerako asmo au aurreratuta egon lei.

"Euskal kulturaren Alde" alkartasunak lan bat bialdu dau Euskalzaleen Biltzarrerako.

Arrue jaunak diño Errenteriako Ayuntamentuak omenaldi bat egin gura deutsala Luis Mitxelena jaunari eta ori dala-ta beragana joan direala eretxi-eske. Bere ustez egokia izango litzake Euskaltzaindiko sarrera-itzaldia bertako Ayuntamentuaren etxean egin daien. Bide batez erriak zerbait eskeini leio omenez. Urtarrillean egin aal izango litzake. Egin bedi eta aukeratu bedi erantzuna egingo deutsan euskaltzain bat.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

1960-XI-25

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru, Oleaga, Lekuona, Aita Villasante, Gorostiaga, Irigaray eta Arrue jaun euskaltzaiñak. Zugasti, Arruza, Aita Larrañaga apezpikua eta Irigoyen jaun urgazleak.

Anai Berriotxoa-k ezin etorria adierazo dau. Mitxelena jauna ezta etorri gexorik dagoelako.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Aurreko batzarrean erabagi zanez Bilbon egin bear zan bertsolarien jaia ezta egin eta itxi bedi Errege egunerako. Ondarruako Teatro Taldea be gertetan dabil "Kresaletan" deritxon obra bat. Eroan bedi talde ori Bilbora jai bi egiñik. Bata bertsolariena eta bestea teatrozkoa.

Irigoyen jaunak Eneko Irigaray-k idatzi deutson karta bat irakurri dau. Bertan Gipuzkoako teatro-taldeen artean Euskaltzaindiak txapelketa bat egin daien oiñarriak dagoz. Baiña sariak diruzkoak izango direala esan arren eztiño zenbait pesetakoak izango direan. Erantzun bekio zeatz esan daiala nok eta zenbat diru emoteko aukerea dagoen eta ori jakiñik egin bedi txapelketea eta izentau bedi juradua.

Migel Arruza jaunaren karta bat irakurri da. Bertan eskatzen dau aurreko batzar batean ontzat artu zirean oiñarriari jarraiturik albait ariñen izentetako batzarburuzagi jagon-saillekoa. Oleaga, Arrue, Mitxelena, Gorostiaga eta Lafitte jaunak izentau dira, eta urgazleen artetik Arruza, Loidi, eta Diez de Ulzurrun. Urrengo batzarrean burua izentau bedi.

Aita Villasante-k lan bat irakurri dau eta bertan diño Euskaltzaindiak bere gramatika bat egin bear leukeala. Ontzat artu da asmoa eta Oleaga jaunaren eskabidez Aita Villasante bera izan bedi orretan lan egingo dauena Euskaltzaindiko batzarretara ekarririk lanak egiñala.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru, Aita Villasante, Mitxelena, Lojendio, eta Arrue jaun euskaltzaiñak. Etxaniz, San Martin, Zugasti, eta Irigoyen jaun urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Buenos Aires-tik Rufino Arregui jaunak idatzi dauen karta bat irakurri da. Telebistako izen tekniko batzuk zelan esan jakin gura leuke. Problemearen itxura asko azaldu dira: noiz euskal-izen egokia imini leitekean, noiz erderatiko euskal-izen jatorra erabili, ta noiz modernua ta kultura-izkuntza askotara zabaldua. Mitxelena jaunak prestau begi erantzuna.

Villarreal de Urrechua-ko Ayuntamentutik artu dan ofizio bat irakurri da. Berreun eta berrogetaamar peseta emotea erabagi dabe Euskalerriko bertsolarien txapelketeari laguntzeko.

Aita Diego J. de Alzo-k idatzi dauen karta bat irakurri da. Diño Gipuzkoako ta Nafarroako euskerea estudietan dauen lan bat argitaratzeko daukala. Baiña dirukontua erabagi bear dauela asi baiño leen. Eta "Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa"-ri Euskaltzaindiak bere ordez eskabide bat egin deion gura leuke. Ezta erabagiten ezer.

Irigoyen jaunak diño Urtarrillaren 6-an eta 29-an Bilbon egitekoak direan jai bien prestakizunak zelan dagozan.

Azkue-ren iztegi barriztauaren lanen alde dirua lortzeko moduaz berba egin da. Datorren batzarrerako zerbait estudiau bedi kontu ori erabagi al izateko.

Mitxelena jaunaren sarrera itzaldia Urtarrilaren 22-an izango da Errenterian. Bere lanaren titulua au da: XVII eta XVIII-garren mendeko euskal-iztegi lanak Euskalerrian "Aita Villasante-k"egingo deutso erantzuna.

Irigoyen jaunak diño Eneko Irigaray jaunagaz egon dala eta arek berba emon deutsola teatro-taldeen txapelketan bost milla pesetako sariak iminteko bere diruagaz erantzungo dauela, eta gura leukeala iru sari egon daitezan: lenengoa iru milla pesetakoa, bigarrena bi millakoa, eta irugarrena millakoa. Ontzat artu direan oiñarriak oneik dira:

Euskaltzaindiak eratzen dituen teatro-taldeen arteko txapelketa

Euskaltzaindiak euskal-teatro-taldeen artean egiteko txapelketa bat jartzen du. Nai duten talde guztiak parte artu dezakete. Oiñarriak auek dira:

1. Parte artu nai duten talde guztiak 1961 Ilbeltzaren 31-a baiño leen eman bear dituzte izenak Euskaltzaindiaren etxean —Ribera, 6 - Bilbao—. Izena ematen dutenean irureun peseta pagatu bear dituzte.

2. Euskaltzaindiak juradu bat izendatuko du txapelketa erabakitzeko eta arek sots egingo du ze ordenatan parte artu bear duten izena eman duten taldeak jakiteko. Txapelketa 1961 Otsaillaren 26-an asiko da.

3. Talde bakoitzak nai duen obra oman dezake, baiña gutxienez ekitaldi bi izan bear ditu. Nai duten errian eta teatro-gelan eman dezakete, eta aukeratu duten tokira joan bear du juraduak.

4. Teatro-obrak emateko eskatu oi diran baimenak parte artzen duen talde bakoitzak lortu bear ditu.

5. Sariak izango dira: 1) Kopa nagusia eta iru milla peseta. 2) Bi milla peseta. 3) Milla peseta. Gaiñera emakumezko jokolari onenari kopa bat emango zaio eta beste bat gizonezko onenari.

6. Juraduaren erabakia aintzat artu bear izango da eta parte artzen duten talde guztiak oiñarri auetara makurtzen dira.

Arrue jaunak Donostian egin dan Euskalerriko bertsolarien txapelketearen barri emon dau. Euskaltzaindiaren aldetik egin direan gastu guztiak "Centro de Atracción y Turismo"-k pagau ditu beste alde batzuetatik artu direan diru batzuk kenduta. Eskerrak emon bekiez diruzko ta bestelako sariak eskeiñi dituezan guztiai. Eskerrak emon bekiez baita prestakizunak egiten parte artu daben guztiai be: Mitxelena, Arrue, Irigaray, San Martin, Fernando Artola, ta Irigoyeneri, ta baita juradukoai be.

Itxaropena Zarauzkoa Euskalerriko bertsolarien txapelketearen ekitaldi osoa argitaratzeko prest dago. Irigoyen eta San Martin egon beitez aregaz gauza onen gaiñean tratu bat egiteko.

Irigoyen jaunak diño bere izena emon gura eztauen batek telefonoz deitu deutsola eta prest dagoela Euskaltzaindiaren etxeko gela batean "pinki" emotea kastetan dana pagetako. Iñok jakin eztaien bera nor dan jiro postalez bialduko leuke dirua Irigoyen jaunak Euskaltzaindiaren izenean ipini baleu legez. Ontzat artzen da eta egin bedi. Telefonoz deitzen dauenean eskerrak emon bekioz.

Aita Villasante-k euskal-metodo egin barri bat ekarri dau. Bere egillea Fr. Juan Azurmendi da. Gipuzkoako euskeraz dago. Arakatu bedi zeatz. Belausteguigoitia jaunak euskal-metodo bat egiteko dirua emon ebanean Bizkaiko euskeraz izatekotan emon eban. Eta egilleak itzuli bearko dau.

Aita Villasante-k Euskaltzaindiko gramatikearen lenengo zatia irakurri dau. Lafitte jaunari ta mugaz gorakoai be bialdu bekie arakatu daien.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

1961-I-22

Errenterian, Ayuntamentuaren etxean, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru, Oleaga Mitxelena, Villasante, Lojendio, Lekuona, Irigaray, Arrue, Gorostiaga, Dassance, Eppherre, eta Lafitte jaun euskaltzaiñak. Aita Larrañaga apezpiku jauna ta ainbat urgazle geiago. Baita Gipuzkoako Gobernadorea, Gipuzkoako Diputaziñoko buruzagiaren ordezkoa, Errenteriako alkatea ta parrokoa, eta beste asko geiago.

Alkate jaunak ondo etorria emon dau euskeraz. Ostean Oleaga jaunak Euskaltzaindiko arautegiak diñoana beteaz berba egin dau eta gero Etxaide jaunak Mitxelena jaunari emon deutso berba egiteko aldia Lojendio ta Arrue jaunen artean batzargelara ekarri dabenean. Amaitu dauenean Aita Villasante-k erantzun deutso. Etxaide jaunaren eskabidez Arrue jaunak berba batzuk esan ditu. Erriko alkate jaunak erriaren izenean erregalo bat egin deutso Mitxelena jaunari.

Eta batzarra amaitu da. Batzarraz kanpora ainbat jai ta zeremonia egon dira Mitxelena jaunaren omenez errian.

1961-II-24

Aldundi-jauregian, Donostian, Diputaziñoan, Bildu dira: I. M.ª Etxaide jauna, buru, Villasante, Lekuona, Gorostiaga, Mitxelena ta Oleaga euskaltzaiñak. Zugasti, Arruza, Echaniz, San Martin ta Irigoyen urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Semendiko, Abenduko ta Urtarrilleko batzar-agiriak irakurri dira eta irurak ontzat artu dira.

Garagarrilleko batzarrean ontzat artu zirean oiñarriai jarraiturik izentau zan batzar-buruzagi jagon-saillekoaz berba egin da. Etxaide jaunak diño izentau daiela buru bat.

Arruza, Gorostiaga ta Oleaga jaunak firmau daben idazki bat irakurri da. Bertan esaten da Euskaltzaindiaren etxean Euskaltzaindiaren Laguntzailleen batzar bat egin gura izan dala eta deiak egin zireala. Eta batzar-egunean Irigoyen jaunak I. M.ª Etxaide Euskaltzaindiko buruzagiak egindako karta bat irakurri ebala eta bertan Irigoyen jaunari "observadore" legez joateko eskatzen eutsala. Eta eztabela ontzat artzen "observadore"-rik.

Etxaide jaunak diño astiroago irakurri bear dauela kartea erantzun egokia emoteko. Datorren batzarrerako itxi da arazo au.

Oleaga jaunak diño bera etzala egon batzar orretan, baiña baekiala batzarraren barri eta ontzat artu ebala.

Irigoyen jaunak diño Euskaltzaindiaren Laguntzailleen izenean Arruza jaunak firmauta dei bat artu ebala aipatutako batzarrera joateko. Eta bera eztala Euskaltzaindiaren laguntzaillea, Euskaltzaindiko "urgazlea"baiño. Eta Garagarrillean Euskaltzaindiak orduko nasteak amaitzeko artu zituan oiñarriak eztireala jarraitzen. Etxaide jaunak bialdu eutsan kartea alkarren arteko karta bat besterik etzala eta bertan ezteutsala eskatzen "observadore" legez joateko aipatu dan batzarrera.

Aita Migel Mari-k Markiña-ko karmeliten izenean karta bat idatzi dau. Diño euskal-eskola bat zabaldu dabela Markiña-n eta Euskaltzaindiari bere itzala eskatuten deutso. Erantzun bekio Euskaltzaindiak oso begi onez ikusten dauala eta prest dagoala aal dauen laguntasun guztia emoteko.

Mirentxu Moraiz-ek Tolosa-ko "Lizardi" taldearen izenean karta bat bialdu dau. Bertan eskatzen dau Euskaltzaindiak Lizardi zanaren gorazarrez poesia-sariketa bat egin ondoren, Tolosa-n, beste jai batzuen artean, sariak emoteko batzar bat egin daiala. Irigoyen-ek bera ta Labayen-en artean alkarreri onezaz idatzi dautsiezan karta batzuk irakurri ditu. Euskaltzaindiak begi onez ikusten dau arazo au eta egin beitez bear direan aleginak aurrera aterateko.

Aita Villasante-k diño euskal-metodoa Bizkaiko euskeraz iminten dabillela egillea. Egiten dauenean Oleaga ta Villasante-k berak arakatu beie batzarrera ekarri baiño leen.

Gipuzkoako gobernadore jaunak amar milla peseta emon ditu iztegi-lanen izenean Mitxelena jauna be aipatuaz. Eskerrak emon bekioz.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Dassance jauna, buru, Lafitte, Gorostiaga, Lojendio, Villasante, Lekuona ta Oleaga euskaltzaiñak. Berriotxoa anaia, Zugasti, Arruza, Etxaniz, Loidi, San Martin ta Irigoyen urgazleak. Etxaide jauna gexorik dago eta ezta etorri. Mitxelena ta Arrue jaunak be ezin etorria adierazo dabe. Aita Larrañaga apezpiku jaunak be bai.

Gregorio Maidagan jaun urgazlea il da. Agertu bekie bere etxekoai gure atsekabea.

Batzar-buruzagi jagon-saillekoaren buru-izendatzea urrengo batzarrerako itxi da. Gorostiaga eta Arruza jaunak Oleaga-ri egin deutsiezan karta bi irakurri dira. Gorostiaga jaunak diño zarrena dan ezkero berari ematen dautsala botoa buru izateko. Arruza be beraren alde dago. Besteen itza artu bedi.

Jose Amilibia Bergara-koak idatzi dauen karta bat irakurri da. Diño Bilbon umeentzat euskal-eskola bat zabaldu gura dauela eta bear direan aleginak egiteko asmoa daukala. Euskaltzaindiari bere itzala eskatuten dautso. Erantzun bekio Euskaltzaindia prest daukala aal dauen laguntasun guztia emoteko eta pozez beterik ikusten dauela asmoa.

Irigoyen jaunak Labayen-ek idatzi dautsan karta bat irakurri dau eta bertan iru milla peseta eskeintzen dautsoz Euskaltzaindiari aurreko batzarrean berba egin zanez Lizardi-ren gorazarrez poesia-sariketea egiteko. Urrengo oiñarri oneik ontzat artu dira:

"Lizardi" Jose Maria Agirre-ren gorazarrez euskaltzaindiak antolatzen duen poesia-sariketa.

Oiñarriak urrengo auek izango dira:

1. Iru sari emango dira: 1. Bi milla pesetakoa. 2. Zazpireun eta berrogetaamarrekoa. 3. Berreun eta berrogetaamarrekoa.

2. Bialtzen diran poesia-lanak nai dan bezelako luzeera ta gaia izan dezakete eta bertsotan euskeraz egiñak izan bear dute.

3. Lanak Euskaltzaindira bialdu bear dira (Ribera, 6-Bilbao) 1961 Maiatzaren 15-a baiño leen, makiñaz idatzita. Lema batekin firmatu bear dira eta lemaren giltza sobre itxi batean bialdu.

4. Poesia-sariketa erabakiko duen batzarrea Euskaltzaindiak izendatuko du.

Krutwig jaunaren lan bat irakurri da errien euskal izenez. Baita Miarritzetik idatzitako bere karta bat be.

Arruza jaunak diño ia batzar-buruzagiaren kontua erabagi bitartean Euskaltzaindiaren etxean bildu leitekezan beiñipeiñeko. Baietz esan da.

Aita Villasante-k Krutwig jaunak berari idatzi dautsan beste karta bat irakurri dau.

Aita Villasante egiten ari dan gramatika-lanaz berba egin da.

Amabost egun Urgainen Loidi-ren euskerazko novela katalanera itzulita argitaratu da eta egilleak ale bat eskeiñi dautso Euskaltzaindiari. Zorion diola.

Irigoyen jaunak diño Aprillaren 23-an egingo dala Betelun Nafarroako bertsolarien bigarren txapelketako lenengo saioa eta igaz legez Euskaltzaindiaren laguntasuna eskatu dabela. Ontzat artzen da.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

1961-IV-28

Donostian, bildu dira: I. M.ª Etxaide jauna, buru, Lekuona, Lojendio, Irigaray, Mitxelena ta Oleaga jaun euskaltzaiñak. Labayen, Aresti, Etxaniz, San Martin, Arruza, Mirande, Aita Larrañaga Pingliang-go apezpikua eta Irigoyen jaun urgazleak. Gorostiaga jaunak ezin etorria adierazo dau.

Batzarretako azkenengo agiri biak irakurri dira eta ontzat artu dira.

Jose A. Amilibia jaunak bialdu dauen karta bat irakurri da. Mondragoen umeentzat euskal-eskola bat zabaldu gura dau eta Euskaltzaindiari laguntasuna eskatuten deutso, batez be an iñor ezagututen badogu gure partetik aregana bialdu daigun. Erantzun bekio Bernabe Berecibar jaunagaz berba egin leikeala. Eta Lekuona jaunaren partez Jose Luis Iñarra bertako artzipresteagana be joan leitekeala.

Irigoyen jaunak Bilbon Urtarrillean Euskaltzaindiak egin zituen jai bien kontu emon dau. Oso ondo urten eben. Capitol-ean errege egunez egin zan jaian 20.037,35 peseta irabazi zirean, eta Arriaga Teatroan Urtarrillaren 29-koan 6.001,70 peseta. Zorionak eta eskerrak emon bekioz Irigoyen jaunari egin dituen alegiñakaitik.

Irigoyen jaunak Bizkaiko bertsolarien laugarren txapelketea zelan egin leitekean adierazo dau. Aurreko urteetan legez Urkiolan San Antonio egunez asiko litzake eremu aretakoen artean, eta azken txapelketa nagusiaz Bilbon, Capitolean, Aguztuaren 27-an amaitu. Diño Bizkaiko Ahorro-Kaxan egon dala eta prest dagozala aurreko urte bietan legez amairu milla peseta saritan emoteko. Orretarako karta bat idatzi bear jakie eskabidea egiñik. Egin bedi.

Jaun berak diño Betelu-n Aprillaren 23-an Nafarroako bertsolarien bigarren txapelketako lenengo saioa egin dala. Urrengoa Irurita-n Bagillaren 1-ean egitekoa da.

Lizardi-ren gorazarrez egin dan poesia-sariketarako juradua izentau da: Lekuona, Labayen eta Erkiaga, azkenengo au berak lanik bialtzen ezpadau. Datorren batzarrerako erabakia ekarri bear dabe Maiatzaren 28-an Tolosa-n sariak partidu aal izateko.

Irigoyen jaunak diño Deba-tik telefonoz berba egin dauela beragaz bertako euskal-eskoletako batek. Ango Ayuntamentuagaz bat eginda Gipuzkoako bertsolari barrien artean txapelketa bat egin gura leukie eta laguntasuna eskatuten dabe. Emon bekie aal dan eta bear daben laguntasun guztia.

Irigaray jaunak euskal-metodo barriaz berba egin dau. Bere eretxiz daukazan akats batzuk azaldu ditu, zuzendu bear lirakeanak.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

1961-III-20

"Euskaltzaindiaren laguntzailleak"
Bizkaiko batzordearen batzar-agiria

Bilbo'n, milla bederatzireun ogeta irurogeta bat garreneko Jorraillaren ogeigarrenean, arratsaldeko zazpiterdietan batzartu zirean Euskaltzaindiaren etxean, Ribera kaleko seigarrenean batzorde onetako lagunak.

Ona biltzarrera agertu zirean batzarkideak: Oleaga eta Gorostiaga jaunak, euskaltzainak; Aita Onaindia, Erkiaga, Peña eta Arrutza jaunak urgazleak. Ona etorri eziña agertu ebenak: Mokoroa, Ibargutxi eta Berasaluze jaunak.

Batzarra asita beingoan onako azalpen-idazki au irakurri eban zadorlariak:

Alkargo au sortzeko erabilli doguzan atzera-aurrerak

"1959'gko. Zemendia'n irakurri genduan Eibarr'en, Mogel idazle ospetsuaren omenaldi egunetan, emen, Bizkaia'n sortu nai ganduan alkargo bateri buruz, idazki bat. Euskaltzaindiari baimena eskatzen geutsan bertan gaiñera alkargo harri ori sortzeko Gipuzkoa'ko "Julio Urkijo Mintegia", Nafarroa'ko, "Principe de Viana" izenekoa, eta Araba'ko "Ramiro de Maeztu" deritxonaren antzean. Baiña, gurea beintzat, Euskaltzaindia'ren barrukoa izatea nai genduan, eta orregaitik, an aurrean egozan euskaltzain guztiak gure asmoen jakitun imiñi nai genduzan".

"Atsegiñez artu eben euskaltzaiñak gure asmoa, eta itzez, aboz, esan euskuen alkargo onen asmoak ondo ikusten ebezala, eta aurrera yarraitzeko, guk, "Resurrección María de Azkue" izenarekin sortu nai genduan alkargo barri orrekin."

"Geroago, urrengo urteko Urtarrillean, Donostia'n, Euskaltzaindia'ren batzarrean, alkargo barri onen egitaraua aurkeztu genduan; baiña ez lengoaren izenarekin, "Euskaltzaindiaren Laguntzailleak" izenez baiño. Eta alkargo au, ez Bizkai'rako bakarrik, Euskalerri guztirakoa izan zeinkean."

"Etzan batzar aretan ezetariko erabagirik artu, eta urrengorako itxi zan erabagiok artzea. Lendakari jaunaren ustez, guk aurkezturiko egitaraua luzeegia zan, eta zeozer laburrago egiteko eskatu euskun. Idazkiz bidaldu geuntsan Euskaltzaindia'ri gure egitarau orren laburpen bat, eta urrengo batzarrean, Zezeillekoan, atzera atara genduan gure arazoa mai gaiñera. Euskaltzaiñak orduan ezeben aurkako zerik erakutsi, eta guk, ori ikusita, gure alkargoa Euskaltzaindia'ren barrukoa zan ezkero, ia bazkun orren ezaugarria guk gure alkargoan erabilli geinkean itandu genduan, eta baiezkoa emon yakun. Beraz, ezaugarria erabiltzeko baimena izan ezkero, gure

alkargoa bazkun orren barruan egoala uste bete-betea geunkan, eta gure bazkideei dirua eskatzeko orri batzuk zabaldu genduzan."

"Aprille'ko batzarrean ostera, guk dirua eskatze orreri buruz, eztabaida gogorra sortu zan Euskaltzaindia'n, eta batzuen eta besteen iritziak berezitu egin zirean. Guk, ezkenduala dirua Euskaltzaindia'ren izenean eskatu, bazkun oneri gure lanekin laguntzeko egin bear genduzan lanetarako baiño, eta besteak, Euskaltzaindiaren izenean eskatu genduala, ta bazkun orren kutxara yoan bearko zireala diruok."

"Mayetzeko batzarrean beste idazki bat irakurri genduan, alkargoari emon bear izango yakon bidea guk zelan ikusten genduan azaldurik. Izugarrizko eztabaidea sortu zan batzar aretan eta gure lan guztiak bertan bera itxirik, eten egin genduzan gertakizun guztiak."

"Bagille'ko batzarrean Alvarez Emparanza'tar Yoseba Koldobika jaunak egitarau bat aurkeztu eban, gure ustez oso egokia; baiña Euskaltzaindiak ezeban berari buruz ezer erabagi, eta bai, euskaltzain letraduen eskuetan arazoa itxi."

"Garagarille'ko batzarrean, Lojendio jaunak, beste ogitarau bat aurkeztu eban, au be, oso egokia gure ustez, baiña Euskaltzaindia'k ezeban beroneri buruz be ezertariko erabagirik artu."

"Dagonille'ko batzarrean azkenez, Arrue jaunak, Alvarez Emparanza'renari ukutu batzuek egiñaz, beste osoago bat eta guztien iritziz oso egokia, aurkeztu eban, eta au bai, au ontzat artu eban Euskaltzaindia'k, eta bertan, gure alkargoari Euskaltzaindia'ren barruan tokia emoten yakon. Azkenean ba, artu zan gure alkargo au Euskaltzaindia'ren barruan, 1960'gko. Dagonilla'n."

"Irailleko batzarrean guk, ipuin liburu bi, egutegi bat, abesti liburutxo bi eta disko batzuek egiteko baimena eskatu geutsan Euskaltzaindiari, aurreko illean ontzat arturiko egiterauaren barruan olan egin geinkeala uste izanik; baiña "Junta Rectora" zalakoa izentau arte, ezin genduala olakorik egin erantzun euskuen."

"Urrille'ko batzarrean be, etzan ezer erabagi, eta Zemendikoan, guk berenberegi eskatuta, izentau zan "Junta Rectora" ori eta onetan: "Miguel Arruza jaunaren karta bat irakurri da. Bertan eskatzen dau aurreko batzar batean ontzat artu zirean oiñarriai jarraiturik, albaitariñen izentetako batzar buruzagi jagon-saillekoa. Oleaga, Arrue, Mitxelena, Gorostiaga eta Lafitte jaunak izentau dira, eta urgazleen artetik, Arruza, Loidi eta Diez Ulzurrun. Urrengo batzarrean burua izentau bedi."

"Bizkai'ko iru lagunak izentauta gengozan ezkero, gure ustez, bagenduan batzarrerako deitu ta lanean asteko eskubidea, ta olan, Abenduaren amairugarren egunerako deitu genduan batzarrera toki onetan, beti legez; Baiña batzarra asi baiño leenago, Irigoyen jaunak, sakeletik atara eban karta bat irakurteko baimena eskatu eban."

"Karta ori, Euskaltzaindiaren Lendakari jaunarena zan, eta bertan izentatzen zan Irigoyen jauna, gure batzarretara etorri, ta lekuko izateko, edo ikusmiran egoteko zeregiñetarako. Guk aurretiaz Euskaltzaindia'ri baimena eskatu barik, eta batzarrean erabiliko zirean gaiak berari aurrez agertu barik, ezin geinkean batzarrik egin. Beraz, batzarrik egin barik alde egin genduan guztiok egun aretan."

"Zezeillaren batzarrean idazki bat aurkeztu genduan Euskaltzaindian gure asarrea erakusten, eta idazki au Oleaga, Gorostiaga jaunak eta neronek izenpetu genduan. Lendakariak batzar orretan esan eban argi ta garbi berak ezebala iñor lekukotzat izentatu, ta onetan gelditu zan arazoa."

"Epailleko azkenengo batzarrean, Euskaltzaindia'ren erabagiz, gure arteko batzarrak euki geinkez aurrerantzean, eta ori dala ta deitu zaituegu gaur guztiok, ia noiz edo noiz lanean asten garean."

Zadorlariak idazki au irakurritakoan aburu batez artu zan lanean asteko erabagia, eta onenbestez bukatu zan batzar au.

Urrengo egunean alkargo barruko saillen buruzagiei idazki onekin batera bidaltzen dautsugun karta bat egin yaken lanean asteko eskatuz.

1961-V-26

Donostian, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru, Lekuona, Irigaray, Arrue ta Villasante jaun euskaltzaiñak. Etxaniz, Zugasti, San Martin, Loidi, Labayen eta Irigoyen jaun urgazleak. Mitxelena jaunak ezin etorria adierazo dau.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Bizkaiko Ahorro Kaxearen karta bat irakurri da. Gure eskabideari erantzunik amairu milla peseta emotea erabagi dabe Bizkaiko bertsolarien laugarren txapelketarako. Eskerrak emon bekiez.

Lizardi-ren gorazarrezko poesia-sariketea erabagi bear eban juraduak bere eretxia ekarri dau. Erkiaga jaunak eztau parte artu juraduan. Lenengo saria Ormaetxea Nikola jaunaren "Lau urtaroak nere begietan" titulua dauen lanak irabazi dau. Bigarrena Jose Maria Aranalde jaunaren "Len eta orain" lanak. Eta irugarrena Lukax Dorronsoro ta Ceberio jaunaren "Kaiolatik iges" lanak. Lenengo sariaren merituak onela ikusten ditu juraduak: "..., bere baserri-lirika txukunez, bere izkuntzaren eta itz-neurtuen erreztasunez, lanaren batasunez, eta nun-naitik darion pakezko izatez, itz batean, olerki guztiaren benetako lizarditasunez." Beste bienak bardin.

Datorren domekan, Maiatzaren 28-a, partidu bear dira sariak sariak Tolosan. Bertako Ayuntamentuak poesia- sariak aundiago egin ditu milla peseta emonik. Beraz, sariak oneik izango dira: 1) 2.500 peseta. 2) 1.000 peseta. 3) 500 peseta. Prestau direan jaien gaiñean berba egin da. Euskaltzaindiak batzar agiriko bat egingo dau sariak partietako.

Irigoyen jaunak diño Euskaltzaindiak Bizkaiko neska-mutillentzat iminita daukan euskal-sariketarako izenak emoteko epea amaitu dala eta berrogetaamar izen inguru artu direala. Esamiñak igaz legez Bilboko Jesuiten Kolejioan egin leitekezala Bagillaren 15-eko arratsaldean diño. Egin beitez.

Nafarroako "Euskeraren Aldeko Salla"-ren programa bat irakurri da. Bagillaren 1-ean, bestaberri egunez, Irurita-n egingo dana azalduten dau. Eremu aretako bertsolarien txapelketea be egingo da.

Arrue jaunak diño Donostian Iraillean urtero egiten dan euskalastean Euskaltzaleen Biltzarra sartu leitekeala. Irakaskintzea artu leiteke gai nagusitzat. Ontzat artu da asmoa eta egin beitez alegiñak aurrera aterateko.

Jaun berak diño "Centro de Atracción y Turismo"-koak San Tomasetan urtero bertsolarien jaien bat prestau daigun gura leukiela.

Dabiltzan euskal-erradioen gaiñean berbaz ekin da. Asko geratu dira Radio Arrate-k egiten dituen alegin bikaiñak eta bertako zuzendari dan Pedro Gorostidi jaunari eskerrak emotea erabagi da.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

1961-VI-30

Donostian, bildu dira: I. M.ª Etxaide jauna, buru, Lekuona, Villasante, Mitxelena, Irigaray, Arrue eta Oleaga jaun euskaltzaiñak. Labayen, Zugasti, Aresti, San Martin, Etxaniz eta Irigoyen jaun urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Jean Elissalde jaun euskaltzaiña il da. Erakutsi bekie bere etxekoei gure atsekabea.

Mirentxu Moraiz Arrue andereñoaren karta bat irakurri da Tolosako Lizardi taldearen izenean. Eskerrak emoten dituez Euskaltzaindiak Lizardi-ren gorazarrean artu dauen ardureagatik. Bide batez diñoe ia Euskaltzaindiak urtero egingo leukean Lizardi-poesia-sariketa bat urte bakotxean erri bat aukeraturik sariak partietako. Egin bedi urtero Lizardi-poesia-sariketea eta emon beitez bear direan pausoak datorren urtekoaren zeaztasunek erabagiteko. Alan jakinerazo bekie Lizardi taldekoai. Irigoyen jaunak diño ain zuzen be Tolosa-ko gorazarre aretan egozala berari eta Arrue jaunari Zarauzko batzuk urreratu jakiezala eta esan eutsiela euren errian be egin gura leukiezala Lizardi-ren gorazarrez jai batzuk bertako semea zalako eta Euskaltzaindiagaz tratatu gura leukiela zelan egin. Diño, ori orrela izanik, Zarautzen egin leitekeala datorren urteko sari-partitzea. Alegiñak egin beitez aurrerapidea emoten Zarauztarren gogoari sari-partitzea euren errian egiñik.

Irigoyen jaunak diño Lizardi-taldekoak Bilbora euskal-teatroa emoten eroan daiguzan gura leukiela. Alan esan eutsiela Tolosan egin zan gorazarre egunean. Alegiñak egin beitez errege egun inguruan egin oi dan jaira eroaten.

Jaun berak diño Urkiolan egin dala Bizkaiko bertsolarien txapelketa bat Bagillaren 13-an. Irurita-n beste bat Nafarroakoa Bagillaren 1-ean. Eta Deban bertako Ayuntamentuak iminitako beste bat bagillaren 11-an. Azkenengo onetara, Ayuntamentuak deituta, juradu egitera Juan M.ª Lekuona, Juan San Martin eta bera joan zireala. Bizkaiko urrengo txapelketak Mungian Garagarrillaren 16-an eta Markiñan Garagarrillaren 18-an egingo direala diño.

Jaun berak diño jakin dauela Bizkaiko Diputaziñoak argitaratu dauen aurtengo presupuestoan berrogetaamar milla peseta agertzen direala Euskaltzaindiarentzat iztegiaren izenean. Joan bedi Bizkaiko Diputaziñoko buruzagiagana eskerrak emoten.

Gipuzkoako Diputaziñoaren ofizio bat irakurri da. Ogetabost milla peseta Euskaltzaindiari emotea erabagi dabe iztegiaren izenean. Eskerrak emon bekiez.

Irigoyen jaunak diño Ondarruako ta Markiñako alkateagaz egon dala eta bakotxak bere errian, Ayuntamentua Euskaltzaindiagaz alkartuta, neska-mutillen artean euskal-sariketa bat egin gura leukiela. Urrengo oiñarri oneik —Markiñan eta Ondarruan be ondo iruditu jakiez— ontzat artu dira.

Euskal-Sariketea Markiñako neska-mutillentzat

1. Euskaltzaindiak eta Markiñako Ayuntamentuak, alkartuta, sariketa bat iminten dabe Markiñako neska-mutillentzat. Zazpi urtetik amaikara edo amabi urtetik amabostera izan bear dituez sariketarako izena emoten dabenak. Aurtengo Abenduaren 8-a baiño leen egingo da egun orretan sariak partidu aal izateko.

2. Markiñako Ayuntamentuak sari ederrak emongo deutsiez sariketara doazanai.

3. Sariketea esamiña bat euskeraz egiñik erabagiko da, eta gaiak izango dira:

a) Gitxienez kristiñau dotriñako otoitzak jakin bear izango dira.

b) Gitxienez sei bertso-sorta desbardin gura dan bozean buruz kantetan jakin bear da. Euskaltzaindiak 1960 urtean argitaratuta dagoen *Euskal-kantak* liburutik ikasi leitekez gura direanak, baiña beste edozein liburu edo bertso paperetik ikastea bardin da. Esamiña egunean zeintzuk dakizan esan bear dau bakotxak esamiñatzailleak guztietatik bat aukeratu daien eta kantauerazo.

c) Esamiña egunean bertan emongo dan *Ipuin-barreka* liburutik zerbait irakurri ostean irakurri danaren kontua emon bear izango da. Aal dan guztia irakurtea komeni da esamiña eguna eldu baiño leen.

d) Esamiña egunean diktadu bat egingo da eta alegiñak egin bear izango dira erratu barik idazten. Orretarako egokia izango da, esamiña eguna eldu baiño leen, kristiñau dotriñatik edo beste edozein liburu errazetik bein da barriro kopietan ekitea zuzen idazten oituteko.

e) Gura dan ipuin bat idatzi bear izango da buruz. Bakotxak bere etxean aukeratu bear izango dau eta ikasi, eta alegiñak egin bear izango dira albait onena izan daiten aukeratuten dan ipuiña.

f) Esamiña egunean gai bat emongo da aren gaiñean bakotxak zerbait idatzi daian. Itaun batzuri erantzutea izango da bakotxaren zuurtasuna neurtzeko.

4. Izenak 1961-gko. Semendiaren 30-erarte artuko dira Markiñako Ayuntamientuan. Izena, deitura bi, bizilekua eta jaioteguna adierazo bear dira.

5. 1961 Abenduaren 8-an partiduko dira sariak, eta aurrerengo gelditu direanak, publikoaren aurrean, dakien zerbait esan edo kantauko dabe.

Ondarruako neska-mutillentzat oiñarriak bardiñak dira. Baiña an sariak Abenduaren 24-an partiduko dira eta izenak Ondarruako Ayuntamentuan emon bear dira.

Aita Villasante-k euskal-gramatikearen bigarren kapitulua irakurri dau. Multikopistaz atera eta bialdu bekie euskaltzaiñai arakatu daien.

Etxaide jaunak diño Bagillaren 4-an Zarautzen egon zala bertako erriak Basarri Euskalerriko bertsolarien txapeldunari egin eutsan gorazarrean konbidatua, eta Eus-

kaltzaindiak eskerrak emon bear leuskiozala Zarauzko alkateari gorazarre ori prestau dabelako. Alan egin bedi.

Banco Vizcaya-k bialdu dauen karta bat irakurri da. Milla peseta emotea erabagi dabe Bizkaiko neska-mutillen artean egin direan esamiñetako sariak geitzeko. Eskerrak emon bekiez.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

Donostian, bildu dira: Aingeru Irigaray, buru ordeko, Mitxelena, Villasante, Arrue, Lojendio eta Lekuona euskaltzaiñak. Aresti, Anai Berriotxoa, San Martin, Loidi, Bingliang-to apezpikua, Etxaniz eta Irigoyen urgazleak.

Etxaide eta Oleaga jaunak ezin etorria adierazo dabe.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Bizkaiko Diputaziñoak bialdu dauen ofizio bat irakurri da. Berrogetaamar milla peseta emotea erabagi dabela diño iztegiaren lanen izenean. Irigoyen jaunak diño Oleaga jauna eta bera egon zireala Diputaziñoko buruzagiagaz eskerrak emoten. Eta kobrau direala pesetok.

Aita Guillermo Beizama-koak idatzi dauen karta bat irakurri da. Diño *Pan Pin* umeentzako egiten daben aldizkariaren diru kontuan apur bat estu dabiltzala eta nasaituteko zerbait emonik lagunduko geunskien. Artu begiz Euskaltzaindiak berrogetaamar ale suskriziñoa eta zabaldu beitez egiten direan umeen esamiñetan.

Fray Andrés de Cristo Rey Algorta-ko Trinitarioen Ministro jaunak karta bat idatzi dau. Diño seminaristen artean euskerea zabaltzen ari dala eta euskarazko liburu batzuk emongo ete geunskiozan. Bialdu bekioz Euskaltzaindiaren etxean dagozanetatik duban.

Arruza jaunaren karta bat irakurri da. Diño denpora zati baten beintzat eztala batzarretara etorriko makal dabillelako eta Maiatzaren 29-an Begoña-ko Amaren oiñetan emon eutsiela asierea lanari "Euskaltzaindiaren Laguntzailleak" Alkargokoak. Baita Agustuko batzarrean urgazleak izentetan badira Bizkaiko biren izenak emon be. Arrue jaunak diño "Euskaltzaindiaren Laguntzailleak"-en izenez orri bat zabaldu dala eta baita Bilboko eguneroko batean argitaratu be Jesusen Biotzaren Gorazarrez Bilboko "Santos Juanes" elexan egin dan eleizkizun bat aipatzen dala. Eta ori Euskaltzaindiak eztakiela eta gaiñera bere ustez eztala Euskaltzaindiaren zeregiña alako eleizkizunak egitea. Orretarako badagozala alkartasun bereziak kristiñauak bete aal izan daiezan euren erlejiñozko eginbearrak. Diño gaiñera, eta alan erabagi da, datorren illeko batzarraren aurretik bildu bear leukeala.

Izenteu zan batzar buruzagi jagon saillekoak.

Urgazle barrien izentetearen gaiñean berba egin da. Datorren ilean dozenerdi bat izentau beitez. Orretarako egokia izango da aal dala bi euskaltzaiñek firmauta eskabidea egitea, bakotxaren merituak labur aipaturik.

Irigoyen jaunak diño amaitu dala teatro sarira eta novela sarira lanak bialtzeko epea eta amasei teatro lan eta iru novela etorri direala. Euskaltzaindiak Bizkaiko

Ahorro Kaxeari juraduaren izenak bialdu bear deutsoz ontzat artu daizan. Novelarako Oleaga, San Martin eta Loidi jaunak izentau dira. Teatrorako Mitxelena, Arrue, eta Aita Villasante.

Beste barik oi den otoitzez amaitu da batzarra.

1961-VIII-25

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: I. M.ª Etxaide jauna, buru, Michelena, Villasante, Eppherre, Lafitte, Lekuona, Lojendio, eta Arrue jaun euskaltzaiñak. Zugasti, San Martin, Etxaniz, eta Irigoyen jaun urgazleak. Thomas Uthurry jaun zuberotarra be egon da. Oleaga jaunak ezin etorria adierazo dau.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Nicolas Ormaechea "Orixe" jauna il da. Euskaltzaindiak bere atsekabea agertuten dau. Meza bat atera bedi bere izenean Donostiako elexa batean.

Federico Krutwig, Antonio Valverde, Eusebio Erquiaga eta Miguel Arruza jaunak Aita Villasante-k Euskaltzaindiarentzat egindako gramatikearen lenengo kapituluari oar batzuk egiten deutsiez. Banan banan arakatu dira oar nagusienak. Luis Mitxelena jauna gelditu da oar guztiak ikusita zerbait egiteko.

Lafitte jaunak diño Agustuaren 31-ean eta Iraillaren 1-ean Bayona-ko Musée Basque-n itzaldi batzuk egingo dituezala irakaskintzearen gaiñean. Eta Iraillaren 1-ean arratsaldeko 4-etan Euskaltzaindiak bere illeroko batzarra egin leiela bertan. Mugaz berakoak egun orretako bazkarira gomitatuak gelditzen dira. Egin bedi batzarra egun orretan Bayona-n. Gaiñera Luis Mitxelena jauna itzaldi bat egiteko gelditu da.

Urgazleak izentau dira: Aita Imanol Berriatua frantziskotarra, Aita Antonio Zabala jesuitea, Jaun Dominique Peillen, Jaun Fernando Artola "Bordari", Jaun Ignacio Eizmendi "Basarri", Jaun Antonio Valverde, Jaun Agustin Zubicaray, Jaun Jose Echeandia, Aita Marcelo Andrinua pasionistea, Aita Salvador Barandiaran jesuitea, Aita Joseba Inchausti frantziskotarra, Jaun Andima Ibinagabeitia, Jaun Antonio Urrestarazu, Jaun Thomas Uthurry eta Jaun Josepf Camino.

Irigoyen jaunak diño datorren urtean novela-saria toketan dala eta Bizkaiko Ahorro Kaxeari eskabidea egin bear jakola. Egin bekio lengo oiñarriak aintzat artuta.

Irigoyen jaunak diño Igorren eta Gernikan Agustuaren 15-ean eta 21-ean Bizkaiko bertsolarien arteko txapelketa bi egin direala. Eta Agustuaren 27-an, goxeko.10 1/2-etan, Bilboko Coliseo Albia-n azken txapelketa nagusia jokatzeko prestakizunak egin direala. Egun orretan Bizkaiko neska-mutillen artean oraintsu egin direan esamiñetako sariak partidu leitekezala diño. Partidu beitez.

Nafarroan, Leitzan egitea pentsau dabe inguru aretako bertsolarien artean txapelketa bat. Iraillaren 24-an izango da.

Irigoyen jaunak diño, orain illebete batzuk direala egin eutson legez, bere burua agertu gura eztauen emakume batek telefonoz deitu deutsala, eta prest dagoala Euskaltzaindiaren etxeko soru osoan pinkia emotea kostetan dana pagetako esan ei deu-

tso —leen gela batean bakarrik emon zar—. Iñok jakin eztaien bera nor dan jiro postalez bialduko leuskio dirua Euskaltzaindiari —leen be alan egin eban eta Irigoyen jaunak bialdu baleu legez agertuko litzake jiroaren papereai. Ontzat artzen dau Euskaltzaindiak eta egin bedi.

"Euskaltzaindiaren Laguntzailleak"-en izenez Bilbon zabaldu dan orri baten gaiñean berba egin da. Irurogetaamabost urte direala Arantzazuko Ama koroatua izan zala eta ara joatea gura dabenari dei egiten jako eta Euskaltzaindiaren etxean izena emoteko eskatu. Bildutako guztien eretxiz erabagia ezta bear dan legez artu eta gaiñera Euskaltzaindiaren xedeetan ezta sartzen arazo ori. Bildu bedi osotu zan batzar-buruzagi jagon-saillekoa eta izentau beie burua.

Gernikako Ayuntamentutik bialdu daben karta bat irakurri da. Diño jaso dabela Euskaltzaindiak egin eutsien kartea eta ontzat artzen dabela gure asmoa artzain euskaldunaren jai bat egiteko. Euskaltzaindiaren batzarretan ezta berba egin orren gaiñean, ezta erabagirik artu be. Baiña Etxaide jaunak diño jaialdi orrein prestatzailleak buragaz egon zireala eta karta bat be bialdu eutsiela jaialdi orrezaz. Bere azkenengo barriak ezerezean gelditu direla ori diño.

Oi dau otoitzagaz amaitu da batzarra.

1961-IX-1

Bayona-n 1961 bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru, Irigaray, Villasante, Arrue, Mitxelena, Lafitte, Dassance, Eppherre, eta Krutwig jaun euskaltzaiñak. San Martin, Anai Berriotxoa, Loidi, Zaitegui, Narbaite, Eyheramendy jaun urgazleak eta beste entzule asko. Aita Ignacio Larrañaga Pinglieng-go apezpikuak ezin etorria adierazo dau.

Aurrerago "Euskal Kutluraren Alde" eta "Ikas"-ekoak prestaturik egindako itzaldiai jarraiturik Luis Mitxelena jaunak irakastearen gaiñean berba egin dau eta erderatiko euskal-itzak be ontzat artu bear doguzala izkuntzea eskastu eta indarga itxi eztaigun gura badogu oiñarritzat artu dau.

Ostean Aita Villasante-k egin dau itzaldia: "Euskal eskola nola ematen dedan". Eta berak aurkitu dituen ostopoak eta artu dauen bidea azaldu ditu.

Zaitegui jaunak aurkeztu ditu.

Eta beste barik amaitu da.

1961-X-27

Donostian, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru, Oleaga, Lekuona, Mitxelena, Aita Villasante, Lojendio, Irigaray, eta Arrue jaun euskaltzaiñak. Etxaniz, Aresti, Zugasti, Loidi, Aita Zabala, San Martin, eta Irigoyen jaun urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Azkeneko batzar bietako agiriak irakurri dira eta ontzat artu dira.

Aita Ignacio Mancisidor urgazlea il da. Euskaltzaindiak bere atsekabea agertu dau.

Arruza-k Euskaltzaindiari zuzendu deutsan karta luze bat irakurri da. Bertan "Euskaltzaindiaren Laguntzailleak"-en izenez prestau direan eleizkizunen gaiñean berba egiten da. Arrue-k diño Arruza-k berak karta orretan itzez itz iminten dauela "elitzakela izan bear Euskaltzaindiaren zeregiña" eleizkizunak prestetea, eta garbi dagoela auziaren erabagi-bidea. Diño, gaiñera, Euskaltzaindiaren arautegiko artikulu batean datorrela Euskaltzaindiak euskerearen eta euskal-literaturearen irakastea sortuko dauela, eta ori alan izanik umeai euskeraz esamiñak egin eta sariak emotea bere eginbearren barruan dagoela. Diño, gaiñera, Euskaltzaindiari Arruza-k zuzendu deutsan kartearen kopia bat berari be bialdu deutsala eta aregaz batera artu dauen beste karta batean diñotsala. Euskaltzaindiari zuzendu deutsan karta idigiaren kopia bialtzen deutsala. Diño, gaiñera, badakiala karta idigi ori Euskaltzaindikoak eztireanen artean be zabaldu dala, eta Arruza-k berak be, zuzendu deutsan kartan, alan autortuten dauela karteari idigia deituten deutsanean. Eta azkenez diño Euskaltzaindiari bere lorra agertuten deutsala zabaldua izan dalako Euskaltzaindian tratatu baiño leenago.

Arazo onetan bidea artuta barriketa luzea sortu da. Lekuonak eta Aita Zabala-k diñoe Euskaltzaindiaren zeregiña dala, ez euskerazko eleizkizunak egitea, baiña Elexeari egin daizan eskatutea, eragitea. Orretan bat datoz bildutako guztiak.

Mitxelenak diño Agustuko batzarrean Arantzazu-rako ibillaldiaz erabagi bat artu zala, baiña alan da guztiz be, jakiñaren gaiñean egonagaitik, ezjakola ezelako jaramonik egin eta artu ezpalitz legez jokatu dala.

Arrue-k diño "La Gaceta del Norte"-n Arruza-k argitaratu dauen artikulu batean beste gauza batzuen artean diñoala: "seria muy conveniente que, antes de poner un nombre en vascuence a una Entidad, Grupo o establecimiento, se consultara siempre, previamente, o bien a la Academia de la Lengua Vasca, Ribera, 6, entresuelo, o bien al grupo denominado "Euskaltzaindia'ren Laguntzailleak", "colaboradores de la Academia de la Lengua Vasca", apartado número 1.226, Bilbao, eta alkartade bi balira legez, bakotxa bere zuzenbide bereziagaz, jentearen aurrean jokatu dauela, eta ontzat artu zirean oiñarrietan argi ta garbi diñoala "Euskaltzaindiaren

Laguntzailleak" eztaukala nortasunik eta Euskaltzaindiaren jagon-sailleko eginbearretan lagundu gura daben Euskaltzaindikoak eztirean euskaltzaleai bidea emoten jakiela aren bidez. Diño, gaiñera, jentearen artean zabaldu dan ezkero, alako gauza bateri bide bardiñetik jentearen artean ukatzea jagokola berez, baiña ori egitea eztauela berak eskatzen.

Mitxelena-k diño emendik aurrera egintza konsumatuen bidetik ezin joan geintekezala geiago eta bein da betiko erabagi bearrekoak direala ainbeste luzatzen ari direan esan mesan guztiak eta zuzen edo oker Euskaltzaindia bera dala bere erabagiak artu bear dituzana, nai bere onerako izan, nai bere kalterako, eta ez beste, eta Euskaltzaindia bat dala Euskalerri osoan eta eztagoela Bizkaiko Euskaltzaindirik eta ezta Gipuzkoakorik be.

Momentu onetan batzar-gelan dagozan euskaltzain guztiak —Oleaga-k bere botoa eztau emon ez alde, ez kontra— botoa urrengo onen alde emon dabe eta alan erabagi da: Arruza jaunari jakinerazotea Euskaltzaindiak txarto ikusi dituzala bere ibillerak, eta gura badau, egiten jakozan karguen deskargu bat egin leiela izkribu baten bidez.

Baita erabagi da bildu daitela urrengo batzarra egiten dan egunean batzar buruzagi jagon-saillekoa burua izentau daien, eta orretarako urrengo batzarrerako deian oar bat imini daitela bildu bear dabenak alan egin daien.

Arrue-k diño Mitxelena-k iztegi lanetan jarraitu daian erabagi bat artu bear litzakeala. Orretarako beragaz berba egin dauela eta prest dagoela bere zeregiñak guztiz itxi barik iztegi lanetan denpora zati bat emoteko. Diño bi milla ta bosteun peseta emon leiozala illean lan orregaitik eta alan erabagi da. Mitxelena-k be ontzat artu dau.

Antonio Urrestarazu jaunaren karta bat irakurri da. Eskerrak emoten dituz bera gogoan euki dogulako urgazleak izentetako orduan. Baiña diño izentaziñoa ukatu bearrean aurkituten dala, eta orregaitik eleuskiola iñori atsekaberik emon gura, ezta beraganako agertu dogun borondate ona galerazo.

"Euskal Kulturaren Alde"-k zuzendu dauen karta bat irakurri da. Ain zuzen be Alkartadearen izenean A. Urrestarazu jaunak firmetan dau. Diño euren batzar batean erabagi dabela "Ikas"-ri, "Eskualzaleen Biltzarra"-i eta guri Bayona-n orain-tsu egin direan irakas-solasetan artu dituezan erabagiak bialtzea. Erabagi orreitan guri eskatuten deuskue alegiñak egiteko gure erriak euskerea aintzat artzen ikasi daian erririk erri euskal-itzaldiak, euskal-solasak eta abar sortzen. Erantzun bekie jakin dogula euren naia eta eskerrak emon bekiez.

"F.E.V.A. Federación de Entidades Vasco Argentinas"-ek zuzendu dauen karta bat irakurri da. Euren atsekabea agertuten deuskue Orixeren eriotzeagaitik. Orixe goratuten dabe eta diñoe egoki izango litzakeala bere lanak argitaratu edo beste zerbait egitea aren omenez. Eskerrak emon bekiez.

"Euskaltzaleak" Alkartadeak Buenos Aires-tik zuzendu dauen karta irakurri da. Euren atsekabea agertuten deuskue Orixe-ren eriotzeagaitik eta bera asko goratuten dabe. Eskerrak emon bekiez.

Fray Andres de Cristo Rey Algorta-ko Trinitarioen Aita Ministroak karta batean eskerrak emoten deuskuz duban bialdu deutsaguzan euskerazko liburu batzukaitik.

Bizkaiko Diputaziñoaren ofizio bat irakurri da. Bizkaiko bertsolarien azken txapelketa nagusian txapeldun gelditzen dan bertsolariarentzat kopa bat emotea erabagi dabela diño. Bere garaian emon zan kopa ori. Eskerrak emon bekiez.

Bizkaiko Diputaziñoaren beste ofizio bat irakurri da. Aita Placido Mugica Barrondo jesuiteak erdal-euskal iztegia argitaratzeko egin deutsien eskabideaz eretxia eskatuten deuskue. Esan bekie Aita Mugica Euskaltzaindiko urgazlea dala, badakigula izugarrizko lana egin dauela aspaldiko urteetan gaia biltzen eta iztegia urte askotako frutua izango dala, Aita Mugica-k Euskaltzaindiaren konfiantzea merezi dauela iztegigille legez, eta erdal-euskal iztegi baten bearra dagoela.

Federico Krutwig, Luis Mitxelena, Antonio Arrue, Aingeru Irigaray, eta Aita Luis Villasante-k firmatuta eskabide bi irakurri dira. Batean eskatuten da Joanes Diharce, beneditano izenez Aita Xabier eta poeta izenez Iratzeder euskaltzain izentetea. Bestean Elissalde zanaren utsunea betetako Joanes Mirande poeta ezaguna euskaltzain izentetea. Datorren batzarrean erabagi bedi arautegiak diñoan gisa.

Oleaga, San Martin, eta Jose Antonio Loidi jaunak Domingo Agirre novela-sariaren erabagia ekarri dabe:

"1961-garren urterako ipiñita zegoen "Domingo Agirre" novela-saria emateko izendatu zan batzarrekoak bildu dira eta ago batez erabaki dute: "Batetik bestera" izeneko novelari ematea "Domingo Agirre" saria. Begiratu da egillea nor dan eta Eusebio Erkiaga dala ikusi da. Eta jakin dedin, agiri au bete eta firmatzen dute 1961 Urriaren 14-an. Nazario Oleaga, Juan San Martin, Jose Antonio Loidi."

Mitxelena, Aita Villasante, eta Arrue jaunak be "Toribio Alzaga" teatro-sariaren erabagia ekarri dabe:

"1961-garren urterako ipiñita zegoen "Toribio Alzaga" teatro-saria emateko izendatu zan batzarrekoak bildu dira eta ago batez erabaki dute: "Mugaldeko herrian eginikako tobera" izeneko teatro-lanari "Toribio Alzaga" saria ematea. Begiratu da egillea nor dan eta Gabriel Aresti dala ikusi da. Eta jakin dedin, agiri au bete eta firmatzen dute 1961 Iraillaren 22-an. Luis Mitxelena, Antonio Arrue, Aita Villasante O.F.M."

Alan jakinerazo jako Bizkaiko Ahorro Kaxeari eta ontzat artu dabe. Illa onen 31-an, goxeko amabi ta erdietan, sariak partidu gura dituez, eta ahorro-eguna dala-ta egingo dituezan sari-emoteetara gomitetan gaituez agurrezko txartel baten bidez.

Irigoyen-ek diño Bizkaiko Ahorro Kaxeak ontzat artu dauela datorren urtean, toketan dan legez, novela-saria emotea, eta alan zabaldu dabela urtero ahorro-egunari ospea emoteko artzen dituezan erabagi guztiakaz batera. Agustuko batzarrean Euskaltzaindiak erabagi eban lengo oiñarriak eurak aintzat artzea, eta lanak bialtzeko epea 1961 Uztaillaren 20-a imini bedi, eta alan zabaldu bedi.

Irigoyen-ek, diño egin dala Bilbon Bizkaiko bertsolarien azken txapelketa nagusia eta Juan Azpillaga gelditu dala txapeldun eta Deunoro Sarduy bigarren, eta bertan emon direala umeen esamiñetako sariak, erabagi zan legez. Nafarroako Leitzan be egin da egitekoa zan txapelketea. Nafarroako azken txapelketa nagusia Etxarri Aranaz-en egingo da Urriaren 29-an, eta oi dauen legez Viana Printzipearen Alkartadeko Euskeraren Aldeko Saillak prestetan dau Euskaltzaindiaren laguntasunagaz. Atseginez ikusten dau Euskaltzaindiak guztia.

Irigoyen-ek diño Euskaltzaindiko soruan pinkia emotea kostetan dana pagetako asmoagaz telefonoz deitu eban emakume ezezagunak amaika milla ta bosteun peseta bialdu dituzala. Diño, gaiñera, presupuestoa eskatu deutsala "Larrinaga Hermanos"-i eta 6.550 pesetagaitik emongo leukiela. Diño, gaiñera, emolleak enparaua sitsak janda dagozan olik txarrenak aldatzeko bialdu dauela, berari telefonoz esan eutsanez. Diño, gaiñera, ol batzuk aldatu eta besteak ez egin ezkero oso txarto gelditzen dala, arotzak esan eutsanez. Diño, gaiñera, Gabriel Aresti-ren bidez "Compañia Vasco Africana S. A." prest dagoela sei milla pesetagaitik —prezio guztiz berezia eta arrigarria euren euskaltzaletasunagaitik— etxe osorako ola emoteko, Ginea-ko egur klase onenetarikoa, eta arotzak iru milla peseta inguru kobrauko leukeala iminteagaitik. Diño, gaiñera, Euskaltzaindiak 1954-garren urtean sortu eban R. M. Azkue katedreak badiarduala eta emoten direan euskerazko klaseetatik ikasleak pagetan daben euneko amar Euskaltzaindiak artzen dauela, gaiñerakoa irakasleak eurak jasorik lan-saritzat, eta 1960-tik 1961-rako ikastarakoa 3.985 peseta dala, eta gitxi gora beera presupuesto osoa betetako falta dana dala. Atsegin aundiagaz ikusi da dana eta egin beitez Euskaltzaindiaren etxean obetute guztiok.

Oso berandu egin dan ezkero eztago astirik Aita Villasante-k Euskaltzaindiarentzat prestautako gramatika-kapituluen gaiñean artu direan oarrak arakatuteko eta urrengo batzarrerako itxi dira.

Irigaray-k be aurkeztu gura dituz zimentarrizko iztegi batez oar batzuk, baiña urrengo batzarrerako itxi da.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
I. M.ª Etxaide

1961-XI-24

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru, Lekuona, Villasante, Mitxelena, Lojendio, Arrue, Lafitte, eta Dassance jaun euskaltzaiñak. Aresti, Valverde, Zugasti, Loidi, San Martin, Omaetxevarria, Zabala, Zubikaray, Etxaniz eta Irigoyen jaun urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Aita S. Barandiaran jesuiteak bialdu dauen karta bat irakurri da. Eskerrak emoten dituz urgazle izentau dalako.

Jose Luis Lizundia Abadiño-koak idatzi dauen karta bat irakurri da. Diño illen izenetan ikusten dan nastea Euskalerri osoan zuzentzeko Euskaltzaindiak kalendario egilleei rekomendaziño bat egin bear leuskiela batera erabilli daiezan danak: Beste gauza bat be itanduten dau: ia zer erabilli bear dan, *dautsat, deutsat,* edo *dautsot; daust,* edo *deust; dautso,* edo *deutso* eta abar. Mitxelena-k diño *deutsat* eta bere familiakoak direala forma zuzenak, autore zaarrak aspalditik beti alan erabilli dabela, leenagoko denporetan esaten zirean verbo-flexio batzuetan *d* ostean agertzen dan *e* orrek dativoko balioa eukala, autore zaarrak *daigun* eta *deigun* verbo-flexioak berezten zituezala —bata dativoa eztana eta bestea dativoa— Erantzun bekio Euskaltzaindikoai eskatu jakiela ponentziaren batzuk egiteko illen izanak Euskalerri osoan bat egiteaz, eta *deutsat, deust, deutso* eta euren familia osoa direala zuzenak ezelako duda barik.

Eibar-ko Ayuntamentutik orri bat bialdu dabe zerbait kobretako. San Martin-eri emon jako alan egin daian.

Batzar-buruzagi jagon-sailleko burua izenteteaz berba egin da. Mitxelena eta Arrue-k Lafitte-ri emon deutsie botoa, berezkuntza guztien gaiñetik dagoelako. San Martin-ek eta Loidi-k diñoe burua mugaz goialdean egotea eztala egokia. Loidi-k diño batzar-buruzagi orretan jente gitxi dagoela, eta geiago sartu bear litzakezala. Irigoyen-ek diño ori egin bear bada egoki izango litzakeala Euskaltzaindiko guztiak sartzea eta eztabaidatan ibilli barik Euskaltzaindiak momentu bakotxean egin bear dauena batuta gagozan batzarrean erabagitea. Lojendio-k diño Loidi bera sartu leitekeala batzar-buruzagi jagon-sailleko sekretario legez eta zerbait egitea gura danean Euskaltzaindiko sekretaritzeagaz bat eginda ibilteko. Alan erabagi da.

Ezta oraindiño artu Arruza jaunaren deskargurik.

Lafitte-k eta Dassance-k diñoe eurak be mugaz goialdeko euskaltzain bi izentetako kandidato bi aurkeztu gura dituezala. Datorren batzarrerako egin begie eta botoak artu beitez arautegiak diñoan gisan.

Iru urgazle barri izentau dira: Mariano Iceta, Francisco Tirapu, eta Aita Felipe Murieta-ko kaputxinoa, *Umeen Deia*-ren zuzendaria.

Etxarri Aranaz-en Nafarroako bertsolarien azken txapelketa nagusia egin da esan zan legez. Bautista Madariaga txapeldun gelditu zan eta bigarren Andres Narvarte.

Ahorro-egunean Bizkaiko Ahorro Kaxearen etxean novela eta teatro-sariak emon jakiezan Erkiaga eta Aresti irabazle biai.

Irigoyen-ek diño Markiña-ko alkatea beragaz egon dala, eta umeen esamiñak egiteko epea luzatzea komeni dala asti geiagogaz obeto prestetako, esan deutsala. Ondarroan, ostera, esan zan legez egingo da. Zubicaray-k diño Abenduko bigarren domekan egin leitekezala esamiñak Ondarroan, eta alkateak esan deutsala iru bear litzakezala juradurako, eta Aita Villasante be sartu daigun gura leukeala; esamiñak egin ondoan jai bat sariak partietako egin gura dauela, eta Antonio Arrue jaunari deitu gura deutsala berba egin daian, eta beste batzuk be gomitatu gura dituzala. Juradua izentau da: Aita Villasante, Irigoyen eta Zubicaray.

Euskalzaleen Biltzarra Abenduaren 20-an eta 21-ean Donostiako Ayuntamentu zaarrean egitea erabagi da. Abenduaren 20-an egin lei Orixe zanaren alde mezea. Abenduaren 31-an egin bedi bertsolarien eguna Victoria Eugenia Teatroan. "Centro de Atracción y Turismo" laguntzaille da prestakizun oneitan.

Egin bedi Bilbon Urtarrillaren 7-an Arriaga Teatroan urtero egin oi dan jaia. Tolosa-ko Lizardi teatro-taldekoak prest dagoz Toribio Alzaga-n "Osaba" teatro lana emoteko, eta Ondarroako Ume Kantariak kantetako.

Gramatika kipituluez artu direan oarrak irakurteko astirik eztago eta urrengo batzarrerako itxi dira.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

1961-XII-21

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide, buru, Lekuona, Mitxelena, Villasante, Eppherre, eta Lafitte jaun euskaltzaiñak. Etxaniz, Zabala, Zugasti, Loidi, Intxausti, Artola, eta Irigoyen jaun urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Nazario Oleaga jauna il da. Euskaltzaindia atsekabetuta dago gizon balio aundikoa galdu dauelako, asko ekiana, eta Euskaltzaindiari oso emona. Alargunari eta seme-alabai agertu bekie Euskaltzaindiaren atsekabea.

Jesus Maria Arenaza eta Aita Joseba Intxausti jaun urgazleen karta bana irakurri da. Nazario Oleaga-n eriotzeagaitik Euskaltzaindiari atsekabea agertzen deutsie.

Jose Antonio Loidi-n karta bat irakurri da. Eskerrak emoten deutsoz Euskaltzaindiari aurreko batzarreko izentaziñoa egiñaz beraganako agertu dauen onespenagaitik.

Irigoyen-ek diño Peillen jaunak karta batean eskatu deutsala bere partez Euskaltzaindiari errespetuzko agurra agertzeko ohoratua izan dalako urgazle legez onartuz.

Bizkaiko Diputaziñoak bialdu dauen ofizio bat irakurri da. Eretxia eskatzen deuskue barriro Aita Placido Mugica-k argitaratu gura dauen erdal-euskal iztegiaz. Jakin gura dabena da iztegiak euki leien inportantzia eta utilidadea. Erantzun bekie bere utilidadea ezin ukatu leitekeala, batez be erderatik euskerara itzuli gura daben sermolari, izlari, eta idazleentzat. Gaiñera orainarte eztireala egin alango iztegi txikiak baiño, eta ez bear direan modukoak, eta izan be aituak dagozala. Euskaltzaindia egiten ari dan iztegiak eztaukala elburu bardiña, beste iztegi mueta bat dala.

Irigoyen-ek diño Aita Francisco Cortabitarte jesuiteagaz egon dala eta esan deutsala igaz legez aurten be beste amar milla peseta badaukazala Euskaltzaindiak Bizkaiko neska-mutillen artean euskerazko esamiñak egin eta saritan emon daizan. Oiñarriak igazkoak eurak ontzat artu dira.

Eibar-ko Ayuntamentuan bosteun peseta kobrau dira, igaz Victoria Eugenia Teatroan Abenduan egin zan bertsolarien txapelketarako emonak.

Urtarrillaren 7-an, Bilboko Arriaga Teatroan, Euskaltzaindiak egingo dauen jaiaz berba egin da.

Erabagi zan legez Ondarroan Abenduaren 10-ean bertako neska-mutillen euskal-esamiñak egin dira. Sariak Urtarrillaren 14-an partidu gura dituz bertako Ayuntamentuak jai bat egiñik.

Dassance, Eppherre, eta Lafitte jaunak eskabide bat firmau dabe. Jules Moulier (Oxobi) eta Jean Elissalde (Zerbitzari) euskaltzain zireanen utsuneak betetako Jean Haritschelhar eta Pierre Larzabal jaunak aurkeztuten dituez kandidato legez. Urrengo batzar batean artu beitez botoak.

Irigoyen-ek diño Zarautzen esan deutsiela datorren Maiatza ingurua egoki izango litzakeala Lizardi-saria emoteko eta Tolosan egin zan legez jai batzuk egiteko. Diño orretarako Euskaltzaindiak zelango oiñarriak ipiñi eta zelango saria emon erabagi bear dauela. Diño Gipuzkoako Ahorro Kaxeari eskabide bat egin bear geunskiola sari bat finkatu daian urtero emoteko. Modu orretan diruarena erabagita eukiko geunkeala aurrerantzean eta naikoa izango litzakeala saria emon eta aipatzen dan bakotxean Gipuzkoako Ahorro Kaxearen izena be esatea. Aita Zabala-k diño, poetentzat bakarrik ez, bertsolarientzat be sortu bear litzakeala zerbait. Ain zuzen be bertso-paper gitxi egiten dala gaur egunean, asko kantetan bada be, eta gauza ori zerbait mogidu eragin bearra dagoela. Gai onen gaiñean barriketa bat sortu da eta ainbat idea agertu dira. Aita Zabala-k urrengo batzarrerako ponentzia bat ekarri begi onezaz. Urtero poesia-sari bat emon daian Gipuzkoako Ahorro Kaxeari egin bekio eskabidea.

Arruza jaunak egin dauen deskargua irakurri da. Gorostiaga, Ibargutxi, Manterola, Peña, Onaindia, eta Erquiaga jaunak deskarguaren ostean firmea ipiñi dabe Arruza-k agertzen dauen guztia onarturik. Mitxelena-k diño Arruza-k egin dauen deskarguan eztireala karguak desegiten eta bana banaka argumentuak agertu dituz. Diño datorren batzarraren asieran erabagi bat artu bear dala eta Arruza jaunari Euskaltzaindiak bere fidantzea kendu bear deutsala. Alan egiteko berak paper batean idatzita ekarriko dauela esandakoa. Bildutako guztiak bat datoz datorren batzarraren asieran erabagi bat artu bear dala auzia amaitzeko.

Atzo asi zan Euskalzaleen Biltzarra Donostiako Ayuntamentu zaarrean. Arratsaldean amaituko da.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

I. M.ª Etxaide L. Mitxelena

1962-I-26

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru, Lekuona, Mitxelena, Villasante, Irigaray, Lojendio, Gorostiaga, eta Arrue jaunak. Loidi, Artola, San Martin, Zabala, eta Irigoyen jaun urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da. Irigaray-k diño eztala bere izena agertzen, baiña bera be egon zala Abenduko batzarrean, eta baita Azarokoan be. Ontzat artu da agiria.

Loidi jaunak eskatu dau Euskaltzaindikoai bialdu dakiela jagon-sailleko oiñarrien kopia bana. Alan egin bedi.

Jesus Oleaga jauna,Nazario Oleaga zanaren semeak, bere ama eta nebarreben izenean eskerrak emoten deuskuz gure atsekabea agertu deutsegulako.

Arantzazuko komentutik bialdu daben orri bat irakurri da. Itzaldi-gai batzuk dagoz bertan: soziologia, teologia, politika, filosofia eta bestelako jakintzen gaiñean.

Universitets biblioteket / Uppsala-tik karta bat bialdu dabe. Guk **Euskera** bialdu daigun gura leukie *Studia neophilologica*-ren truke. Bialdu bekie.

Egin zan Euskalzaleen Biltzarra Donostiako Ayuntamentu zaarrean. Norbaitek eskatu eban an Euskalerriko apezpiku jaunei Euskaltzaindiak eskabide bat egin bear leuskiela geroago ta geiago aintzat artu daien euskerea elexetan erabiltea. Estudiau bedi zelan egin eskabidea. Labayen jaunak, Euskalzaleen Biltzarrean berba egin zanez, teatro taldeen arteko txapelketa bat egiteko asmo batzuk agertu ditu lerro batzuetan. Zubicaray-k gai beraren gaiñean egindako karta bat be irakurri da. Emon bekie Euskaltzaindikoai Labayen-ek bialdu dauenaren kopia bana, Zubicaray-n eretxiak be zeintzuk direan azaldurik, eta aztertu bedi diñoena.

Errege egunean Donostiako Victoria Eugenia teatroan bertsolarien saioa egin zan. Saio bikaiña.

Bilboko Arriaga teatroan, Urtarrillaren 7-an, urteroko jaia egin zan. Aurretik azaldu zanez Tolosa-ko Lizardi teatro-taldeak eta Ondarroako ume kantariak parte artu eben.

Euskerazko esamiñetan sarituak izan zirean Ondarroako neska-mutillai ez jakiez partidu sariak Urtarrillaren 14-an, esan zan legez, eta 28-an egingo da.

Ipiñi da ola eta emon da pinkia Euskaltzaindiaren etxeko soruan. Aresti jaunaren bidez ola bialdu eban Llaudio-ko fabrikeak iru milla pesetaraiño jatsi dau kontua. Eskerrak emon bekiez.

Aita Luis Villasante-ri Luis Sala Balust jaunak idatzi deutsan karta bat irakurri da. Axular-en *Gero* erderaz eta euskeraz argitaratu gura dabe eta "Seminario de Filologia Vasca Julio de Urquijo" eta Euskaltzaindiaren laguntasuna gura leukie, au da, ale batzuk erosi daiguzan gero gure kontura saltzeko. *Gero* liburu famatua erderaz eta euskeraz argitaratzea asko ta asko merezi dauen gauzea da argi ta garbi ikusiko leukielako erdaldunak bere literatura balioa eta munduari ezagututen emongo litzakioalako. Egin beitez alegiñak laguntasuna emòteko.

Aurrerantzean bertsolarien txapelketak egiteko arautegi bat Euskaltzaindiari aurkeztu deien Arrue, Lekuona, Aita Zabala eta Artola izentau dira.

Aita Antonio Zabala-k aurreko batzarrean eskatu jakon ponentzia ekarri eta irakurri dau. Egin bekio Gipuzkoako Ahorro Kaxeari eskabidea urtero sari bat emon daian, eta erdi bana izan bedi poeta mueta bientzat: olerkarientzat eta bertsolarientzak. Bertsolariak euren bertsoakaz argitaratutako paperak bialdu bearko leukiez sariketara.

Rudolf De Rijk jaunari Azkue-n "Particularidades del Dialecto Roncalés" eta "Aezkera" bialdu jakozan Jon Etxaide jaunaren eskabidez eta eskerrak emoten dituz euskeraz oso ondo idatzitako karta batean.

Aurreko batzarrean Arruza jaunak egindako deskarguak irakurri zirean eta gai beraren gaiñean berba egin da erabagi bat artuteko asmoagaz. Ago batez urrengo au artu da: Euskaltzaindiak artutako erabagi bat aintzat artu eztauelako oker jokatu dau Arruza jaunak auzi onetan eta aurrerantzean gauzak zuzen joan daitezan ezin egin dau ezer bere gisa Euskaltzaindiaren izenean, eta joan dan Azaroaren batzarrean erabagi zanez Loidi jauna gelditu zan batzar-buruzagi jagon-sailleko sekretario legez zerbait egitea gura danean Euskaltzaindiko sekretaritzeagaz bat eginda ibilteko. Ignacio Maria Etxaide jauna batzar-buruzagi jagon-sailleko buru dala bide orretatik bijoa jagon-sailla.

Aita Villasante-k gramatikearen bosgarren kapitulua ekarri dau batzarrera.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

I. M.ª Etxaide

1962-II-23

Donostian, bildu dira: I. M.ª Etxaide jauna, buru, Lekuona, Gorostiaga, Irigaray eta Arrue jaun euskaltzaiñak. Aita Larrañaga apezpiku jauna, Aita Zabala, Aresti, Zugasti, Valverde, Loidi, Zubicaray eta Irigoyen jaun urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da. Zugasti jaunak diño bera be egon zala batzarrean eta eztala bere izena agertzen. Gaiñerakoan ontzat artu da.

Mariano Iceta jaunak zuzendu dauen karta bat irakurri da. Eskerrak emoten ditu urgazle izentau dalako.

Urtarrillaren 28-an emon jakiezan sariak Ondarroan euskerazko esamiñetan sarituak izan zirean neska-mutillai. Ondarroako Ayuntamentuari eskerrak emon bekioz.

I. M. Etxaide jaunak "Auspoa liburutegia" izenagaz ateraten direan liburuak asko goratu ditu. Euskaltzaindia bat dator orretan eta eskerrak eta zorionak emon bekiez orren ardurea daukienai egiten daben lan bikaiñagaitik.

Loidi jaunak Bilboko elexa batzuetan egingo direan misiñoen programa bat ekarri dau. Pozik ikusten dau Euskaltzaindiak euskerea elexetan egin daiten.

Zubicaray-k euskal-teatroaz berba egin dau. Urrengo batzar batean erabagi bedi zerbait.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburu-ordea
A. Irigaray

1962-III-30

Bildu dira: Aingeru Irigaray jauna, buruaren orde, Lekuona, Mitxelena, Villasante, eta Gorostiaga jaun euskaltzaiñak. Artola, Zugasti, Loidi, Zubicaray, Etxaniz, Zabala, eta Irigoyen jaun urgazleak. I. Maria Etxaide jaunak ezin etorria adierazo dau.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da ta ontzat artu da.

Leon Leon jaun urgazlea il da. Agertu bedi gure atsekabea.

Aita Felipe Murieta-koak bialdu dauen karta bat irakurri da. Eskerrak emoten ditu urgazle izentaua izan dalako.

"Ibero-Amerikanische Bibliothek-ek Berlin-Lankwitz-etik bialdu dauen karta bat irakurri da. **Euskera** aldizkaria artu gura leukie. Bialdu bekiez 1956 urtetik orainarte agertu direan numeroak duban. Aurrerantzean suskriziñoz.

"Junta de Cultura de Vizcaya"-k, imini dituezan sari biren oiñarriak bialdu deuskuz. Lenengoaren gaia da: "Orígenes del vascuence y proceso evolutivo de sus formas dialectales", eta saria ogetabost milla pesetakoa.

Gipuzkoako Ahorro Kaxa Probintzialak erantzuten dauenean zabaldu beitez aurtengo poesia sarien oiñarriak. "Lizardi" sariarenak igazkoak lakoak izango dira.

Luis Sala Balust jaunak Aita Luis Villasante-ri zuzendu deutsan karta bat irakurri da. Axular-en *Gero* argitaratzeko gitxienez bosteun ale aurretik erosi daiguzan bear leuke. Itandu bekio ale bakotxaren prezioa zeinbat izango litzakean.

Euskal gramatika barriaz I. M.ª Etxaide, Fagoaga, eta Erquiaga jaunak bialdu dituezan oarren gaiñean berba egin da. Urrengoan jarraituko da beste oarrakaz.

Arruza jaunak jagon-sailleko buruari zuzendutako karta bat irakurri da. Itxi bekio jagon-sailleko buruari.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

A. Irigaray L. Mitxelena

1962-IV-27

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira Aingeru Irigaray, buruaren ordez, Arrue, Lekuona. Mitxelena jaun euskaltzaiñak. Aita I. Larrañaga Pingliang-go apezpiku jauna, Loidi, Zugasti, San Martin, Etxaniz eta Irigoyen jaun urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Jon Mirande jaunak Euskaltzaindiari zuzendu deutsan karta bat irakurri da. Bertan esaten da euskaltzain izendatua izateko bere alde presentatu dan kandidaturari uko egiten deutsala oraingo eta geroko, lenengo momentuan bere kautan ontzat artu baeban be. Urgazle izentau zanean emon jakon diplomea atzera biurtu dau eta urgazle izateari be uko egiten deutso. Euskaltzaindia jakitun gelditzen da bera euskaltzain izentetearen gaiñean diñoanaz. Urgazletzea, ostera, Euskaltzaindiak betiko emon eutsan, oiturea dan legez, eta Euskaltzaindiarentzat beti urgazle izango da.

Ondarroako alkate jaunaren karta bat irakurri da gureari erantzunaz. Diño prest dagozala aurrerantzean be umeen arteko sariketak egiteko.

Loiola-ko erradioak bialdu dauen karta bat irakurri da. Bertsolarien txapelketa bat egiten ari dira eta aren barri emoten dabe. Erantzun bekie atsegin biziz artzen dituzala Euskaltzaindiak daukiezan asmoak.

Aita Joseba Intxausti-k bialdu dauen karta bat irakurri da. Izlarien billa ibili da itzaldi batzuk prestau aal izateko eta bi topau ditu itz egiteko prest. Alegiñak egin bediz Donostian edo beste nonbait itzaldiok egin daiezan.

"Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa"-ren karta bat irakurri da. Ontzat artu dabe amar milla pesetako sari bat sortzea urtero emoteko. Bost milla pesetak "Lizardi" saria orniduko dabe olerkarien maillan ari direanentzat. Beste bost milla pesetak lau sari bertsolarien maillan ari direanentzat. Eskerrak emon bekiez.

Irigoyen jaunak diño zarauztarrakaz berba egin dauela eta bagillaren 17-an gura leukiela sariak partidu daitezan. Bide batez egun orretan jai batzuk egingo leukiez "Lizardi" zanaren gorazarrez bere jaiotetxean oroitarri bat ipiñiaz. Oroitarria ipinteko baimena Euskaltzaindiak eskatu daian gura dabe. Alan egin bedi. Bergaratarrak euren errian egitea gura eben, baiña zarauztarrak aurretik eskatuta eukien eta datorren urterako itxi bedi Bergara-koa.

Amsterdam-en egingo dan "VIII[e] Congrès International de sciences onomastiques"-erako gomitu bat artu da. Datorren urteko Aguztuan izango da.

Irigoyen jaunak diño Deba-tik deitu deutsiela eta Bagilleko domeka batean bertsolarien txapelketa bat egin gura leukiela igaz legez. Baiña Euskaltzaindiak Gipuz-

koako txapelketa bat egin gura baleu gogoz ikusiko leukiela euren errian be saio bat egitea. Datorren batzarrean erabagi bedi txapelketearen kontua eta orduan erantzun bekie zelan egin leitekean.

Egin bekio "Caja de Ahorros Vizcaina"-ri eskabidea Bizkaiko bertsolarien bosgarren txapelketea egiteko dirua ta kopea emon daizan.

Euskera aldizkaria agertu da. Irigoyen jaunari eskerrak emon bekioz egin dauen lan bikaiñagaitik.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

A. Irigaray L. Mitxelena

1962-V-25

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: I. M.ª Etxaide jauna, buru, Mitxelena, Lojendio, Irigaray, Villasante eta Lekuona jaun euskaltzaiñak. Loidi, Etxaniz, Zabala eta Irigoyen jaun urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

"Auspoa"-k karta bat bialdu dau egin geuntsanari erantzunez. Diñoe alegiñean ari direala suskriziñoak egiten finkatu daben mailla batera eldu arte. Euskaltzaindia suskribitu bedi sei ale artzeko.

"National Science Développment Board"-ek Manila-tik karta bat zuzendu deusku. **Euskera** euren aldizkari *Science Review*-en truke artu gura dabe. Ontzat artzen da truke ori egitea.

Lizardi poesia sarira ainbat lan etorri dira. Juradu bat izentau da erabagi daian ze lani emon saria: Manuel Lekuona, Luis Mitxelena eta Antonio Arrue jaunak osotuten dabe. Zarautzen emon bear da Garagarrillaren 17-an Lizardi-ren gorazarrez egiteko direan jaietan.

Aurtengo bertsolarien txapelketen gaiñean berba egin da. Bizkaian igazko moduau egingo dira. Nafarroan be bai. Gipuzkoakoak egiteko sei zatitan partidu da lurraldea: Deva, Vergara, Azpeitia, Oyarzun, Villafranca eta Tolosa. Toki orreitan txapeldun gelditzen direanen eta 1959 urtean Gipuzkoako txapelketa nagusian Eibarren parte artu ebenen artean —Uztapide kenduta Euskalerriko bigarrena dalako eta Euskalerri osoko txapelketan parte artu leielako Gipuzkoakoan aritu barik— jokatu bedi azken txapelketa nagusiaren aurrekoa eta gelditzen direanakaz nagusia. Abenduan egin bedi Donostian Euskalerriko azken txapelketa nagusia Nafarroako, mugaz goialdeko, Bizkaiko eta Gipuzkoako ordezkariakaz eta aal bada sartu beitez arabarrak be. Tratatu bedi aipatutako Gipuzkoako Ayuntamentuakaz txapelketak erriko jaien barruan sartu eta sariak emon daiezan: kopea eta dirua.

Egin bediz Bilbon aurtengo Bizkaiko neska mutillen arteko euskal esamiñak.

Beste barik oin dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

I. M.ª Etxaide L. Mitxelena

Donostian, bildu dira: I. M.ª Etxaide jauna, buru, Lojendio, Arrue ta Irigaray jaun euskaltzaiñak. Etxaniz ta Irigoyen jaun urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Loiola-ko erradiotik bialdu dituezan barriak irakurri dira egin daben bertsolarien txapelketearen gaiñean.

"Caja de Ahorros Vizcaina"-ren karta bat irakurri da. Amairu milla peseta bertsolarien txapelketetarako emotea erabagi dabe. Eskerrak emon bekiez.

Urkiola-n Bizkaiko bertsolarien txapelketa bat egin da San Antonio egunez. Txapeldun Julian Martitegui Mañaria-koa gelditu zen.

Euskeraren Aldeko Sailla-k Nafarroatik bialdu dauen karta bat irakurri da. Aurten be Nafarroako bertsolarien txapelketea egin gura dabe eta aurreko urteetan legez Euskaltzaindiaren laguntasuna eskatzen dabe. Oso pozik artzen dira asmo guztiak eta bear dan laguntasuna emon bedi.

Lizardi-saria erabagi da:

"Euskaltzaindiak, berak Lizardi'ren omenez eratu duen olerki-sariketa aurtengoz erabakitzeko izendatu dituenak bildurik, ao batez erabaki dute:

1'go. Saria "Irribarre ta lore" izeneko olerkiari ematea. Egillea Antonio Bilbao Monasterio jauna da, Morga'koa (Bizkaian).

2'gn. Sariketara agertu diran ogei olerkien artean arkitzen diran batzuen balioa eta edertasuna dala bide artu duen atsegiña adieraztea. Aipamen berezia merezi du, batez ere, "Illobi izengabea" deritzan olerkiak. Egillea, Bilbao'ko Eusebio Erkiaga jauna du.

Donostia'n, 1962 Garagarrillak 8.

Firmatzailleak: Manuel de Lekuona, Antonio Arrue, Luis Mitxelena."

Zarautzen Garagarrillaren 17-an Lizardi-ren gorazarrez egitekoak zirean jaiak atzeratu egin dira.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

I. M.ª Etxaide A. Irigaray

1962-VII-27

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: I. M.ª Echaide jauna, buru, Lafitte, Dassance, Eppherre, Villasante, Mitxelena, Lekuona, Arrue eta Irigaray jaun euskaltzaiñak. San Martin, Zabala, Loidi, Artola, Aita Larrañaga Pingliang-go apezpikua, Zugasti, Etxaniz, Valverde eta Irigoyen jaun urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Jose Aguirre jaunak zuzendu dauen karta bat irakurri da. Itaun bat egiten dau gramatikako puntu baten g[illegible]ean lagun arteko duda bat argitzeko. Erantzun bekio gaiari jagokona.

Banco de Vizcaya-k zuzendutako karta bat irakurri da. Milla peseta emotea erabagi dabe Bizkaiko neska mutillen esamiñetan partidu bear direan sariak orniduteko. Eskerrak emon bekiez.

Jarrai teatro-taldearen karta bat irakurri da. Euskaltzaindiak emondako agiri bat gura leukie esanaz euskereerentzat eztala kaltegarri beste izkuntza batean egindako teatro lanak euskerara itzulita jokatzea. Itzulpena euskeraz ondo egiña badago ezta ikusten zegaitik izan beai d uen kaltegarri eta emon bekie eskatzen daben agiria.

Bagillaren 28-an Bizkaiko neska mutillen esamiñak egin dira Bilbon.

Bertsolarien txapelketen gaiñean berba egin da. Egin direanak dira: Errazu-n Uztaillaren 1-ean, Bautista Madariaga txapeldun; Vergara-n Uztaillaren 8-an, Jesus Eguileor Alberdi txapeldun; Mungia-n Uztaillaren 15-ean, Juan Lopategui txapeldun; Markiña-n Uztaillaren 18-an, Jose M.ª Arregui txapeldun: Deva-n Uztaillaren 22-an, Manuel Uranga txapeldun.

Azpeiti, Oiartzun eta Gernika-ko Ayuntamentuak bialdu dituezan ofizioak irakurri dira. Bertsolarien txapelketen gaiñean Euskaltzaindiak zuzendutako asmoak guztiz ontzat artu dituez.

Villafranca de Oria-ko Ayuntamentuak eztitu ontzat artu eta berba egin bedi Beasain-go Ayuntamentuagaz bertan egiteko alderdi aretako txapelketea.

Ondarroa-ko Ayuntamentuak ofizio batean juradu bat eskatzen deutso Euskaltzaindiari erri aretan egingo dan txapelketa baterako. Bialdu bedi.

Mitxelena-k Fausto Arocena jaunak Euskaltzaindiari itzultzeko emon deutsan euskaltzain-ezaugarri bat dakar. Numero bat dauko medailleak: irua, eta Julio Urquijo jaunarena ei zan.

Ao batez erabagi da euskaltzain izentetea Jean Haristchelhar eta Aita Xabier Diharce (Iratzeder).

Lafitte jaunak Baiona-n Aguztuaren 28 eta 29-an egingo direan batzarrak eta Uztaritzen 30-ean Euskualzaleen Biltzarrak L. Dassance jaunaren omenez egingo dituen jaiak aipatu ditu. Gura leukie Euskaltzaindiaren batzarra be alderdi aretan egin daiten orreitako egun batean. Egin bedi Aguztuaren 30-ean Uztaritzen.

Euskal iztegiaz jardunaldi bat egin da.

Mitxelena jaunak esan dau zelan mugaz bealdeko euskal atlas bat egiteko kanpotar batzuk pausuak emon dituezan. Osoa egitea obeto litzake eta gaiñera Frantziako linguista batzuk be orretan arduratuak dagoz. Eretxiak eskatu ditu orren gaiñean.

Domingo Agirre novela sarirako iru novela etorri dira. Arrue, Irigaray, Loidi eta Irigoyen izentau dira erabagi daien nori saria emon.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

I. M.ª Etxaide L. Mitxelena

1962-IX-28

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: I. M.ª Etxaide jauna, buru, Mitxelena, Arrue eta Lekuona jaun euskaltzaiñak. Zabala, Zugasti, Zubicaray, Loidi, Apraiz eta Irigoyen jaun urgazleak

Irigaray eta Villasante-k ezin etorria adierazo dabe.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Uztaritzen Aguztuaren 30-ean emendik joandako eta ango euskaltzain eta urgazleak bildu zirean omenezko jaietan, baiña etzan batzarrik egin.

Fernando Aizpurua Deva-ko jaunaren karta bat irakurri da. Bere errian bertsolarien txapelketea egin genduanean juradukoakana urreratu zirean bera eta beste batzuk kartan diñoana gitxi gora bera esateko. Asmo batzegaz dabiltz: datorren udabarrian Deva-ra Gipuzkoako umeak kristiñau-dotriñazko erromeri batean eroan gura leukiez eta bide batez euskal jai batzuk egin. Euskaltzaindiaren laguntasuna izango leukien jakin gura dau. Euskaltzaindia prest daukie al dauen bestean laguntzeko euskereari jagokon arloan. Alan erantzun bekio.

Irigoyen jaunak berari Ondarroa-ko alkateak zuzendu deutsan karta bat irakurri dau. Ondarroa-ko eskoletan euskal klaseak ipiñi gura dituez eta ze gramatika eta liburu erabiltea komeni dan jakin gura leuke. P. Zamarripa-n gramatikea eta *Kresala*, *Ipuin barreka*, *Zirikadak*, *Patxiko txerren* eta *Euskalerritik zerura* aipatu dira, momentu aretan gogora etorri direan liburuak.

Irigoyen-ek Aita Villasante-k zuzendu deutsan karta bat irakurri dau. Axularren liburua argitaratzearen gaiñean barri batzuk emoten ditu.

Bertsolarien txapelketen gaiñean berba egin da. Egin direanak dira: Azpeitin Aguztuaren 2-an, Manuel Lazcano txapeldun; Oiartzunen Aguztuaren 4-an, Cosme Lizaso lenengo eta Jose Luis Lecuona "Lexoti" bigarren; Iyorren Aguztuaren 12-an, Basilio Pujana txapeldun; Goizuetan Aguztuaren 26-an, Juan Lopategi txapeldun eta Juan Azpillaga bigarren; Vera-n Iraillaren 23-an, Mikel Arozamena txapeldun eta Mikel Zabaleta bigarren.

Eibarren eta Hernani-n egin gura dira Gipuzkoako azken txapelketa biak. Donostiako Ahorro Kaxa biai eskatu bekie laguntasuna sariak orniduteko erriak emongo leukienaz gaiñera.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

I. M.ª Etxaide L. Mitxelena

1962-X-26

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: I. M.ª Etxaide jauna, buru, Mitxelena, Villasante, Arrue ta Irigaray jaun euskaltzaiñak. San Martin, Zugasti, Etxaniz, Artola, Zabala ta Irigoyen jaun urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Jose Agerre jauna il da Urriaren 19-an. Agertu bekio alargunari euskaltzainkideen dolu miña.

Domingo Agirre novela-sariaren erabakia irakurri da:

"Bizkaiko Ahorro Kaxak Euskaltzaindiari lagunduaz sortua duen Domingo Agirre novela-saria 1962 urtean nori eman erabakitzeko Euskaltzaindiak izendatu duen juradukoak bildu dira eta ao batez pentsatu dute saria "Gorrotoa lege" titulua duen novelari ematea. Begiratu da egillea nor dan eta Jon Etxaide dala ikusi da. Saria zortzi milla pesetakoa da.

Eta jakin dedin azpian firmatzen dute.

Bilbon 1962 Urriaren 19-an.

Antonio Arrue, Alfonso Irigoyen, Aingeru Irigaray, Jose Antonio Loidi."

Bizkaiko Ahorro Kaxearen etxean emongo jako saria irabazleari Urriaren 31-an.

Datorren urterako Toribio Alzaga teatro-saria ipiñi bedi orainarteko oiñarriakaz. Bizkaiko Ahorro Kaxeak zortzi milla pesetok urtero emoten ditu.

Bertsolarien txapelketen gaiñean berba egin da. Egin direanak dira: Beasain-en Iraillaren 30-ean Jose Migel Iztueta "Lazkao txiki" txapeldun; eta Tolosa-n Urriaren 7-an, Kasiano Ibarguren txapeldun eta Fermin Muñoa bigarren. Gipuzkoako azken txapelketearen aurrekoa Eibar-ko Amaya Teatroan egin bedi Azaroaren 11-an.

Irigoyen-ek diño orain dala Bizkaiko Diputaziñoari berrogeta amar milla pesetako eskabidea egiteko tertzioa diputau batzukaz berba egin dauenez. Egin bekio iztegi lanaz gaiñera eskuarteko beste zeregiñetarako daukagun bearrizana be aitatuaz.

Irigoyen-ek diño igaz legez emakume ezezagun batek deitu deutsala telefonoz eta amar milla peseta eskeiñi deutsazala Euskaltzaindiaren etxea al dan neurrian barriztetako. Eztau gura bere izena jakin daiten. Ontzat artu bedi eskeintzea eta Irigoyen-en eskuetan isten da zer egin leitekean.

Aita Villasante-k Axular-en *Gero* euskeraz eta erderaz argitaratzearen gaiñean jardun dau. Erosi bear direan aleak lenengo momentuan pagetako Arrue jaunak bide egoki batzuk aitatu ditu.

San Martin-ek aitatu dau mugaz goialdeko eta bealdeko batzuen artean egin gura daben kultura iztegia. Charriton, Krutwig, Labeguerie, Irigaray, bera eta beste batzuek dira dabiltzanak. Zorionak emon bekiez asmoagaitik.

Eibartar batek Leitzan euskerearen kontra egin ei dan barri lastimagarri bat bialdu dau. Idatzi bekio bertako alkateari, egia bada diñoskuena, zuzentzeko bideak artu daizan.

M.ª Paz Ziganda andreak milla pesetako emoitza bat egin dau Euskaltzaindiarentzat. Eskerrak emon bekioz.

"Radio Popular de Pamplona"-koak eskerrak emoten dituez Agerre ta Irigoyen jaunen bidez Iruñean egin zan "Nafar Jai"-rako emon dan laguntasunagaitik.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

L. Mitxelena

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Dassance jauna, buru, Mitxelena, Lekuona, Arrue, Villasante, Irigaray eta Lafitte jaun euskaltzaiñak. Zugasti, Loidi, Etxaniz, Artola, Zabala, Valverde, San Martin eta Irigoyen jaun urgazleak.

Dassance jaunak itz batzuetan Iñazio Maria Etxaide Euskaltzainburuaren eriotzeagaitik atsekabea agertu dau.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Etxaide jauna zanaren eriotzeagaitik naigabea agertuz lau karta irakurri dira: F. Krutwig, Jesus Oleaga, Miren Oyanguren eta Aita L. Villasante-nak.

Irigoyen-ek diño egin bear zan legez Urriaren 31-an emon zala Domingo Agirre novela saria Bilbon.

Irigoyen-ek diño Bizkaiko Diputaziñoak aurtengo presupuestoan berrogetaamar milla peseta Euskaltzaindiari emoteko daukazala eta oraintsu egin dan eskabidea ontzat arturik datorren urteko presupuestoan beste berrogetaamar sartuko dituezala.

Gipuzkoako bertsolarien txapelketa nagusia Ernani-n Abenduaren 9-an eta Euskalerriko nagusia Donostian Abenduaren 30-ean egiteaz berba egin da.

Jesus Oregi jaunak Bergara-n egin zan bertsolarien txapelketea zinta magnetofoniko batean erregaloz emon deutso Euskaltzaindiari. Eskerrak emon bekioz.

Juan Ramon Urkijo jaunak *Revista Internacional de los Estudios Vascos*-en lenengo aldiko ainbat ale erregaloz emon deutsaz Euskaltzaindiari bere bigarren koleziñoa osotu daian eta baita Julio Urkijo zanak argitaratutako lan batzukbe. Eskerrak emon bekioz.

Bertso paper sariketea erabagi bear da. Euskalerriko bertsolarien txapelketan parte artuko dauen juraduak berak egin lei Abenduaren 30-a baiño leen.

Aita Zabala-k Euskalerriko bertsolarien txapelketa nagusi osoa magnetofonoan jaso ta gero *Auspoa liburutegia*-n argitaratu gura dau eta Euskaltzaindiari eskea egiten deutso. Egin lei eta eskerrak emoten jakoz egiteagaitik.

Irigoyen-ek Etxaide zanaren paper bat irakurri dau eta bertan diño Euskaltzaindiak eskribitzeko makiña bat erosi bear leukeala. Izan be orren bearrean dago len daukana oso zaarra dalako. Bere borondatea egin bedi.

Irigoyen-ek Bilboko apezpiku jaunaren eretxi bat irakurri dau Etxeandia jaunari zuzendu deutsan karta batetik. Espaiñia osorako agertu dan dotriña barria Euskaltzaindiak Bizkaiko euskerara itzuli daian gura leuke. Eskabidea Erromatik datorrenean egingo leuskigu itzuli gura bagendu. Aita Villasante izentetan da itzulpena egin

daian eta ekarri begi Euskaltzaindira. Arrue eta Aita Zabala Gipuzkoako apezpikuari bisita bat egiteko izentau dira Gipuzkoan be ia beste ainbeste egin leitekean. Bein Bizkaikoa egin ezkero Gipuzkoakoa egitea erraza da. Nafarroakoa egiteko Pedro Diez de Ulzurrun mediku jauna izentau da. Bere eskuetan isten da an ze pauso emotea komeni dan.

Juan Flors jaunak Aita Villasante-ri zuzendu deutsan kartea irakurri da. Axularren obrea argitaratzearen gaiñean da. Arrue jaunak diño eskatzen deuskuezan kondiziñoak argitaratzeko Gipuzkoako Ahorro Kaxa Probintzialaren bidez erabaki leitekezala. Emon bediz pausook.

Mitxelena jaunak diño utsik dagozan karguak bete baiño leen dagozan euskaltzain utsuneak bete bear litzakezala.

Lafitte jaunak diño Haritschelhar eta Iratzederren sarrera itzaldiak lenengoarena Baigorri-n eta bigarrenarena Belloc-eko komentuan egin gura dituezala datorren urtean. Oso begi onez ikusi da.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

L. Mitxelena

1962-XII-28

Donostian, Diputaniñoan, bildu dira, Aingeru Irigaray jauna buru legez, Mitxelena, Villasante, Lojendio, Lekuona, eta Arrue jaun euskaltzaiñak. Zabala, Zugasti, Etxeandia, Etxaniz, San Martin, Zubikaray, Artola, Valverde, Loidi, eta Irigoyen jaun urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Bizkaiko Diputaziñoak bialdu deuskun ofizio bat irakurri da. 1962.urteko berrogetaamar milla pesetak kobratu geinkez eta itanduten dabe iztegi lanak zelan doazan. Irigoyen jaunak diño kobratu dirala pesetok. Erantzun bekio iztegiaren gaiñean jakin gura dabena esanez.

Ernani-ko Ayuntamentuak bialdu deuskun ofizio bat irakurri da. Erri aretan egin zan Gipuzkoako bertsolarien azken txapelketa nagusian sari batzuk emotea erabagi eben eta orren barri emoten da bertan. Txapelketa orretan Joakin Mitxelena Oyartzun-goa gelditu zan txapeldun eta Jose Migel Iztueta "Lazkao txiki" bigarren.

Gipuzkoako Ahorro Kaxa Probintzialak amar milla peseta emon ditu bertsolarien txapelketetarako.

Euskalerriko bertsolarien azken txapelketa nagusia Abenduaren 30-ean egingo da Donostiako Astoria Teatroan. "Centro de Atracción y Turismo"-k artu dau bere kontu jaia prestatearen lana eta Euskaltzaindiak txapelketea egitearena. Arrue jaunak diño irabaziaren erdia emongo deuskuela.

Irigoyen-ek diño Jesus Mari Arenaza urgazle jaunak Mungian teatro talde bat sortu dauela eta Manuel Ziarsolo-n *Gogozar* obrea gertu daukiela emoteko. Prest dagoz Bilbora joateko Euskaltzaindiak urtero egiten dauen jaira. Urtarrillaren 13-an egin leiteke Arriaga Teatroan. Diño gaiñera Bilboko Jesuiten kolejioan euskal esamiñea egin eben neska mutikoai irabazi zituezan sariak emoteko aukera ona dela. Alan egin bedi.

Bertso papelen sariketea erabagi bear zan sariak Abenduaren 30-eko jaian partietako. Baiña zeregin asko egongo dala egun orretan eta geroago egin bedi beste jai bat. Beraz, badago oraindiño astia erabagia artzeko.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

1963-I-25

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Aingeru Irigaray jauna buru, Lekuona, Mitxelena, Villasante, Lojendio ta Arrue jaun euskaltzaiñak. Aresti, Zugasti, Loidi, San Martin, Artola, Zabala ta Irigoyen jaun urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Irigaray jaunak bere berba oneik agirian agertu daitezan gura leuke: "Zibero eskualdeko toki bat betetzeko Mirande Ion jauna aurkeztu zutela bost euskaltzaiñek joan deneko batzarre batean. Eta gero beste norbaiten izena onartu zen. Baiñan, alan ta ere, txoilik azaldu nai dituela Mirande jaunaren merezimendu aundiak olerkari eta euskalari gisa. Eta adierazi ere nai du euskalari baten ideia bereziak eztirela traba izan bear, eta Azkue zenaren denboran ere etzirela izan, euskaltzain bezala onartua izateko, delako euskalariak beste batzarkideen ideiak errespetatzen dituen ber".

Fanderiko pentsuak saltzen dituen soziedadeak Tolosa-n bertsolarien jai bat egin gura dau Zezeillaren 3-an. Joan dira baimena eskatzen Donostian dagoen Informaziño eta Turismo Ministeriora eta Euskaltzaindiaren baimena be bear dabela esan deutsie. Euskaltzaindiak oso begi onez ikusten dau olango jaiak egin daitezan. Emon bekie paper bat esanik atsegin aundiagaz artzen dogula daukien asmoa.

Egin da Donostia-ko Astoria Teatroan Euskalerriko bertsolarien azken txapelketa nagusia. Uztapide gelditu da txapeldun eta Basarri bigarren. "Centro de Atracción y Turismo"-k irabaziaren erdia emon deusku eta 22.829,57 pts. gelditu dira Euskaltzaindiarentzat.

"Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País"-ek goresmen biziak bialdu ditu Astoria Teatroan egin dan bertsolarien saioagaitik.

Bilbo-ko Arriaga Teatroan be egin da aurreko batzarrean egitea erabagi zana. Oso egoki urten eban guztiak. Umeen sariak orniduteko Aita Frantzisko Kortabitarte jesuiteak zortzi milla peseta ekarri ditu eta Bizkaiko Bankuan milla peseta geiago kobrau dira bein kartaz eskeiñi euskuen gisan. Eskerrak emon bekiez.

Bertso paper sariketearen erabagia datorren batzarrean artu bedi. Txirrita-n omenez jai bat Ernani-n egitea Martiaren 17 inguruan oso egokia litzake. Egun orretan partidu leitekez sariak.

G. Eppherre, L. Dassance eta P. Lafitte-k firmatu daben eskabide bat irakurri da. Pierre Larzabal jauna euskaltzain egitearen gogoa erakusten dabe.

F. Krutwig jaunaren karta bat irakurri da. Eusebio Erkiaga eta Jon Etxaide jaunak euskaltzain izendatutearen proposiziñoa egiten dau. Gaiñera diño euskaltzainburu eta sekretario karguak urte birik bein aldatu bear litzakezala. Bere ustez momentu onetan Antonio Arrue jauna buru izendatutea oso ondo legoke.

Mitxelena-k diño Jon Etxaide jaunak karta bat idatzi deutsala bere izena dabillela entzun dauenean. Eleuke euskaltzain izan gura. Bera baiño leenago egokiagoa badagoela diño. Irigaray jaunak berba egin begi beragaz ortaz.

Loidi jaunak karta bat irakurri dau Gorostiaga eta Altube jaunak berari egiña. Gorostiaga-k diñotso Eusebio Erkiaga jauna euskaltzain eta Kastor Uriarte eta Anai Balentin Berriotxoa euskaltzain ordezko izentau bear litzakezala bere ustez. Altube jaunak: Ambrosio Zaratain, Kastor Uriarte eta Joakin Zaitegi jaunak omenezko euskaltzain "académicos de honor, bienhechores (ongille)".

Aita Villasante-k diño Alfonso Irigoyen jaunagaz Euskaltzaindiak zor aundia daukala eta bertan dagoela izentetako persona egoki bat. Orduan Irigoyen jaunak batzarretik urten egin dau. Erabagi batzuk artu dira eta geroago dei egin deutsie.

Erabagi dana da, Pierre Larzabal, Jose Maria Satrustegi, Eusebio Erkiaga eta Alfonso Irigoyen euskaltzain izentetea. Alfonso Irigoyen ordezkoa izango dan ala ez urrengo batzarrean erabagiteko itxi da. Ago batez artu da erabagia.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

1963-II-22

Donostia'n, Diputazio-etxean, milla bederatzireun eta irurogei ta irugarren urteko Otsaillaren ogei ta bian, Lekuona jauna buru dala, eta Loidi jaunak zadorlari-ordezko egiten duela, illeroko Euskaltzaindi'ko batzarrera, aldamenean agertzen diran euskaltzain eta urgazle jaunak bildu dira: Lekuona, Villasante, Gorostiaga, Euskaltzain jaunak. Arizti, Irigoien, Artola, Arruza, San Martin, Zabala, Loidi, Urgazle jaunak. Bertan arkitzen da Juan Maria Lekuona jauna ere.

Eguerdiko amabi t'erdiak dirala, oi dan bezela, otoitz egiñaz asi da batzarra.

Joan dan illeko batzar-agiria irakurri da. Gorostiaga jaunak, agiri ori ontzat artu baiño leen, Altube jaunak eta berak Euskaltzaindiari idatzitako idazki bat irakurri nai lukela dio. Irakurtzeko baimena eman ondoren, idazki luze bat irakurtzen du. Labur esanaz auxe dio bertan: Joan dan illean, euskaltzain berriak (bizkaitarrak batez ere) izendatzekoan, ez zala Euskaltzaindi'ko araudiak diona bete, eta, ori dalata, ezin dutela gai oni dagokionean, batzar ortako erabakiak ontzat artu. Eztabaida bat sortzen da. Bildu diran geienak agertzen dute beren iritzia. Azkenean erabaki auek artzen dira:

Idazki ori Euskaltzaindiak artzen du. Erantzuna datorren batzarrean erabakiko da. Joan dan illeko batzar-agiria ez da ontzat artzen.

Gorostiaga jaunak, berak, Lafitte, Krutwig, Altube, eta Eppherre jaunak izenpetu duten idazki bat irakurtzen du; bertan, Euskaltzaindi'ko araudiak diona beterik, Erkiaga eta Akesolo jaunak euskaltzain eta Uriarte jauna euskaltzain ordezko izendatzeko eskatzen dute. Erabakia: Euskaltzaindiak idazki au artutzat ematen du, datorren illean, araudiari jarraituz, erabakia artu dezan.

Euskaltzaindi'koeri eskerrak emanaz, Satrustegi eta Larzabal jaunen idazkiak irakurtzen dira.

Arruza eta Gorostiaga jaunak, euskerazko irrati saioak asiko dirala laister Bilbo'n adierazten dute.

Irigoyen jaunak, Bizkai'ko "Junta de Cultura"-koak Euskaltzaindiari zuzentzen dioten idazki bat irakurtzen du. Bertan diotenez, berak antolatu duten sariketan epailekuko izan ditezen, Euskaltzaindi'ko biren izenak eskatzen dituzte. Erabakia: Villasante eta San Martin jaunak izendatzen dira ontarako.

Gorostiaga jaunak galdetzen du ia Oleaga jaunaren ordez nor dagoen izendatua Euskaltzaindian Bizkai'ko "Junta de Cultura"-kin izan lezakean artu-emanetarako. Izendatu bedi.

San Martin jaunak, Eibarko Felix Aldazabal jaunak egindako atzenaiaren zati bat irakurtzen du. Berak dionez, Eibar'ko "Sparrua" izeneko lagunarteari, beste agin-

du batzuen artean, urtero, euskeraz irakurtzen eta idazten ongiena dakiten neskamutillen artean, sariak banatu dezan, amar milla peseta uzten dizka. Lagunarte ontakoak Euskaltzaindiari laguntza eskatzen diote. Erabakia: eskatu bezate urtero eta lagundu bezayote.

Irigoyen jaunak, azkeneko agirian onako au aztuta utzi zala dio: "Arrue'k diño Juan Maria Lekuona jauna urgazle izentau bear litzakeala. Ain zuzen be Euskaltzaindiak egin dituen bertsolarien txapelketetako lankide on bat izan da, beste merezimentu batzuez gañera. Urgazleak egiteko garaia datorrenean egin bedi".

Manuel Lekuona, F. Artola, Juan Maria Lekuona, A. Irigoyen, A. Zabala eta J. San Martin jaunak izenpetutako idazki bat irakurtzen da. Onela dio: "Bildu dira Donostiako Diputazioan bertso paper sariketa erabaki bear zuten juradukoak eta ao batez erabaki dute: Lenengo saria Ibai-ertz'ek egindako bertso sortari ematea. Bigarrena Sebastian Salaberria'k Ama Euskerari jarritako sortari. Irugarrena Manuel Uranga'k Ama Alargunari jarritako sortari. Ta laugarrena Basilio Pujana'k jarritako sortari. Donostian 1963 Otsaillaren 22'an".

Eta besterik gabe, arratsaldeko ordu biak dirala, euskaltzain buruak batzarra bukatutzat ematen du eta Loidi jaunak agiri au jaso eta maiburukoarekin batera izenpetzen duela, ziñaltzen du.

1963-IV-5

1963-ko Apirillaren 5-ean, arratsaldeko iru t'erdietan, egin da Euskaltzaindiaren bilkura, Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian. Bilkura au izan da Martxoko 29-an egin etzanaren partez. Egun orretan mugaz andiko euskaltzaiñak Mathieu, Akitzeko Apezpiku jaunaren proguetara joan bear izan zuten, eta arrazoi orrengatik eta beroien erreguz, astebete atzeratu zan Martxoko bilkura au.

Etorri diran euskaltzaiñak, auek izan dira: Dassance, Lekuona, Laffitte, Irigarai, Lojendio, Iratzeder, Haritschelhar, Gorostiaga, Larzabal, Epherre, Arrue eta Villasante. Mitxelena jaunak bere ezin etorria jakiñarazi du.

Urgazleak, berriz: Etxeandia, Irigoien, Aresti, San Martin, Artola, Arrutza eta Aita Zavala.

Maiburu, Dassance jauna izan da.

Oi dan otoitzarekin asi da batzarra.

Bizkaiko euskaltzaiñen utsuneak betetzeaz luze itzegin ondoren, erabaki au artu da: Urtarrillean egindako bilkuraren agiria ezeztatu egin da; Otsaillekoan, berriz, nola etzan naiko lagun batu, legezko batzarrik etzala egin erabaki da.

Eskabideak aurkeztu dira iru jaun auen alde; Alfonso Irigoien, Eusebio Erkiaga eta Aita Lino Akesolo karmeldarra, euskaltzain izendatu ditezen eskatuaz. Irigoien jaunaren izendapena erabaki aurretik zerbait zuritu bearra dagoela esan da, eta ala urrengo batzarrean erabakitzeko gelditu da. Erkiagaren eta Akesoloren aldeko eskabidea ontzat eman da, eta jaun oiek euskaltzain izendaturik gelditu dira.

Gero Dassance jaunak esan du lenbailen euskaltzainburu bat izendatu bear dala, eta bere aginte-epea edo muga 1963-ko bukaerara arte jarri ditekela. Danok ontzat eman dute iritzi au. Autarkietara jo da, eta ona emen botazioaren ondoreak:

Dassancek: Boto 1 izan du.
Arruek: Boto 1 izan du.
Mitxelenak: Boto 1 izan du.
Lojendiok: 9 boto izan ditu.

Lojendio jaunak adierazi du bera dala kargu ortarako meritu gutxiena daukana; baiña Euskaltzaindiak bere naia ain garbi agertu duen ezkero, azkenean onartu du izendapena, ete beraz, euskaltzainburu egiñik gelditu da.

Gero Dassance jaunak dio Maiatzaren 18-an, Beloken, Iratzederren sarrera-itzaldia egingo dala, eta danok gaudela jai ortara gomitatuak. Meza nagusia amaika t'erdietan itango da. Urrun bizi diranak bezperan joan ditezke.

Eta beste gabe, oi dan otoitzarekin bukatu da batzarra.

1963-IV-26

1963-ko Apirillaren 26-an, eguerdiko amabietan, egin da Euskaltzaindiaren bilkura, Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian.

Etorri diran euskaltzaiñak, auek izan dira: Lojendio, Lekuona, Lafitte, Dossanco, Mitxelena, Irigarai, Akesolo, Erkiaga, Villasante, Gorostiaga eta Arrue.

Urgazleak, berriz: Irigoien, Larzabal, Satrustegi, Zugazti, Loidi, Artola, San Martin, Etxaniz eta Aita Zavala.

Oi dan otoitzarekin asi da batzarra.

Lojendio jaunak, euskaltzainburu bezela, agur-itz batzuk esan ditu, euskaltzaiñek egin dioten izendapenaren gaia eztala esanaz eta Ignazio Maria Etxaide azkeneko buru zana goraipatuz. Gaurko batzarraren egitaraua irakurrita, euskaltzaiñei eskatu die batzarretara lan batzuk ekarri ditzaten, lan oien gaia amabost egun aurretik adieraziz, era ortara batzarreko egitarauan garaiz sartu al ditezen. Gero Bilbon gertatuaren zuritasuna dala ta, aurreko batzarrean eskatu zanari erantzunaz: "Alfonso Irigoien jaunak zintzo jokatu du —dio—. Polizia bat etorri zitzaion, erantzun zuurrak eman zituen, gizon jokatu du. Gure eskuetan utzi zenuen gauza au garbitzea, eta egin degu". Ondoren dio, Severo Altuberen omenez zerbait egin bear litzakela. Bera da euskaltzaiñetan zaarrena eta ainbeste lan egindakoa. Danak ao batez ontzat ematen dute asmo au. Euskaltzainburuaren iritziz, batzar guztiak Donostian egitean ezta on. Urrengoa Beloken egingo da, Iratzederren sarrera-itzaldia dala ta. Eta urrengoa Gernikan, Severo Altube-ren omenez, an bizi baita bera. Azkenik eskatzen du Alfonso Irigoien jauna **Euskera** aldizkariaren zuzen dari izendatua izan dedilla, Euskaltzaindiaren agerkari au orain arte ere bere alegiñei eskerrak ateratzen dan ezkero. Eta ala erabaki da.

Mitxelena jaunak lan bat irakurri du "beharki" itzaz.

Arrue jaunak beste txosten bat ekarri du "ima" itzaz.

Irigarai jaunak beste lan bat irakurtzen du Nafarroako esakera batzuei buruz.

Elkar izketa sortu da itz eta esakera batzuen gaiñean.

Dassance jaunak dio Maiatzaren 18-an Iratzederren sarrera- itzaldia egingo dala Beloken. Eta Belokeko Aita Gabriel Lertxundi ere, egin dituen lanengatik, urgazle izendatu dedin eskatzen du. Baiet, erabaki da.

Aita Zavalak dio Maiatzaren 12-an, Ernanin, Txirrita bertsolariaren omenaldia egingo dala.

San Martin jaunak Eibarren egindako ume-sariketaren berri eman du. Eskerrak eman bekizkie antolatzailleei.

Gero Aita Villasantek jakiñarazten du nola argitaratu dan leenbiziko aldiz Aita Añibarroren iztegi zaarra, eta ale bat eskeintzen dio Euskaltzaindiari.

"Oargi" Tolosako taldeak eskatzen du sariketa batzuk eta festa batzuk egin ditezen Orixe zanaren omenez. Erantzun bekio baietz.

Mitxelena jauna Urkijo Mintegiko zuzendari egiña izan da. Eta euskaltzainburuaz gaiñera, beste bi euskaltzain eskatzen ditu Mintegirako. Arrue ta Irigarai jaunak izendatu dira.

Azkenean Lojendio jaunak dio euskal eskoletarako liburu egoki batzuen premian gerala. Eta San Martin jaunari eskatu saio gai onezaz txosten bat ekarri dezala.

Eta beste gabe, oi dan otoitzarekin, bukatu da batzarra.

1963-V-18

1963-ko Maiatzaren 18-an, arratsaldeko iru t'erdietan, Euskaltzaindiak batzar agirikoa egin du Beloke-ko komentuan, Aita Xabier Diharceren sarrera ospatzeko. Batzar agirikoa bukatu ondoren, beste bilkura bat egin da Euskaltzaindikoen artean bakarrik.

Etorri diran euskaltzaiñak, auek izan dira: Lojendio, Arrue, Erkiaga, Akesolo, Villasante, Krutwig, Renè Lafon, Lafitte, Dassance, Eppherre, Haritschelhar eta Aita Diharce (Iratzeder).

Urgazleak, berriz: Aita Berriatua, Irigoien, Satrustegi, Larzabal, Aita Lertxundi O. S. B., Alvarez Emparanza (Txillardegi), eta Artola (Bordari).

Batzar agirikoetan oi dan bezela, euskaltzainburu jaunak adierazi du zertarako dan gaurko batzarra. Gero bi euskaltzain (Dassance eta Arrue) joan dira Aita Iratzederren billa, eta onek egin du bere sarrera-itzaldia, "Beloke-ko eskual bidea" gaitzat arturik. Gero Laffitte jaunak erantzun dio, euskaltzain berriaren bizitza eta lanak kontatuaz. Azkenean euskaltzainburuak Aita Iratzeder euskaltzain dala iragarri du eta artako diploma eman dio. Bide batez Aita Lertxundiren urgazle-izendapena ere iragarri du.

Gero Euskaltzaindikoen arteko batzarra egin da.

Haritschelhar jaunak jakiñarazten du bere sarrera Baigorrin, Uztaillaren 28-an ospatuko dala, Renè Lafon jaunak erantzuna egiñik.

Euskaltzainburuak, berriz, adierazten du urrengo batzarrara Gernikan, Garagarrillaren azken ostiralean Severo Altube jaunaren omenez egingo dala.

Aita Villasantek esaten du Urtarrilleko agiria ezeztatu egin zala, eta beraz orduan izendatu ziran euskaltzaiñak, desizendaturik daudela. Satrustegi eta Irigoien batzarretik kanpora irteten dira (Larzabal jauna ordurako alde egiña zan). Apirillaren 5-ean egindako batzarrean erabaki zan Irigoienen izendapena urrengo batzarrerako uztea, Bilbon gertatuaren zuritasuna egin arte. Garbitasun ori egin du euskaltzainburu jaunak, Apirillaren 26-ko batzar-agirian ikusten danez. Gaiñera araudiak galdetzen dituan baldintzak bete dira eta legezko eskabidea egin da Irigoien jaunaren alde, lau euskaltzaiñak firmatua. Eskabide au irakurri da batzarrean. Aita Villasantek uste du Urtarrillean egindako izendapenei berriz ere legezko balioa eman behar zaiela. Krutwig jaunak dio bere ustez euskaltzaiñak eztirala geiegi ugaritu bear. Banabanaka danen iritzia eskatu da eta azkenean ao batez irurak, au da, Irigoien, Satrustegi eta Larzabal, euskaltzain izendatu izan dira, eta euskaltzain oso gaiñera.

Gero Lafon eta Haritschelhar jaunak eskabidea egiten dute Jacques Allières jaunaren alde, urgazle izendatua izan dedin. Jaun au *Carte linguistique basque* eta beste

lan baliotsuen egille da, eta Atlas Lingüístico bat iñoiz egingo bada, ezin-utzia degu. Ontzat eman da eskabidea. Haritschelhar jaunak beste eskabide bat egiten du Pierre Duny Pétré jaun garaztarraren alde. Eta orobat eskabideak egin dira Jose Artetxe eta Juan Maria Lekuonaren alde. Denak urgazle izendatuak izan dira.

Eta beste gabe, oi dan otoitzarekin, bukatu da batzarra.

1963-VII-19

1963'go Uztaillaren 19'an, eguerdiko amabietan, Euskaltzaindiko bilkura egin da Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren Jauregian.

Etorri diran euskaltzaiñak, auek izan dira: Lojendio, Lekuona (Manuel), Lafitte, Mitxelena, Dassance, Irigarai, Iratzeder, Satrustegi, Irigoien, Haritschelar, Arrue ta Villasante. Erkiaga Jaunak, ezin etorria adierazi du.

Urgazleetatik berriz: Loidi, Valverde, Zugasti, Berriotxoa, Lekuona (Juan Mari), Bordari ta Aita Zabala.

Oi dan otoitzarekin asi da batzarra.

Belloc'en Maiatzaren 18'an egindako batzarraren agiria irakurri da ta onartua izan da.

Euskaltzainburu Jaunak, Belloc'eko batzarra ondoren izandako gertaeraren berri ematen du. Egun artako erabakiak zirala ta, eztabaidak sortu izan. Euskaltzainburu Jauna Bilbora jaun zan, ango euskaltzain eta Euskaltzaindiaren alde lan egin nai duten euskaltzaleekin itz egiteko. Ikusi zituen guztiak oso ondo artu zuten eta beren laguntza eskeñi zioten. Erkiaga ta Arruza Jaunak lagunduta, Gernikara juan zan eta Altube Jaunari ikustaldi bat egin zion, berarekin oso jardun atsegiña izanaz. Etzan izan ale ere, urrengo egunetan, Euskaltzaidiko goraberak bear bezala erabakitzeko biderik eta Gernikako batzarrean atzeratu egin zan, Euskaltzaindiak erabaki arte. Bildutako guztiak ontzat artu zituzten Euskaltzainburu Jaunaren lanak. Beren iritziz, Gernikara baño len, barrutiko gorabera guztiak zuzendu bear dira, bertan laguntasun onean alkarrekin biltzeko.

Euskaltzainburu Jaunak dio, Araudia berritu bear dala, euskera garbian xeetasunak, zeaztasun geiagorekin jarriaz. Danok batera datoz onetan ere.

Batzar deiak iragartzen duan bezela, Zadorlari, Diruzaiñ, Gutunzaiñ eta barrutiko batzorde buruak izendatu bear dira. Baña Bilboko euskaltzain geienak ez dira etorri ta urrengo batzarrerako uztea dira izendapen oiek. Euskaltzainburu jaunaren iritziz; izendapen oiek bear bearrezkoak dira; Iker-sail eta Jagon-saillak osatzeko. Euskaltzaindikoak ez diranak ere sartu ditezke, lagunkide bezela saill oietan. Eginkizun asko dago, ta euskerazale guztien laguntza bear da.

Uztaillaren 28'an ospatuko da Baigorrin Haritschelar Jaunaren sarrera. Meza nagusia amarretan izango da, Eppherre Jaun Kalonjeak predikua egiñik. Amaika t'erdietan, "Bil-etxea" deritzaion zineman, egingo da Euskaltzaindiaren batzarra. Batzar au agirikoa bakarrik izango da. Haritschelar Jaunaren itzaldiari, René Lafon Jaunak erantzungo dio. Ordu batean izango da bazkaria, ta arratsaldeko bostetan pelota-partidua.

Satrustegi Jaunaren sarrera berriz, Agorraren 15an ospatuko da Luzaiden.

Urriko asieran, Arantzazun, Euskaltzaleen Batzar bat egingo da, Euskaltzaindiak eratua. Batzar au, guztiz zabala izango da ta Euskaltzainburu Jaunak dionez, onura aundikoa izan diteke, bai idazleen batasunerako, bai eskola irakaskuntzarako ta bai euskeraren gañerako zabalkunderako ere. Jardunen gaia: "Euskaliztegia ta gaur eguneko bearrak". Zenbat eta euskaltzale geiago bildu, obe, batez ere, al izan ezkero; maixuak eta maistrak, Eskola bai da euskeraren eutsigarri indarrenetako bat eta euskal eskola ta ikastolaen alde lan egiteko gertatu bear du lenbailen Euskaltzaindiak.

Mitxelena Jaunak —Irigarai Jaunari erantzunaz— jakin arazten du nola dijoan bere iztegi lana. Bere ustez, Naparroan batez ere, itz asko dago, iñoiz iztegietan jaso gabeak.

Aita Zubiaga Pasionistak irabazi du "Agora" ren eleberri saria. Epaimaiekoak Euskaltzaindikoak izan dira.

Aita Villasantek dio; aspaldio *Jakin* aldizkaria eztala irtetzen eta ia Euskaltzaindiak zerbait egin lezaken baimen ori lortzeko. Baiet erabaki da.

Irigoien Jaunak dio, urtero bezela, Garagarrillaren 27'an Bizkaiko neska mutillen azterketak egin dirala Bilboko Indautxuko Jesuiten Ikastetxean.

"Caja de Ahorros Municipal de Bilbao"'k amar milla pezeta eman dizkio Euskaltzaindiari. "Caja de Ahorros Vizcaina"'k berriz, amairu milla pezeta eman dizkio, bertsolari saritan banatzeko. San Antonio egunean saio bat egin zan Urkiolan. Beste saioak, Markiña, Mungia, Igorre Gernika ta Bilbon egitekoak dira.

"Toribio Alzaga" teatro sarirako, bost lan aurkeztu dira. Epaia Urriko 31 baño len eman bear da; saria egun ortan ematen baita. Epailariak izango dira: Arrue (buru); Erkiaga, San Martin eta Loidi Jaunak.

Tolosako "Oargi" koak, Orixe zanari eratu nai dioten gorazarreaz itz egiten da. Labaien jauna izendatzen da Euskaltzaindiaren Ordezkari bezala, "Oargi"'koekin itz egiteko ta jai-orren xeetasunak antolatzeko.

Igaz, "Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa"'ren laguntzaz, "Lizardi Olerki saria" ta "Bertsolari saria" ospatu ziran. Aurten sari oien oñarriak iragarri baño len, Aurrezki Kutxako Zuzendari Jaunarekin itz egitea erabakitzen da.

Eta beste gabe, oi dan otoitzarekin bukatu da batzarra.

Aita Luis Villasante

1963-X-25

Bilbo-n, Euskaltzaindiaren etxean, bildu dira: Aingeru Irigaray, buru, Villasante, Arrue, Lekuona, Erkiaga, Satrustegi, Akesolo eta Irigoyen euskaltzaiñak. Aresti, Zavala, Berriatua, Arruza, Ibargutxi, Manterola, Zubikarai, Artola, Onaindia eta San Martin urgazleak.

Mitxelena jaunak telegrama bat bialdu dau eta diño osasunagaitik ezin etorri izan dala batzarrera.

Jose Maria Lojendio Euskaltzainburuaren karta bat artu da:

"Madrilletik Bilbora Urrillaren 23'n. Euskaltzain jaun agurgarriak: Siria ta inguruko errialdetara nua illabete t'erdirako. Aste onetan aterako naiz (J. l.) Madrilletik eta Abendu arte ez naiz, beraz, itzuliko. Etziko batzarrera juateko gogo bizia nuen —garrantzi aundikoak baidira bertan erabilli bear diran gaiak— baña eziñ. Ez etziko batzarrera, ezta azaroaren 10'ko Larzabal jaun argiaren sarrera-eguneko batzarrera ere. Euskaltzainburuaren utsunean euskaltzain jaun zarrenari egozten omen zaizkio —araudiaren aginduz— buruzagitzarekiko lanak. Nik baño obeto beteko dituenik esan bearrik ez. Barkatu, arren, nere uts egite au. Guztiz nai ta naiezkoa izan da. Agur biotz biotzetiko bat guztiai ta agindu zuon mendeko. Jose Maria Lojendio."

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Altube jaunaren eriotzea aitatu da. Euskaltzaindiak atsekabe aundia artzen dau bere gizon nagusienetako bat galtzeagaz. Krutwig jaunaren karta bat be irakurri da gauza orren gaiñean.

Lekuona jaunak lan bat irakurri dau "Erria - lurra?" titulua daukana.

P. Larzabal-en karta bat irakurri da. Azaroaren 10-ean izango da bere sarrera itzaldia Azkain-en eta zeaztasunak emoten ditu.

"Loiola erri irratia"-k karta bat bialdu dau. "Bertsolari gazteen bigarren sariketa"-ren barri emoten deusku eta baita eskerrak be gure izenean juraduaren barruan egon zanagaiti. Erretratu batzuk be bialdu deuskuz. Asko estimetan jakie.

Arrue ta Irigaray Donostiako euskal jaietako bertsolari barrien txapelketa batez eta umeen euskal sariketaz jardun dira eta San Martin umeentzako euskal textoez.

San Martin-ek diño Eibar-ko zezen plazan Lasarte bertsolariaren alde, bere gexo gogorraren ondoan egin dituen zorrak kitatzeko, bertso jai bat egin gura leukiela, aal dala Euskaltzaindiaren izenean, Azaroaren 17-an. Bere bertsolari lagunak prest dagoz duban kantetako. Oso pozik artu da San Martin-en esana eta emon bediz bear direan pausoak.

Irigoyen-ek Bizkaian egin direan bertsolari saioen barri emoten dau. Markiña-n Uztaillaren 21-ean egin zan, Mungia-n Aguztuaren 4-an, Igorre-n Aguztuaren 11-an, Gernika-n Aguztuaren 19-an eta Bilbo-n Iraillaren 22-an. Bilbo-korako Bizkaiko Diputaziñoak amar milla peseta eta kopa bat emon deuskuz. Eskerrak emon bekioz.

Arantzazu-n Euskalzaleen biltzarra Iraillaren 30-etik Urriaren 2-ra egin da.

Tolosa-n Nikolas Ormaetxea "Orixe" zanari omenaldi bat egin jako Iraillaren 29-an bertako Oargi alkartadeagaz bat eginda.

Toribio Alzaga teatro sariaren barri emoten da. Arrue, San Martin eta Erkiaga jaunak erabagi dabe "Iru Alaba" titulua daukan lanari emotea aurten eta Agustin Zubikaray da egillea. Datorren urterako Domingo Agirre novela saria emon bedi Bizkaiko Ahorro Kaxearen laguntasuna ontzat artuta.

Euskaltzaindiko izentaziñoen gaiñean jardun da. Mitxelena zadorlaritzat. Erkiaga diruzaintzat, Aita Akesolo gutunzaintzat eta Irigoyen bigarren zadorlaritzat aurkeztu ditu Irigaray jaunak. Aita Onaindia-k eskuartean daukan paper batetik zerbait irakurri dau. Oleaga jauna bigarren zadorlaritzat aurkeztu dau eta arautegiak diñoanez ezta bearrezkoa Euskaltzaindiko barrukoa izan daiten leku ori beteko dauena. Firma batzuen izenak be irakurri ditu. Mitxelena zadorlari, Erkiaga diruzain eta Aita Akesolo gutunzain ago batez izentau dira. Bigarren zadorlariarena botoetara ipiñi da. Irigoyen-ek eztau botorik emon. Beste zazpi euskaltzaiñak onela emon dabe: Irigoyen-eri lau, Erkiaga-ri bat, Oleaga-ri bat eta beste bat zuria. Beraz, Irigoyen bigarren zadorlari izentauta gelditu da.

Batzarra amaitu ta gero Dassance, Lafitte eta Eppherre jaunen karta bar artu da. Ezin etorri direala batzarrera, eta, diñoe "segretario jeneral" gisa, Mitxelena jauna gogoz artuko leukiela.

Oi dan otoitzagaz asi eta amaitu da batzarra.

1963-XII-27

Donostia'n, Gipuzkoako Diputazioaren Jauregian, bildu dira, Lojendio, buru, Arrue, Diharce, Eppherre, Irigaray, Irigoyen, Larzabal, Lekuona, Mitxelena, Satrustegi, Villasante, euskaltzaiñak; Aresti, Berriotxoa, Labayen, A. Omaetxebarria, San Martin, A. Zabala, Zubikarai eta Zugasti urgazleak.

Azken batzarreko agiria ontzat artu baiño leen, Arrutza urgazlearen eskutitza irakurri da. Onen ustez, bidezkoak ziran Bilbao'n arturikako zenbait erabaki (zadorlari, diru- eta liburuzaiaren izendapenak), aldez aurretik iragarriak diran ezkero, bear bezala; ez, ordea, zadorlari-ordezkoaren izendapena, batzardeiak ezpaitzuen orrelakorik aipatzen.

Bildurik daudenen artean, bi iritzi agertzen dirala ikusirik, ixilleko botoetara jo da, eta Bordele'tik ezin etor zitekean Haritschelhar euskaltzaiñak bere boza agertzeko eskua Eppherre jaunari eman dio, eskutitz baten bidez. Iritziak onela jaso dira zuri bat, erabakiaren kontra iru, eta alde zazpi. Erabaki ori finkatua gelditzen da, beraz, eta Irigoyen zadorlari-ordezko izendatua.

Lojendio euskaltzainburuak du itza. Bi berri ematen ditu aurrenik aditzera: Katalina Elizogi euskal-antzerkigille ezagunaren eriotza eta Manuel Zelaya jaunak ondu berria duen Apokalipsis-aren euskal-itzulpena. Gero, bere buruzagitzaren epea betea dala deritzala dio. Eskerrak emanaz, Euskaltzaindiak bitarte orretan izan dituen gora beerak aipatzen ditu. Egun ederrak izan ditugu Belloke, Baigorri, Luzaide eta Azkain'en, baita ere Arantzazu'ko biltzarrean. Euskaltzaindi-barruko auzimauziak, ordea, eztira bear adiña garbitu: lekuko Azaroaren 7-an Akesolo, Erkiaga eta Gorostiaga euskaltzain bizkaitarrek egin duten izkribua, Euskaltzaindiarekiko aremanak bertan beera uzten dituztela adierazirik, Euskaltzainburua bere ibillalditik datorreiño. Aita Akesolo'k, gaiñera, atzoko egunez idatzi digu bere izendapenaz dituen duda-mudak azalduaz eta orrexegatik, beranduxamar ala ere, ezin ar dezakeala aditzera emanaz.

Oek lirake, bere ustez, egin bear lirakean urratsak:

1) Lendakariaren ordez, beste Akademietan bezala, zuzendaria ipiñi euskaltzaindian ere, euskaltzaiñik jakintsuena orretarako autatuaz;

2) orretan eta beste zenbait puntutan, araudia aldatu bear litzake, oraingoaren akats eta utsuneak baztertzeko. Buruzagitza uzteaz ezteritza kalterik egiten duenik, on baizik. Agur-itz oriekin Mitxelena zadorlariaren eskuetan uzten ditu arazoak.

Eskerrak ematen dizkio Irigaray'k eta bidenabar eskatzen apur bat iguriki dezan beste buruzagi egoki bat —baketzaillea, ez bereiztaillea— aurkitu arte. Orobat eskatzon diote zenbait euskaltzaiñek, itxedon dezan araudia eraberritu arte bederen. Lojendio, ordea dago, epea bete duelakoan, bilduak ao batoz bere asmoaren kontra

agertzen dira arren. Amor ematen ezpadute ere, bera lotu gabe izan dedilla eskatzen du.

Araudiaren eraberritzea ontzat artzen da, aurrerantzeko izendapen berriei dagokionez, batez ere. Orretarako sortu dan batzordea, Arrue, Lojendio eta Haritschelhar izan dira autatuak zadorlariarekin batera.

Diharce'k Bilbao'n egin ditezkean izendapenak aipatzen ditu. Beste zenbait iritzi agertzen dira gai orrezaz eta Lojendio'k, berriz ere an eta emen orri dagokiola izan dituen ar-emanak gogoratzen ditu. San Martin'en ustez, bear dugun bakea ezin erdiets zitekean alde bateko eta besteko sakrifiziorik gabe. Danok dugu orrexegatik bekatu pixka bat. Obe baita orrelakoetan garbi mintzatzea.

Edili S. A-ren Azaroaren 15-eko eskutitza irakurri da: Radio San Sebastian-en euskera irakasten astekoak dira, Oñatibia'tar Juan'en irakaspide berri baten bidez, eta euskaltzaindiaren babesa eskatzen dute orretarako. Baiezkoan erantzun bekio.

Orobat erantzun bekie Irun'go Kristau Eskolotako anaiei, oek ere euskal-ikastaldiak sortzeko asmoa baitute aur txikientzat.

Diru-gaietan, aditzera ematen du Irigoyen'ek 50.000 pezeta eman dizkiola bizkaiko Diputazioak Euskaltzaindiari, igaz bezala, Donostia'koen berri dakar zadorlariak, emengo Iriko Ahorro-Kaxak, eskabide baten ondoan, 5.000 pezeta eman dizkigula adieraziaz aurtengo, leengo 2.000-ren ordez.

Mondragoi'ko Sociedad Cultural "Juan Carlos de Guerra" sortu berriak Euskaltzaindiaren babesa eskatzen du bere lanetarako eskutitz batean. Zer-nolako asmoak dituzten azaltzen du Arrue'k eta ontzat artzen da ao batez eskabidea, gure izkuntzaren onerako izan ditekean aldetik.

Ontzat artu dira, zorionak emanaz eratzailleei, San Martin'ek aurkeztu dituen agiri eta diru-garbitzea Eibar'en, Euskaltzaindiaren izenean, Azaroaren 17'an egin zan bertsolari-saioari dagoztenak.

Association Internationale & Cultures Menacées delakoa Turku'n, Finlandia'n, sortu berria den elkargoaren deia irakurtzen da ondoren, Euskaltzaindiaren izena eta laguntza eskatuaz: Pierre Naert, linguista ezaguna gure saillean, da elkargo orren eragillea. euskualtzaleen biltzarrak eta Ikas'ek bere izena eskeiñi dutela dio Larzabal'ek. Lojendio'k eta Mitxelena'k diote atzeratua daukala Euskaltzaindiak aspaldi egin bear zukean eginkizuna: ongi ausnartu ondoren alde bateko eta besteko agintariei Euskaltzaindiak aurkeztu bear liokean eskabidea, alegia, gure izkuntzak iraun dezan egun bear ditugun baimenak eta laguntzak agertuaz. Orretara el ez gaitezeiño eztauzkagu zurituak geure buruak besterik egiteko. Nolanai ere, eta bat datoz guztiok orretan, edieraz bekio elkargo orri aintzat eta begi onez artu duela Euskaltzaindiak bere deia.

Jesus'en Konpaiñiako Aita Goikoetxea'ren eskutitza irakurri da. Arantzazu'ko euskaltzaleen biltzarrean Loyola'n egitea erabaki zan ezkero datorren urtekoa, Aguztuaren 21, 22 eta 23-ak eskeintzen dizkigu orretarako. Esker onez onartu da eskeintza. Biltzarre orretarako gaia finkatu bear litzake, ordea, ainbat lasterren. Euskal-atlas linguistikoa aukera diteke, San Martin'en ustez; beste zenbaitek, berriz, leen aipatu ditugun euskeraren aldeko eskabideak egokiago letorzketela uste dute. Nolanai ere, datorren batzarrerako utzi da puntu ori bear bezain astiro erabakitzea.

Oi dan otoitzaz asi eta bukatu da batzarrea.

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira: Dassance jauna, buru, Lafitte, Larzabal, Diharce, Villasante, Haritschelhar eta Irigoyen jaun euskaltzaiñak. Etxaniz, San Martin, Zugasti, Artola, Anai Berriotxoa, Loidi, Omaetxebarria eta Zavala jaun urgazleak.

Lojendio eta Mitxelena jaunak ezin etorria adierazo dabe gexorik dagozalako. Baita Eppherre eta Arrue jaunak be.

Ezta aurreko batzarreko agiririk irakurri eta urrengo batzarrerako itxi da.

Larzabal jaunak Euskaltzaindiari zuzendu deutsan izkribu bat irakurri dau. Bertan "Frantzia aldeko Eskual Herriko berri" emoten dau eta diño Baiona-n "Euskal Idazkaritza" deitzen dan batasun bat sortu dala eta bere biltokia Cordelieren karrikan, lumero amalauan daukala. Batasun orren asmoa da euskerearen eta euskalduntasunaren alde lanean ari diran guztiei laguntzea. Labeguerie jaunak egiten dau buru. Pozik ikusten dau Euskaltzaindiak euskerearen alde egin gura dabena.

Lafitte jaunak beste izkribu bat irakurri dau. Euskaltzaindiak Euskalerriko bost apezpiku jaunei karta bat zuzendu deien eskatzen dau. Azkenenko Kontzilioaren batzarretan, ain zuzen be, liturjia barriztetako erabagi batzuk artu dira eta ori oiñarritzat arturik euskerea gogoan artu daien eskatu bear jako aldakuntzak egiten dabezanean, eta Euskalerri osorako gauza bera ontzat artzea gauza egokia izango litzakeala, alderdi bakotxeko esateko moduak gordeaz, esan. Haritsohelhar jaunak frantsesez ipiñi dau bialdu bear litzakean kartea. Ontzat artu da eta gaztelaniaz ipiñi ondoan egin bedi eskabidea. Eskuz esku emon bekie apezpikuei.

Aita Zavala-k diño aurten Euskalerri osoko bertsolarien txapelketea egitea toketan dala. Datorren batzarrerako orren gaiñean asmo zeatz bat ekarri daien urrengo jaun oneik izentau dira: Dassance, Arrue, Irigoyen, Zavala, Artola, San Martin eta Juan M.ª Lekuona.

Aurten Agustuan Loyola-n egin bear dan Euskalzaleen biltzarraz berba egin da. Bertan erabiltzeko gai nagusia urrengo au izan bedi:

"Euskal irakurleak geitzeko bideak,
a) Euskera etxean
b) Euskera eskolan
d) Euskera radioan
e) Euskera gaurko liturjia berrian
f) Euskera teatroan
g) Irakurtzen asi berriak diranentzat literatura."

Irigoyen jaunak diño Urtarrillaren 26-an Euskaltzaindiak urtero egin oi dauen jaia egin dala Bilbo-ko Arriaga Teatroan. Ondarrutarrak Agustin Zubikaray-k osatutako "Seaska inguruan" obrea jokatu dabe. Erkiaga eta beraren artean igaz esamiñatu ziran bizkaiko neska mutillai sariak emon deutsiez. Aita Frantzizko Kortabitarte Jesusen Konpañiakoak sei milla ta bosteun peseta emon deutsoz Euskaltzaindiari eta dana partitu jake ume sarituei.

Bertso papel batzuk eldu dira bertsolarien klasean ari diranen poesia sarietarako. Norbait oraindiño bialtzeko dagoela diño Aita Zavala-k eta datorren batzarrean erabagiteko itxi da. Aurten be, lengo moduan, ipiñi bedi Lizardi poesia saria eta bertso papelena.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

1964-II-28

Donostia'n Gipuzkoa'ko Diputazioaren jauregian, bildu dira: Arrue, Dassance, Haritschelhar, Irigoyen, Lafitte, Larzabal, Lekuona, Lojendio, Nitxelena eta Villasante euskaltzaiñak; Aresti, Artola, Berriotxoa Anaia, Etxaniz, San Martin, Valverde, Aita Zavala, Zubikarai eta Zugasti urgazleak.

Igazko Abendu eta aurtengo Urtarrilleko batzar-agiriak onartu dira, irakurri ondoren.

Irigaray'k, izkribuz, ezin etorria agertu ondoren, zenbait oar ipintzen dizkio leen onartua izan zan Urrillaren 25-eko batzar-agiriari. Obeki zegokean, bere ustez, Altube'ren eriotz-berria onela adierazi balitz: "Altube jaunaren eriotzen aipatu zuen Irigaray jaunak, itz sentikorrak esanez, gure euskaltzain-kide guztiz agurgarriak utzi daukun utzunea deitoratuz eta haren euskeraren alderako ikasgai eta idazki sakonen aipamena eginez". Beste puntu batean ere aldatu egingo omen luke: "Euskaltzaindiko izentaziñoen gaiñean..."-en ordez, beste onetara ipiñiaz: "Euskaltzaindiko izendapenen saillean... eta Irigoyen zadorlari ordezkorako aipatu ziren joan den batzarrean, eta orain bototara erabakitzea garbiena iduri zait".

Oar oek ager bitez, guztion iritziz, batzarre onetako agirian; zillegi izan bekio zadorlariari, alaz ere, aurrerantzean labur-bearrez agiriak egitea, gora-beeraxe guztien berri eman gabe. Aita Onaindia'k batzarre orretan irakurri zuen papera, Irigoyen'ek dionez, etzuen emen utzi: eztaukagu, beraz aren berri zeatzagorik ematerik.

Lafon'ek bidali dio Euskaltzaindiari *Bulletin de la Sociêtê de Linguistique*-n argitara-berria duen idazlan bat. Eskerrak eman bekizkio.

Urtarrilleko batzarrean onartu zan Euskal-Erriko apezpikuenganako eskabideaz, Irigoyen'ek dio berak, Erkiaga eta Etxeandia lagun zituela, eman ziola eskuzesku Bilbao'koari; orobat egin dute Arrue, Lojendio eta Mitxelena'k Donostia'n. Bayona'koa ere apezpikuaren eskuetara dan ezkero, Vitoria eta Iruñe'ko eskabideak gelditzen dira bakarrik. Azkeneko onezaz, Irigaray mintzatua da bertakoekin egiteko ori leen-bait-leen egin dedin. Vitoria'n, dio San Martin'ek, López de Guereñu jauna gertu dago Euskaltzaindikoei laguntzeko arazo orretan.

Zadorlariak irakurri du "Fundación Juan March"-ek egin digun eskabidea, lagun bat auta dezagun "Vascongadas" saria, beste zazpirekin, nori dagokion erabaki bear duen epai-maierako. Irureun milla pezetako sari ori Araba-Bizkai-Gipuzkoan goratzapenetan, literaturaren bidez, geien nabarmendu dan idazle espaiñol biziari eman bear zaio.

Gero, zadorlariak eskabide orri baiezkoa ala ezezkoa bereala eman bear diogula adierazten du, baietzak naiz ezetzak bere ustez dituzten alde onak eta txarrak azalduaz.

Kontra mintzatzen dira, batez ere, San Martin eta Aresti, euskal idazleentzako ezpada, eztagokiola Euskaltzaindiari auzi orretan sartzen esanaz, eta beste zenbait arrazoibide. Alde mintzatzen dira Lekuona, Lojendio, Arrue eta beste zenbait. Ixilleko botoetara jo da eta bozak izan dira bederatzi baiezkoaren aldeko eta zuri bat.

Ao batez erabaki da gero Mitxelena bidaltzea Euskaltzaindiaren izenean. Eta orobat, ao batez au ere, agindu zaio gure izkuntzaren ona eta orren alde egin dan lana kontuan eduki ditzala bere jardunetan.

Zubikarai'k adierazten du mintzatua dala Bilbao'ko Akesolo eta Erkiaga euskaltzaiñekin. Batzuen iritziz, Euskaltzaindiak, zadorlaritza eta gaiñerako lanetarako, langille bat artzea ona litzake, eztana ez euskaltzain ez urgazle. Guztion arteko izketa labur baten ondoren, langille bat arizeak dituen aldeak, diru-aldetik batez ere, obeto aztertzea erabaki da datorren batzarren batetarako.

Araudiaren eraberritzeaz mintzatu dira Arrue eta Lojendio, prest dituzten idazlanak irakurriaz. Orien ondoren, araudi bakar bat bear gendukeala uste dute guztiok eta Arrue'k prestatu duen leen zatiaren antolamena zabal dedilla urrengo batzarretan puntuz-puntu aztertu eta erabakiak ar ditezen.

Villasante'k adierazten du gerra-ondoko agiriak,

Euskera-n argitaratzen asi ondoren, eztirala geiago agertzen. Euskaltzaindiak eztauzkalako izan da, erantzuten du Irigoyen'ek, Oleaga zenaren etxean baitago mordo bat. Eska bitez, aurrera ere argitara ditzagun.

Lojendio'ren ustez, erras komeni litzake Euskaltzaindiak "batzorde iraunkor" bat sortzea bere barruan batzar-bitartean sortzen diran arazoak erabaki ditzan. Orretan dago Zubikarai ere eta orretan daudela dio Akesolo ta Erkiaga euskaltzaiñak. Kontuan ar bedi, araudi berrirako.

Arrue mintzatzen da urren, bertsolari-batzordearen izenean, aurtengo txapelketak nola eratzen ari diran azalduaz. Ao batez artu dira ontzat bere esanak.

Larzabal'ek Baiona'n Euskal Idazkaritzak esku-artean dituen lanak aipatzen ditu, gure izkuntzaren batasunerako.

Irigoyen'ek dio bertso paperen sariketa erabaki bear dala: bost paper etorri dira guztira eta orien artean banatu bear dira lau sari. Bildu bitez arratsaldean bertan joan dan batzarrean bertsolarien arazorak izendatu ziranetatik al dutenak eta erabaki bezate.

Aita Villasante'ren eritziz, aalik lasterren asi bear litzake aurten Loiola'n egingo dan Euskaltzaleen biltzarrerako prestamenak egiten, bestela berandu ibilliko baitgera bestetan bezala. Orretan daude gaiñerako lagunak ere. Zadorlariak Jose Luis Lizundia'k idatzi duen eskutitza aipatzen du, orretan edo beste batzarre batean erriizenez trata dedin.

Irigoyen'ek gogorazten du aurten dugula Azkue, Txomin Agirre eta baita Unamuno'ren eun-urteurrena eta "Radio Bilbao"-tik izketaldiak egin dirala orien omenez. Ondarroa'n, Zubikarai'k dionez, jaiak ugari prestatu dira bertako seme duten Agirreren goratzarretan, eta Bizkai'ko bertsolarien azken-saioa an izan dedin eskatzen du. Euskaltzaindiak ere, guztion ustez, zerbait antolatu bear luke, batez ere Azkue'ren izenean.

Oi diran otoitzez asi eta bukatu da batzarrea.

1964-III-20

Donostia'n, Gipuzkoa'ko Diputazioaren jauregian, bildu dira: Arrue, Irigoyen, Lekuona, Mitxelena eta Villasante euskaltzaiñak; Berriotxoa Anaia, Etxaniz, Aita Larrañaga, San Martin eta Zubikarai urgazleak. Irigaray, Lojendio eta Satrustegui euskaltzaiñek, baita ere Arteche eta Zugasti urgazleek adierazi dute beren ezinetorria.

Otsailleko batzar-agiria irakurri ondoren ontzat artua izan da.

Arrue'ren eskabidez, eskutitza irakurri da: Euskaltzaindiaren babesa eta geriza eskatzen du Durango'ko "Tronperri" taldeak sortu nai dituen euskal-ikastaldietako. Oi bezela erantzun bekio baiezkoan.

Diez de Ulzurrun jauna medikuaren eskutitza irakurri da Irigaray euskaltzaiñarekin batean Iruñe'ko arzapezpikuari egin zioten ikustaldiaren berri emanaz. Euskaltzaindiaren eskaria eskura zioten eta arzapezpiku jaunak txit amultsuki artu zituen berak eta eskaria.

Araudiaren eraberritzeaz, beste zati bat ere antolatu du Arrue'k eta bere lanaren asmoak eta mugak azaltzen ditu. Leen iru kapituluen kopia zabaldua dan ezkero, izketagai izan dedin, azter bitzate guziok zeatz-meatz datorren batzarrean erabakiak ar ditezen. Norbaitek, ezin datorkelarik, bere iritziak azaldu nai baditu, egin beza izkribuz.

Urren, Loyola'n egitekoa dan batzarrea aipatu du Aita Villasante'k. Iragarri diran gaiez mintzatu da Arantzazu'koekin eta ez omen ditu prestegi arkitu, bear adiña oiñarri ematen eztutelako edo. Arrue'k, berriz, uste du an ageri dan eskola-gaiak berak naikoa lan eta geiegi emango duela. Beste dei bat zabaltzea erabaki da, gaiak geiago xeatuaz eta zer-nolako lanak ager ditezkean puntu bakoitzean azalduaz.

Aurten Txomin Agirre eta Azkue'ren eun urtegarrena dugun ezkero, orien omenez egin bear diran jaiak aipatzen dira. Ondarroa'n prestatu dituzten jai eta sariketa ugarien berri ematen du banan-banan Zubikarai'k. Atsegin biziz entzun dituzte guztiak bere esanak eta Azkue'ren omenez ere zerbait egin bear litzakeala erabaki da: Euskaltzaindia Bilbao'n bildurik, jairen bat antolatu beintzat.

Etxaide euskaltzainburu zanaren idazlan bat ekarri du bere seme Jon'ek. **Euskera**-n ager bedi.

Zadorlariak Lafitte'ren artikulua irakurri du, garoa ango euskalkietan nola adierazten dan azalduaz. Irakurri ondoren, mintzatu dira zenbait gai orrezaz.

Anaia Berriotxoak, gero, aspaldian eratzen ari dan kontuak buruz ateratzeko bideaz itzegin du. Zatika eta merke saltzeko asmotan ari dan kontuak buruz ateratze-

ko bideaz itzegin du. Zatika eta merke saltzeko asmotan artu du lan ori. Gogoz entzun dute guztiok eta Euskaltzaindiaren laguntza, bear balu, agindu zaio.

Euskaltzaindiaren bulego-lanez izan da urren izketa. Zadorlariak dio komeni litzakeala Euskaltzaindiko kargudunei eskua ematea, langilleren bat ar dezagun arte, lan jakiñak bein-beingo langilleei ematea eta ordaintzea; Bilbao'n, batez ere, diru-eta liburu-zaiak baren lanak artu eztituzten bitartean, orrelako zerbait bear-bearrezkoa da. Orrela erabaki da ao batez.

Zadorlariak aipatu du aldizkariren bat asi dala gure batzarren berri ematen. Esker onez ikusten dugu ori, baiña obe litzake, ezbearrik gerta eztedin, albiste oriek Euskaltzaindiak berak ematea edo, gutxienez, Euskaltzaindikoek ikustea agertu baiño leen. Orixe da guztion iritzia eta, iritzi orren arabera, onena litzake zadorlariak berak batzar-berriak antolatzea aldizkarietarako, orretarako astirik arkitzen baldin badu, Orrela asiko da egiten eta batzarre onetatik asi ere.

Oi diran otoitzez asi eta bukatu da batzarrea.

1964-IV-24

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, bildu dira: Irigoyen, Mitxelena, Satrustegi eta Villasante euskaltzaiñak. Aresti, Berriotxoa anaia, Etxaniz, Lekuona, San Martin, Zabala, Zubikarai eta Zugasti urgazleak Arrue, Irigaray, Lekuona eta Lojendio euskaltzaiñak ezin-etorria adierazi dute.

Araudiaren eraberritzeaz mintzatzea beste baterako uztea erabaki da lagun gutxi bildu diralako.

Ondarroarrak Domingo Agirre'ren omenez Bagillaren bigarren astean prestatu dituzten jaiak aipatu ditu. Beste eskabidez erabaki da erri artan bil dedilla Euskaltzaindia batzarre agirian il orren zazpian, Maiatzeko batzarrea illero bezala egin bearrean.

Bertsolari-txapelketa dala ta, lanak aurreratuxeak daudela dio Irigoyen'ek Bizkai-Nafarroetan; Gipuzkoan, berriz, zerbait erabaki bearra dagoela. Autatu diran errietako agintariei dagozten ezkabideak egin bekizkie, beraz, luzatu gabe.

Zenbait leku zeazkiro erabaki ez omen ziralako, gai ori darabilte bildu direnak. Azkenean, oexek autetsi dituzte leen-saioetarako: Andoain, Azkoitia, Beasain, Errenteria, Mondragoe eta Zarautz.

Zadorlariak aditzera ematen du datorren Uztaillean egingo dala Bilbao'n "XXVII Congreso Luso-Español para el Progreso de las Ciencias" dalakoa eta sail berezi bat izango duela bertan euskal-izkuntzak eta literaturak.

Berriotxoa anaiak, azkenik, kontuak buruz ateratzeko egiten ari dan euskalirakaspidearen berri ematen du. Atsegiñez entzun dute guztiok aur euskaldunentzat txit probetxazkoa izango dalakoan. Artola eta Loidi urgazleak izendatu dira, Euskaltzaindiaren izenean lan ori, egin-ala, ikus dezaten.

Oi diran otoitzez asi eta bukatu da batzarrea.

1964-VII-26

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, bildu dira: Dassance, Diharce, Irigoyen, Lafitte, Larzabal, Lojendio, Mitxelena eta Satrustegi euskaltzaiñak; Artetxe, Berriotxoa, Etxaniz, J. M. Lekuona, Loidi, Aita Zabala, Zubikarai eta Zugasti urgazleak. Ezin etorria azaldu dute Arrue, Irigaray eta Villasante euskaltzaiñak.

Apirilleko batzar-agiria onartua izan da aurrenik.

Bertsolari-sariketa dala-ta, Gipuzkoako zenbait erritatik artu diran erantzunak irakurri ditu zadorlariak. Gero Aita Zabala'k, batzordekoen izenean, Andoain'en egiu berria dan saioaz eta datorren igandean, illaren 28-an Mondragoe'n egingo danaz mintzatu da. Nafarroa-Bizkaietako saioak ere aipatu ditu Irigoyen'ek.

Gaiñera Aita Zabala'k Amezketa'n, Abuztuaren asieran, Pernando Amezketarrari egin nai dioten omenaldiaren berri eman du.

Eskea bidali du Arrue'k Euskaltzaindiak eskerrak eta zorionak eman dizazkion Zubikarai urgazleari Ondarroa'n, Domingo Agirre'ren goratzarretan, egin dituzten jai ederrakatik. Ao batez onartu da eskea.

Lekeitio'ko alkatearen gutuna irakurri da. Azkue'ren omenez prestatzen ari diran jaiak berriz ere aipatuaz, burubide-eske dator Euskaltzaindiagana sariketa eta euskal-ikastaldietarako. Erantzun bekio ahal dan laguntza eta babesa emanaz.

Vitoria'tik Odon da Apraiz urgazleak idatzi du Euskaltzaindiak eragin dizaion iri artako euskaltzaleek euskal-ikastaldiak sortzeko duten asmoari, leen izan baitira olakoak 1917 ezkero. Biderik zuzenea Araba'ko Ahorro-Kaxagana jotzea dan ezkero, egin bekio eskea zuzendariari.

Bizkai'ko Diputazioak Euskaltzaindiaren iritzia eskatu du M.ª Jesus Abasolo irakasleak euskeraz ba ote dakien erabaki dezan Gernika-Lumo'ko baserri-eskola batean irakasteko adiña. Bilbao'n egin bedi orretarako azterketa.

Eztabaida sortu da bi puntutan. Jakin nai litzake, aurrenik, ea zenbateraiñoko babesa eman dezakean Euskaltzaindiak euskal-eskola eta ikastaldietarako. Zadorlariak dio eztagoela, dirudienez, lege jakiñik orretarako eta Euskaltzaindiak, legearen aurrean eskubiderik eztuen ezkero, ezin dezakeala baimenik eman, itzala eta laguntza baizik, eskatu zaion aldi oro egin duen bezala. Gero, komeni litzake, zenbaitek dionez, Euskaltzaindiak gaitasun-agiriak ematea, era jakin batean. Orretarako, Anaia Berriotxoak eta zadorlariak presta bezate egin ditezkean azterketen era ta tajua.

Donostia'ko "Agora"-k eratu duen aurtengo euskal-eleberri sariketarako deia etorri da. Maiekoak batzarrean autatzeko astirik etzegoen ezkero zadorlariak erantzun du igazkoak berak izendatuaz, San Martin izan ezik, ezin dezakeala adierazi

baitu onek. Onako oek izan bitez, bada: Arrue, Irigaray, Loidi, Lojendio, Mitxelena. Igandean, illaren 28-an, izango da erabakia.

"Fundación Juan March"-i egin zaion galderaren erantzuna au izan da: "Vascongadas"-saria erabakitzea datorren udazkenerako geldituko dala noski.

Villafranca'ko "Ordizia-Esperanto-Grupo"-k Euskaltzainburuari leku bat eskeiñi dio datorren igandean an izango dan esperantista-batzarreko ohorezko batzordean. Baiezkoan erantzun bekie, eskerrak emanaz.

Araba'ko urgazleak aipatu diran ezkero, X. Diharze'k gogora dakar an dagoela orain, Estibariz'en, euskaltzale trebe eta jakituna dan Aita Isidro Basterrika. Urgazle berrien autaera Abuztuan egin bear dan ezkero, kontuan ar bedi orduan beronen izena.

Aurtengo "Lizardi" poesi-sarirako 16 olerki agertu dira. Epai maierako autatuak izan dira Fernando Artola, Aresti, J. M. Lekuona, Aita Onaindia eta Zubikarai.

Loiola'ko Aguztuko batzarrerako ezta lanik jaso, dio Irigoyen'ek, baiña bestetan ere, eztitu iñork bidali aldez-aurretik, batzarrera eraman baizik. Aita Zabala'k dio Aita Goikoetxea'rekin bear dugula mintzatu prestaretarako.

Araudiaz, zadorlariak adierazten du nola agertu ziran emen Haritschelhar, Lafitte eta Larzabal euskaltzaiñak Maiatzaren 29-an, illeroko batzarrea genduelak an. Haritschelhar'ek, urrengoan etortzerik etzuelakoan, bare iritzia azaldu zuen araudi eraberriturako aurkeztua dagoen 14-garren artikuluaren kontra: euskaltzain bein izendatu danak, euskaltzain bear du iraun bizi daiño, gerta ala gerta. Lojendio'k ere ezteritza ongi agertzen eztenari ordezkoa autatzeari, ordezko ori euskaltzain osoa bazainbatekoa bailitzake.

Bilbao'n, Indautxu'ko Aita Jesuiten Ikastetxea, urtero bezala, egin diran aurren euskal azterketez mintzatu da Irigoyen.

Berriz ere, Berriotoxoa Anaiak esku-artean dituen lanen berri adierazten du. Besteez gainera, aur euskaldunentzako (6-7 urtetakoentzako) idaz-saioak prestatzen ari da. Inprimatzeko eta zabaltzeko artu bearko diran bideak aipatu dira, Euskaltzaindiak ahal dezakean neurrian lagunduko diolakoan.

Oi diran otoitzez asi eta bukatu da batzarrea.

1964-VII-24

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, bildu dira: Arrue, Irigoyen, Lekuona, Mitxelena eta Villasante euskaltzaiñak; Aresti, Artola, Berriotxoa anaia, J. M. Lekuona, Aita Onaindia, San Martin, Aita Zabala eta Zubikarai urgazleak. Ezin etorria adierazi du aldez aurretik Lojendio eusakaltzaiñak.

Azken batzar-agiria onartu da. Orri buruz eta araudiaren eraberritzea dala eta, Arrue'k azaldu nai izan du Haritschelhar'ek azken batzarrean aotan artu zuen araudi berriko 14-garren artikulua eztagoela iñori bein aitortu zaion euskaltzaingoa kentzeko asmatua, argi eta garbi baitio euskaltzain izendatua izan danak euskaltzain iraungo duela bizi daiño. Beronek jakinerazi du Pernando Amezketarraren omenaldia Agorrillean izango dala, ez Abuztuan, eta Euskaltzaindiaren geriza eskatuko dutela orretarako.

Irigoyen'ek aditzera eman du nola egin dan Bilbaon Abasolo andereño irakaslearen euskal-azterketa.

Loiolan izango dugun batzarreaz, Aita Goikoetxea mintzatu da Aita Villasante'rekin eta zadorlariarekin ere egongo da, prestamenak egiteko. Lekuona euskaltzaiñak erderazko bat eredu arturik egin barria duen aur-liburua aurkeztu du, iritziemaille bat auta dedin, liburua ikusi ondoren aren berri Loyolan eman dezan. Berriotxoa Anaia autatu dute egiteko orretarako.

San Martin'ek gogorazten du beste billera batean, Bilbaon, Julene Azpeitia andreari eskatu zitzaiola gisa orretako libururen bat presta zezan eta, oraindik orain esan dionez, gerturik dadukala ia. Gogoz artuko du Euskaltzaindiak lan ori, aurrentzako irakurgaien bear gorrian gauden ezkero.

Aurtengo Agora'ren euskal-eleberri-saria, dio zadorlariak, Euskaltzaindiak autatu zuen epai-maiak Sebastian Salaberria'ri eman dio, *Neonek tirako nizkin* deritzan irakurgaiagatik.

Bertsolari-sariketa dala-ta, batzordekoek eman dute Errenterian atzo eta Mungian il onen 19-an egin diran saioen berri. Azkoiti'ko erriagintariek Aita Zabala'gana jo dute datorren illaren 9-a, igandea, autatu dutela esanaz ango saiorako. Baiezkoan erantzun bekie.

Azkena, Donostian, noiz izango dan Nafarroatik galdetu duten ezkero, Arrue'k dio bere iritziz, lehen bezala, urte-buruan bear lukeala izan.

Aita Zabala'k gero idazten ari dan lana irakurri du, bertsolari sariketetan erabakiak artzeko bear diran oiñarriak ipintzeko. Elkarrizketa luzea izan da orren inguruan eta azkenik eskatu zaio Aita Zabala'ri bukatu ondoren batzordekoen eskuetan utzi dezan bere lana oen iritzia jakin dezagun.

Aurtengo Lizardi poesia-saria emateko Aresti, Artola, J. M. Lekuona, A. Onaindia eta Zubikarai bildu dira. Saria Antonio Bilbao Monasterio, Morgakoak, eraman du "Loraen zugatza" olerkiarekin. Zenbait boto izan dituzte gaiñera Yon Ayertza (Tolosa), Victoriano Gandiaga (Arantzazu), Juan Jose Alberdi (Pasaia) eta Martin Ugalde'k (Brinkola).

Lekeitioko Ayuntamentuak izkribu bat egin dio Euskaltzaindiari ango euskal-irakastaldiei, "Cátedra Resurrección María de Azkue" izenarekin, bere itzala eman dizaion. Baiezkoan erantzun bekie.

Orobat erantzun bekio baiezkoan Buenos Airesko Jesus de Zabala Jaunari: ango euskal-elkargoek antolatu duten Azkue'ren omenaldirako zenbait itz bidaliko ditu, euskeraz, zadorlariak eta idazki batzuek ere igorriko zaizkie, Azkue zanak egin zuen lanaren berri ongi jakin dezaten.

Loiolan, dio zadorlariak, irakurriko du lantxo bat euskal-azterketei buruz, Berriotxoa Anaiaren laguntzarekin prestatua, gero Euskaltzaindiak arzaz erabaki dezan.

Zadorlariak oroitarazten du Euskaltzaindiaren bulego-lanen antolamena egiteko daukagula oraindik. Orrezaz mintzatu zaizkio, berriz ere, Bizkaiko "Junta de Cultura"-koak, Bilbaon izan berriak diran Euskal izkintza eta literaturarekiko izketaldietan. Nolanai ere, bear ori agirian dago eta orobat diote batzarkide guztiak. Irigoyen'i eskatu zaio, beraz, gai onezaz mintza dedin datorren batzarrean.

Oi diran otoitzez asi eta bukatu da batzarrea.

Donostia'n bildu dira, Diputazio-jauregian, Haritschlhar, Diharce, Irigoyen, Lafitte, Larzabal, Lekuona, Mitxelena eta Villasante euskaltzaiñak eta Artetxe, Artola, Berriotxoa anaia, Etxaniz, San Martin, Zubikarai eta Zugasti urgazleak. Arrue'k, Irigaray'k eta Lojendio'k agertu dute ezin etorria.

Zadorlariak prestatzeko astirik izan eztuelako, ezda irakurri azken batzaragiria.

Onek irakurri du *Zeruko Argia*'ren zuzendariari egin zion eskutitza, erabakiaren arabera, eta onegandik artu duen erantzuna.

Barcelona'ko Juan Flors jaunak, *Gero*-ren argitaratzailleak, egin duen eskutitza irakurri da. Mintzatu bearra dago Gipuzkoako Aurrez-kaxarekin, daukagun zorra ordain dezagun.

Jesus de Zabala jaunak idatzi du Buenos Aires'ko "Euskaltzaleak"-en izenean, gureari erantzunaz.

Lekeitio'ko erri-agintariek, Euskaltzaindiaren iritzia aintzat arturik, egin dute deia Azkue'ren omenez ipiñi dituzten ogeitabosna milla pezetako bi sarien baldintzekin.

Urgazle berriak autatzeko zenbait izen aipatu dira, lehenagokoez gaiñera. Onako oek izan dira azkenean autetsiak: Piarres Andiazabal, Ricardo Arregi, Julene Azpeitia andrea, Jose Basterretxea "Oskillaso", Aita Isidor Basterrika Estibariz'koa, Aita Etchehandi Beloke'koa, Aita V. Gandiaga Arantzazu'koa, Martzelino Garde apaiza, Jaime Kerexeta apaiza, Jose Manuel Lasarte Leitza'ko apaiza, Gerardo López de Guereñu Galarraga, Aita F. Mendizabal Arantzazu'ko, José Juan Bautista Merino Urrutia, Mari-Jeanne Minaberry "Andereño", Karlos Santamaria eta Ambrosio Zatarain.

Eskabide bat irakurri da, Arrue, Irigoyen, Lojendio, Mitxelena eta Villasante euskaltzaiñek izenpetua, Gipuzkoa'n euskaltzaindirako Antonio Maria Labayen, Juan San Martin eta Aita Antonio Zavala aurkeztuaz. Urrengo batean ar bedi erabakia.

Orretarako aukeratuak izan zirenak (Aresti, Irigoyen eta San Martin'ek) aurtengo "Domingo Agirre" eleberri-saria Txomin Peillen'en *Gauaz ibiltzen dana* deritzan eleberriari eman diote.

Berriz ere, Bilbao'ko Euskaltzaindiaren etxeko zadorlaritza eta bulego-lanez izan da solasa, lehengo erabakiak zeazki muga ditezen. Aita Villasante'k dio nabari dela eraberritze orren bearra: egoera txarrean gaude, besteak beste, diru eta liburuzaintza ere kargudunik gabe baitaude, artu ez dituzten ezkero izendatuek egotzi zitzaizkien eginbideak.

Aita Diharce'k dio Uriarte jauna euskaltzaindiko egin ez delako sortu direla sortu diren nahasmenduak. Orren aurka irten dira San Martin eta Aita Zavala: ez genduke orrela bakerik eta, orrezaz gaiñera, ainbeste euskaltzale dago, Bizkaiko urgazleak batez ere, merezimendu geiagorekin orretarako.

San Martin'en ustez, nora ezekoa da zadorlaritza-lanak eta gaiñerakoak ordaintzea; langille bat, laguntzaille bat, orretarako izatea ere bai. Aldez aurretik ongi mugatu bear dira, ordea, langille orrek nori eta zertan zor dion mendekotasuna. Orobatsu mintzatu da Zubikarai ere.

Azkenean, ao batez erabaki da laguntzaille ordaindu ori artzea eta San Martin eta Zubikarai urgazleoi eskatu zaie bere aldetik ere saia ditezen langille ori luzamendurik gabe idoro dedin.

Bertsolari-sariketaz, adierazi da noiz izango diren, Gipuzkoa'n, Zarautz eta Eibar'ko saioak.

Irakurri dira Euskal Idazkaritzak, Baiona'n, Agorrillaren 29-30-etan eratu zuen biltzarreko erabakiak gure izkuntzaren batasunerako. Eta Euskaltzaindiari dei egiten dioten ezkero, batzordea sortu da, erabaki oriek azter ditzan. Batzordekoak AA. Mendizabal, Onaindia eta Villasante eta zadorlaria gaiñera izango dira.

Irigoyen'ek oroitarazi ditu oraindik garbitu gabe ditugun aurtengo zorartzekoak.

Gero irakurri da Aita Intza euskaltzaiñak Chile'tik egin duen eskutitza eta orrekin batean bidali dituen idazlanak, **Euskera**-n ager ditezen. Eskerrak eman bekizkio.

Orobat egin bedi Guilsou apez jaunarekin, *Errantegia* deritzan lan eder eta aberatsa igorri baitio Euskaltzaindiari, euskal-esaerak bilduaz.

Besterik gabe, oi den otoitzarekin amaitu da batzarrea.

1964-XI-27

Donostia'n bildu dira, Diputazio-jauregian, Arrue, Haritschelhar, Irigaray, Irigoyen, Lafitte, Larzabal, Lojendio, Mitxelena, Satrustegi eta Aita Villasante euskaltzaiñak, eta Artola, Artetxe, Berriotxoa anaia, Etxaniz, San Martin, Zabala eta Zubikarai urgazleak.

Agorrilleko batzar-agiria onartua izan da; azkenekoa, berriz, Urrillekoa, urrengorako gelditu da.

Aita Villasante'k prestatu berria duen *Gero*-ren argitaraldiaz izan da izketa: nola ordainduko ditugun eta saldu Euskaltzaindiak erosi dituen 400 aleak. Zadorlariari baimena eman zaio datorren illaren asieran bidal ditzan 25.000 edo 30.000 pezeta. Euskaltzaindiaren dirutik, Barcelona'ko Juan Flors argitaratzailleari.

Bilbao'ko etxeko lanez mintzatu da gero Irigoyen. Egokiera bat izan da bear genduen langillea artzeko: Maria Angeles Alberdi, Gorozika'koa, euskaldun garbia eta maistra, orain Deustu'n ikasten ari dena.Ikastaldiak goizetik dituen ezkero, Euskaltzaindiko lanak arratsaldean ar ditzake. Irigoyen, San Martin eta Zubikarai'rekin alde batetik eta zadorlariarekin bestetik mintzatu ondoren, lanean asia da, 2.500 pezeta illean artuko dituelakoan. An guztia ontzat artua izan da, ao batez.

Gogora dakar Lojendio'k oraindik ere utsik dauzkagula diru- eta liburu-zaintza, izatez eta egitez beintzat. Guztion iritziz, idatzi egin bear die zadorlariak Aita Akesolo eta Erkiaga'ri eta baita ere Gorostiaga euskaltzaiñari, ea egoera orretatik irteteko biderik arkitzen ote den.

Bertsolari-sariketaz Arrue mintzatu da. Zarauz'koa egin ondoren, Gipuzkoa'n Eibar'ko saioa izango da datorren illaren 6-ean eta urrengo igandean, Tolosa'n, Gipuzkoa'ko azkena; urrengoan, berriz, Bilbao'n Euskalerri osoko azken-aurrekoa. Donostia'ko azkena, noski, Anoeta'ko pelota-plazan egingo da.

Pedro Díez de Ulzurrun urgazlearen eskutitza aipatzen du Irigoyen'ek: epaimaiekoen artean, azken-saioan agertu ditezkeanak. Larzabal'en iritziz, nori bere egitekoa egotzi bear litzaieke maikoei eta gero nork bere ustea agertu, aldez aurretik elkar artu gabe. San Martin'ek dio Bidasoa'z beste aldetik iru bertsolari bear genituzkeala gutxienez eta komeni dela emendik aurrera an ere emengo antzera egin dezaten txapelketa. Aita Zavala'ren ustez Gipuzkoa'ko bertsolariek besteek baiño ate estuagoa arkitzen dute azken-saioan, besteak baiño ugariagoak direlako: zuzenago litzake zenbakiaren arabera eta neurrira autatzea azkenekoan agertu bear dutenak.

Baioa'ko erabakien inguruan, iru iritzi irakurri dira: Aita Fernando Mendizabal'ena ez txit aldekoa eta Aita Villasante eta Mitxelena'rena, elkarren antzekoak eta, erabat esateko, erabaki oriek ontzat artzen dituztenak. Onenaz garbiago mintzatu bearko du Euskaltzaindiak urrengo batean.

Larzabal'ek, Iratzeder'en izenean, adierazten du Baiona'ko apezpikuak, Erroma'tik itzultzean, zabaldu duen berria: euskera ontzat artua izan dela Liturgiarako. Eta orrexegatik bearrezkoa litzakela beste eliz-barrutietako euskaldunentzat ere liturgigaiak ahalik eta berdintsuena ematea.

Komeni litzake, dio Irigaray'k, Iruñe'ko arzapezpikuari deiren bat egitea, Gipuzkoa'n ere liturgiaren euskeratze-lanak aurrera doazen ezkero. Bereala egin bear litzake dei ori, Satrustegi'ren ustez, urrengo urteberrietatik aurrera erdera Nafarroa'n sartzea erabakia dagoen ezkero, gero nekez aurkituko baitu gure izkuntzak lekurik. Guztion iritziz, eske ori egin bear da eta biderik egokiena dirudi zadorlariak Diez de Ulzurrun urgazleari agertzea Euskaltzaindiaren gogoa, berak eta berak deritzanek arzapezpikuarekin mintzatu ditezen.

Zubikarai'k dio badela datorren illean Ondarroa'n teatro eta olerki-sariketa. Epai-maiko autatu dira, lehenbizikorako, Iñaki Beobide, Manuel Ziarsolo eta Alfonso Irigoyen; bigarrenekorako, Aita Lino Akesolo, Fernando Artola, Juan Maria Lekuona, Juan San Martin eta Alfonso Irigoyen. Beste sariketa batzuek ere badaude eta ortarako Manuel Ziarsolo, Jesus Maria Arenaza eta Alfonso Irigoyen izendatu dira. Izen oriek eman bekizkio Ondarroa'ko alkateari.

Oi den otoitzarekin bukatu da batzarrea.

Donostia'n bildu dira, Diputazio-jauregian, Arrue, Dassance Haritschelhar, Irigoyen, Lafitte, Lojendio, Mitxelena eta Villasante euskaltzaiñak; eta Artola, Anaia Berriotxoa eta Etxaniz urgazleak.

Azken batzarreko agiria irakurria eta onartua izan da.

Gipuzkoa'ko Aurrezki-Kaxarekin izan diren ar-emanez mintzatu da Arrue: erabakia daukate 70.000 pezeta Euskaltzaindiari aurreratzea, korriturik gabe, *Gero*-ren zenbait ale erosteaz gaiñera. Agiria izenpetzea besterik ez da falta eta orretarako baimena eman zaio zadorlariari. Eskerrak eman bekizkio, Euskaltzaindiaren izenean.

Kontu berria zabaltzea erabaki da emengo Banco San Sebastian-en, Euskaltzaindiaren izenean, argitaraldi orren gora-beerak gaiñerako diru kontuetatik bereizteko.

Euskaltzain berrien autapena egin dute gero aurrean dauden zortzi euskaltzaiñek eta aurkeztuak zeuden iru urgazleek zortziña boto izan dituzte. Izendatuak gelditzen dira, beraz, euskaltzain onako iru lagun onek: Antonio M.ª Labayen, Juan San Martn eta Aita Antonio Zavala, S. I.

Eskerrak eman bear litzaizkiokeala, dio zadorlariak, Donostiako *El Diario Vasco* egunkariari euskeraren alde egin duen lan ederragatik. Orrela egin bedi eta eskerrak eman bekizkio orobat *Basque Eclair* deritzanari aspaldian agertzen duen euskaltzaletasunagatik.

Urrengo gaia bertsolari-txapelketaren azkena izan da. Arrue'k dio batzordekoek, gauzak ongi aztertu ondoren, Anoeta pelota-plazan egitea erabaki dutela, sarrera andia duelako, datorren urteko Urteberri egunean. Ortik Euskaltzaindiak jasotzen duen dirutik komeni iruditzen zaiela puska politen bat gordetzea, bertsolarien laguntzarako, bear orduetan eta nora jo izan dezaten.

Saioen asiera goizeko 11-etan eta arratsaldeko 4 t'erdietan izango da eta Euskaltzaindiak jasoko dituen sarreretatik, erabaki da zenbat emango diren doarik. Gaiñerakoak salgai egongo dira iru egunetan Diputazio-jauregi ontan bertan.

Irigoyen'ek gero aditzera eman du nola izan diren Bilbao'n urte-oroko aursariketak, eta sariak eman bear dirala; Ondarroan, datorren igandeko Lore-jokoetan, Aita Villasante izango da, Euskaltzaindiaren izenean. Ango sariak erabaki bear dituztenek orain bilduko dira, batzar-ondoren.

Irigoyen'k berak dio Diputazioak, bestetan bezala 50.000 pezeta emateaz gaiñera, agindu izan duela, itzez, beste orrenbeste emango dituela, Euskaltzaindiaren lanetarako. Irigoyen mintza bedi buruzagi den Ibarra jaunarekin ea zer jaso ditekean ikusteko.

Besterik gabe, oi den otoitzarekin bukatu da batzarrea.

milla peseta emon dabez, Teresa Rotaeche, Antonio Ariarte eta Juana Chalbaud-ek milla peseta eta Zeanuriko txapelketarako kopea, Bizkaiko Ahorro kaxeak milla ta bosteun peseta geiago Bilboko lenengo sariarentzat. Eskerrak emon bekiez. Modu berean eskerrak emon bekiez Bizkaiko Diputaziño, Bilboko Ayuntamentu, eta txapelketak egin zirean bost errietako Ayuntamentueri emon daben laguntasunagaitik.

Bedoña-ko jaialdiaz berba egin da. Oso ondo urten eban.Millaka persona joan zen "Loramendi" jaio zan etxeko zelaira. Eskerrak emon bekioz Bernabe Berecibar jaunari eta baita berari lagundu eutsan batzarrari ain ondo prestau dabezalako zeaztasun guztiak.

Eduardo Elizondo jaunak Neguri-tik karta bat zuzendu dau esanik Romo-ko parrokiako eskolan (Guecho) euskerazko eskola bat zabaldu gura dabela eta Euskaltzaindiaren babesa eskatuten dau. Erantzun bekio so ondo ikusten dauela Euskaltzaindiak eta prest dagoala euskereari jagokozan gauza guztietan laguntasuna emoteko.

Irigoyen-ek Pedro Diez de Ulzurrun-ek Iruñetik idatzi deutsan karta bat irakurri dau. Diño Nafarroan bertsolarien sariketak prestetan asi gura dabela eta Euskaltzaindia prestatzaille eta "Principe de Viana" laguntzaille izan daitezan gura leukiela. Diru kontua bertan erabagiko litzake, Euskaltzaindia nasai itxirik arlo orretan. Oso pozik eta esker onez ikusten da.

San Martin-ek Eibarko euskalzaleen batzarren gainean berba egin dau. Semendiaren 6, 7 ta 8-an izan leitekez. Azkenengo eguna euskal-jaiak egiteko itxi leiteke eta bezpera arratsaldea umeen euskerazko esamiñetarako. Gipuzkoako bertsolarien azken txapelketa nagusia domeka arratsaldean egin lei. Idatzi bekio "Caja de Ahorros Provincial"-ari sariak emoteko prest dagoen. Gipuzkoako Diputaziñoari makilla bat bertsolarien lenengo sarirako eskatu bekio. Euskalerriko txistularien alkartasunari txistularien konzerturako laguntasuna emon daien. Izlari guztiak batutakoan baimena eskatu bedi.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.